

AITZBITARTE III (EUSKAL HERRIA)
GIZA AZTARNAK
26.000 - 13.000 Bp
(Barrunbea)

OCUPACIONES HUMANAS EN
AITZBITARTE III (PAÍS VASCO)
26.000 - 13.000 Bp
(Zona Profunda de la cueva)

Jesús Altuna
Koro Mariezkurrena
Joseba Ríos
Aixa San Emeterio



EKOB

EUSKAL KULTURA ONDARE BILDUMA
COLECCIÓN DE PATRIMONIO CULTURAL VASCO

EKOB

EUSKAL KULTURA ONDARE BILDUMA
COLECCIÓN DE PATRIMONIO CULTURAL VASCO

8

Aitzbitarte III (Euskal Herria)
Giza Aztarnak
26.000 - 13.000 BP
(Barrunbea)

Ocupaciones Humanas en
Aitzbitarte III (País Vasco)
26.000 - 13.000 BP
(Zona Profunda de la cueva)

Jesús Altuna

Koro Mariezkurrena

Joseba Ríos

Aixa San Emeterio

con la colaboración de

P. Areso, L. Llorente, A. Morales, F. Ríos, E. Roselló, A. Uriz

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Dirección de Patrimonio Cultural

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:
1.a, 2017ko martxoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. ©
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I. 01010 Vitoria-Gasteiz

Itzulpena:
LUMA, Hizkuntza Zerbitzuak

Fotokonposaketa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Edición:
1.ª, marzo 2017

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Departamento de Cultura y Política Lingüística
www.euskadi.net

Edita:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I. 01010 Vitoria-Gasteiz

Traducción:
LUMA, Hizkuntza Zerbitzuak

Fotocomposición:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

AURKIBIDE OROKORRA

1. INDUSKETA ARKEOLOGIKOAK AITZBITARTE III HAITZULOAREN BARRUNBEAN	9
<i>Jesús Altuna</i>			
2. JALKINEN AZTERKETA	21
<i>Pablo Areso eta Ana Uriz</i>			
3. HARRIZKO INDUSTRIAK	31
<i>Aixa San Emeterio eta Joseba Ríos</i>			
4. HEZURREZKO INDUSTRIA	187
<i>Federico Ríos</i>			
5. MAKROUGAZTUNAK <i>Jesús</i>	247
<i>Altuna eta Koro Mariezkurrena</i>			
6. HEGAZTIAK	317
<i>Laura Llorente eta Arturo Morales</i>			
7. ARRAINAK ARRAINAK	331
<i>Eufrasia Roselló eta Arturo Morales</i>			
LABURPEN OROKORRA	339
<i>Jesús Altuna, Koro Mariezkurrena, Joseba Ríos eta Aixia San Emeterio</i>			

ÍNDICE GENERAL

1. EXCAVACIONES ARQUEOLÓGICAS EN LA ZONA PROFUNDA DE LA CUEVA DE AITBITARTE III	<i>Jesús Altuna</i>
2. ANÁLISIS SEDIMENTOLÓGICO	<i>Pablo Areso y Ana Uriz</i>
3. LAS INDUSTRIAS LÍTICAS <i>Aixa</i>	<i>San Emeterio y Joseba Ríos</i>
4. LA INDUSTRIA ÓSEA	<i>Federico Ríos</i>
5. LOS MACROMAMÍFEROS	<i>Jesús Altuna y Koro Mariezkurrena</i>
6. LAS AVES	<i>Laura Llorente y Arturo Morales</i>
7. LOS PECES	<i>Eufrasia Roselló y Arturo Morales</i>
RESUMEN GENERAL	<i>Jesús Altuna, Koro Mariezkurrena, Joseba Ríos y Aixia San Emeterio</i>

Administrazioak egiten dituen jarduera batzuek ez dute zuzenean eraginik herritarrengan, ezta oihartzun handirik ere. Jarduera horietako bat, adierazgarrienetakoa, ikerkuntza-arloa sustatzeko laguntza da. Ikusgarritasun urrun hori, ordea, guztiz aldatzen da telebistan aurkikuntza berezi baten berri ematen digutenean, museo edo erakusketa bat bisitatu dugunean, edo gure seme-alaben ikasliburuetakoa arlo ilunak ikertzaileek aurkitutako nobedadeen bidez argitzen edo aldatzen direnean. Horrelakoetan, gertu eta ikusgai sentitzen ditugu ikerkuntza-aren emaitzak. Ikerketa horiek, ia beti, erakunde publiko baten laguntza jaso dute, era batera edo bestera.

Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikerketa sustatzeko zenbait ildotan jarduten du; eskuetan duzun liburua, hain zuzen ere, horren adibide ona da.

Gure herrialdeko arkeologian Aizpitarteko multzo karstikoa oso garrantzitsua da. Gainera, azken garaiotan paleolitikoko artearen lagin esanguratsuak aurkitu dira bertan, eta era nabarmenean handiagotu dute multzoak sortzen duen interesa.

Honen bitartez aurkeztu dugun azterlana Aizpitarteko III. haitzuloari buruzkoa da, eta sailak haitzulo berari buruz argitaratu zuen beste liburu baten osagarria da. Koordinatzaileak J. Altuna eta K. Mariezkurrena izan dira. Azterlana, eremuko eta laborategiko ikerketa luze eta arduratsuen ondorioa ez ezik, diziplina anitzeko talde zabal baten emaitza ere bada. Talde-lan hori gaur egun ezinbesteko dugu, inoiz bestela izan bada.

Areso-k eta Uriz-ek alderdi geologikoak aztertu dituzte; San Emeterio-k eta J. Ríos-ek, industria litikoa; F. Ríos-ek, hezur-industria; koordinatzaileek berek, ugaztun handiak; Llorente-k eta Morales-k, hegaztiak; eta Roselló-k eta Morales-ek, arrainak. Azkenik, Altuna-k eta Mariezkurrena-k horren guztiaren laburpen orokorra egin dute azken kapituluan.

Gure arbasoek garai hartan eta leku hartan izan zuten bizitzaren alderdi guztiak arakatzeko hamabi ikertzaile aditu horien taldeak. Argitaratu berri den lan hau ireki, eta aurkibidea irakurtzen baduzu, ez dituzu inon topatuko «gizona» edo «makumea» hitzak; bai, ordea, hainbat arlotako ezagupen panoplia oso zabala, ikerketaren bidez osatuta. Horiek guztiek gure arbasoen iragan urruneko erradiografia osatzen dute; eta gu, haien oinordekoak garen heinean, iragan horren zati gara.

Horregatik, krisiak ikerkuntza-eremua gogor astindu eta astintzen duen arren, geure burua zoriondu behar dugu oraindik ere gure batzuk baititugu, non ikertzaileek, gogo handiz eta erakundearen laguntzaz, gure iragana –gu geu– aztertzeke eta ulertzeke aukera duten.

Algunas de las actividades que realiza la administración no son percibidas ni tienen una repercusión directa en la ciudadanía. Uno de los ejemplos más claros de ello son las labores de apoyo al ámbito de la investigación. Esta falta de visualización, o lejanía de la actuación, se rompe, sin embargo, cuando en televisión aparece la noticia de un hallazgo singular; cuando visitamos un museo o una exposición. También ocurre cuando los libros de textos de nuestros hijos e hijas se modifican con novedades y campos antes oscuros, ahora iluminados por la actuación de nuestros investigadores e investigadoras. En estos casos, casi siempre hay una institución pública apoyando de una u otra manera la investigación realizada.

El Departamento de Cultura y Política Lingüística tiene varias líneas de actuación orientadas a impulsar la investigación, este libro es un buen ejemplo de ello.

Aizpitarte es un conjunto kárstico importante en la arqueología de nuestro país. Su indudable interés se ha visto reforzado en los últimos tiempos con el descubrimiento de muestras relevantes de arte paleolítico.

El estudio que aquí presentamos sobre Aizpitarte III, complemento de otro volumen sobre la cavidad ya publicado por este departamento, ha sido coordinado por J. Altuna y K. Mariezkurrena. Es el fruto, no solo de muchas horas de paciente investigación de campo y de laboratorio, sino también del trabajo de un amplio equipo multidisciplinar, imprescindible hoy en día, si es que alguna vez no lo ha sido.

Areso y Uriz analizan los aspectos geológicos; San Emeterio y J. Ríos, la industria lítica; F. Ríos, la industria en hueso; los propios coordinadores se encargan de analizar los grandes mamíferos; mientras que Llorente y Morales estudian las aves, y Roselló y Morales se encargan de los peces. Para finalizar, un capítulo, firmado por Altuna y Mariezkurrena, recoge un compendio general de todo ello.

Esta decena de especialistas forman un equipo que desgrana todos los aspectos de la vida de nuestras y nuestros ancestros, en este periodo y lugar. Quien abra el índice de esta obra no encontrará la palabra hombre o mujer en él; pero tras la investigación realizada, que ahora se publica, se acumula toda una panoplia de conocimiento en diversos ámbitos. Todas ellas forman la radiografía de nuestros antecesores y nuestras antecesoras en un pasado remoto, del que hoy en día somos igualmente partícipes, como herederos y herederas del mismo.

No nos queda más que felicitarlos porque, pese a la crisis que ha golpeado y golpea con tanta fuerza a todo el ámbito de la investigación, aún haya huecos donde, con esfuerzo, dedicación y apoyo institucional, especialistas de distintos ámbitos desgranaran nuestro pasado, es decir, a nosotros mismos.

1



Foto: J. Altuna

INDUSKETA ARKEOLOGIKOAK AITZBITARTE III HAITZULOAREN BARRUNBEAN

EXCAVACIONES ARQUEOLÓGICAS EN LA ZONA PROFUNDA DE LA CUEVA DE AITZBITARTE III

Jesús Altuna

*Arkaios ikerketak. Arkeozoologia laborategia / Laboratorio de Arqueozoología
Mendigain, 30 · 20014 Donostia-San Sebastián · altuna@arkaios.com*

INDUSKETA ARKEOLOGIKOAK AITZBITARTE III HAITZULOAREN BARRUNBEAN

LABURPENA

Aitzbitarte III haitzuloaren barrunbean bideratutako indusketen berri eman ez ezik, induskatutako eremuaren deskribapena, induskatutako mailen izaera eta maila horiei dagozkien erradiokarbono-datazioak eskaintzen dira hemen. Gravette aldikoak dira mailen zati nagusiak, eta Gravette alditik Solutre aldirako eta azken horretatik Behe Madeleine aldirako aldetaren presentzia ahul batean du amaiera sekuentziak.

GAKO-HITZAK

Euskal Herria, Aitzbitarte Haitzuloa, Indusketa arkeologikoak, Gravette aldia, Erradiokarbono-datazioak.

EXCAVACIONES ARQUEOLÓGICAS EN LA ZONA PROFUNDA DE LA CUEVA DE AITZBITARTE III

RESUMEN

Se da cuenta de las excavaciones llevadas a cabo en la zona profunda de Aitzbitarte III, área y descripción de la zona excavada, naturaleza de los niveles excavados y dataciones radiocarbónicas de los mismos. La parte principal de los niveles pertenece al Gravetiense, concluyendo la secuencia en una débil presencia de tránsito del Gravetiense al Solutrense y de éste al Magdaleniense Inferior.

PALABRAS CLAVE

País Vasco, Cueva de Aitzbitarte, Excavaciones arqueológicas, Gravetiense, Dataciones radiocarbónicas.

ARCHAEOLOGICAL EXCAVATIONS IN THE INNER SECTOR OF THE AITZBITARTE III CAVE

ABSTRACT

We describe the excavations taken place inside the cave of Aitzbitarte III. We describe the excavated area, the nature of the levels and the radiocarbon dates. The principal part of the levels corresponds to Gravettian period with a slight transit to Solutrean period and from this to early Magdalenian period

KEYWORDS

Basque Country, Aitzbitarte III Cave, Archaeological excavations, Gravettian, Datations:

SARRERA

Orain dela 5 urte diziplinarteko lan luze bat eman genuen argitara Aitzbitarte III haizuloan bideratutako indusketen eta lan haietan berreskuratutako era askotako materialen inguruan (Altuna, Mariezkurrena, Ríos, 2011). Lan hartan haizuloaren sarreran eta 1994 eta 2002 urte bitartean egindako indusketara mugatu ginen. Baina indusketa lan horiek egin baino lehen, beste indusketa batzuk egin zituzten 1986 eta 1993 urte bitartean haizulo horren barrunbean. Indusketa haietan lortutako materialak eta emaitzak dakartzaugu orriotara.

Memoria honetara ez dugu Aitzbitarteko muinoko haizulo hauetako aztarnategien aurkikuntzaren historia ekarri, ez eta lehendik eta batik bat IV haizuloan bideratutako indusketen historia ere, eta III haizuloan induskatzen hasteko arrazoien berri ere ez dugu emango, hori guzti hori aipatu argitalpenaren lehenengo kapituluan azaldu baikenuen.

Eta ez dugu haizuloaren kokalekua zehazten ez eta hari leku egiten dion bailara deskribatzen ere, horiek ere aipatzen ari garen lanaren II. kapituluan azaldu baikenituen.

Besterik gabe, aipatzen ari garen liburuaren berri ez dute nentzat, esan dezagun muino malkartsu batean dagoen haizulo luze eta handia dela Aitzbitarte III, Errenteriako udalerrian dagoela, Euskal Herriko ekialdeko muturrean, Pasaia-Lezoko portu naturalari sarrera egiten dion kostaldetik 6,2 km-ra.

INDUSKETEN HISTORIA ETA JALKINAREN DESKRIBAPENA

Putzuz beterik zegoen haizuloaren barrunbean induskatu beharreko eremua, aztarnategia aurkitzeko xedean bideratutako estrategia kontuan izanik ustez aztarnategi garrantzitsu bati leku egiten zion eremua (aipatu lanaren I. kapituluan azaldua), ezinezkoa zen lan egitea. Ura ateratzeko, kanal txiki bat ireki genuen aukeratutako lekutik haizuloaren mendebaldeko hormaren ondoan dagoen zuloraino. Kanal horretan harrizko piezak (zulakaitzak, marruskak, bizkardunak) eta hezurrak (abelgorrienak, oreinenak eta sarrioenak) geratu ziren agerian.

Zeregin hori, sarrerako hesiaren instalazioa eta induskatu beharreko eremua argitzea izan ziren 1985. urtean haizuloan bideratutako lehenengo miaketa kanpainaren funtsezko egitekoak. Kanpaina hartan, gainera, lan egiteko egokiena zen eremua mugatu eta laukitan banatu genuen, hurrengo urteei begira. Bestalde, sabaitik zintzilik, indusketa lan osoan zehar laukiak mugatuko zituzten berunak egokitu genituen. Plastikozko olana handi batez estali genuen indusketa eremua, sabaitik jausten zen itogin oparoa arestian adierazitako kanalera bideratzeko.

Horrenbestez, 60G laukitik 52D laukira doan kanal batera mugatuta geratu zen drainatzeko erretena.

Haitzuloaren barrunbeto indusketa lanei 1986. urtean eman genien hasiera (1. eta 2. irudiak, eta 1. eta 2. argazkiak).

42 m²-ko azalera hartu zuen haizuloko sarreratik 60 metro dagoen eremu horrek. Metro koadroko laukietan banatu genuen, 3. irudian adierazten den bezala.

Azalen eta mailen arabera bideratu genuen indusketa.

INTRODUCCIÓN

Hace ahora 5 años publicamos un extenso trabajo interdisciplinar acerca de las excavaciones llevadas a cabo en la cueva de Aitzbitarte III y de los materiales diversos recuperados durante ellas (Altuna, Mariezkurrena, Ríos, 2011). En esa publicación nos limitábamos a las excavaciones realizadas a la entrada de la cueva entre 1994 y 2002. Pero antes de esas excavaciones se practicaron otras en la zona profunda de la misma cueva entre 1986 y 1993. Son los resultados y materiales obtenidos en estas excavaciones los que presentamos aquí.

No incluimos en esta memoria la historia del descubrimiento de los yacimientos de estas cuevas en la colina de Aitzbitarte, ni las excavaciones llevadas a cabo anteriormente, en especial en la cueva IV, ni las razones por las que se emprendió la excavación de la cueva III, porque de todo ello se dio cuenta en el primer capítulo de la publicación citada.

Tampoco incluimos la situación de la cueva y la descripción del valle en el que se encuentra, porque también ello fue expuesto en el capítulo II de la obra que venimos citando.

Simplemente indicamos para los no conocedores de esta publicación, que Aitzbitarte III es una larga y extensa cueva que se abre en una colina abrupta situada en el municipio de Rentería, en el extremo oriental de Gipuzkoa (País Vasco), a 6.2 km de la costa actual, que se encuentra en el puerto natural de Pasaia-Lezo.

HISTORIA DE LAS EXCAVACIONES Y DESCRIPCIÓN DEL RELLENO

La zona a excavar en esta parte profunda de la cueva, que parecía contener un yacimiento importante habida cuenta de la estrategia seguida para el descubrimiento del yacimiento (capítulo I de la obra citada), estaba totalmente encharcada, de forma que era imposible trabajar en ella. Para desaguarla abrimos un estrecho canal desde la zona elegida a una sima próxima situada junto al muro W de la cueva. En este canal salieron piezas líticas (buriles, rapadores, dorsos) y huesos (de bovino, ciervo y sarrío). Todos ellos aparecen siglados con Ait III Cl, indicando que son del canal de limpieza o desagüe.


Esta tarea, junto a la instalación de la verja de entrada y la iluminación de la zona a excavar, fue lo que constituyó fundamentalmente la primera campaña de prospección de la cueva, llevada a cabo el año 1985. En ella se delimitó además y se cuadrículó la zona más adecuada de trabajo para los años sucesivos. Se instalaron también, desde el techo, las plumadas que delimitarían los cuadros durante toda la excavación. La zona a excavar se cubrió con una amplia lona de plástico, que condujera el abundante goteo precedente del techo hacia la zona del canal antes mencionado.

La zanja de drenaje quedó así delimitada a un canal que va del cuadro 60G al 52D.

La excavación propiamente dicha en esta zona profunda de la cueva la iniciamos el año 1986 (figs. 1 y 2 y fotos. 1 y 2).


Esta zona se extendió a 42 m² de superficie, situados a 60 m de la entrada a la cueva. La subdividimos en cuadros de 1 m² tal como se indica en la fig. 3.

La excavación se realizó mediante lechos y niveles.




1. irudia. Haizuloaren plano, 1950eko indusketak (I), 1985. urtetik aurrera nola sarreran hala barrunbean bideratutako indusketak adierazita.

Figura 1. Plano de la cueva con indicación de las excavaciones de 1950 (I) y las zonas excavadas a partir de 1985 tanto a la entrada como en el interior:



2. irudia. Barrunbean induskatutako eremuaren plano, lauki bakoitza induskatu zen urtea adierazita.

Figura 2. Plano de la zona excavada en el interior; con los años en que fue excavada cada parcela.



3. irudia. Aitzbitarte III haizuloaren barrunbean induskatutako eremua laukitan banatuta, induskatutako laukiak adierazita (x).

Figura 3. Cuadrícula de la parte excavada en la zona profunda de la cueva de Ait III con indicación de los cuadros excavados (x).



1. argazkia. Haitzuloaren barrunbean induskatutako eremua, sarreratik ikusita.

Foto 1. Zona profunda de excavación en la cueva, tomada desde la entrada.



2. argazkia. Barrunbean induskatutako eremua.

Foto 2. Zona profunda de excavación.

Maila esaten diogu makroskopikoki bereizitako unitate estratigrafiko bakoitzari; mailak bereizteko jalkinaren nolokotasunari begiratzeko zaio, lurraren koloreari, bloke edo harkoskoen kopuru handiagoari edo txikiagoari, eta abar. Zenbaki erromatarrek ipini dizkiegu, gainazaletik hasita.

Azal esaten diogu maila bakoitzean altxatzen dugun unitate konbentzional bakoitzari. Maila zenbat eta lodiagoa izan orduan eta azal gehiago izango dira, eta zenbat eta meheagoa izan orduan eta gutxiago. Zenbaki arabiarrek ipini dizkiegu, gainazaletik hasita.

3. irudi honetan ikusten diren laukiak ez dira berdin induskatu. Estratuak hobeto irakurtzeko xedean, 59S laukian agerian utzi genuen I. mailako gainazala (hortaz, I. azala baizik ez genuen induskatu, gainazaleko maila mehe eta modernoak eraturiko azala) (2. argazkia).

58S laukian 2. eta 3. azalak hartu zituen I. maila induskatu genuen. Horrenbestez, II. mailako gainazala geratu zen agerian (4. azala) (4. argazkia).

59R laukian II. maila induskatu genuen, hau da, 4. azala, 5. azalaren gainazaleraino, azken hori III. mailaren gainazala dela (5. argazkia); bloke handiek eratuta dago.

58R laukian IV. mailaren gainazaleraino induskatu genuen (6. azalaren gainazala); ondo-ondoan dauden harri xabal txikiak osatuta dago.

57Q laukian V. mailaren gainazalera arte induskatu genuen (7. azalaren gainazala).

Denominamos *Nivel* a cada una de las unidades estratigráficas que han podido distinguirse macroscópicamente por la naturaleza del relleno, el color de la tierra, la cantidad mayor o menor de bloques o cantos que encierra etc. Los numeramos con números romanos, comenzando desde la superficie.

Denominamos *lecho* a cada una de las unidades convencionales que levantamos en cada nivel. Serán más si el nivel tiene mucha potencia y menos si tiene poca. Los numeramos con números arábigos, comenzando desde la superficie.

No todos los cuadros que aparecen en esta figura 3 han sido excavados por igual. Con la finalidad de leer mejor los estratos, en el cuadro 59S se dejó a la vista la superficie del nivel I (de manera que solamente se excavó el lecho I, que estaba constituido por un fino nivel superficial moderno) (fot. 3).

En el cuadro 58S se excavó el nivel I, que abarcó los lechos 2 y 3. De esta forma quedó a la vista la superficie del nivel II (lecho 4) (fot. 4).


En el cuadro 59R se excavó el nivel II, es decir el lecho 4, hasta la superficie del lecho 5, que es así mismo la superficie del nivel III (fot. 5), constituido por grandes bloques.

En el cuadro 58R se excavó hasta la superficie del nivel IV (superficie del lecho 6), constituido por pequeñas lascas yuxtapuestas, junto a algunos bloques (fot. 6).

En el cuadro 57Q se excavó hasta la superficie del nivel V (superficie del lecho 7).




3. argazkia. I. mailaren gainazala. / Foto 3. Superficie del nivel I.



4. argazkia. II. mailaren gainazala. / Foto 4. Superficie del nivel II.



5. argazkia. III. mailaren gainazala. / Foto 5. Superficie del nivel III.



6. argazkia. IV. mailaren gainazala. / Foto 6. Superficie del nivel IV.

57P laukian IV. mailaren gainazalera arte induskatu genuen (9. azalaren gainazala).

Azalak beti induskatu genituen hasitako mailaren malda jarraitzen ahaleginduz. Aldaketa sedimentologiko bat sumatzen bada, azalaren indusketa geldiarazten da puntu horretan. Orduan, maila baten lodiera aldatzen bada hainbat puntutan, mehea den lekuetan lodiagoa den lekuetan baino azal gutxiago induskatzen dira. Halaxe gertatzen da VI. mailarekin 63. bandako laukietan, maila hori mehea baita eta 13 azaletan iristen baita VII. mailara (antzia oinean), beste laukietan 17 azaletan iristen den bitartean. 59O laukiari leku egiten dion aldean azpil sakon antzeko bat eratzen zuen VI. mailak, eta 17a, 17b, 17c... gisa adierazi genituen azken azalak, 18. azala VII. mailarako (maila antzia) utzi baikeuen leku meheetan.

Honako hauek dira jalkinaren ezaugarri makroskopikoak:

Azaleko maila (1. azala) gaur egungo geruzatxo organiko fin eta iluna da. Alde batzuetan, esaterako 62N laukian, lodia goa da.

I. maila. Lur kolorez horia, hareatsua, garbia, harroa, induskatzen erraza. Batez beste 3 cm lodi da. Azal bat (2. azala) altza genuen. Alde batzuetan maila hori falta da, esate baterako 61-62O, 61-62P, 61-62-63Q eta 57-58Q laukietako atal batzuetan eta horien mugetan, eta egungo azaleko geruzatxoaren

En el cuadro 57P se excavó hasta la superficie del nivel VI (superficie del lecho 9).

Siempre se excavaron los lechos procurando seguir la inclinación del nivel que se inicia. Si se detecta un cambio sedimentológico se detiene la excavación del lecho en ese punto. De ahí que si un nivel tiene grosores distintos en distintas zonas, en la zona de poca potencia se excavan menos lechos que en la zona más potente. Así ocurre con el nivel VI en los cuadros de la banda 63, donde este nivel es delgado y se llega al nivel VII (estéril de la base) en 13 lechos, cuando en los demás cuadros se llega en 17 lechos. En casos como en la zona del cuadro 59O el nivel VI formaba una cubeta honda, con lo que los últimos lechos se denominaron 17a, 17b, 17c..., dado que al nivel VII (estéril) ya se le había asignado el lecho 18 en las zonas de poca potencia.

Las características macroscópicas de este relleno son las siguientes:

El nivel superficial (lecho 1) es una fina capita orgánica, negruzca, actual. En algunas zonas como en 62N es algo más potente.

Nivel I. Tierra amarillenta, arenosa, limpia, suelta, que se excava fácilmente. Tiene una potencia de 3 cm de media. Se levanta en un lecho (lecho 2). En algunas zonas, como en partes de los cuadros 61-62O, 61-62P, 61-62-63Q y 57-58O, así como en los limítrofes a ellos, falta este nivel y bajo la capita

azpian zuzenean ageri da II. maila iluna (4., 5. eta 6. irudiak eta 7. eta 8. argazkiak). Industria- eta fauna-aztarna gutxi ditu (guztira 15). Aztarna horiek adierazten dute edukia nahasita duen maila dela, arrastearen iritsitako materiala dela, *Bos taurus*, *Ovis aries-Capra hircus* eta *Sus domesticus* bezalako animalia etxekotuen aztarnen ondoan animalia etxekotuen garaiarekin bat ez datozen animalien aztarnak azaldu baitziren, esate baterako askoz ere lehenago iraungi zen *Ursus spelaeus* espeziearenak. Espezie horri dagozkion hiru hortz aurkitu genituen: P⁴ eta P₄ bana eta esneko bat. Beraz, maila honetara elementu modernoak eta ez hain modernoak ez ezik beheko mailetak antzinarako elementuak ere iritsi dira.

II.-III. maila. Lur lohitsu, pikortsua, kolorez iluna, I. mailatik bereizten erraza. Harroa da eta haren baitan lur honen oinean atsedean hartzen duten eta erraz askatzen diren harkoskoak eta blokeak azaltzen hasten dira. Hasiera batean II. maila esan genion I. mailaren azpian agertzen zen lur ilunari. Han agertzen ziren blokeen goiko aldeak. III. maila esan genien bloke horiei, baina multzo osoak unitate bakarra osatzen du. Batez beste 6 cm lodia da, eta 3 azalera (3., 4. eta 5. azalak) eratuta dago. Aurreko mailaren aldean, nabarmen emendatzen dira industria- eta fauna-aztarnak. Hezur leunduak eta harrizko pieza altxatuak ikusten dira hor, eta horiek maila hein batean nahasiko zuen jardura hidrikoa salatzen dute. Bestalde, basurdearekin baino etxeko txerriarekin hobe uztartzen diren bi pieza daude. Lehen ere esan dugu induskatutako eremuaren gune zabal batzuetan egungo gainazalera azaleratzen dela maila hori, ez dagoela I. mailak eta gainazalekoak estalita (4., 5. eta 6. irudiak).

IV. maila. Lauzadura baten modura, elkarren ondo-ondoan dauden harri xabal txikiak eraturiko geruza fina da. Kareharrizkoak dira harri xabal edo laua txiki gehien-gehienak, baina badira hareharrizkoak eta bestelakoak ere, tartean matrize gutxiarekin, hein handi batean konkrezionaturik; zail da induskatzen. Matrizea marroi-horia da kolorez. Induskatutako eremu osoan zabaltzen da, K eta L bandetako 57-59 laukietan izan ezik (7. irudia eta 6. eta 9.-12. argazkiak). Batez beste 4 cm lodia da. Azal bakar bat hartzen du (6. azala).


IV. mailako laua txikiko zoru horrek jatorri antropikoa du itxuraz, lauzatxoak elkarren ondo-ondoan egokituta daudelako, K eta L bandetan horrelakorik ez dagoelako eta kareharrizkoen artean hareharrizko lauzatxo batzuk daudelako, baita esne itxurako kuartzo zati bat ere haien artean. II.-III. mailaren aldean gehiago dira industria- eta fauna-aztarnak. Aztarna ho-

superficial actual se encuentra directamente el nivel negruzco II (figs. 4, 5 y 6 y fotos 7 y 8). Contiene poca industria y pocos restos faunísticos (15 en total). Estos indican que es un nivel de contenido revuelto, de arrastre, ya que junto a restos de animales domésticos como *Bos taurus*, *Ovis aries-Capra hircus* y *Sus domesticus*, hay otros que no caben en épocas con domesticación, tales como *Ursus spelaeus*, que se había extinguido mucho antes. De esta especie han aparecido 3 piezas dentarias: un P⁴, un P₄ y un canino de leche. Esto indica que no solamente se han introducido en este nivel elementos más o menos modernos, sino que también han venido a parar a él elementos antiguos de niveles inferiores.


Nivel II-III. Tierra limosa, granujienta, de color oscuro muy fácil de distinguir del nivel I. Es suelta y en su seno van apareciendo cantos y bloques que descansan en la base de esta tierra y se sueltan fácilmente. En un comienzo denominamos nivel II a la tierra oscura que aparecía bajo la amarilla del nivel I. En ella aparecían las partes superiores de los bloques. A estos bloques llamamos nivel III, pero todo ello forma una unidad. Tiene unos 6 cm de potencia media y se levanta en 3 lechos, (lechos 3, 4 y 5). Aumenta notablemente la industria y la fauna respecto al nivel anterior. En él se observan huesos rodados y piezas líticas desconchadas, que indican una actividad hídrica que pudo alterar parcialmente el mismo. Por otro lado hay dos piezas que concuerdan mejor con el porcino doméstico que con el jabalí. Ya hemos indicado anteriormente que en amplias zonas de la parte excavada este nivel emerge a la superficie actual, sin estar cubierto por el I y el superficial (figs. 4, 5 y 6).

Nivel IV. Se trata de una fina capa de pequeñas lascas yuxtapuestas a modo de empedrado. La gran mayoría de estas lascas o plaquetas son de caliza, pero algunas son de arenisca o de otra índole, con poca matriz intercalada, en buena parte concrecionada y difícil de excavar. Esta matriz es de color marrón amarillento. Se extiende a toda la zona excavada, salvo a los cuadros 57-59 de las bandas K y L. (fig. 7 y fotos 6 y 9-12). Tiene unos 4 cm de potencia media. Se levanta en un lecho (lecho 6).


La formación de este suelo de plaquetas del nivel IV, parece de origen antrópico, a juzgar por su disposición yuxtapuesta, por la ausencia del mismo en las bandas K y L y por la presencia de algunas plaquetas de arenisca entre las de caliza, incluso de un trozo de cuarzo lechoso entre las mismas. Aumentan la




7. argazkia. Q/R profila 61 laukian.
Foto 7. Perfil Q/R en el cuadro 61.




8. argazkia. 57/58 profila P eta Q laukietan.
Foto 8. Perfil 57/58 en los cuadros P y Q.



4. irudia: 57/58 banden arteko profila O-P-Q laukietan zehar. / Figura 4. Perfil entre las bandas 57/58 a lo largo de los cuadros O-P-Q.



5. irudia: 61/62 banden arteko profila N-O-P laukietan zehar. / Figura 5. Perfil entre las bandas 61/62 a lo largo de los cuadros N-O-P.



6. irudia: Q/R banden arteko profila 61-62-63 laukietan zehara. / Figura 6. Perfil entre las bandas Q/R a lo largo de los cuadros 61-62-63.

riek batik bat lauza txikien artean ageri dira. Segur asko haizuloko biztanleek paratuko zituzten lauza horiek, eta ekintza horrek nahasi egingo zuen, hein batean, maila hau, eta agian baita V. mailaren gainazala ere. Azken horretan testuingurutik kanpora zegoen ereinotz-hostoa IV. mailatik etorria izan liteke. Mailaren meheak edo lodiera apalak (4 cm) ahalbidetuko zituen nahasketa horiek.


Bestalde, II.-III. eta IV. mailetatik jasotako laginekin lortutako erradiokarbono-datazioek adierazi berri ditugun irregulartasunak iradokitzen dituzte.

V. maila. Lur horiagoa, hareatsua, era berean konkrezionatua, harkosko txiki poliedriko irregular askorekin. Alde batzuetan, lur konkrezionatu gormixkak eta burdintsuak eraturiko geruzatxo fin bat hautematen da oinean. 6 cm lodi da batez beste. 2 azalez

industria y la fauna con respecto al nivel II-III. Los restos aparecen preferentemente entre las plaquetas. La probable colocación de estas plaquetas por parte de los habitantes de la cueva pudo alterar algo el nivel, e incluso la superficie del nivel V. Una hoja de laurel presente en este último, fuera de contexto, pudo provenir del IV. La delgadez o reducida potencia del nivel (4 cm) pudo favorecer estas alteraciones.


Por otro lado las dataciones radiocarbónicas de estos niveles II/III y IV denotan estas anomalías que indicamos

Nivel V. Tierra más amarillenta, arenosa, también concrecionada, que alberga numerosos cantos pequeños poliédricos irregulares. En algunas zonas, en la base hay una fina capita de tierra rojiza, ferruginosa, concrecionada. Tiene 6 cm de espesor




7. Irudia. IV. mailako lauza txikien plano partziala.


Figura 7. Plano parcial del nivel de plaquetas IV.




9. argazkia. Lauza txikien maila 57Q laukian.
Foto 9. Nivel de plaquetas en el cuadro 57Q




10. argazkia. Lauza txikien maila 58N laukian.
Foto 10. Nivel de plaquetas en el cuadro 58N.



11. argazkia. Lauza txikien maila 61O eta 61N laukietan.
Foto 11. Nivel de plaquetas en el cuadro 61 O y 61N.



12. argazkia. Lauza txikien maila 57N laukian.
Foto 12. Nivel de plaquetas en el cuadro 57N.



13. argazkia. Indusketa lanei ekiten 59M eta 60M laukietan.
Foto 13. Comienzo de la excavación en los cuadros 59M y 60M.

eratuta dago (7. eta 8. azalak). Nabarmen emendatzen da industria- eta fauna-aztamen kopurua. Maila honetan badira gune karbonotsuak eta erretako hezurak, batez ere 59P laukietan inguruan. Noailles zulakaitzen kopuru handiak (piezen erdia baino gehiago landuta daude) Gravette aldira eramaten gaitu.

Vla. maila. Lur hareatsu-lohitsu, horia, harroa, maila honetan induskatutako lehenengo azaletik aurrera askatu egiten diren harkosko eta bloke gutxi batzuekin. Erraz induskatzen da. Mailaren lodiera asko aldatzen da leku batetik bestera. Lauki batzuetan 20 cm lodi da, beste batzuetan oso fina den bitartean edo horrelakorik ez dagoen bitartean (4., 5. eta 6. irudiak). Oso lur ilun eta karbonotsua eta ikatz zati txikiak dauzkan gune bat dago 59P laukian, 59Q eta 60P laukietara zabaltzen da. Ez da sutegi-egiturarik bereizi, lurra bertan egindako su batetik etorria bada ere. Bertan azaldu dira industria- eta hezur-aztama gehienak. Lodiera irregularra izanik, gune batzuetan azal 1 induskatu genuen, baina beste batzuetan 6 azal. Azken horiek, gehien-gehienak halakoak baitira, 9.etik 14.era arteko azalak hartzen dituzte (7. argazkia). Horietan azaldutako industriak, Noailles zulakaitzak nagusi, Gravette aldirakoak direla adierazten du.

Vlb. maila. Lurra ilunxeagoa da, hareatsu-lohitsu, harroa, bloke eta harkosko batzuekin, induskatzen erraza. Aldeen arabera, lodiagoa da edo meheagoa, gehienez ere 18 cm lodi da eta lauki batzuetan ez dago horrelakorik; horietan zuzenean VII. mailaren gainean hartzen du atseden VIa mailak. VII. maila antzu hori 18. azalean iritsi zenez Vlb maila ez dagoen lekuetan edo maila hori oso mehea den lekuetan, 17a, 17b, 17c eta abar deitu genien Vlb maila lodiagoa zen guneetako azalei. 17. argazkiak erakusten du azaldu berri dugun estratigrafia. Kultura aldetik atxikitzeari dagokionez, oso antzekoa da aurrekoaren aldean, ugari dira Noailles zulakaitzak, era berean aurrekoaren antzeko Gravette aldia iradokitzen dutenak.

VII. maila. Lur horia, pikortsua, errekarri txiki askorekin. la antzua. Bi azal (18. eta 19. azalak) induskatu genituen lauki gehien-gehienetan, eta 2 m²-ko azalera zuen indusketa sakon bat egin genuen 58 P-Q laukietan. 20. eta 21. azalak VII. mailakoak ziren. 18. azalean, hezur-printza zehaztu gabe batzuen artean, erretako (kiskalitako) hezurrezko 5 printza txiki zuri azaldu ziren; segur asko Vlb mailako sutegetatik etorriak ziren, alde horretan mailaren gainerakoan baino sakonagoak baitziren.

Indusketa horretan, VII. mailaren azpian beste maila antzu bat geratu zen agerian (VIII. maila), harkosko handiekin eta hareharritzko bloke leunduekin eta tuparritzko harri xabal txiki askorekin (4. irudia eta 8. argazkia). Triasikoko hareharri gorriak dira harkosko leundu batzuk, halako hareharriak daude hai-

medio. Se levanta en 2 lechos (lechos 7 y 8). Aumenta notablemente la industria y la fauna. Hay también en este nivel algunas zonas carbonosas y huesos quemados en especial en torno al cuadro 59P. La gran abundancia de buriles de Noailles (más de la mitad de las piezas talladas) le asigna al Gravetiense.

Nivel Vla. Tierra arenoso-limosa, amarillenta, suelta, con algunos escasos cantos y bloques que van soltándose desde el primer lecho excavado en este nivel. Se excava fácilmente. La potencia del nivel varía mucho de unas zonas a otras. En algunos cuadros alcanza un grosor de 20 cm y en otros es muy fina y hasta nula (figs. 4, 5 y 6). Hay una zona muy oscura de tierra carbonosa y pequeños fragmentos de carbón en el cuadro 59P, que se extiende a 59Q y 60P. No se han distinguido estructuras de hogar; aunque esta tierra proviene de fuego en el lugar. Es en esta zona donde más industria y restos óseos han aparecido. Dada la irregularidad de su potencia, se excava en 1 lecho en algunas zonas y en 6 lechos en otras. En estos últimos, que son la mayoría, abarca los lechos 9 a 14 (fot. 7). La industria aparecida en él, con un gran dominio de buriles de Noailles, indica su pertenencia al Gravetiense.

Nivel Vlb. Tierra más oscura, arenoso-limosa, suelta, con algunos bloques y cantos, fácil de excavar. Es también de potencia muy distinta según las zonas, alcanzando la máxima los 18 cm y faltando en algunos cuadros, de manera que el nivel Vla descansa directamente sobre el VII. Como este nivel VII, casi estéril, fue alcanzado con el lecho 18 en los cuadros en que el Vlb no existe o es muy fino, fuimos denominando 17a, 17b, 17c etc. a los lechos en que el nivel Vlb era más potente. La foto 7 muestra la estratigrafía indicada. Respecto a su adscripción cultural, es muy semejante al anterior; con una gran abundancia de buriles de Noailles, que le asignan también a un Gravetiense análogo al del nivel anterior.

Nivel VII. Tierra amarillenta, granujienta, con muchas guijas pequeñas. Casi estéril. Se excavaron dos lechos (lechos 18 y 19) en la mayoría de los cuadros y se hizo una cata profunda de 2 m² de extensión, en los cuadros 58 P-Q. Los lechos 20 a 21 seguían perteneciendo al nivel VII. En el lecho 18 aparecieron, entre otras esquirlas de hueso no determinables, 5 pequeñas esquirlas de hueso quemados en blanco (calcinados), provenientes probablemente de los hogares del nivel Vlb, que en esa zona eran más profundos que en el resto del nivel.

En esta cata, bajo el nivel VII, apareció otro, estéril (nivel VIII), con grandes cantos y bloques rodados de arenisca y muchas lajitas de marga (Fig 4 y Fot. 8). Algunos de los cantos

tzuloen oinetan luzatzen den errekaetan. 26. azalerara arte sakondu genuen, errekarriek induskatutako eremu osoa hartu zuten arte. Energia hidrikoak oso handia behar zuen errekarri handi horiek bertaraino iristeko. Eta harkosko horietako askoren izaerari erreparatuz gero, errekaetan berak utziko zituen hor itxura guztien arabera, hori bai, errekaetan gorago zegoenean eta haitzuloan sartu zitekeenean.

rodados son de arenisca roja triásica, existente en el curso superior del torrente que discurre al pie de las cuevas. Profundizamos hasta el lecho 26 y los cantos rodados invadieron por completo todo el campo de la cata. El tamaño de estos cantos exigieron mucha energía hídrica para llegar hasta aquí. Ello unido a la naturaleza de muchos de ellos, parece indicar que fueron depositados por el torrente mismo, cuando discurría a mayor altura y podía penetrar en la cueva.

ERRADIOKARBONO-DATAZIOAK

Bat izan ezik, Uppsalako Unibertsitateko Svedberg (AMS) laborategian egin dira erradiokarbono-datazio guztiak. Hona hemen emaitzak:

III. m.	IV. mailako lauza txikien laginak: 13.870 ± 130 BP (Ua-3119) 18.270 ± 220 (Ua-3116)
IV. m.	IV. mailako lauza txikien laginak: 16.015 ± 185 BP (Ua-3117) 22.840 ± 315 (Ua-3118)
V. m.	24.910 ± 770 (I-15208) 23.230 ± 330 (Ua-2243)
VI. m.	21.130 ± 290 (Ua-1917) 24.545 ± 415 (Ua-2626) 24.635 ± 475 (Ua-2627) 23.830 ± 345 (Ua-2628) 25.380 ± 430 (Ua-2244) 24.920 ± 410 (Ua-2245)

II.-III. eta IV. maila dagozkien datazioek denbora-tarte handiegia hartzen dituzte, segur asko haieran dauden nahasketak eta intrusioak direla-eta, maila horiek aztergai izan ditugunean adierazi dugun bezala.

Maila Iodienei dagozkienak, V. eta VI. maila dagozkienak, koherenteagoak dira elkarren artean, VI. mailako 21.130 alde batera utzirik.

III. kapituluaren industria aztertzen duen atalean, iruzkin gehiago egingo dira datazio horien inguruan.

DATAZIOEN DE RADIOCARBONO

Todas las dataciones de radiocarbono (Altuna, 1992), salvo una, han sido realizadas en el laboratorio Svedberg de la Universidad de Uppsala (AMS). Los resultados son los siguientes:

n. III.	Muestras sobre las plaquetas del n. IV: 13.870 ± 130 BP (Ua-3119) 18.270 ± 220 (Ua-3116)
n. IV.	Muestras entre las plaquetas del n. IV: 16.015 ± 185 (Ua-3117) 22.840 ± 315 (Ua-3118)
n. V.	24.910 ± 770 (I-15208) 23.230 ± 330 (Ua-2243)
n. VI.	21.130 ± 290 (Ua-1917) 24.545 ± 415 (Ua-2626) 24.635 ± 475 (Ua-2627) 23.830 ± 345 (Ua-2628) 25.380 ± 430 (Ua-2244) 24.920 ± 410 (Ua-2245)

Las dataciones referentes a los niveles III/IV y IV abarcan períodos de tiempo excesivamente amplios, debido probablemente a las alteraciones e intrusiones existentes en los mismos, tal como hemos indicado al hablar de ellos.

Las referentes a los niveles más potentes V, y VI son más coherentes entre sí, salvo la de 21.130 del nivel VI.

Más comentarios sobre estas dataciones, se darán en el capítulo III referente al estudio de las industrias.

BIBLIOGRAFÍA

- ALTUNA, J. 1992. Dataciones de radiocarbono para el Perigordense Superior del País Vasco. *Munibe (Antropología-Arkeología)* 44, 31-32.
- ALTUNA, J., MARIEZKURRENA, K. & RÍOS, J. 2011. Ocupaciones humanas en Aitzbitarte III (País Vasco) 33.600 – 18.400 BP (Zona de entrada de la cueva). *EKOB* 5, 536 pp.

2




Foto: J. Altuna

AITZBITARTE III BARRUNBEA JALKINEN AZTERKETA

AITZBITARTE III. ZONA INTERIOR ANÁLISIS SEDIMENTOLÓGICO

Pablo Areso, Ana Uriz

*Aranzadi Zientzia Elkarteak / Sociedad de Ciencias Aranzadi
Zorroagagaina, 11 · 20014 Donostia-San Sebastián*

AITZBITARTE III BARRUNBEA. JALKINEN AZTERKETA

LABURPENA

Lan honetan Aitzbitarte III aztarnategiaren barrunbeko indusketan jasotako laginen analisi granulometrikoaren eta sedimentologiakoaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Hiru une bereizten dira, isurketaren indar handiagoarekin edo txikiagoarekin bat egiten dute horiek, eta neurri eta jatorri ezberdineko elementuen metaketa ahalbidetu dute. Amaitzeko, haitzuloko alde honetako jalkinak aurreko azterlan batean aztertutako sarrerako jalkinekin erlazionatzeko saio bat egingo dugu.

GAKO-HITZAK

Sedimentologia, Euskal Herria, Goi Pleistozenoa.

AITZBITARTE III. ZONA INTERIOR. ANÁLISIS SEDIMENTOLÓGICO

RESUMEN

En este trabajo se expone el resultado del análisis granulométrico y sedimentológico de las muestras recogidas en la excavación de la zona interior del yacimiento de Aitzbitarte III. Se distinguen tres momentos que se corresponden con diferente energía de la escorrentía y que ha permitido la acumulación de elementos de tamaño y origen diferentes. Para terminar se intenta relacionar la sedimentación en esta zona de la cavidad con la ocurrida en la zona de la entrada y que se estudió en un trabajo anterior.

PALABRAS CLAVE

Sedimentología, País Vasco, Pleistoceno superior.

AITZBITARTE III INSIDE AREA. SEDIMENTOLOGICAL ANALYSIS

ABSTRACT

This work presents the result of particle size analysis and sedimentology of samples collected in the Archaeological site of Aitzbitarte III in the inside area. Three moments corresponding to different energy of flow have been distinguished and have allowed the accumulation of elements of different size and origin. To finish it tries to relate the sedimentation in this area of the cave with the one that had occurred at the entrance had been studied in a previous work.

KEYWORDS

Sedimentology, Basque Country, Upper Pleistocene.

J. Altunaren zuzendaritzapean egindako indusketen emaitza sedimentologikoak ezagutzera eman dira.

Haitzuloko sarreratik aztertzeko laginak bildu genituen bezala, bost lagin hartu genituen barrunbea esaten diogunetik. Aztarnategiko aurreneko laginen azterketan erabilitako metodologia eta bibliografia bera erabili genuen; emaitzen argitalpean deskribatzen dira.

Se dan a conocer los resultados sedimentológicos de las excavaciones realizadas bajo la dirección de J. Altuna.

A la vez que se recogieron las muestras para el estudio de la zona de entrada de la cueva se tomaron cinco muestras de lo que se ha llamado zona interior. La metodología y la bibliografía empleada es la misma que la que se utilizó en el estudio de las primeras muestras del yacimiento y que se describe en la publicación de los resultados.

EMAITZAK

Barrunbean eta zorutik sabaira honakoak bereizten ditugu:

	% harkoskoak cantos	% hartxintzarlar gránulo.grs	% Hartxintzar xeh gránulo.fn	% harea arena	% lohia+buztina limo+arcilla	% >2mm	% <2mm	% CO ₃ ⁼	pH
57Q Va	20	7,8	9,7	39	23	38	62	1,29	7,73
57Q Vb	26	11	9,6	36	18	46	54	1,56	7,79
57PVI a	4,7	4,2	7,5	43	41	16	84	0,84	7,67
57PVI b	11	5,1	7,7	46	30	24	76	2,50	7,71
57Q terraza	13	4,0	2,9	25	55	20	80	0,24	7,65

1. taula. Emaitzen taula orokorra.

Tabla 1. Tabla global de resultados.

	kareharria caliza	konkrezioa concreción	kuartzitak cuarcitas	hareharriak areniscas	lutitak lutitas	noduluak nódulos	Ekarpen aloktonoak Aportes alóctonos
57Q Va	2,0	15	9,5	1,0	7,1	2,7	20
57Q Vb	9,9	0	9,4	9,4	13	3,3	35
57PVI a	0	0	0,81	9,5	6,1	0	16
57PVI b	0	0	0,41	13	7,3	3,1	24
57Q terraza	0	0	0,14	10	9,7	0	20

2. taula. Material larrien litologia.

Tabla 2. Litología de los materiales gruesos.

	% hareak arenas	% lohiak limos	% buztinak arcillas	Q50 mm	% Hareak / Arenas			Hareen estatistika / Estadística arenas					
					Larriak Gruesas	Ertainak Medias	Xeheak Finas	Q50	So	Mz	sailk clasif	SkI	K
57Q Va	63	15	22	0,14	24	39	37	0,26	0,84	1,81	1,29	-0,14	1,07
57Q Vb	68	21	11	0,16	24	41	35	0,26	0,81	1,77	1,32	-0,19	1,09
57PVIa	51	32	17	0,06	27	39	34	0,28	0,89	1,67	1,37	-0,13	1,02
57PVIb	60	28	12	0,13	32	36	33	0,32	1,01	1,60	1,38	-0,03	0,90
57Q terraza	31	39	30	0,01	23	24	53	0,19	1,07	2,13	1,54	-0,28	0,90

3. Taula. Material xehearen granulometria.

Tabla 3. Granulometría de la fracción fina.

57 Q LAUKIA.TERRAZA

Bloke handi leundu asko dagoen gunea. Kolore marroi eta horiko (10YR 5/8 Munsellen eskalan) blokeen arteko matrizea analizatu genuen.

2 mm baino larriagoak diren materialek laginen % 20a hartzen dute, harkoskoak dira % 13 eta hartxintxarrak % 4 eta 3, baina materialen artean sekula ez da kareharririk ageri; hareharriak eta lutitak dira nagusi. Harkoskoen artean handiagoak diren zatiak aurkitzen ditugu, biribilduta eta hautsita daude. Gehienak zapalak dira formaz. Hartxintxarrak ere material berekoak dira, harri xabal txiki eta lauak dira, aski biribilduak, azala apur bat limonitizatuta dutela. Itxura guztien arabera, halako indarrak jaitsiko zen kanpoko errekaak ekarritako materialak dira.

Hareak, lohiak eta buztinak modu orekatuan ageri dira, hori bai, gehiago dira lohiak, % 39, "oso lohitsuatzat" jo daiteke. Matrizearen % 55 hartzen dute harea xeheek eta lohiek. Aztertutako beste laginek ez bezala, zati xehearen batez bestekoa lohien neurriari dagokien 0,01 mm-ko kalibrean dago.

Hareen azterketak adierazten dizkigu, aztertutako gainetako laginen aldean, okerreko sailkapen bat eta asimetria negatibo bat, hau da, material xehean nagusitasuna uzten digu agerian eta kurbaren muturra harea larrienetara hurbiltzen dela ikus dezakegu. Neurrien nahasketa horrek ingurunekeo energian gertatutako aldaketak iradokitzen ditu. Hezetasun handiko unea da. Errekastoa haizuloan sartu eta blokeak eta harkoskoak utzi zituen bertan, eta ur lohitsuak dekantatu egin zituzten material xeheak.

57 P LAUKIA.VIB MAILA

Kolorez marroi hori iluna da, Munsellen araberako eskalan 10 YR 3/6. VIa mailaren antzekoa da, lur oso harroa oso material larriaren artean, baina honakoa ilunagoa da, marroiagoa.

Zati larriak sedimentuaren % 24 hartzen du, harkoskoek % 11 hartzen dute. Guztiak dira kanpotik etorriak; ez dago kareharririk ez konkreziorik, hareharriak dira nagusi, eta lutita gutxi eta txiki batzuk daude. Hartxintxarren artean, hartxintxar xeheak (2 eta 5 mm bitartekoak) dira gehienak, % 8 dira. Lutitez eta hareharriez gain, burdinazko hartxintxar txiki ugari ageri dira. Hartxintxar horiek apur bat leunduta daude, batik batik txikienekoak, arrastean iritsi direlako indar handikoa izango ez zen kanpoko fluxu bati esker. Era berean, deigarria da hartxintxar xehean kalibrera iritsi arte zatituta izan diren hezur-printzen kopuru handia. Haietatik asko eta asko kiskalita daude. Era berean, kalibre horretakoak dira suharrizko printza batzuk.

Zati xehean artean nagusi dira "oso hareatsua" gisa sailkatutako hareak (zatiaren % 69), eta aski ongi banatuta dauden arren, harea ertainak dira gehien-gehienak. Aztertutako hareazko lagin guztiek asimetria negatiboa ageri badute ere, honakoa guztietan simetrikoena da, baina aldi berean okerren sailkatuta dagoena, terraza alde batera utziz gero. Harea larriaren ehuneko aztertutako lagin guztietan handiena da, eta neurrien nahasketak simetriari asko hurbiltzen zaion kurba marrazten du.

Harea larriak lupa binokularrean behatuta, aski leunduta dauden kristal ugari eta hareharritzko zati asko ikusi ahal izan dira, azken horiek leunduta edo aski leunduta. Era berean, kiskalitako hezur-zati ugari ikus daitezke.

CUADRO 57 Q TERRAZA

Zona de grandes bloques rodados, se analiza la matriz entre los bloques de color marrón amarillento (10 YR 5/8 en la escala Munsell).

El material mayor de 2 mm supone un 20% de la muestra repartido entre cantos 13% y gránulos 4 y 3% y en ninguno de los casos se encuentran calizas entre los materiales; hay un predominio de areniscas y lutitas. En los cantos encontramos fragmentos de cantos mayores, redondeados y rotos. La mayoría tienen forma aplanada. Los gránulos presentan los mismos materiales, se trata de pequeñas lascas planas y bastante redondeadas y con la superficie ligeramente limonizada. La impresión general es que se trata de materiales aportados desde el exterior por arroyada de cierta energía.

Arenas, limos y arcillas se encuentran equilibradamente representadas con predominio de los limos que alcanzan el 39% de la fracción, pudiendo clasificarse como "franco arcillosa". Las arenas finas y los limos suman un 55% de la matriz. A diferencia del resto de muestras estudiadas la mediana de la fracción fina se halla en el calibre 0,01 mm que corresponde al tamaño limos.

El estudio de las arenas nos indica, en comparación con el resto de muestras estudiadas, una mala clasificación y una asimetría negativa lo que indica un predominio de materiales finos y una cola en las arenas de tamaño más grueso. Mezcla de tamaños que sugiere cambios en la energía del medio. Momento de gran humedad. El río entra en la cueva y deposita materiales de tamaño bloque y canto y el encharcamiento de aguas lodosas decanta esos materiales finos.


CUADRO 57 P NIVEL VIB

Color marrón amarillento oscuro, 10 YR 3/6 de la escala Munsell. Es comparable a VIa, muy suelta entre materiales muy gruesos, pero de color más oscuro y marrónáceo.

La fracción gruesa supone el 24% del sedimento en donde los cantos suman un 11%. Todos ellos son aportes del exterior; no hay calizas ni concreción y los materiales predominantes son areniscas y lutitas también escasas y de pequeño tamaño. Entre los gránulos, el porcentaje más elevado corresponde a los gránulos finos (2 mm a 5 mm) con un 8% en peso. Como materiales aparecen además de lutitas y areniscas, pequeños y abundantes gránulos ferruginosos. Estos gránulos están algo rodados sobre todo los de calibre más fino debido al arrastre y han sido aportados desde el exterior por un flujo no muy poderoso. También llama la atención las muy numerosas esquirlas de huesos fragmentadas hasta calibre de gránulos finos. Muchas de ellas están calcinadas. Se encuentran también en este calibre gránulo pequeñas lascas de sílex.

En la fracción fina hay un predominio de arenas (60% de la fracción) clasificada como "franco arenosa" y, aunque se encuentran bastante bien repartidas, las arenas medias son las más abundantes. Aunque todas las muestras de arena estudiadas presentan asimetría negativa esta es la más simétrica de todas pero también la peor clasificada si exceptuamos la terraza. El porcentaje de arenas gruesas es el más alto de todas las muestras estudiadas y la mezcla de tamaños da una curva cercana a la simetría.

Vistas las arenas gruesas en la lupa binocular se pudo observar numerosos cristales bastante rodados y muchos fragmentos de arenisca algunos de los cuales aparecen rodados o bastante rodados. Se pueden ver también muchos fragmentos de hueso calcinado.



I. irudia. Material xehearen granulometría globala.

Figura 1. Granulometría Global de la Fracción fina.

57 P LAUKIA.VIA MAILA

VIb mailako laginak baino kolore argiagoa du lagin honek, nahiz eta marroi hori iluna izaten jarraitzen duen, 10 YR 3/6. Maila honetan oso harro dago lurra, gutxiago dira zati larriak, batez ere harkoskoak; horiek ere kanpotik iritsiak dira.

Harkosko guztiak (% 4) pikor xeheko hareharriak dira, aski gogorrek eta txikiak, eta apur bat leunduta daude.

Pikor larri eta xeheak ageri dituzte material guztiek, hareharriek, lutitek eta kuartzita batzuek. Ez dago kareharririk ez eta konkreziorik ere. Apur bat leunduta daude. Neurri horietan ere ugari dira birrindutako eta kiskalitako hezur-printzak eta suharrizko printza txikiak.

Zati xehea ugari da (% 84), eta "oso garbitzat" sailkatu daiteke haren kopurua handia den arren, VIb mailan hartzen duen kopurura iritsi gabe baina. Batik bat harea larriak gutxitzen dira, batez beste xeheagoak dira nagusi, baina hareak ez daude behar bezala sailkatuta, eta asimetria negatiboa erakusten dute kurbaren muturra material larrietara hurbiltzen delarik. Harea larrien morfoskopian ikusten da hareharrizko zatiak daudela, lutitzako lauza txikiak eta burdinazko nodulu ugari, denak aski leunduta. Badira hezur-printzak, VIb mailan baino gutxiago ordea. Hala eta guztiz ere, ez dira alde handiak nabari VIb mailarekin alderatuz gero, harea larrien ehuneko txikiagoa alde batera uzten badugu. Segur asko, antzeko prozesu baten ondorioz pausatuko ziren material horiek bi maila horietan.

57 Q LAUKIA.VB MAILA

Heze dagoela 10 YR 4/6 kolorea ageri du laginak, baina idor dagoenean 10 YR 6/4, marroi hori argia, gainerako laginen antzera. 57Q laukiko laginaren azpitik hartu genuen, baino solteago, harroago, ageri da.

Ugari dira material larriak (% 46), eta mineralogiaren ikuspuntutik askotarikoak dira bai harkoskoak bai hartxintxarrak. Harkoskoen artean, oso aldatuta eta janda ageri dira kareharriak. Leunduta izan direla ematen du, baina ezaugarri hori aldaketak eraginda egon liteke. Era berean, oso trinkotuta dauden hareharriak aurkitzen ditugu, burdin-ioiek trinkotuta, aski leunduta dauden lutitak eta silizedun harkoskoak eta kuartzitak.

Hartxintxarren artean era berean askotarikoak dira materialak. Ugari dira lutitak, eta proportzioan asko dira kuartzitak

CUADRO 57 P NIVEL VIA

El color de la muestra es algo más claro que VIb pero sigue siendo marrón amarillento oscuro, 10 YR 3/6. En este nivel el sedimento se encuentra muy suelto y hay una disminución del contenido en fracción gruesa sobre todo de cantos aunque siguen siendo aportados desde el exterior.

Los cantos (4%) son todos de arenisca de grano fino, bastante consistentes y de pequeño tamaño y aparecen algo rodados.

Gránulos gruesos y finos presentan los mismos materiales: areniscas, lutitas y algunas cuarcitas. No hay calizas ni concreción. Se encuentran algo rodados. También en estos tamaños abundan las esquirlas de hueso trituradas y calcinadas y pequeñas lascas de sílex.

La fracción fina es abundante (84%) y se puede clasificar como "franca" aunque con un contenido también elevado de arenas pero algo menor que en VIb. Disminuyen sobre todo las arenas gruesas, desplazándose la media hacia valores más finos, pero las arenas siguen estando mal clasificadas y presentan asimetría negativa con una cola hacia los materiales más gruesos. La morfoscopía de las arenas gruesas muestra fragmentos de arenisca, lajillas de lutitas, escasos cristales y numerosos nódulos ferruginosos, todos ellos bastante rodados. Hay esquirlas de hueso pero menos que en VIb. Sin embargo, no se aprecian grandes diferencias con VIb si exceptuamos el menor porcentaje de arenas gruesas y, seguramente, será un proceso semejante el que depositó los materiales de los dos niveles.

CUADRO 57 Q NIVEL VB

En húmedo la muestra presenta un color 10 YR 4/6 y en seco 10 YR 6/4, marrón amarillento claro, semejante al resto de muestras. Se recoge debajo de la muestra 57Q Va pero aparece más suelta.

Los materiales gruesos son abundantes (46% del sedimento) y de mineralogías muy diversas tanto en cantos como en gránulos. En los cantos, los calizos aparecen muy alterados y corroídos. Tienen aspecto de haber sido rodados, aunque este carácter puede estar más desarrollado por la alteración. Encontramos también areniscas muy compactas, cementadas por iones ferrosos; lutitas bastante rodadas; cantos silíceos y cuarcitas.

Entre los gránulos los materiales son también muy variados. Hay gran cantidad de lutitas y, proporcionalmente muchas

eta burdinazko noduluak, baina badira baita hareharriak eta oso hondatuta dagoen kareharriren bat ere. Material guztiak aski edo oso leunduta daude, harea larrien morfoskopian egiaztatu ahal izan den bezala.

Zati xehea batez ere hareatsua da (% 68), nagusi dira harea ertainak eta xeheak. Aztertutako laginen artean, euren eta 57Q Va (ikus 3. taula) gisa bereizitakoen arteko parametroak antzekoak dira, baina 2 mm baino handiagoa den zati larria apur bat desberdina da. Mineralen ugaritasuna eta aniztasuna kontuan izanik, guk uste dugu kanpoko errekasto batetik iritsitako materialak direla horiek.

57 Q LAUKIA.VA MAILA

Laginak jasotzean kolore marroi gorri iluneko (5YR 3/4) maila gisa ageri zen, oso heze, baina laborategiko giroan idortu eta gero, marroi hori argi gisa ageri zaigu, 10 YR 6/4, gainerako laginen antzera. Lurra gogor ageri zen, geruzatan antolatuta, burdina ugariko konkrezio batek egituraturik; sedimentuaren % 10 hartzen du, eta harkoskoen eta hartxintzarren tamainako zatiak daude; haietako batzuek pikor txikiak biltzen dituzte, eta horietan ugari dira lutitak eta burdinazko beste nodulu batzuk.

Harkoskoen neurriko materialetan, aipatu konkrezioaz gain, kareharri txikiren bat ageri da, pixka bat leunduta dago, aski aldatuta eta burdinazko geruza konkrezionatuak bilduta; horrek zailtzen du sailkapena. Badira neurri horretako kuartzitzak (% 6) eta zementu silizeoduneko lutitaren bat.

Hartxintzarretan ere era askotako materialak bereizten dira, hareharriak, kuartzitzak eta, batez ere, burdinazko noduluak eta lutitak, guztiak oso leunduta, denera sedimentuen % 12 osatzen dutela. Baina ez dago kareharririk, bai ordea burdinazko konkreziorik.

Matrizeak oso hareatsua izaten jarraitzen du, nagusi dira harea ertainak eta xeheak. "Oso hareatsu" gisa deskribatzen da. Behera egiten du haren batez bestekoak, eta horrek hobetu egiten du sailkapena. Negatiboa izaten jarraitzen du asimetriak.

Parametro horietatik ondoriozta daiteke hareak eta hartxintzarrek arrastean ekarri zituen isurketa oparoa gertatu zela. Urez beteta eta karbonatorik ezean, Gravette aldiko klima hotzean, burdin-ioiak mugitu eta burdinazko geruza (limonita-goethita) eratzen duten oxidoak pasatu ziren.

cuarcitas y nódulos ferruginosos, encontrando también areniscas y alguna caliza muy deteriorada. Todos los materiales aparecen bastante o muy rodados como se ha podido comprobar en la morfoscopia de arenas gruesas.

La fracción fina es fundamentalmente arenosa (68%) con un predominio de arenas medias y finas. Dentro de las muestras estudiadas sus parámetros la asemejan con la rotulada como 57Q Va (ver Tabla 3), si bien la fracción gruesa mayor de 2 mm es algo diferente. La abundancia y variedad de minerales nos hace pensar en una arroyada que aportó materiales desde el exterior.

CUADRO 57 Q NIVEL VA

En la recogida de muestras apareció como un nivel de color marrón rojizo oscuro, 5YR 3/4, muy húmedo, pero seco en el ambiente de laboratorio aparece como marrón amarillento claro, 10 YR 6/4, como el resto de las muestras. El sedimento aparecía duro y estructurado por la presencia de una concreción muy ferruginosa laminada en capas, que supone el 10% del sedimento y que ha dado fragmentos tamaño canto y gránulos; algunos de ellos engloban gránulos de pequeño tamaño en los que abundan lutitas y otros nódulos ferruginosos.

En los materiales tamaño canto además de esa concreción, aparece alguna caliza de pequeño tamaño que se encuentra poco rodada y bastante alterada y recubierta por una capa concrecionada y ferruginosa que hace difícil su clasificación. En este tamaño se contabilizan cuarcitas (6%) y alguna lutita de cemento silíceo.


También los gránulos ofrecen una gran variedad de materiales, areniscas, cuarcitas y, sobre todo nódulos ferruginosos y lutitas todos muy rodados que suman en total más del 12% del sedimento; pero no hay caliza y sí concreción ferruginosa.

La matriz fina sigue siendo muy arenosa con predominio de las medias y finas. Se describe como "franco arenosa". La media de arenas disminuye y mejora la clasificación. La asimetría sigue siendo negativa.

Estos parámetros permiten deducir una escorrentía abundante que arrastró arenas y gránulos. El encharcamiento y la ausencia de carbonatos, en el clima fresco del Gravetiense, permitió la movilización de los iones de hierro y el depósito de los óxidos que constituyen la capa ferruginosa (limonita-goethita).

2. irudia. Harenen granulometriaren kurba. Zatiaren %koa galbahe bakoitzean.

Figura 2. Curva granulométrica de arenas. % de la fracción en cada tamiz.




3. irudia. Karbonatoen kopurua.

Figura 3. Contenido en carbonatos.

Matrizeko karbonatuen analisiak oso balio apalak eskaintzen ditu barrunbeko lagin guztietan, sarrerako indusketaren eremuan hondoan dagoen guneko balioen antzekoak dira.

El análisis del contenido en carbonatos de la matriz da valores muy bajos en todas las muestras de esta zona interior y son comparables a los de la zona más profunda de la excavación de la entrada.



ONDORIOAK

Aztertutako bost laginak haitzuloa alderik alde igaro zuen indar ez gutxiko isurketa baten emaitza dira itxura guztien arabera. Hala eta guztiz ere, badira hiru multzotan sailkatzea ahalbidetzen duten alde txiki batzuk:

Gainerako laginetatik bereizten dituen ezaugarri bitxi batzuk dauzka terrazak. Indar handiko isurketa-aldi bati dagokio, errekastoa haitzuloan sartu zen blokearen kalibreko materialak eta litologiaren ikuspuntutik askotarikoak diren harkoskoak berekin batean ekarri, kareharririk gabe. Geroago, haitzuloa urez beteta zegoenean, dekantatu egin zituen material xeheak eta oso xeheak (ikus 3. taula).

Vlb eta VIa mailek osatzen dute laginen bigarren multzoa. Isurketak harkosko txikiak ekarri zituen, baina material gehienak hartxintzar xeheen eta harea ertainen eta xeheen arteko kalibrekoak dira (ikus 2. taula); guztiak daude oso leunduak. Bi maila horietan kiskalitako hezur-printzen aztarna ugari eta suharrizko printza txikiak aurkitu ditugu.

Vb eta Va mailek osatzen dute hirugarren multzoa. Ugarriago dira material larriak, eta mineralogiaren ikuspuntutik askotarikoak dira: badira kareharrizko material batzuk, baina batez ere matrizea gogortzen eta trinkotzen duen burdinazko konkrezio antzeko bat da nagusi. Aipagarria da hartxintzarren ugaritasuna eta aniztasuna, batik bat lutitak, kuartzitak eta burdinazko noduluak dira (ikus 2. taula); guztiak daude oso leunduak. Gure ustez, indar ez gutxiko pasartearen emaitza dira, nahiz eta material aloktono ugari ekarri zituen.

Mailen multzo hau sarrerako indusketan lortutakoekin alderatu dugu.

CONCLUSIONES

Las cinco muestras estudiadas parecen el resultado de una escorrentía más o menos energética que atravesó la cavidad. A pesar de ello, hay algunas pequeñas diferencias que permiten agruparlas en tres conjuntos:

La terraza muestra unas características singulares que la diferencian del resto de muestras. Corresponde a un episodio de fuerte escorrentía en el que el río entra en la cueva arrasando materiales de calibre bloque y canto de litologías muy diversas, con ausencia de calizas. El encharcamiento posterior decantó materiales finos y muy finos (Ver Tabla 3).


Un segundo conjunto de muestras lo constituye los niveles Vlb y VIa. La escorrentía puede aportar pequeños cantos pero en su mayoría los materiales son de calibre entre granulos finos y arenas medias-finas (Ver Tablas 1 y 3). En ambos niveles hemos encontrado numerosos restos de esquirlas de hueso calcinadas y pequeñas lascas de sílex.

El tercer conjunto lo forman los niveles Vb y Va. Los materiales gruesos son más abundantes y de mineralogía muy variada; aparecen algunos materiales calizos y sobre todo la presencia de una especie de concreción ferruginosa que cementa y compacta la matriz. Es notable la abundancia y variedad de granulos sobre todo lutitas, cuarcitas y nódulos ferruginosos (Ver Tabla 2); todos ellos muy rodados. Lo interpretamos como un episodio algo energético que aportó abundantes materiales aloctonos.

Hemos comparado este conjunto de niveles con los obtenidos en la excavación del exterior:

Matrizearen ezaugarriak zehazteko irizpide gisa hareak erabiltzen baditugu, barrunbeo laginen parametro estatistikoak sarrerako laginen parametroekin alderatu, eta barrunbeo parametroak sarrerako IV. mailako eta batez ere V. mailako parametroetara hurbiltzen direla ikusiko dugu. Terrazako lagina eta M6 oso sedimentazio-prozesu desberdinen emaitza dira, eta ez dira gainerako sedimentuek bizi izandako prozesuen emaitza. Era berean, sarrerako gainazaleko mailetako (1., 2., 3a. eta 3b. mailak) laginak urrutira geratzen dira.

Si utilizamos las arenas como criterio de las características de la matriz, las correlaciones de los parámetros estadísticos de las muestras del interior, comparadas con los mismos de las muestras de la zona de la entrada, aproximan las del interior a las de los niveles IV y sobre todo V de la zona de entrada. La muestra de la terraza y de la M6 corresponden a procesos sedimentarios muy diferentes entre sí y del resto de los sedimentos. También quedan alejadas las muestras de los niveles superficiales de la zona de entrada: niveles 1, 2, 3a y 3b.



Hemen alderatzen diren parametroek laginen *saillapenari* egiten diote erreferentzia: okarren saillatutako hareak, bestelako tamainak nahasten dituzten hareak, adierazten dituzte balio handienek. *Batez bestekoak* adierazten du isurketa horrek arrastearen eraman dezakeen materialaren kalibrea.

Los parámetros que se comparan aquí se refieren a la *clasificación* de la muestra: los valores más altos significan arenas peor clasificadas con mezcla de tamaños diferentes. La *media* da una idea del calibre que es capaz de arrastrar esa escorrentía.

3



Foto: A. S. Emeterio

AITZBITARTE III HAITZULOAREN BARRUNBEKO HARRIZKO INDUSTRIAREN AZTERKETA

ESTUDIO DE LAS INDUSTRIAS LÍTICAS DE LA CUEVA DE AITZBITARTE III (ZONA DEL INTERIOR)

Aixa San Emeterio Gómez

*Kantabriako Historiaurreko Ikerketarako Nazioarteko Institutua. Kantabriako Unibertsitatea
Instituto Internacional de Investigaciones Prehistóricas de Cantabria (IIIPC). Universidad de Cantabria
Avda. Los Castros, s/n · 39005 Santander*

Joseba Rios-Garaizar

*Gizakiaren Bilakaeraren Ikerketarako Zentro Nazionala
Centro Nacional de Investigación sobre la Evolución Humana (CENIEH)
Paseo Sierra de Atapuerca, 3 · 09002 Burgos · Spain*

ESTUDIO DE LAS INDUSTRIAS LÍTICAS DE LA CUEVA DE AITZBITARTE III (ZONA DEL INTERIOR)

RESUMEN

Con este estudio de la secuencia interior de Aitzbitarte III se concluye el estudio de los conjuntos industriales de este yacimiento, que se iniciaron con la publicación en 2011 de la secuencia exterior. Además, complementa el estudio previo, puesto que la secuencia interior de la cueva de Aitzbitarte III presenta niveles correspondientes a distintas fases del Paleolítico Superior que no aparecían claramente representados en la secuencia del exterior del yacimiento.

El estudio tecno-tipológico de los conjuntos recuperados en los distintos niveles de la secuencia interior nos ha permitido evaluar la integridad de los conjuntos, proponer una afiliación cronocultural y describir las estrategias de organización tecnológica y económica de los grupos humanos que ocuparon la cavidad.

Los niveles inferiores (VI y V) representan ocupaciones humanas continuadas que se producen entre ca. 31.000 y 24.000 cal BP. Tanto por su cronología como por su composición tecno-tipológica se relacionan con un Gravetiense rico en buriles de Noailles, que aparece escasamente representado en la Región Cantábrica, pero que está mejor representado en las estribaciones occidentales de los Pirineos. Estas ocupaciones, aunque su cronología se solapa parcialmente con la de los niveles Va y IV de la zona exterior de Aitzbitarte III, no están representadas en esta zona exterior y completan el hiato observado en esta secuencia entre el nivel IV (Gravetiense antiguo) y el III (Gravetiense terminal).

Los niveles superiores de la secuencia (niveles IV y III-II), presentan más problemas de conservación, lo que limita el alcance de los resultados obtenidos. El nivel IV ha sido datado entre ca. 22.800 y 16.000 BP (27869– 18750 cal BP), esto es en fechas semejantes a las del nivel III de la secuencia exterior. Presenta, además, algunas semejanzas en los conjuntos industriales, lo que permite situar este conjunto en un momento muy final del Gravetiense o tal vez a inicios del Solutrense regional.

El Nivel III-II también presenta problemas de integridad. A partir sus características tecno-tipológicas y de las dataciones disponibles, se puede situar, con reservas, en el tránsito entre el Solutrense y el Magdaleniense inicial.

Finalmente el nivel I-SUP está muy alterado, por lo que no ofrece datos de confianza y no permite su atribución a ningún tecno-complejo.

Entre los distintos niveles de la secuencia hay diferencias importantes en las estrategias de aprovisionamiento tecnológico, especialmente entre los niveles inferiores (VI y V), que muestran una importante unidad, y los niveles superiores (IV, II-III). Estas diferencias sugieren una variabilidad en los modelos de gestión del territorio y en la función del asentamiento en las distintas fases de ocupación del interior de Aitzbitarte III.

PALABRAS CLAVE

Aitzbitarte III. Industria lítica. Tecnología. Tafonomía. Gravetiense Medio. Gravetiense con Noailles. Gravetiense Final. Solutrense. País Vasco. Cornisa Cantábrica.

ESTUDIO DE LAS INDUSTRIAS LÍTICAS DE LA CUEVA DE AITZBITARTE III (ZONA DEL INTERIOR)

RESUMEN

Con este estudio de la secuencia interior de Aitzbitarte III se concluye el estudio de los conjuntos industriales de este yacimiento, que se iniciaron con la publicación en 2011 de la secuencia exterior. Además, complementa el estudio previo, puesto que la secuencia interior de la cueva de Aitzbitarte III presenta niveles correspondientes a distintas fases del Paleolítico Superior que no aparecían claramente representados en la secuencia del exterior del yacimiento.

El estudio tecno-tipológico de los conjuntos recuperados en los distintos niveles de la secuencia interior nos ha permitido evaluar la integridad de los conjuntos, proponer una afiliación cronocultural y describir las estrategias de organización tecnológica y económica de los grupos humanos que ocuparon la cavidad.

Los niveles inferiores (VI y V) representan ocupaciones humanas continuadas que se producen entre ca. 31.000 y 24.000 cal BP. Tanto por su cronología como por su composición tecno-tipológica se relacionan con un Gravetiense rico en buriles de Noailles, que aparece escasamente representado en la Región Cantábrica, pero que está mejor representado en las estribaciones occidentales de los Pirineos. Estas ocupaciones, aunque su cronología se solapa parcialmente con la de los niveles Va y IV de la zona exterior de Aitzbitarte III, no están representadas en esta zona exterior y completan el hiato observado en esta secuencia entre el nivel IV (Gravetiense antiguo) y el III (Gravetiense terminal).

Los niveles superiores de la secuencia (niveles IV y III-II), presentan más problemas de conservación, lo que limita el alcance de los resultados obtenidos. El nivel IV ha sido datado entre ca. 22.800 y 16.000 BP (27869– 18750 cal BP), esto es en fechas semejantes a las del nivel III de la secuencia exterior. Presenta, además, algunas semejanzas en los conjuntos industriales, lo que permite situar este conjunto en un momento muy final del Gravetiense o tal vez a inicios del Solutrense regional.

El Nivel III-II también presenta problemas de integridad. A partir sus características tecno-tipológicas y de las dataciones disponibles, se puede situar, con reservas, en el tránsito entre el Solutrense y el Magdaleniense inicial.

Finalmente el nivel I-SUP está muy alterado, por lo que no ofrece datos de confianza y no permite su atribución a ningún tecno-complejo.

Entre los distintos niveles de la secuencia hay diferencias importantes en las estrategias de aprovisionamiento tecnológico, especialmente entre los niveles inferiores (VI y V), que muestran una importante unidad, y los niveles superiores (IV, III-II). Estas diferencias sugieren una variabilidad en los modelos de gestión del territorio y en la función del asentamiento en las distintas fases de ocupación del interior de Aitzbitarte III.

PALABRAS CLAVE

Aitzbitarte III. Industria lítica. Tecnología. Tafonomía. Gravetiense Medio. Gravetiense con Noailles. Gravetiense Final. Solutrense. País Vasco. Cornisa Cantábrica.

ANALYSIS OF THE LITHIC ASSEMBLAGES OF AITZBITARTE III (INNER SEQUENCE)

ABSTRACT

With the analysis of the inner sequence of Aitzbitarte III we finish the study of the lithic assemblages of this site, which were initiated in 2011 with the publication of the exterior sequence results.

The techno-typological analysis of the lithic assemblages recovered from the stratigraphic units of the inner sequence, has allow us to assess the integrity of the assemblages, and to propose a chronocultural attribution. It also has been used to describe the technological and economic organization strategies practiced by the human groups occupying the cave.

The lower units of the sequence (VI y V) correspond to successive human occupations that took place between ca. 31.000 and 24.000 cal BP. The chronology of the occupations, and its techno-typological composition clearly relate these assemblages with the Gravettian rich in Noailles burin technocomplex, which is poorly represented in the Cantabrian Region, but quite abundant in the western Pyrenees. This technocomplex is not represented in the exterior sequence, although the chronology of these occupations slightly overlaps the dates available for units Va and IV of the exterior sequence, and it fills the gap observed in the exterior sequence between the Early Gravettian (units Va and IV) and the Terminal Gravettian (unit III).

The upper units of the inner sequence (units IV and III-II), show more taphonomic problems, which limits the range of the study. Unit IV has been dated between 27869 and 18750 cal BP, that is, in similar dates than the unit III of the exterior sequence. It also has some similarities, from a techno-typological perspective, with this unit, and therefore we could situate these occupations at the very end of regional Gravettian or at the beginning of Solutrean.

The unit III-II presents also some taphonomic problems. Its techno-typological features and the available dates, suggest that it could correspond with occupations that took place at the very end of the Solutrean or at Initial Magdalenian.

Finally, the unit I-SUP is too altered to allow any interpretation of it.

We have observed important differences between the different units, which correspond to successive occupations, in different periods, of the cave. These differences represent changes in the technological provisioning strategies, being a clear cut between units VI-V and units IV-III-II. These differences suggest not only the existence of different settlement systems, but also differences in the function of the cave.

KEYWORDS

Aitzbitarte III. Lithic industry. Lithic Technology. Taphonomy. Middle Gravettian. Gravettian with Noailles. Gravettian terminal. Solutrean. Basque Country. Cantabrian region.

I. MATERIALAK ETA METODOAK

Haitzuloaren sarrerako indusketa lanetan berreskuraturiko materialak aztertu ziren Aitzbitarte III haitzuloari eskaini zitzaion aurreko monografian (Altuna et al. 2011). 1994 eta 2002 bitartean bideratu ziren lan haiek (I.irudia) Alabaina, beste indusketa lan batzuk eginak ziren lehenago, 1986 eta 1993 bitartean, haitzuloaren barnealdeko barrunbean. Azterlan honetan aurkeztuko ditugu, hain zuzen ere, esku-hartzeko hartan jasoriko materialak.

Harrizko industria multzo garrantzitsu bat eskaini digu Aitzbitarte III haitzuloaren barrunbeto sekuentzian aztertu den laginak. 10 mm-tik gora luze diren 12.341 harrizko aztarna landu azaldu dira guztira eta, haien artetik, ukierak ageri dituzte 2.994k. 10 mm-ko luzera ez duten 6.299 ezpal, 842 zati formagabe eta landu gabeko industria makrolitikoaren artekotzat jo beharko liratekeen beste 54 aztarna ere zenbatu dira haietaz gainera.

I.1. AUKERAKETA IRIZPIDEAK

Ez da osorik aztertu Aitzbitarte III haitzuloan 1986 eta 1993 bitartean bideratu ziren indusketa lanetan berreskuraturiko harri multzoa. Multzoaren nolakotasuna osotasunean erakutsiko duen laginketa bideratzea erabaki dugu. Halatan, osorik aztertu dira beheko mailak (VIII, VII eta VI), hau da, induskaturiko lauki guztietatik zetozen materialak. Bestelakoa da, ordea, sekuentziako goi mailetakoa kasua (V, IV, II-III eta Gainazala), 58O, 58P, 58Q, 59O, 59P, 59Q, 6OM, 6ON, 6OO, 6OP, 6IN eta 6IO laukietan jasoriko materiala aukeratu baitugu laginketari begira.


I. MATERIALES Y MÉTODOS

En la anterior monografía dedicada a la cueva de Aitzbitarte III, excavada bajo la dirección de J. Altuna (Altuna et al. 2011) se analizaron los materiales recuperados en la excavación de la entrada de dicha cueva, que tuvo lugar entre 1994 y 2002 (Fig. 1). Pero anteriormente, entre 1986 y 1993, se había llevado a cabo otra excavación, bajo la misma dirección, en la zona profunda de la cueva. Los materiales recuperados en esta intervención son los que presentamos en este estudio.


La muestra analizada de la secuencia interior de la cueva de Aitzbitarte III ha proporcionado un importante conjunto de industria lítica, compuesto por un total de 12.341 restos líticos tallados mayores de 10 mm, de los cuales 2.994 están retocados. Aparte, se han contabilizado 6.299 esquirlas menores de 10 mm, 842 fragmentos informes y 54 restos de industria macrolítica no tallada.

I.1. CRITERIOS DE SELECCIÓN

El conjunto lítico recuperado en las excavaciones realizadas en Aitzbitarte III entre los años 1986 y 1993 no ha sido estudiado en su totalidad. Se ha optado por realizar un muestreo suficientemente significativo del conjunto. Así, los niveles inferiores (VIII, VII y VI) se han analizado en su totalidad, es decir, los materiales procedentes de todos los cuadros excavados. El caso de los niveles superiores de la secuencia (V, IV, II-III y Superficial) es diferente, puesto que hemos seleccionado una muestra procedente de los cuadros 58O, 58P, 58Q, 59O, 59P, 59Q, 6OM, 6ON, 6OO, 6OP, 6IN y 6IO.



I. irudia. Haitzuloaren plana eta barrunbearen indusketarako koadroen banaketa. / Figura 1. Plano de la cueva y cuadrícula de excavación de la zona interior.



2. irudia. Induskaturiko eremuko koadroen banaketa eta, marroiz, goi mailetako laginetarako aukeratutako eremua.

Figura 2. Cuadrícula del área excavada y en marrón la zona del muestreo realizado para los niveles superiores.

Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeto indusketa lanetan bideraturiko metodologiari esker, 2 mm-tik gorako aztarna guztiak jaso dira sistematikoki, 2 mm-ko argia zuen zetabeen bahetu eta gero (ikus J. Altuna, obra honetan). Aztarnategiaren kanpoaldean bideratu zen irizpide berberaren bitartez (Rios-Garaizar et al. 2011) hautatu dira xehetasunez aztertu beharreko materialak. Lehengaien arabera zenbatu eta sailkatu dira, bestalde, 10 mm-tik beherako harrizko ezpalak eta harri zati formagabeak. Modu berean jokatu dugu harkoskoen kasuan, guztiak zenbatuz baina nahita aldatu izan zirelako zantzuak ageri zituztenak baizik ez aztertuz.

1.2. MULTZOEN OSOTASUNAREN EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

Multzoaren eta maila desberdinen osotasuna ebaluatu genuen azterketaren hasieran eta, maila sedimentario desberdinen artean ez genuen, hasiera hartan behinik behin, maila horietako materialak nahasi izana salatuko zuketzen mihizta-tzeen aztarnarik dokumentatu. Elementu batzuk (tipologia, lehengaiak, hondakin kopurua, z banaketa, eta abar) alderatu genituen ondoren estratigrafia osoan zehar, mailen banaketa berresteko.

Maila bakoitzaren osotasuna ebaluatu ahal izateko, haizulo bakoitzari egokituriko industria multzoen barruan mihizatzeak bilatzearekin batean, azterketa tafonomiko sakonagoa bideratu genuen depositazio prozesuak bereizi eta identifikatzearren. Azkenik, maila sedimentario desberdinetako industrien koherentzia tekno-tipologikoa ere aztertu genuen, haien osotasuna berretsi ahal izateko.

Azterketa hauen emaitzak aukera eman digu estratigrafian eremu arazotsuak identifikatzeko, goiko mailetan (gainazaleko-tik IV. mailara bitarte) eta maila sakonenetan (VII. eta VIII. mailak) batez ere. Bestalde, azterketa hauek direla medio, aldeak zehaztu eta identifikatu ahal izan ditugu sekuentzia estratigrafikoaren behaldearen (V. eta VI. mailak funtsean) eta goiko mailen (gainazalekoa - IV.) artean, hala tipologia eta teknologiaren ikuspegitik nola tafonomiarenetik.

La metodología de excavación empleada en el sector interior de Aitzbitarte III permitió una recogida sistemática, mediante el cribado con malla de 2 mm de luz, de todos los restos superiores a esta medida (ver J. Altuna, en este volumen). La selección de materiales para el análisis pormenorizado se ha realizado siguiendo el mismo criterio que para la zona exterior del yacimiento (Rios-Garaizar et al. 2011), se han seleccionado los restos de más de 10 mm y los soportes laminares fracturados inferiores a estas dimensiones. Las esquirlas líticas inferiores a 10 mm y los fragmentos informes se han contabilizado y clasificado por materias primas. De la misma manera se ha procedido con los cantos rodados, contabilizando todos ellos pero analizado solamente aquellos que muestran algún tipo de modificación intencional.

1.2. CRITERIOS DE EVALUACIÓN DE LA INTEGRIDAD DE LOS CONJUNTOS

Al inicio del estudio realizamos una evaluación de la integridad del conjunto y de sus diferentes niveles. En principio no hemos documentado remontados entre los distintos niveles sedimentarios que indiquen que se han producido mezclas entre los materiales de estos niveles. Posteriormente, se procedió a comparar algunos elementos (tipología, materias primas, número de restos, distribución en z, etc.) a lo largo de la estratigrafía con el objetivo de confirmar esta división de niveles.

Para evaluar la integridad de cada nivel, además de buscar remontados dentro de los conjuntos industriales asignados a cada uno de ellos, se realizó un análisis tafonomico más intenso para identificar distintos procesos depositacionales. Finalmente, se analizó la coherencia tecno-tipológica de las industrias de los distintos niveles sedimentarios, con el fin de corroborar su integridad.

El resultado de estos análisis nos ha permitido identificar zonas problemáticas en la estratigrafía, especialmente en lo tocante a los niveles superiores (Superficial a IV) y los más profundos (Niveles VII y VIII). Por otro lado, estos análisis nos han llevado a identificar diferencias entre la parte baja de la secuencia estratigráfica (niveles V y VI fundamentalmente) y los niveles superiores (Sup a IV), tanto desde el punto de vista tipológico y tecnológico cómo tafonomico.

VII. eta VIII. mailak antzuak direla esan genezake, haietan harrizko pieza bakan batzuk azaldu zaizkigun arren. VII. mailan ugariago dira horiek (K=95), eta eremu jakin batean agertu dira guztiak, 58P eta 58Q laukietan hain zuzen ere. Bi lauki horietan, lodiago ageri zen halaber VI. maila, beste mailetan baino sakonera handiagoan, eta uste izatekoa da, hortaz, VII. mailako materialak, ikuspegi tekno-tipologikotik VI. mailakoen antzekoak direnak, berez maila horren alde beheereneko materialak izatea, kontuan harturik, haizuloko alde horretan dagoen ur-zuloaren eraginez, sakonagoa dela maila hura.

VI. mailaren lodiera ez da beti bat. Zentimetro gutxi batzuk ageri ditu alde batzuetan eta 25 cm beste batzuetan, eta garrantzitsua da, halaber, hartan berreskuraturiko material landuen dentsitatea. Maila aldarazirik ageri ote den egin beharreko galderari dagokionez, zera aipatuko genuke aurren-aurrenik, hartan, itxuraz behinik behin, ageri den industria multzoaren osotasuna: mihizatzeak ageri dira, alde batetik, eta harrizko materialetan ez dira alterazio garrantzitsuak sumatzen, bestetik. Aipagarria da, bestalde, haien koherentzia tekno-tipologikoa. Mihizatzeak ez dira modu sistematikoan bilatu; hala eta guztiz ere, izaera desberdineko 21 mihizatze-segida identifikatu ditugu guztira (lanketa-sekuentzia, haustura zaharrak, erabile-rakoak, sua, eta abar). Alterazioei dagokionez, deshidratazioa da maila honetan alterazio aipagarri bakarra: material gehienak jo ditu, oso modu sakonean ez bada ere. Oso ehuneko apaletan ageri dira gainerako alterazioak.

V. mailan (7. eta 8. azalak), 8. azalean, zehazkiago adieraztearren, erruz agertu dira patina bereziz hornituriko piezak (patina burdintsuak eta manganeso orbanak) eta konkrezioen aztarnak. Bat datoz material hauek estratuaren izaera sedimentologikoarekin, lur gorrixka, burdintsu eta konkrezionatuzko geruza mehe bat ageri baita haren oinarrian (Altuna; Areso eta Uriz liburu honetan). Patina mota hauek berreskuratu ditugu, era berean, VI. mailako sabaiko pieza batzuetan; 9. mailatik igaro dira hara eta, beraz, uste izatekoa da bi maila horien arteko bereizketa ez dela horren garbia. Arazoak ere ageri ditu, nolabait, V. mailako sabaia, maila horren eta IV. mailaren arteko banaketa horren garbia ez den seinale; hala dirudi, behinik behin. Beraz, V. mailan agertu diren material batzuk jatorria goiko edo beheko mailan zuten intrusioak izan litezke, baina ez gaude multzoan *in situ* ageri den materiala eta intrusiotzat har litekeen materiala bereizteko eta adierazteko moduan.

Arazotsu xamarra da IV. maila, hartan agertu diren materialak alterazio batzuen mende gertatu direla esan genezakeen aldetik. Prozesu natural eta antropiko desberdinen mendean egon direlako zantzuak ageri dituzte oro har material horiek. Datu honekin batean, mailaren potentzia eskasa dela eta mihizatzerik ageri ez dela kontuan hartzen badugu, garbi dago ezin ziurtatuko genukeela mailaren osotasuna, ez eta bertan azaldiriko materialen sinkronia erlatiboa ere. Eskura dauzkagun datazioak ere arazotsuak dira eta, beraz, ezin alboratu dezakegu maila hura sortu zenean materialen nahasteak gertatu izanaren aukera.

Goiko mailetan (Gainazalekoa eta II-III), aipagarria da haien potentzia eskasa (5-6 cm batez beste mailako), eta go-goan edukitzekoa da, halaber, euren artean banaketa garbia egiteko aukerarik uzten ez duten etenaldi antzurik edo estalagmita-zarakarrak gabe ondozkaten direla maila desberdinak. Argiro salatzen digute hori sakoneren barreiaturik ageri diren aztarna koordinatuek (3. irudia). Materialen nahastea errazten du faktore honek. II. eta III. mailetan kopuru garrantzitsuan azaldu dira pieza aldatuak, eta Gainazaleko mailan ugari azaldu dira patina biziak, deshidratazio sakona, eremu altxatuak eta haustura berriak ageri dituzten objektuak.


Con respecto a los niveles VII y VIII, nos encontramos con que son prácticamente estériles, aunque han proporcionado algunos efectivos líticos. En el caso del Nivel VII son algo más numerosos (N=95) y todos ellos proceden de una zona concreta, los cuadros 58P y 58Q. En estos dos cuadros el nivel VI mostraba un mayor espesor, apareciendo a mayor profundidad que en el resto de niveles, lo que hace pensar que los materiales del nivel VII, semejantes desde un punto de vista tekno-tipológico a los del VI, puedan corresponderse de hecho con la parte más baja de este nivel que profundiza más por la existencia de un sumidero cercano a esta zona de la cueva.

El Nivel VI presenta un espesor variable, de unos pocos centímetros en unas zonas, hasta unos 25 cm en otras, y una importante densidad de materiales tallados. Con respecto al carácter alterado o no del mismo, cabe mencionar la aparente integridad del conjunto industrial del nivel, basada por un lado en la presencia de remontados y por otro en la ausencia de alteraciones importantes en el material lítico, así como de su coherencia tekno-tipológica. La búsqueda de remontados no se ha realizado de manera sistemática, aún así se han identificado un total de 21 secuencias de remontados de diferente naturaleza (secuencia de talla, fracturas antiguas, de uso, fuego, etc.). Si nos centramos en las alteraciones, en este nivel la única alteración relevante es la deshidratación, que afecta a una gran parte de los materiales, aunque no de forma muy intensa, el resto de alteraciones aparecen en porcentajes muy bajos.

En el nivel V (Lechos 7 y 8) y concretamente en el lecho 8, encontramos gran abundancia de piezas con pátinas características (pátinas ferruginosas y manchas de manganeso) y restos de concreción. Esto es bastante coherente con la naturaleza sedimentológica del estrato ya que en su base hay una fina capa de tierra rojiza, ferruginosa, y concrecionada (Altuna, Areso y Uriz en este volumen). También encontramos este tipo de pátinas en algunas piezas del techo del nivel VI, procedentes del lecho 9, lo que puede indicar una separación no del todo neta entre estos dos niveles. El techo del nivel V también es en cierto modo problemático y también parece indicar una separación poco neta con el Nivel IV. Por lo tanto alguno de los materiales englobados en el nivel V pueden ser intrusiones del nivel superior o inferior; pero no estamos en condiciones de discriminar que parte del conjunto está *in situ* y que materiales son intrusiones.

El Nivel IV, resulta bastante problemático ya que los materiales de este nivel parecen haber sufrido diversas alteraciones y el conjunto, en general, muestra indicios de haber sido afectado de forma diferencial por distintos procesos naturales y antrópicos. Esto, junto con la escasa potencia del nivel y la ausencia de remontados, hace que no podamos asegurar la integridad del nivel ni la relativa sincronía de sus materiales. Las dataciones disponibles también son problemáticas, por lo tanto no descartamos que se hayan producido mezclas de materiales en el momento de la formación de este nivel.

En los niveles superiores (Sup y II-III) destaca la escasa potencia de los mismos (unos 5-6 cm de media por nivel) y su sucesión sin hiatos estériles o costras estalagmíticas que permitan una separación neta. Esto, que se observa claramente en la dispersión en profundidad de los restos coordinados (Fig. 3), es un factor que favorece la mezcla de materiales. En el Nivel II-III se ha documentado una proporción importante de piezas alteradas y en el nivel Superficial aparecen abundantes objetos con pátinas intensas, fuerte deshidratación, desconchados y fracturas recientes.




3. irudia. Harrizko aztarna koordinatuen banaketa bertikala 59. bandan.

Figura 3. Distribución vertical de los restos líticos coordinados en la banda 59.


Laburbildurik, ikuspegi tafonomikotik bi multzo bereiz ditzakegu Aitzbitarte III haizuloaren barruneko estratigrafian. Goiko multzoak (gainazaleko mailatik IV. mailaraino) arazo gehiago ageri ditu bere osotasunean, hainbat faktore direla medio: kanpoko gainazaletik hurbilago dago, mailen lodiera eskasa da, sedimentuen artean ez dago, itxuraz, bereizkuntzarik, eta harrizko materialak arrunt aldatuak ageri dira. Hala eta guztiz ere, maila hauek alde nabariak ageri dituzte elkarren artean osaera tekno-tipologikoaren ikuspegiaren aldetik, eta behealdeko multzoko mailak ez bezalakoak dira orobat aldi berean. V. eta VI. mailak osatzen dute behealdeko multzoa, hobekiago kontserbatu dira hartan materialak, handiagoa eta lodiagoa da haien estratigrafia eta halako homogeneotasuna ageri dute materialek teknologia eta tipologiaren ikuspuntutik (4. eta 5. irudiak).

En resumen, desde el punto de vista tafonómico podemos diferenciar dos conjuntos en la estratigrafía del interior de Aitzbitarte III. Un conjunto superior (I-Sup a Nivel IV) que presenta mayores problemas de integridad por varios factores: su cercanía con la superficie, el escaso espesor de los niveles, la aparente continuidad sedimentológica y la fuerte alteración de los materiales líticos. A pesar de ello estos niveles muestran diferencias entre sí desde el punto de vista de la composición tecno-tipológica, y son también diferentes de los niveles del conjunto inferior. Éste, constituido por los niveles V y VI, presenta una mejor conservación de los materiales, una mayor potencia estratigráfica y cierta homogeneidad desde el punto de vista tecnológico y tipológico (Fig. 4 y Fig. 5).




4. irudia. Tresneria-kategoria nagusien banaketa, mailen arabera. Argi eta garbi ikusten da berdintsuak direla beheko mailak, V.a eta VI.a batez ere, eta alde handiak daudela goikoen artean.

Figura 4. Distribución por niveles de las principales categorías de utillaje, que ilustra la semejanza entre los niveles inferiores, fundamentalmente el V y el VI, y la diferencia con los superiores.




5. irudia. Aitzbitarte III haitzuloren barruneko mailetan metaturiko grafika tipologikoak.
 Figura 5. Gráficas tipológicas acumuladas de los distintos niveles del sector interior de Aitzbitarte III.



6. irudia. Ukitutako tresneriaren mailen arabeko banaketa, landu gabeko euskarriak kontuan hartuta.

Figura 6. Distribución por niveles del utillaje retocado en relación con los soportes brutos.




7. irudia. Hamizko pieza kopurua azal bakoitzeko.

Figura 7. Número de efectivos líticos por lecho.

8. irudia. Harrizko pieza kopurua induskaturiko maila bakoitzeko.

Figura 8. Número de efectivos líticos por nivel excavado.



Estratigrafian bi alde bereizi beharra berresten dute orobat azal eta maila bakoitzean bideratu diren aztarna zenbake-ten araberako kopuruek (7. eta 8. irudiak. Alderaketa justua izan dadin, kontuan har bedi grafika hauetan laginketako laukietako emaitzak baizik ez direla agertu). Halatan, argiro ikus dezakegu 6. azaletik aurrera (IV. maila) aztarna kopurua urrituz doala, arin bada ere. Ikusi ere egingo dugu nabarmen ageri dela 17. azala (IV. mailako azkeneko azala), hain da handia eman duen pieza kopurua. Argitu egiten du egoera hau mailakako grafikak, antzeko aztarna kopurua ageri baita VI. mailako bi tarteetan (8. irudia). 17. azalean aztarna kopuru handia agertu izana (tartetan banatu zen azal hura hasieratik) ezin da maila osatu zeneko edo molde tafonomikoko arrazoiaren bidez argitu, baizik eta indusketa prozesuarekin loturiko arrazoiak bilatu behar dira hartan. Lauki gehienetan iritsi ginen ia guztiz antzua den VII. mailara, eta 18. azala deitu zitzaion maila hartako aurreneko azalari. Halaz ere, indusketa eremu batean, sakonago jotzen du VI. mailak eta 17a, 17b, eta abar deitu zitzaion eremu hartan bereizi ziren azalei.

1.3. HARRIZKO INDUSTRIAREN OSOTASUNAREN ANALISIA

Harrizko industriaren azterketan aintzat hartuko dugun ikuspuntuaren arabera gogoan eduki ditugun alderdi garrantzitsuenen artean daude lehengaien hautapena, fabrikazio teknikak eta prozesuak, eta nukleoak, euskarrien eta ukituriko tresneriaren kudeaketa. Zera lortu nahi izan dugu analisi molde hori Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeto sekuentziako maila desberdinetan bideraturik, aldaketa eta iraupen elementuak bakantzea eta multzo bakoitzean antolakuntza ekonomikoaren arloko suma litekeen eredia ezagutzea. Ikuspuntu honen azkeneko helburua da ikerturiko maila arkeologikoetan sumatu diren aldaketa historikoen dinamikak hurbilgotik eta hobekiago ezagutzea.

Esta diferenciación en dos tramos de la estratigrafía, se confirma si nos fijamos en el número de restos por lecho y por nivel (Fig. 7 y Fig. 8. Para hacer una comparación justa, estas gráficas se refieren solamente a los cuadros del muestreo). De este modo vemos que se aprecia una ligera disminución en la cantidad de restos por lecho a partir del lecho 6 (Nivel IV). Además vemos que el nivel 17 (el último lecho del nivel VI) destaca por el gran número de efectivos que contiene. Esto se matiza si atendemos a la gráfica por niveles donde los dos tramos del nivel VI tienen un número de restos similar (Fig. 8). La gran abundancia de restos en el lecho 17 (subdividido originalmente en tramos) no se debe a una cuestión de formación del nivel o de tipo tafonómico, sino que se explica por razones vinculadas al proceso de excavación. En gran parte de los cuadros se llegó al Nivel VII, prácticamente estéril, y se le asignó el Lecho 18 como primer lecho de ese nivel, sin embargo en una zona de la excavación el nivel VI profundiza más y en esa zona los lechos se fueron denominando 17a, 17b, etc.

1.3. ANÁLISIS INTEGRAL DE LA INDUSTRIA LÍTICA

En el análisis de la industria lítica utilizaremos un enfoque que tiene en cuenta aspectos tales como la selección de las materias primas, las técnicas y procesos de fabricación y la gestión de núcleos, soportes y utillaje retocado. Aplicando este análisis en los distintos niveles de la secuencia interior de Aitzbitarte III, se pretende aislar elementos de cambio y permanencia, y reconocer los modelos de organización económica de cada conjunto. El fin último de este tipo de enfoque es lograr un acercamiento a las dinámicas de cambio histórico reflejados en los distintos niveles arqueológicos estudiados.

Erabilitako metodologiaren azalpen zehatzago baterako, Aitzbitarte III haitzuloaren kanpoaldeko edo sarrerako eremu lanek buruzko argitalpenera jo beha irakurleak, orduko prozesuak eta analisi-irizpide berberak hartu baitira aintzat honetan ere, aztarnategi honetako bi aldeek ikerketa lanei koherentzia ematearren.

2. VIII. ETA VII. MAILAK

Terraza maila da VIII. maila. Hareharrizko harkosko eta bloke biribil handiak eta margazko harri zabal txiki asko ageri ditu. 58P eta 58Q laukietako katan azaldu zen eta 20. eta 26. azalen bitarteko eremua induskatu da eremu horretan (163-166 cm bitartean), harkoskoek kata guztiz hartzen duten eremu batera iritsi arte. Maila antzua da ia guztiz, 6 pieza arkeologiko baizik ez ditu eman: azal-kentze printza bat, suak zartaturiko harkosko bat eta lau suharri printza. Sarrerako VI. maila dakarkigu multzo honek gogora: Erdi Paleolitikoko multzoa da.

Bi azaletan, 18. eta 19. ean (153 eta 163 cm), induskatu zen VII. maila. Antzu agertu zen lauki gehienetan, 58P eta 58Q-etan izan ezik. Haietan azaldu ziren, hain zuzen ere, maila honetako harrizko materialak.

Harrizko industria sail honen azterketak zalantzak sorrarazi dizkigu eremu hori guztizko maila arkeologikotzat hartzeko momentuan. Zera pentsarazi digu, gainera, material horiek 58P eta 58Q laukietan, hau da, VI. maila sakonago barneratzen den aldean, baizik agertu ez izanak, material horiek berez VI. mailari dagozkiola besterik gabe.

Kop. N°	Siglak Siglas	Mihizatze mota Tipo de remontaje
	AITIII.58P.153.3	
I		Hastura Fractura
	AITIII.58P.153.a	
	AITIII.58P.153.1	Mihizatze erlazionala Remontado relacional

I. taula. VII. mailako mihizatze-segidak.

Mihizatze-segida bat, bi erditan zatituriko Noailles zulakaitz bat, bururatu da VII. mailako multzoan, eta bizkardun ijekitxo ukitu bat ere agertu da, lanketa-sekuentzia berekoa itxura guztien arabera. Ez dirudi mihizatze gehiago dagoenik: oso erraz identifikatu zen besterik egonez gero, oso multzo txikia baita honako hau. Era berean, ez da mihizta-

Para una explicación más completa acerca de la metodología utilizada nos remitimos a la publicación previa de la zona exterior de Aitzbitarte III (Ríos-Garaizar, et al., 2011), puesto que se han seguido los mismos procesos y criterios de análisis, con el fin de dar coherencia al estudio de las dos zonas de este yacimiento.

2. NIVEL VIII Y VII

El Nivel VIII es un nivel de terraza, con grandes cantos y bloques rodados de arenisca y muchas lajitas de marga. Apareció en la cata de los cuadros 58P y 58Q y se ha excavado en los lechos 20 a 26 (entre 163 y 166 cm) hasta llegar a una zona en la que los cantos rodados invaden completamente la cata. Es un nivel prácticamente estéril, solamente ha proporcionado 6 piezas arqueológicas: una lasca de decortinado primario de limonita, un fragmento de canto roto por el fuego y cuatro lascas de sílex. Este conjunto recuerda al Nivel VI de la entrada, que es un conjunto del Paleolítico Medio (Ríos-Garaizar, et al., 2011).

El Nivel VII se excavó en dos lechos, 18 y 19 (entre 153 y 163 cm), en la mayoría de los cuadros revelándose como un nivel estéril, salvo en la zona de los cuadros 58P y 58Q, de los cuales procede el conjunto de materiales líticos hallados en este nivel.

El estudio de este lote de industria lítica nos hace dudar de su entidad como un nivel arqueológico propiamente dicho. Además el hecho de que los materiales arqueológicos procedan solamente de los cuadros 58P y 58Q, que es la zona donde el nivel VI profundiza más, nos hace pensar que estos materiales corresponden de hecho al nivel VI.

Piezaren deskribapena Descripción de la pieza	Maila Nivel
Noailles zulakaitz baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de b. de Noailles	VII, 19. Azala Lecho 19
Noailles zulakaitz baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de b. de Noailles	VII, 19. Azala Lecho 19
Mozturadun ijekitxoa, Noailles zulakaitz baten zatia izan litekeena Laminilla truncada, posible fragmento de buril de Noailles	VII, 19. Azala Lecho 19

Tabla 1. Secuencias de remontados del nivel VII.

En el conjunto del nivel VII se ha realizado una secuencia de remontado, se trata de un buril de Noailles fracturado en dos mitades, y una laminilla de dorso con retoque que parece proceder de la misma secuencia de talla. No es probable que haya más remontados, ya que debido al pequeño tamaño del conjunto, se hubiesen identificado fácilmente. Tampoco se han

tzerik ageri multzo honen eta VI. mailaren artean, baina ez da aukera hori guztiz baztertu behar; izan ere, arestian adierazi dugun bezala, mihizatzeen bilaketa bizia izan da, ez ordea sistematikoa.

2.1. LEHEN GAIK

Suharria da multzo honetan ageri den lehengai bakarra. Suharri moten artean, kontuan hartu gabe zehaztu gabe daudenak (% 41), bereziki nabarmentzen dira bertako aldakiak, Flysch-eko suharria bereziki (% 21) eta suharri urgoniarra (haizuloan berean topatua), laginaren laurdena osatzen duena (% 25). Neurri txikiagoan bada ere, kanpoko suharrian landuriko pieza ere ageri dira, hala nola Urbasako edo Chalosseko suharri paleogenoa (% 9) eta Trebiñukoa (% 4). Pieza hauek tresneria ukitu gisa sarraraziko zituzten aztarnategian.

2.2. SAILKAPEN TEKNOLOGIKOA

95 aztarnak osatzen dute VII. mailan topatu den harrizko multzoa. Erdetik gora dira formarik gabeko aztarnak edota printzak. Euskarri landuen artetik, bereziki aipagarriak dira ijeki-euskarriak eta urrixego ageri dira printzak. Ugarixko ageri dira, halaber, pieza azaldunak, baina ez dugu tartean pieza edo produktu egokitu edota mantendu bakar bat ere topatu.

EUSKARRIA / SOPORTE	KOP. / N	%
Nukleoa / Núcleo	2	2,11
Bigarren mailako azal-kentze printzak / Lasca decorticado secundario	11	11,58
Ijeki gainditua / Lámina sobrepasada	1	1,05
Ijeki islatua / Lámina reflejada	1	1,05
Printza / Lasca	9	9,47
Ijeki-euskarria / Soportes laminares	13	13,68
Birbizitze-printza / Lasca de reavivado	1	1,05
Zulakaitz-ebakina / Golpe de buril	4	4,21
Ezpala / Astilla	2	2,11
Formagabea / Informe	5	5,26
Ezkailak / Esquirlas	46	48,42
Guztiak batera / Total general	95	100,00

2. taula. VII. mailako multzoaren sailkapen teknologikoa.

2.3. IRAKURKETA TEKNOLOGIKOA

VII. mailan bertako suharri urgoniarrean landuriko bi printza-nukleo berreskuratu dira. Kalitate txarrekoak dira. Lanketa eskasa ageri dute biek. Osorik ageri da bata, eta hautsirik bestea. Lehenak (23x31x31mm) bi erazte baizik ez ditu ageri, euskarriaren plano naturaletik zuzenean, plataformak itxuratu gabe, eginak. Zatiturik ageri da beste nukleoa (22x37x35mm), hegal batean hain zuzen ere. Norabide bakarreko erazteak (18x15mm), plataforma bat azalera natural leun baten gainean eta bizkarra eta hondoa azaldunak.

localizado remontajes entre este conjunto y el Nivel VI pero no se descarta esta posibilidad debido a que, cómo ya mencionamos anteriormente, la búsqueda de remontajes ha sido intensiva pero no sistemática.

2.1. MATERIAS PRIMAS

La única materia prima que aparece en este conjunto es el sílex. Entre los tipos de sílex, sin tener en cuenta los indeterminados (41%), destacan las variedades locales, especialmente el sílex del Flysch (21%) y el sílex Urgoniano (procedente de la propia cavidad) que alcanza un cuarto de la muestra (25%). También aparecen representados, aunque en menor medida, sílex de procedencia exógena cómo el sílex Paleógeno de Urbasa o Chalosse (9%) y Treviño (4%) que son introducidos en el yacimiento en forma de utillaje retocado.

2.2. CLASIFICACIÓN TECNOLÓGICA

El conjunto lítico del Nivel VII está compuesto por 95 restos, más de la mitad de los mismos son restos informes o esquirlas. Entre los soportes tallados destacan los soportes laminares siendo ligeramente más escasas las lascas. Aparecen bien representados los productos corticales mientras que no aparecen representados los productos de acondicionamiento y mantenimiento (Tabla 2).

Tabla 2. Clasificación tecnológica del nivel VII.

2.3. LECTURA TECNOLÓGICA

En el Nivel VII se han recuperado dos núcleos de lascas en sílex local Urgoniano, de mala calidad. Ambos presentan una escasa preparación. Uno de ellos está completo y el otro fragmentado. El primero de ellos (23x31x31mm) presenta solamente dos extracciones sacadas directamente desde planos naturales del soporte, sin plataformas conformadas. El otro núcleo (22x37x35mm) esta fracturado en uno de los flancos. Presenta extracciones unidireccionales (18x15mm), una plataforma sobre una superficie natural lisa y el dorso y el fondo corticales.

Nukleoen egokitzapenerako produkturik ez da azaldu eta, beraz, ezin izan dugu lanketa prozesuaren alderdi honi buruzko informazioirik lortu.

Ekoitziriko euskarriei dagokienez, antzeko proportzioan berreskuratu ditugu printzak eta ijeki-euskarriak, azkeneko hauek ugarixeago agertu badira ere, ijekitxoak bereziki, ijeki baten erdiko zati batekin baizik ez baitugu egin topo. Lagina hain urria izanik eta hain zatiturik egonik, ezin ekin izan diogu haren azterketa tipometrikoari. Azalekotasunari dagokionez, ugari ageri dira azaleko printzak, ez ordea azaleko aztarnarik ageriko zukeen ijeki-euskarriak. Izan ere, argiro adierazten du euskarri mota horren presentziak noduluaren azala kentzeko edo larrutzeko lanik ez zirela bideratu, edota aintzat harturiko lanketa sistemen arabera kanpoaldeko azala ez zela guztiz kentzen. Kasu honetan suharri urgoniarreko printzak dira gehienak eta bat datoz mailako bi nukleoetan azaldu den ustiapen motarekin: ez da plataformarik prestatu eta eremu azalduak darmatzaten produktu gutxi batzuk baizik ez dira atera.

Negatiboak: Ijeki produktuen negatiboen irakurketak polo bakarrerako joera berresten du inolaz ere; printzen artean, aldiz, negatiboak gurutzaturik ageri dituztenak ere badira. Ijeki-euskarrien *ebakidurei* ohar egiten badiegu, trapezoidearen edo angelu kamutseko triangeluaren itxurako ebakidurak ageri dituzte. Kasu honetan ez ditugu *perfilak* aztertu, ezin izan baitugu alderdi hori behar bezala ikertu, ijeki-euskarri gehienak zatiturik azaldu direlako.

Orpoen irakurketak argiro erakutsi digu printzen artean nagusi direla orpo lauak. Alabaina, bada orpo diedro aurpegidun bat edo beste. Ijeki-euskarrien artean, bestalde, proportzio bertsuan ageri dira orpo lauak eta puntu-formakoak. Kolpekatze biguneko teknikekin lotu beharrekoak dira azken horiek.

2.4. TRESNERIA

Ukituriko tresnen kopurua txikia da (3. taula), baina tresna txikiak pieza guztien aldean ageri diren proportzioari erreparatzen badiogu, VI. eta V. mailetako balioetan gaudela ikusiko dugu. Tresneria ukituan zulakaitzak nabarmentzen dira nagusiki, Noailles zulakaitzak hain zuzen ere. Anekdotak baizik ez dira, bestalde, ageri diren gainerako kategoriak (zulagailuak, mozturak, ijeki ukituak, ezpalak, ijekitxo ukituak). Aipagarriak dira haien artean ertzean ukierak ageri dituzten piezatan oinarriturik landuriko tresnak.

Ikusi dugun bezala, zulakaitzena da multzo esanguratsuen; berreskuratu diren zortzietako bost ijekitxoaren gainean eginak dira eta, areago, ijekitxo islatu bat aukeraturik ageri dira. Ijekitxoak euskarri ukitu gisa nagusi agertze hau ($K=7$) Noailles zulakaitzen ugaritasunaren ondorioa da, euskarri txikiak eta arinak hautatzen baitziren nagusiki zulakaitz mota haietarako. Printzak ere ukituen bidez landuak ageri dira; kasu honetan, printzen gainean landu da gainerako tresneria ukitua ($K=5$), zulagailuaren eta, ertzean ukierak bideratuz, birbizitze-printzen gainean landu diren tresnen kasuan izan ezik. Ijeki gainditu bat dugu zulagailu horren euskarria.

Lehengaei dagokienez, argi dago bertako suharri urgoniarra dela pieza landu gehien eskaintzen duena. Nolanahi ere, doi-doi ukituak ageri dira piezak, suharriaren kalitatea ona ez delako eta inklusio eta diaklasa ugari ageri dituelako. Hala eta guztiz ere, kopuruaren aldetik haien garrantzia askoz ere apalagoa den arren, bereziki nabarmentzen dira pieza ukituen artean kanpoko suharrietan (Urbasa edo Chalosse, eta Trebiñu) landuriko produktuak, Flysch-eko suharriaren erabilera mailara iristen ez diren arren, huraxe baita tresna ukituen artean proportzio handiengan ageri den suharri mota.

No hay productos de acondicionamiento de los núcleos con lo cual no podemos obtener información de esta parte del proceso de talla.

En cuanto a los soportes producidos, las lascas y los soportes laminares aparecen en proporciones similares aunque son algo más abundantes los soportes laminares, especialmente las laminillas, ya que solamente hay un fragmento mesial de una lámina. La escasez y fragmentación de la muestra impide hacer un análisis *tipométrico*. Con respecto a la *corticalidad*, las lascas corticales aparecen bien representadas, pero no hay ningún soporte laminar con restos corticales. La presencia de este tipo de soportes nos indica que no se realizan actividades de decorticado de los nódulos o que los sistemas de talla aplicados no eliminan por completo el córtex exterior. En este caso casi todas son lascas de sílex Urgoniano y coinciden con el tipo de explotaciones que muestran los dos núcleos del nivel en los que no hay ninguna preparación de plataformas y se extraen unos pocos productos que arrastran zonas corticales.

Negativos: La lectura de los negativos de los productos laminares muestra una tendencia eminentemente unipolar; mientras que en las lascas también aparecen algunas con negativos cruzados. Si nos fijamos en las secciones de los soportes laminares, éstos presentan secciones trapezoidales o con forma de triángulo obtusángulo. Los *perfiles* en este caso no se han analizado puesto que la mayor parte de los soportes laminares están fragmentados y no permiten apreciar este aspecto.

La lectura de los *talones* muestra que entre las lascas predominan los talones lisos, aunque también hay algún talón diedro y facetado, mientras que en los soportes laminares aparecen en iguales proporciones los talones lisos y puntiformes. Estos últimos se relacionan con percusión blanda.

2.4. UTILLAJE

El número de útiles retocados es escaso (Tabla. 3), pero si nos fijamos en la proporción de útiles retocados con respecto al total de piezas, es similar al del nivel VI y V. Entre el utillaje retocado destacan los buriles y más concretamente los buriles de Noailles. El resto de categorías presentes (perforadores, truncaduras, hojas retocadas, astillados, hojitas retocadas) son anecdóticas, destacando los útiles diversos consistentes en piezas con retoque marginal.

Cómo hemos visto, el grupo más significativo es el de los buriles, de los 8 recuperados 5 están realizados sobre laminillas, incluso se elige una laminilla reflejada. Este predominio de las laminillas como soportes retocados ($N=7$) se debe a la abundancia buriles de Noailles, para los cuales se eligen preferentemente soportes pequeños y ligeros. Las lascas también se han conformado mediante retoque, en este caso el resto de utillaje retocado se ha elaborado sobre lasca ($N=5$), salvo el perforador cuyo soporte es una lámina sobrepasada y un útil diverso con retoque marginal que se ha elaborado sobre una lasca de reavivado.

Con respecto a las materias primas, vemos que el sílex local Urgoniano, que es el sílex que más restos tallados proporciona, apenas se retoca, quizá debido a su mala calidad y a la abundancia de inclusiones y diaclasas que presenta. Sin embargo los sílex exógenos (de Urbasa o Chalosse, y Treviño) cuya importancia cuantitativa es mucho menor, parece que cobran importancia entre los retocados, aunque no alcanzan al sílex del Flysch que es el que aparece usado en mayor proporción dentro de los útiles retocados.

MOTA / TIPO	KOP. / N	%
Zulagailua / Perforador	1	7,14
Zulakaitz anizkun diedroa / Buril múltiple diedro	1	7,14
Zulakaitz anizkun mistoa / Buril múltiple mixto	1	7,14
Noailles zulakaitza / Buril de Noailles	5	35,71
Mozturadun pieza zuzena / Pieza truncada recta	1	7,14
Ertz batean ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre un borde	1	7,14
Pieza ezpaldua / Pieza astillada	1	7,14
Mozturadun orritxo / Hojita truncada	1	7,14
Bestelakoak / Diversos	2	14,29
<i>Ertzean ukiera duen printza / Lasca con retoque marginal</i>	1	7,14
<i>Ertzean ukiera duen ijekitxo zatia / Fragmento de laminilla con retoque marginal</i>	1	7,14
Pieza ukituak guztira / Total retocadas	14	14,74
Ukitu gabeko tresneria / Utillaje sin retocar	81	85,26
Guztiak batera / Total general	95	100,00

3. taula.VII. mailako piezen sailkapen tipologikoa, D. Sonneville-Bordes-en tipologiaren arabera (Sonneville-Bordes eta Perrot, 1954).

Tabla 3. Clasificación tipológica del nivel VII según la tipología de D. Sonneville-Bordes (Sonneville-Bordes y Perrot, 1954).

3. VI. MAILA

3.1. SARRERA

9. eta 17. azalen bitarteko eremua hartzen du VI. mailak eta 36 m²-ko hedaduran induskatu zen. Maila honetan bi alde bereizten dira: VIa (9.-14. bitarteko azalak) eta VIb (15.-17. bitarteko azalak). Lodiera aldakorrekoak dira biak, 5 eta 20 cm bitartekoak, lauki batzuetan mailaren lodiera eskasa delako. Alabaina, lodiago eta sakonago ageri zaigu laukiteriaren erdialdean, 58P-Q eta 59P-Q laukien inguruan. Antzekoa da bi aldeetan mailaren matrizea: lur hareatsu-lohitsu horixka, harroa eta tartean harkoskoak eta blokeak ageri dituen (Altuna; Areso eta Uriz, liburu honetan). Non dago, bada, bi azpimaila hauen arteko aldea? Bada, VIb aldeko sedimentuaren kolorazioa ilunagoa da eta, horrez gainera, ugariago eta kontzentrazio handiagoan ageri dira VIa azpimailako arkeologia sedimentuak. 2. atalean dagoeneko adierazi dugun bezala, unitate edo eremu bakar gisa aztertuko dugu maila eta alde edo desberdintasun esanguratsu bat nabartu behar izatean baizik ez ditugu VIa edo VIb azpimailak zehazki kontuan hartuko.

3. NIVEL VI

3.1. INTRODUCCIÓN

El Nivel VI comprende los lechos 9 a 17 y fue excavado en una extensión de 36 m². Este nivel se subdivide en dos tramos, el VIa (lechos 9 a 14) y el VIb (15 a 17g), ambos de espesor variable, entre 5 y 20 cm, ya que en algunos cuadros el grosor del nivel es escaso, pero se va haciendo más espeso y profundizando más en la zona central de la cuadrícula, en torno a los cuadros 58P-Q y 59P-Q. La matriz del nivel en ambos tramos es similar; se definió como tierra arenosa-limosa amarillenta, suelta, con algunos cantos y bloques (Altuna; Areso y Uriz en este volumen). La diferencia entre los dos subniveles se basa en que la coloración del sedimento en el VIb es más oscura, y que el subnivel VIa contiene mayor concentración de restos arqueológicos. Como ya hemos mencionado en el apartado 2, vamos a estudiar el nivel como una unidad, solamente nos referiremos al VIa o VIb cuando haya que matizar alguna diferencia relevante.

3.2. MULTZOAREN OSOTASUNA

Hasieran behinik behin, zalantza askorik ez dugu eduki mul-tzoaren osotasunaren inguruan, homogenea izateaz gainera, haren koherentzia tekno-tipologikoa agerikoa delako eta kontserbazio egoera onean dagoelako. Bestalde, multzo honen palimpsesto izaera nabarmena aintzat harrarazi digu inolaz ere, bi tarte sedimentologiko desberdin agertu izanak.

Guztira, 21 mihizatze-segida eskaini dizkigu VI. mailak (4. taula). Molde eta izaera desberdinekoak dira: haustura zaharrak, lanketa-istripuak, lanketa-sekuentziak, indusketa prozesuaren bitartean eraginiko haustura berriak, erabilerak eta suak eraginiko hausturak. Mailaren behealdeko azaletan mihizatze gehiago azaldu dira, bestalde.

Mihizatze-segida guztiak bideratu dira zein bere azalean, eta ez dituzte maila osatzen duten tarte desberdinak lotzen edo harremanetan jartzen. Bideraturiko azterketa motarengatik gertatu da hori, epeak juxtu eta aztertu beharreko materiala ugari zirelarik, ezin izan baititugu material guztiak hedatu eta mihizatzeak sistematikoki bilatu. Halatan, uste izatekoa da, azterketa xeheago batean, azal desberdinen artean mihizatzeak topatzea.

3.2. INTEGRIDAD DEL CONJUNTO

En principio no albergamos muchas dudas acerca de la integridad del conjunto, debido su homogeneidad, a su coherencia tecno-tipológica y a su buen estado de conservación. Por otro lado, la existencia de dos tramos sedimentológicos diferenciados, nos lleva a plantear el marcado carácter de palimpsesto de este conjunto.

En total, el nivel VI ha proporcionado 21 secuencias de remontado de diversa naturaleza (tabla 4), como fracturas antiguas, accidentes de talla, secuencias de talla, fracturas recientes derivadas del proceso de excavación, fracturas por uso y por fuego. Por otra parte, hay que mencionar una mayor abundancia de remontados en los lechos inferiores del nivel.

Todas las secuencias de remontado se hacen dentro de su propio lecho, pero no relacionan los distintos tramos que componen el nivel. Esto se debe al tipo de estudio realizado, ya que por cuestiones de tiempo y abundancia de materiales no ha sido posible extender todos los materiales y hacer una búsqueda sistemática de remontados, por lo que puede esperarse el descubrimiento de remontados entre distintos lechos a partir de un análisis más detallado.

Kop. N°	Siglak Siglas	Mihizatze mota Tipo de remontaje	Piezaren deskribapena Descripción de la pieza	Maila Nivel
1	AITIII.59Q.145.219.a	Haustura zaharra Fractura antigua	Ukitutako ijekiaren hurbilaldeko zatia Fragmento prox. de lámina retocada	VIIb, 17f azala Lecho 17
	AITIII.59Q.145.219.b		Ukitutako ijekiaren urrunaldeko zatia Fragmento distal de lámina retocada	VIIb, 17f azala Lecho 17
2	AITIII.58Q.17d.1a	Lanketa-sekuentzia Secuencia de talla	Noailles zulakaitza Buril de Noailles	VIIb, 17d azala Lecho 17
	AITIII.58Q.17d.1b		Aurpegi bakarrek gandor baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de cresta unifacial	VIIb, 17d azala Lecho 17
3	AITIII.58Q.17d.1d	Mihizatze erlazionala Remontado relacional	Noailles zulakaitza Buril de Noailles	VIIb, 17d azala Lecho 17
	AITIII.58Q.17d.1e		Noailles zulakaitza Buril de Noailles	VIIb, 17d azala Lecho 17

.../...

.../...

	AITIII.59O.141.251		Noailles zulakaitz baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de b. de Noailles	VIIb, 17c azala Lecho 17
4		Lanketak edo erabilerak eraginiko haustura Fractura talla o uso		
	AITIII.59O.144.244		Noailles zulakaitz baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de b. de Noailles	VIIb, 17c azala Lecho 17
	AITIII.59O.144.242		Printza baten erdialdeko zatia Fragmento mesial de lasca	VIIb, 17c azala Lecho 17
5		Haustura zaharra Fractura antigua		
	AITIII.59O.143.245		Printza baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de lasca	VIIb, 17c azala Lecho 17
	AITIII.58P.145.193.d		Noailles zulakaitz baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de b. de Noailles	VIIb, 17c azala Lecho 17
6		Haustura zaharra Fractura antigua		
	AITIII.58P.145.193.a		Noailles zulakaitz baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de b. de Noailles	VIIb, 17c azala Lecho 17
	AITIII.60Q.159.215		Zulakaitz baten erdialdeko zatia Fragmento medial de buril	VIIb, 17b azala Lecho 17
7		Sua Fuego		
	AITIII.60Q.157		Zulakaitz baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de buril	VIIb, 17b azala Lecho 17
	AITIII.58O.143.219		Gandor baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de cresta	VIIb, 17b azala Lecho 17
8		Lanketa-istripua Accidente de talla		
	AITIII.58O.140.221		Gandor baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de cresta	VIIb, 17b azala Lecho 17
	AITIII.58P.148.210.a		Gandor aurpegi bakar baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de cresta unifacial	VIIb, 17. Azala Lecho 17
9		Haustura zaharra Fractura antigua		
	AITIII.58P.148.210.b		Gandor aurpegi bakar baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de cresta unifacial	VIIb, 17. Azala Lecho 17

.../...

.../...

	AITIII.58Q.142.160		Puntadun ijeki ukitu baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de lámina retocada y apuntada	VIIb, 17. Azala Lecho 17
10		Haustura zaharra Fractura antigua		
	AITIII.58Q.144.160		Puntadun ijeki ukitu baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de lámina retocada y apuntada	VIIb, 17. Azala Lecho 17
	AITIII.58Q.141.148.a		Ijekitxo baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de laminilla	VIIb, 17. Azala Lecho 17
11		Haustura Fractura		
	AITIII.58Q.141.148.b		Ijekitxo baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de laminilla	VIIb, 17. Azala Lecho 17
	AITIII.59P.140.197.a		Noailles zulakaitz baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de b. de Noailles	VIIb, 17. Azala Lecho 17
12		Haustura zaharra Fractura antigua		
	AITIII.59P.140.197.b		Noailles zulakaitz baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de buril de Noailles	VIIb, 17. Azala Lecho 17
	AITIII.62Q.159.249		Hegal baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de flanco	VIIb, 16. Azala Lecho 16
13		Haustura zaharra Fractura antigua		
	AITIII.62Q.159.247		Hegal baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de flanco	VIIb, 16. Azala Lecho 16
	AITIII.58Q.16.7.c		Ijekitxo baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de laminilla	VIIb, 16. Azala Lecho 16
14		Lanketa-haustura Fractura de talla		
	AITIII.58Q.16.7.d		Ijekitxo baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de laminilla	VIIb, 16. Azala Lecho 16
	AITIII.58Q.135.142.a		Noailles zulakaitz baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de b. de Noailles	VIIb, 16. Azala Lecho 16
15		Haustura berria Fractura reciente		
	AITIII.58Q.135.142.b		Noailles zulakaitz baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de buril de Noailles	VIIb, 16. Azala Lecho 16

.../...

.../...

	AITIII.58Q.135.141.a		Zulakaitz-ebakina Golpe de buril	VIIb, 16. Azala Lecho 16
16		Lanketa-sekuentzia Secuencia de talla		
	AITIII.58Q.135.141.b		Zulakaitz-ebakina Golpe de buril	VIIb, 16. Azala Lecho 16
	AITIII.58K.157		ljekitxo baten hurbilaldeko zatia Fragmento proximal de laminilla	VIIa, 13. Azala Lecho 13
17		Haustura zaharra Fractura antigua		
	AITIII.58K.157		ljekitxo baten erdialdeko zatia Fragmento medial de laminilla	VIIa, 13. Azala Lecho 13
	AITIII.59K.153.90		Printza Lasca	VIIa, 13. Azala Lecho 13
18		Lanketa-sekuentzia Secuencia de talla		
	AITIII.59K.156.92		Printza kopurua Núcleo de lascas	VIIa, 13. Azala Lecho 13
	AITIII.61O.148.87.a		ljekitxo baten erdialdeko zatia Fragmento medial de lámina	VIIa, 11. Azala Lecho 11
19		Haustura zaharra Fractura antigua		
	AITIII.61O.148.87.b		ljekitxo baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de lámina	VIIa, 11. Azala Lecho 11
	AITIII.60M.140.24		ljekitxo baten urrunaldeko zatia Fragmento distal de lámina	VIIa, 9. Azala Lecho 9
20		Haustura berria Fractura reciente		
	AITIII.60M.139.32		ljekitxo baten erdialdeko zatia Fragmento medial de lámina	VIIa, 9. Azala Lecho 9
	AITIII.59K.142.28		Okre-lapitz baten zatia Fragmento de lápiz de ocre	VIIa, 9. Azala Lecho 9
21		Erabilerak eraginiko haustura Fractura por uso		
	AITIII.59K.142.23		Okre-lapitz baten zatia Fragmento de lápiz de ocre	VIIa, 9. Azala Lecho 9

4. taula. VI. mailako mihizatze-segidak.


Tabla 4. Secuencias de remontados del nivel VI.

Aztarnen azalen araberako banaketari dagokionez, garbi dago nabarmen aldatzen dela, han eta hemen, egoera: aztarnak 58P-Q eta 59O-Q laukietan berreskuratutako nagusiki, eta oso dentsitate txikian ageri dira 57, 62, 63 eta N bandetan (10. irudia). Oro har, homogeenago banaturik ageri dira aztarnak laukiteria osoko goiko azalean, hainbat laukitan bestelako kontzentrazio maila suma litekeen arren; behealdeko laukietan, bestalde, dentsitate maila oso urria da 63ko bandan. Aurreko guztia kontuan harturik, eta VII. mailan azaldu diren materialak (aurreko atalean azaldu ditugunak) eta Aitzbitarte II haizuloan, maila honen azpian irekitzen den haizuloan hain zuzen ere, berreskuratutako material multzoan (higakin kono batean. Altuna, 1985) Noailles zulakaitzak agertu zirela gogoan edukirik, zera uste dugu guk, indusketa eremutik hurbil dagoen ur-zuloa edo uren hustubidea dela zenbait gunetan ageri den material kontzentrazio maila handi horren arrazoia.

Materialen kontserbazio egoerari dagokionez, ongi daude la dirudi, ez baita alde hartan materialen garraio edo lekualdatze bizkor baten zantzuak salatuko lizkigukeen alterazio mekaniko edo kimiko indartsurik dokumentatu. Haustura zaharrak dira alterazio mekaniko bakarrak, eta maiz ageri dira okupazio mailetan. Alterazio termikoen ekin ere sumatzen da gune batzuetan, suaren eraginaz. Alabaina, ageri-agerikoa da materialen

Si atendemos a la distribución de los restos por lechos es bastante cambiante aunque en los lechos 14 a 17 se observa una mayor concentración en torno a los cuadros 58P-Q y 59O-Q, y bajas densidades en las bandas 57, 62, 63 y N (Fig. 10). En general los lechos superiores (9 a 13) muestran una distribución más homogénea de los restos por toda la cuadrícula, aunque presentan algunas concentraciones variables en distintos cuadros, y al igual que en los cuadros inferiores hay densidades muy bajas en la banda del 63. Todo esto, unido a los materiales del nivel VII (ver apartado anterior) y al hecho de que en Aitzbitarte II, la cueva inmediatamente inferior se encontró un conjunto de materiales con abundantes buriles de Noailles procedentes de un cono de derrubios (Altuna 1985), nos hace pensar que la existencia de un sumidero cercano al área de excavación puede explicar ciertas concentraciones.

Con respecto al estado de conservación de los materiales, parece bueno ya que no se han documentado fuertes alteraciones mecánicas o químicas que sugieran un transporte de materiales intenso. Las únicas alteraciones mecánicas son las fracturas antiguas, frecuentes en los niveles de ocupación, y también se dan alteraciones térmicas por acción del fuego. Lo que sí se aprecia en un porcentaje elevado de los materiales,



9. irudia. VI. mailako harritzko aztarnen banaketa, azal eta laukien arabera. Aztarna kontzentrazio maila handiago salatzen digute lauki ilunenek.

Figura 9. Distribución de los restos líticos del nivel VI por lechos y cuadros, los cuadros más oscuros evidencian mayor concentración de restos.

portzentaia altu batean suharriaren alterazio kimiko baten presentzia, deshidratazioak eta kolorazioan eta beraren ezaugarri fisikoetan aldaketak eragiten dituen.

Halatan, alterazio aipagarriak jasan ez duen maila da honako hau. Bestalde, hainbat okupazioen palimpsesto izaera nabari zaio bereziki maila honi, hartan halako sinkronia ere posible dirudien arren. Garaiari dagokionez Gravette eta Noailles aldien arteko tekno-komplexuaren barnean kokatu beharra dago.

Multzoaren osotasuna eta sinkronia erlatiboa baieztatu ondoren, jakin dezagun 16.613 aztarna aztertu direla guztira. Haietako 2.622 ukieren bitartez landu ziren. 40 aztarna makrolitiko eta landu eta erabili gabeko beste 47 harri bloke erregistratu dira haien artean. Hainbat gai edo mineral bereiz daiteke bloke horietan: hareharria, harri-kristala, eskistoa, kuartzoa, limonita, manganesoa eta suharri urgoniarra eta Gaintxurizketakoa. Bestalde, formarik gabeko 446 zati eta 10 mm-tik beherako 5.117 ezkailek eta zati txiki zenbatu ditugu guztira. VI. mailako multzoa da maila ugariena, Atzibitarte III haizuloaren barruneko sekuentzian azaldu diren harrizko aztarnen artean.

3.3. LEHEN GAIAK

VI. mailan berreskuraturiko materialen arabera, suharria erabili zuten ia beti lehengai gisa, % 99,07ko proportzioan hain zuzen ere (5. taula). Suharrak motei dagokienez, begiz sailkatu ditugu materialak, A. Tarrionok (Tarrion, 2006, 2011; Tarrion Vinagre y Elorrieta Baigorri, 2012) eginiko azterketak erreferentziatzen harturik. Ezin zehaztu izan ditugun edo multzo batean sailkatzen zailak diren suharriak alde bat utzirik, bertako suharriak dira, itxura guztien arabera, gehien azaltzen diren motak, *Bidaxuneko* Flysch-a ugariena eta *Gaintxurizketakoa* ondoren. Antzeko proportzioan ageri da kanpoko suharri mota bat, Urbasako mendietatik datorrena. Portzentaia apalagoetan (% 1 eta % 3 bitartean) ageri dira beste kanpoko mota batzuk, hala nola *Chalosse* eta Landetako *Tercis*-ko suharri frantsesak eta Trebiñuko suharria. Bestalde, haizuloan bertan ageri den suharri motaren presentzia (urgoniarra) ere ez da kontuan hartzekoa, oso kalitate eskasa eskaintzeaz gainera, barnean inklusio eta pitzadura asko ageri dituelako.

LEHENGAIK / MATERIAS PRIMAS	KOP. / N	%
Beste gai batzuk / Otras materias	155	0,93
Suharria / Sílex	16.458	99,07
Guztira / Total	16.613	100,00

5. taula. VI. mailako lehengaien sailkapena, kategoria handitan banatuta.

Mota askotakoak ditugu erabili ziren beste gaiak (hareharria, harri-kristala, kuartzita, eskistoa, galena, limonita, lutita, manganesoa, tugarria eta okrea), baina anekdota baizik ez dira. Beste gai horien artean, bestela eta gehixeagotan erabiltzen dira kuartzita, kuartzoa, limonita eta ofita, harkosko gordin azaltzen baitira batzuetan eta printza gisa beste zenbaitetan. Nukleo bat jaso da halaber. Blokeetan eta itxuratu gabeko harkoskoetan azaldu dira hareharria, eskistoa, lutita eta tugarria.

es una alteración química del sílex que provoca deshidrataciones y cambios en la coloración y en las propiedades físicas del mismo.

En conclusión, se trata de un nivel que no parece haber sufrido alteraciones reseñables. Por otro lado éste nivel tiene un marcado carácter de palimpsesto de diversas ocupaciones, aunque parece posible una relativa sincronía, ubicándose temporalmente dentro del tecnocomplejo Gravetiense con Noailles.

Una vez determinada la integridad y la relativa sincronía del conjunto, el total de restos analizados es 16.613, de los cuales 2.622 han sido conformados mediante retoque. Entre ellos se han registrado 40 restos macrolíticos y 47 bloques líticos no modificados ni usados de diversas materias como arenisca, cristal de roca, esquisto, cuarzo, limonita, manganeso y sílex Urgoniano y de Gaintxurizketa. Por otro lado, se ha contabilizado un total de 446 fragmentos informes y 5.177 esquirlas y fragmentos menores de 10 mm. El conjunto del nivel VI es nivel más numeroso, en términos de efectivos líticos de la secuencia del interior de Aitzbitarte III.

3.3. MATERIAS PRIMAS

En el nivel VI encontramos un abrumador predominio del uso del sílex como materia prima, alcanzando un 99,07% (tabla 5). En lo que concierne a las variedades de sílex, hemos hecho una clasificación *de visu* tomando como referente los estudios realizados por A. Tarrion (Tarrion, 2006, 2011; Tarrion Vinagre y Elorrieta Baigorri, 2012). Sin tener en cuenta los sílex indeterminados o difíciles de asignar a un grupo, parece que las variedades más representadas son los sílex locales, el más frecuente es el Flysch de *Bidache*, seguido del de *Gaintxurizketa*. En similar proporción aparece una variedad de sílex exógeno, el procedente de la Sierra de Urbasa. El resto de variedades exógenas, como los sílex franceses de *Chalosse* y *Tercis* (Las Landas) y el sílex de Treviño, aparecen en porcentajes bajos (entre 1 y 3%). Tampoco es reseñable la presencia en este nivel de la variedad de sílex procedente de la propia cueva (Urgoniano) que presenta unas calidades bajas y abundancia de inclusiones y fisuras internas.

Tabla 5. Clasificación de las materias primas del nivel VI en grandes categorías.

El resto de materias usadas son bastante variadas (arenisca, cristal de roca, cuarcita, cuarzo, esquisto, galena, limonita, lutita, manganeso, marga y ocre) pero aparecen sólo de manera anecdótica. Entre estas otras materias, la cuarcita, el cuarzo, la limonita y la ofita se usan de una forma algo más diversa e intensa, ya que aparecen tanto en forma de cantos brutos como en forma de lascas y un núcleo. La arenisca, esquisto, lutita, y marga aparecen en forma de bloques, y cantos rodados no configurados.

3.4. SAILKAPEN TEKNOLOGIKOA

Harrizko 16.613 aztarnak osatzen dute VI. mailako multzoa (6. taula), eta 10 mm-tik beherako ezkailak dira haietako gehienak. Aipagarriak dira, era berean, lehen asmoko produktuak, printzak eta ijeki-euskarriak (% 42,15); ugariago ageri dira ijeki produktuak haien artean. Hauetz gainera, bereziki aipagarriak dira zulakaitz-ebakinak, % 5,32 izaki; lanketan huts eginiko piezak, aipatu ditugun antzekoak, eta harkoskoak, oso gutxi erabili zirelako.

Bestalde, urri xamar ageri dira honetan nukleoak (aztarnen % 0,52 baizik ez) eta ez horrenbestetan egokitzapen-produktuak (% 6,42). Kontuan hartzen badugu, euskarri gordinen aldean, euskarri ukituen portzentaia altua dela (euskarri ukituak halako bi baizik ez dira euskarri gordinak), badirudi tresneriaren fabrikaziorako jarduerak ez zutela aldi hartan horrenbesteko garrantzia izan, munta handiagokoak izango ziratekeelako euskarrien kontsumo eta mantentze jarduerak.

3.4. CLASIFICACIÓN TECNOLÓGICA

El conjunto del VI está compuesto por 16.613 restos líticos (Tabla 6), buena parte de los cuales son esquirlas menores de 10 mm. También destacan los productos de primera intención, lascas y soportes laminares (42,51%), dentro de los cuales son más abundantes las producciones laminares. Hay que mencionar además la importancia de los golpes de buril que alcanzan un 5,32%, la de los errores de talla como los reflejados, y la escasez de cantos utilizados.

Por otro lado, los núcleos son bastante escasos (apenas suponen un 0,52% de los restos) y los productos de acondicionamiento son también escasos (6,42%). Esto unido al alto porcentaje de soportes retocados en relación a los brutos (los soportes brutos suponen algo más del doble que los retocados) parece indicar una menor incidencia de las actividades de fabricación frente una mayor importancia de las actividades de consumo y mantenimiento de soportes.

EUSKARRIAK / SOPORTES	KOP./ N	%
Nukleoa / Núcleo	26	0,15
Printza kopurua / Núcleo de lascas	15	0,09
Ijeki-nukleoa / Núcleo laminar	32	0,20
Printza gaineko ijeki -nukleoa / Núcleo laminar sobre lasca	13	0,08
Lehen mailako azal-kentze printza / Lasca decortinado primario	76	0,46
Bigarren mailako azal-kentze printza / Lasca decortinado secundario	764	4,60
Lehen mailako azal-kentze ijekia / Lámina decortinado primario	12	0,07
Bigarren mailako azal-kentze ijekia / Lámina decortinado secundario	503	3,03
Bi aurpegiko gandorra / Cresta bifacial	40	0,24
Erdi-gandErdigandorra edo gandor aurpegibakarra / Semicresta o cresta unifacial	320	1,93
Ijeki islatua / Lámina reflejada	320	1,93
Birbizite-tableta / Tableta de reavivado	136	0,82
Printzaketa-aurpegi garbiketa-hegalak eta printzak / Flancos y lascas de limpieza cara de lascado	247	1,49
Nukleo-hondoaren garbiketa-printza / Lasca de limpieza de fondo de núcleo	4	0,02
Printza / Lasca	2.898	17,44
Ijeki-euskarriak / Soportes laminares	4.165	25,07
Kombewa / Kombewa	7	0,04
Birbizite-printza / Lasca de reavivado	112	0,67
Zulakaitz-ebakina / Golpe de buril	883	5,32
Ezpala / Astilla	329	1,98
Formagabea / Informe	446	2,68
Ezkailak / Esquirlas	5.177	31,16
Blokea / Bloque	47	0,28
Harkoskoa / Canto	40	0,24
Printza termikoa / Lasca térmica	1	0,01
Guztira / Total	16.613	100,00

6. taula. VI. mailako multzoaren sailkapen teknologikoa

Tabla 6. Clasificación tecnológica del nivel VI.

Nukleo eta egokitzapenerako produktuen errealitatean oinarriturik jaso dugun inpresio orokor horrengatik ere, badi-rudi bertan halako lanketa jarduera garatu zela. Gainera, euskarri azaldunen portzentaia aipagarria izateak (% 8,16) argiro adierazten digu aztamategian tresnen lehen lanketarako jarduerak bideratu zirela baina, aurrerago ikusiko dugun bezala, produkzio batzuetan nukleo azaldunen eremuei eutsi zieten lanketa beteko uneetan.

3.5. IRAKURKETA TEKNOLOGIKOA

VI. mailan harrizko tresneriaren ekoizpenari begira sumatzen diren estrategiak berreraikitzen saiatuko gara atal honetan, nukleoan, mihiztatze-segidan eta berreskuraturiko euskarrien ezaugarri teknologikoen deskribapen laburbilduaren bitartez.

Nukleoak

VI. mailan, urri xamarra da nukleo kopurua, eta formatu mota asko ageri dira gainera. Ijekitxoak, ijekiak eta printzak lantzeko nukleoak identifikatu ditugu, bai eta ingude gainean landuriko nukleo ezpalduak (de la Peña 2011), mota desberdineko nukleo zatiak (K=8), ijeki-nukleoan hiru aurreformak nodulu gainean eta formarik gabeko edo irakurketa zaileko nukleo ale batzuk (K=5).

Ijekitxo-nukleoan arteko ugarienak dira prisma itxurako nukleoak, plataforma bakarrarekin edo birekin. Prisma itxurako nukleo konberjenteak, piramide itxurakoak eta ustiatze bat baino gehiagoko nukleo konplexuak ere ageri dira, baina oso kopuru txikian. Printza gainean landuriko ijekitxo-nukleo kopuru garrantzitsua azaldu da, gainera: ijekitxoan sorbatza baliatzen dute eta erauzte ugari ageri dituzten zulakaitz lodien antzeko formatua dute. Zulakaitzei opaturiko atalean ikusiko dugun bezala, ukituriko tresneria mota hau (zulakaitz lodiak edota «busqué» zulakaitzak) ijekien beste ustiatze eredu baten erakusgarria izan liteke (Le Brun-Ricalens eta Brou, 2003). Halaz ere, ez da printza lodien berariazko ekoizpenik dokumentatu, nukleo hauen euskarri gisa bideratu zirenen kasuan bezala.

Ijeki-nukleoak dagokionez (K=15), mota gutxi azaldu dira eta ijeki negatibo laburrak ageri dituzte oro har. Prisma itxurakoak dira guztiak (polobakarrak gehienak, baina bada bi polo bikoren bat edo beste), ale konplexu bat izan ezik. Pieza honek azpi-piramide itxurako ustiatze bat ageri du albo batean eta prisma itxurakoa eta polo biko beste bat. Zein bere aldetik landu ziren biak (16. irudia).

Printza-nukleoan artean, badira polobakarrak, polo-anizkunak eta disko joera dutenak.

Aipatu beharrik dira, azkenik, ingude gainean landuriko nukleo ezpalduak. Kasu honetan, ordea, azkeneko faseetan kontrakolpe ustiatu diren prisma itxurako nukleoak dira haie-tako batzuk.

Prisma itxurako ijekitxo-nukleoak: Ijekitxo-nukleoan artean, bereziki aipagarriak dira neurri txikiko printza eta nodulueta-tik abiatutik, prisma itxuran landu diren nukleoak. Plataforma lauak bezala printzaketa-aurpegitik printzatxo txiki batzuk erauziz bideraturiko prestatze-lan bereziak ageri dira (10.2 irudia). Lanketaren garapenari dagokionez, aurrealdeko garapena edo garapen erdi-inguratzailea ageri dute, eta nukleoan maiz azaltzen dira, era berean, eremu azaldunak (hegalak, bizkarra edo hondoa).

A pesar de esta impresión general se puede constatar, a partir de la presencia de núcleos y de acondicionamientos, que se desarrolló *in situ* una cierta actividad de talla. Además, el hecho de que haya un porcentaje relevante de soportes corticales (8,16%) indica que se dieron en el yacimiento actividades de inicio de talla, aunque como veremos más adelante en ciertas producciones se mantienen zonas corticales de los núcleos en momentos de plena talla.

3.5. LECTURA TECNOLÓGICA

En este apartado vamos a intentar reconstruir las estrategias de producción lítica que se dan en el seno del nivel VI, a través de una descripción sintética de los núcleos, las secuencias de remontados y las características tecnológicas de los soportes recuperados.

Núcleos

En el nivel VI el número de núcleos es relativamente escaso y muestra una gran variabilidad de formatos. En él hemos identificado núcleos destinados a la producción de laminillas, de láminas y de lascas, además de núcleos astillados por talla posada sobre yunque (de la Peña 2011), fragmentos de núcleos de las distintas categorías (N=8), tres preformas de núcleos laminares sobre nódulo y algunos ejemplares de núcleos informes o de difícil lectura (N=5).


Entre los núcleos de laminillas los más numerosos son los núcleos prismáticos con una plataforma o con dos. Los núcleos prismáticos convergentes, piramidales y núcleos complejos con varias explotaciones aparecen, pero en un número muy bajo. Además hay un número importante de núcleos de laminillas realizados sobre lasca que explotan el filo de las mismas y que tienen un formato similar a los buriles espesos con extracciones múltiples. Como veremos en el apartado dedicado a los buriles, este tipo de utillaje retocado (los buriles espesos o los buriles busqué) pueden representar otro modelo de explotación laminar (Le Brun-Ricalens y Brou, 2003). Sin embargo no se ha documentado una producción específica de lascas espesas cómo las que sirven de soporte a estos núcleos.

Con respecto a los núcleos laminares (N=15) nos encontramos con escasa variedad y en general muestran negativos laminares cortos. Todos ellos son prismáticos (unipolares en su mayoría aunque también aparece algún núcleo bipolar) salvo un ejemplar complejo que presenta por un lado una explotación de tipo subpiramidal y otra de tipo prismático bipolar, ambas desarrolladas de manera independiente (Fig. 16).

Entre los núcleos de lascas los hay unipolares, multipolares y de tendencia discoide.

Finalmente hay que mencionar los núcleos astillados por talla posada sobre yunque, pero en este caso la mayor parte de ellos son núcleos prismáticos que en sus últimas fases se han explotado a través de contragolpe.

Núcleos prismáticos de laminillas: Entre los núcleos de laminillas destacan los núcleos prismáticos realizados a partir de lascas y nódulos de pequeño tamaño. Presentan tanto plataformas lisas como preparaciones específicas mediante la extracción de pequeñas lasquitas desde la cara de lascado (Fig. 10.2). Con respecto al desarrollo de la talla, muestran una progresión frontal o semienvolvente, y frecuentemente se conservan zonas del núcleo (flancos, dorso o fondo) corticales.



10. irudia. Prisma itxurako ijekitxo-nukleo polobakarrak

Figura 10. Núcleos prismáticos unipolares de laminillas.

Gandorren edo erdigandorren bidezko zuzenketak ez dira maiz azaldu, hegalak erazuzirik eusten baitzaie ganbiltasun luzexkei. Ijekitxo luzeegitxoak erazuz eusten zaio ganbiltasun luzekari.


Euskarri luzekarak sorrarazten dituzte nukleo mota hauek (neurrien arabera, 17 eta 30 cm bitartean dira luze eta 8 eta 10 mm bitartean zabal). Zuzen xamarak dira eta sorbatz paralelokoak, eta trapezoide eta triangulu kamutsen itxurako ebakidurak ageri dituzte.

Polo biko nukleoan kasuan, argiro ikusi dugu lanketaren bukaerako uneetan hautatzen dela ustiatze molde hau: printzaketaturpegiak ez dute ia konplexutasunik ageri eta plataformak oso estuak dira. Hegaletatik ez dute egokitzapenik ageri eta bizkarra

No son frecuentes las correcciones a través de crestas o semicrestas, sino que las convexidades laterales se mantienen mediante la extracción de flancos. La convexidad longitudinal se mantiene mediante la extracción de laminillas un poco sobrepasadas.

Este tipo de núcleos generan soportes alargados (con medidas que oscilan entre los 17 y 30 mm de longitud y anchuras en torno a 8 -10 mm.) bastante rectilíneos, de filos paralelos y secciones trapezoidales y triangulares obtusángulo.

En el caso de los núcleos bipolares nos encontramos con que se elige esta forma de explotación en momentos finales de la talla, en que las caras de lascado presentan escasa convexidad y las plataformas son muy estrechas. No muestran acondicionamientos desde los flancos y el dorso



11. irudia. Prisma itxurako eta polo biko ijekitxo-nukleoa.

Figura 11. Núcleo prismático bipolar de laminillas.

azalduna da betiere, bizkarreko gandorra landurik azaldu den bi kasuetan izan ezik (11. irudia). Nukleo hauetan lortu diren ijekitxoak zabalxeagoak dira, eta ez horren luzeak (11-12 mm zabal eta 20 mm-tik behera luze). Perfilak zuzenak dituzte, eta sorbatzak ez dira horren erregularrak, konberjenteak baitira batzuetan.


Printza-sorbatzen gaineko ijekitxo-nukleoak (12. irudia): Aldagai ugari ageri ditu ustiatze mota honek. Oro har, printza lodiak aukeratzeko erabiltzen dituzte eta, antza denez, lehenengo erazte gidatzeko balio duen sorbatzean bideraturiko gandor lodi aurpegiakarra da ustiatzearen abiapuntua. Printzaketa-aurpegiaren aurrealdetik prestatzen da plataforma, eta zulakaitz diedro lodien itxura hartzen dute nukleoek. Nukleo hauen erabilera-epea laburra da, erazte-aldi gutxi batzuk baizik ez. Dokumentaturiko ustiatzeak hain dira desberdinak non ageri dituzten tamainak ere hainbatetakoak baitira; nolahi ere, luzekarak eta estuak dira, oro har (15 eta 35 cm bitartean luzeran, eta 7 eta 11 cm bitartean zabalera). Sorbatz paraleloak eta konberjenteak dituzte, perfil okerrekoak dira hein batean, eta lauangeluarra, hiruki angeluzuzenak edota trapezio angeluzuzenak dira haien ebakidurak.

Prisma formako nukleo konberjenteak: Urri ageri dira maila honetan ($K=3$) eta Gaintzurizketako suharrizko tectofrakto edo printzetatik abiatuak izan ziren. Ez dirudi ustiatze jardueraren hasierarako halako prestaera bideratu zenik, kasu batzuetan baizik ez baita kolpatze plataforma prestatu, printzaketa-aurpegitik printzak erazte, eta jatorrizko azalera leun naturala utzia ageri dira beste batzuetan. Lanketaren garapena erdi-inguratzailea da eta ijekitxo luzeegiak eta hegalak erazte eusten zaie printzaketa-aurpegiaren gantiltasunei (plataforma nagusitik abiatzen ziren eskuarki hau egiteko, baina kasuren batean hondotik hasi zituzten printzaketa lanak).

se conserva cortical, salvo en un par de casos en que se elabora una cresta dorsal (Fig. 11). En estos núcleos las laminillas obtenidas son un poco más anchas y menos alargadas (en torno a 11-12 mm de anchura y menos de 20mm de longitud), con perfiles rectilíneos, filos menos regulares y en ocasiones convergentes.

Núcleos de laminillas sobre filo de lasca (Fig. 12): Este tipo de explotaciones presenta una gran variabilidad. En general eligen lascas espesas y parece que la explotación se inicia a partir de una cresta unifacial espesa en el filo que sirve para guiar la primera extracción. La plataforma se prepara desde el frente de la cara de lascado de forma que los núcleos adoptan el formato de buriles diedros espesos. La vida útil de estos núcleos es corta, unas pocas series de extracciones. Los soportes, debido a la variabilidad de las explotaciones documentadas, muestran dimensiones variables pero por lo general son alargados y estrechos (entre 15 y 35 mm de longitud, entre 7 y 11 mm de anchura), con filos paralelos y convergentes, de perfil un poco torcido y con secciones cuadrangulares, triángulo rectángulo o trapecio rectángulo.

Núcleos prismáticos convergentes: Son escasos en este nivel ($N=3$) y se explotan a partir de tectofractos o lascas de sílex de Gaintzurizketa. No parece que haya una preparación para el inicio de la explotación, solo en algunos casos la plataforma de percusión se prepara mediante la extracción de lascas desde la cara de lascado mientras que en otros se deja una superficie lisa natural. El desarrollo de la talla es semienvolvente y el mantenimiento de las convexidades de la cara de lascado se hace a través de la extracción de laminillas sobrepasadas y de flancos (generalmente desde la plataforma principal, aunque también hay algún caso en que el lascado viene del fondo).




12. irudia. Printza-sorbatz gaineko ijekitxo-nukleoak.

Figura 12. Núcleos de laminillas sobre filo de lasca.


Ijekitxo estuak (8 mm), luzekarak (13 mm-tik gorakoak), finak, sorbatz paralelo xamarrekoak eta perfil hein batean kurbatuak erdiesten dira nukleo mota hauetatik. Nukleoak abandonatu egiten ziren printzaketa-aurpegiaren ganbiltasunak galdu eta makodura zuzentzeko modurik ez zutenean (13. irudia).

De este tipo de núcleos se obtienen laminillas estrechas (8 mm), alargadas (mayores de 13 mm), finas, de filos más o menos paralelos y de perfil ligeramente curvo. Los núcleos se abandonan cuando se pierden las convexidades de la cara de lascado y es imposible de corregir el cintrado (Fig. 13).



13. irudia. Prisma formako ijekitxo-nukleo konberjentea.

Figura 13. Núcleo de laminillas prismático convergente.



14. irudia. Ijekitxo-nukleo konplexua.

Figura 14. Núcleo de laminillas complejo.

Ijekitxo-nukleo konplexuak (14. irudia): Urri ageri dira (K=3), neurri txikiko nukleoak dira, amaierako ustiatze faseetan daudenak eta irakurketa zailekoak. Ustiatze bat baino gehiago ageri dituzte. Biratuz landu dira nukleoak, aurrekoak ahitu bezain laster printzaketa-aurpegi berriak landuz. Kasu batean, Ijekitxoen eta printzatzoen ustiatzeak ager dira, nahasian.

Piramide formako ijekitxo-nukleoa: Mota honetako nukleo bakarra erregistratu da. Gaintxurizketako suharran landu zen eta ahiturik ageri da, negatiboak islatu dira eta, suharran ageri diren diaklasak eta bakuolak direla medio, ustiatzea bideraezina bihurtu zenean utzi zuten bertan behera. Perfil kurbatuko ijekitxo zabalak eta puntadunak dira produktuak.

Prisma formako ijeki-nukleoak (15. irudia): Prisma formako 14 ijeki-nukleo azaldu dira. Polobakarrak dira hiru ez beste guztiak, eta elkarren aurkako plataformak ageri dituzte beste hiruak. Gaintxurizketako suharratik abiatuak landuriko noduluak dira guztiak eta oso bestelakoa da haien kalitatea. Bidaxuneko suharri-lauzatzoren gainean landu ziren beste lau, eta Urbasa suharran bi. Kalitatez hobereak dira azken bi horiek.

Nukleo hauetan, aurrealdetik prestatuak dira kolpekatze-plataformak. Ez da lehen ustiatze faseetako alerik kontserbatu, baina berreskuratu diren nukleo aurreformetan argiro nabari daiteke lanketaren hasiera, gandorra bideratuz eta azaleko ijekiak zuzenean erazuz. Lanketaren garapena erdi-ingurutzaila da. Ijekiak kolpekatze bigunaren bitartez erazi ziren, baina hori baino lehen urradura bidez prestatu zuten erlaitza. Bizkarrak azaldunak dira betiere, hiru kasuetan egokitzapenak nabaritzen badira ere, albotik bizkar aldera hain xuxen (15:2 irudia).

Ijeki luzeegiak eta, hegaletan, ijeki-printzak erazuz eusten zaie printzaketa-aurpegiko ganbiltasunei. Maizago ageri dira birbizitzeak kolpekatze-plataformetan. Nukleoan mantentze lanei dagokienez, ez dirudi gehiegi axolatzen zirela printzaketa-aurpegien zuzenketa edota birbizitze jarduerengatik, eta abandonatu egiten zituzten nukleoak erazuzteak islatzen hasten zirenean, edo printzaketa-aurpegietan ez-purutasunak eta diaklasak agertzen zirenean.

Núcleos de laminillas complejos (Fig. 14): Escasos (N=3), son núcleos de pequeño tamaño, en fases finales de explotación y de difícil lectura. Presentan varias explotaciones. Los núcleos se han ido rotando abriendo nuevas caras de lascado a medida que se agotaban otras. En un caso se mezclan explotaciones de laminillas y de lasquitas en el mismo núcleo.

Núcleo piramidal de laminillas: Solamente se ha registrado un núcleo de este tipo, está hecho de sílex de Gaintxurizketa y está agotado, los negativos se han reflejado y la explotación se ha vuelto inviable a causa de las diaclasas y vacuolas presentes en el sílex. Los productos son laminillas anchas, de perfil curvo y apuntadas.

Núcleos prismáticos de láminas (Fig 15): Hay 14 núcleos prismáticos laminares, prácticamente todos son unipolares salvo tres de ellos que muestran plataformas opuestas. La mayoría están realizados a partir de nódulos de sílex de Gaintxurizketa de calidad variable, cuatro están realizados sobre plaqueta sílex de Bidache y dos en sílex de Urbasa. Estos últimos presentan calidades mejores.

En estos núcleos se preparan las plataformas de percusión desde el frente. No se conservan ejemplares en las primeras fases de explotación, pero en las preformas de núcleo recuperadas se aprecia el inicio de talla por cresta y también directamente sacando laminas corticales. El desarrollo de la talla es semi-envolvente, y la extracción de las láminas se realiza mediante percusión blanda con preparación previa por abrasión de la cornisa. Los dorsos permanecen corticales, aunque en tres casos se aprecian acondicionamientos desde el lateral hacia el dorso (Fig. 15: 2).

Las convexidades de la cara de lascado se mantienen mediante la extracción de láminas ligeramente sobrepasadas y lascas laminares en los flancos. Son más frecuentes los reavivados de la plataforma de percusión. Con respecto a las labores de mantenimiento de los núcleos, no parece que haya demasiada preocupación en las correcciones o reavivados de las caras de lascado, abandonando los núcleos cuando comienzan a reflejarse las extracciones, o aparecen impurezas y diaclasas en la cara de lascado.



15. irudia. Prisma itxurako ijeki-nukleoak.

Figura 15. Núcleos prismáticos de láminas.

POloPOlo biko ustiatzeei dagokienez (15.2 irudia), Bidaxuneko suharrian landuriko nukleoetan bideratu ziren nagusiki. Ez dira, beraz, polo biko ustiatze petoak, baizik eta elkarren aurkako plataformak bideratu zituzten, printzaketa-aurpegiko karena zuzentzeko.

Mota honetako nukleotatik abiatuturik sorturiko euskarriek zabalak izateko joera dute (> 40 mm luze eta >15 mm zabal), eta hein batean kurbatuak eta ebakidura trapezoidalekoak ere badira.

Ustiatze bat baino gehiago dituzten ijeki-nukleo konplexuak (16. irudia): Mota honetako nukleo bakarra dokumentatu dugu. Bi ustiatze independente ageri ditu, ijeki zabalak (18 mm zabal) eta ijeki-printzen bitartez. Piramide formakoa da aurreneko ustiatzea eta islatu egin dira hartan azkeneko erauzteak, printzaketa-aurpegia birbizitzeko modurik gabe utzirik. Ustiatze


Con respecto a las explotaciones bipolares (Fig 15.2), se han llevado a cabo fundamentalmente en núcleos de sílex de Bidache. No son explotaciones bipolares propiamente dichas, sino más bien se trata de apertura de plataformas opuestas con el fin de corregir la carena de la cara de lascado.

Los soportes generados a partir de este tipo de núcleos tienden a ser anchos (>40 mm de longitud y >15 mm de anchura), ligeramente curvos y con secciones trapezoidales.

Núcleos de láminas complejos con varias explotaciones (Fig. 16): Solamente se ha documentado un núcleo de este tipo. Presenta dos explotaciones independientes de láminas anchas (18 mm de anchura) o lascas laminares. La primera explotación es de tipo piramidal y las últimas extracciones se han reflejado dejando la cara de lascado sin posibilidad de reavivado. Por lo tanto,


berri bati ekin zioten, horrenbestez, hasierako ustiatzean bi-deratu zen kolpekatze-plataforma zaharrean. Prisma formakoa eta polo bikoa zen. Bigarren ustiatze hura ganbiltasun ezagatik ahitu zen: erauzte segida ez da horren luzea eta zuzenketak ageri ditu hegalean, printzaketa bidez.

se ha abierto una nueva explotación de tipo prismático bipolar en la antigua plataforma de percusión de la explotación inicial. Esta segunda explotación se ha agotado enseguida por falta de convexidades, presenta una serie no muy larga de extracciones y correcciones mediante lascados desde el flanco.



Printza kopurua: 15 ale dira guztira, 11 nodulu gainean eta 4 printza gainean. Ijeki-nukleoak baino gutxiago dira. Nukleo polobakarren artean, bada kolpaketa-plano azaldun baten gaineko lanketa ageri duen bat, eta plataforma lauak eta plataforma horietatik abiatzen diren printzaketak (oso kopuru txikian) ageri dituzte gainerakoek (kuartzoan landua da haietako bat). Nukleo polo-anizkunen arloan, erauzte segida laburrak, gutxi antolatuak eta zehazten zailak ageri dituzte. Hala eta guztiz ere, globo itxura ageri dute haietako bik, biziro ustiatuak izan zirelako. Printza-nukleoeek prestaera eskasa eta berehalako erabilerrari begira landu zirela salatzen dituzten printzaketa-estrategiak ageri dituzte oro har, disko itxurako sistemak erakusten

Núcleos de lascas: Con un total de 15 ejemplares, 11 sobre nódulo y 4 sobre lasca, son menos abundantes que los núcleos laminares. Entre los núcleos unipolares encontramos un ejemplar de talla sobre plano de percusión cortical, y el resto presentan plataformas lisas y un número corto de lascados que parten de esas plataformas (uno de ellos está fabricado en cuarzo). Con respecto a los núcleos multipolares muestran series cortas de extracciones poco organizadas y difíciles de definir; a excepción de un par de ellos que han adquirido morfologías globulares debido a una explotación bastante intensa. En general, los núcleos de lascas muestran escasa preparación y estrategias de lascado más inmediatas, salvo en el caso de los



dituzten lau aleen kasuan izan ezik (17. irudia). Azken hauetatik lorturiko euskarriak neurri txikikoak dira, 20x20 mm-tik behe-rakoak, eta meheak.

Mihizatzeak

21 mihizatze-segida bururatu ditugu VI. mailan (4. taula), baina haietako lauk baizik ez digute teknologia mailako informazioa eskaini, beste guztiak okupazio maila honetan maiz ageri diren haustura zaharren emaitzak direlako. Lau mihizatze-segida horiek laburrak dira eta printzen lanketari, Noailles zulakaitzen fabrikazio eta birbizitzeari, eta zulakaitz lodietatik abiatuak bideratzen zen ijekitxo lanketari buruzko informazioa eskaintzen digute.


1. *Mihizatzea* (4.3 taula, 18.1 irudia): Noailles zulakaitz baten fabrikazio prozesuari buruzko informazioa eskaintzen digu mihizatze honek. Urrunaldetan gantur aurpegiak ageri duen ijekitxoak da euskarria (22x6x4 mm). Nahita hautsi zuten euskarria, erdigandoraren aldeari eraginez; ijekitxoaren eskuinaldeko sorbatzean koska txiki bat eragin eta, urrunaldeko haustura baliatuz, zulakaitz-ebakin bat eman zuten haren gainean. Horrenbestez sortu zen eskuinaldeko gelditze-kamereraino iristen zen zulakaitz-aurpegia.

cuatro ejemplares que se corresponden con sistemas de tipo discoide (Fig. 17). Los soportes obtenidos de estos últimos son de pequeño tamaño, menores de 20x20 mm, y poco espesos.

Remontados

En el nivel VI hemos realizado 21 secuencias de remontados (tabla 4), pero sólo cuatro de ellas aportan alguna información de tipo tecnológico, el resto son en su mayoría producto de fracturas antiguas, frecuentes en niveles de ocupación. Las cuatro secuencias de remontado son cortas y nos informan sobre la talla de lascas, la fabricación y reavivado de buriles de Noailles y la talla de laminillas a partir de buriles espesos.

Remontado 1 (tabla 4.3, Fig. 18.1): Este remontado nos informa del proceso de fabricación de un buril de Noailles. El soporte es una laminilla con cresta unifacial distal (22x6x4mm). El soporte se fractura intencionalmente removiendo la parte de la semicresta, se crea una pequeña muesca en el filo derecho de la laminilla y aprovechando la fractura distal se da un golpe de buril sobre la misma, de este modo se genera un paño de buril que llega hasta la muesca de paro derecha.



18. irudia. Mihizatzeak VI. maila.

Figura 18. Remontados nivel VI.

2. *Mihizatzea* (4.4 taula): Mihizatze erlazionala da. Bi Noailles zulakaitz dira, aurreko batetik abiatuak. Aurreko zulakaitza bi zatitan hautsi zen nonbait eta moztura berriak sortu ziren hausturen ganean, bai eta aurpegi berriak itxuratu ere.

3. *Mihizatzea* (4.17 taula): Segida hau soila da oso, ondoz ondo erauzi diren bi zulakaitz-ebakin.

4. *Mihizatzea* (4.19 taula. 18.2 irudia): Segida honetan Gaintxurizketako suharri-printzen bidez landuriko nukleoa eta hartatik erazitako printza bereizten dira. Nukleoaren presetaera eskasa izan zen, erauzte gutxi batzuk, halako ganbiltasuna sorrarazteko, eta printza atera zen ondoren, nukleoaren eremu azaldunean joz. Halatan, lodi xamarra da printza eta orpo azaldun batez horniturik dago.

Egokitzapenak

Piezen lanketa prestatzeko eta mantentzeko taxuturiko euskarriak ageri dira VI. mailan. Haien artean, bereziki aipagarriak dira produktu azaldunak, gandorrek eta erdigandorrek, printzaketa-aurpegiak birbizitzeak (hegalak, printzaketa-aurpegiak birbizitze-printzak, printza eta ijeki gaindituak eta gainzkatzaileak, nukleo-hondoak), eta plataformak birbizitzeko tabletak.

Ijekiak eta ijekitxoak lantzeko metodoen hasiera eta mantentze estrategiei dagozkie nagusiki aldaera teknologiko horiek guztiak, baina printz-nukleoaren egokitzapenarekin lotu beharrak dira haietako batzuk.

Lanketa prestatzeko estrategiak dira maila honetan hobekien dokumentaturik azaldu zaizkigunak, islatuak agertu baitira lehen eta bigarren mailako azal-kentze elementuetan, aurpegiak bidez ere. Elementu garrantzitsuak dira, era berean, lanketa-angeluak birdoitzeko tabletak, prisma itxurako nukleoekin lotzen direnak. Printzaketa-aurpegiak birbizitzeko elementuei dagokienez, hainbat moldekoak dira eta proportzio txikiagoan agertzen dira. Gogoan har bedi, gainera, ijeki eta ijekitxo gaindituek paper garrantzitsua jokatzen zutela prozesu honetan.

Azaleko ijekiak eta printzak: Zaila da morfologia hauek ijeki-nukleoaren kolpekatze-plataformen arabera eta itxuratze prozesuari ote dagozkion ala printzen fabrikazio prozesuaren hasieran ekoizten diren zehaztea, morfologia berdina eskaizten baitituzte bi prozesu horiek. Bestalde, oso maiz agertzen dira molde horretako produktuak lanketa beteko uneetan, erabilera-epe guztian zehar eremu azaldunei (hegalak, bizkarra edo hondoak) eusten dieten nukleoetan.

Ijeki produktu azaldunen kopurua ($K=503$) murriztu da inolaz ere (ijeki-euskarrien % 10), kontuan hartzen badugu ijeki produktuak direla harrizko piezen ekoizpenaren helburu nagusia. Gainera, azaleko ijeki-euskarri peto-petoei erreparatu badiegu, guztiz ñimiñoa da balio hori ($K=12$). Beraz, badirudi ijeki-nukleoaren kasuan perimetroa ez zutela arbatzen, batez ere prisma itxurako ijekitxoaren arloan. Aldiz, eremu azaldunei eusten zieten nukleoaren bizkarrean eta alboetan, eta ekoizpenaren fase desberdinetan sortua izaten zen euskarri mota hau.

Dezente handiagoa da printza azaldunen kopurua ($K=764$), hau da, mailako printzen % 20 inguru. Urriago agertzen dira pieza erabat azaldunak ($K=76$). Ijeki-nukleoaren irekitze prozesuekin, nukleo horietan eremu azaldunei eutsi izanarekin eta maila horretan dokumentatu den printza lanketarekin lotu beharko lirake azkeneko horiek.

Remontado 2 (tabla 4.4): Se trata de un remontado relacional. Son dos buriles de Noailles que se han creado a partir de uno previo. El buril inicial parece que se ha fracturado en 2 fragmentos, se han creado nuevas truncaduras sobre las fracturas y se han creado paños nuevos.

Remontado 3 (tabla 4.17): Esta secuencia es muy sencilla se trata de dos golpes de buril que se han extraído consecutivamente.

Remontado 4 (tabla 4.19 Fig. 18.2): Se trata de una secuencia consistente en un núcleo de lascas de sílex de Gaintxurizketa y una lasca extraída del mismo. El núcleo presenta escasa preparación, solamente unas extracciones para crear cierta convexidad, luego se ha sacado la lasca golpeando en una zona cortical del núcleo, de forma que la lasca es bastante espesa y tiene un talón cortical.

Acondicionamientos

En el nivel VI hay diferentes soportes encaminados a la preparación y mantenimiento de la talla, entre los que destacan los productos corticales, crestas y semicrestas, los reavivados de cara de lascado (flancos, lascas de reavivado de cara de lascado, lascas y láminas sobrepasadas y desbordantes, fondos de núcleo), y tabletas de reavivado de plataformas.


Estas variedades tecnológicas se corresponden principalmente con estrategias para la iniciación y mantenimiento de métodos laminares, tanto de láminas como de laminillas, pero algunos de ellos también se corresponden con acondicionamientos de núcleos de lascas.

Las estrategias de preparación de talla son las que mejor documentadas están en este nivel, reflejadas en los elementos de decorticado primarios y secundarios, y las crestas, especialmente las unificiales. Las tabletas para reajustar los ángulos de talla también son elementos importantes, relacionados con núcleos de tipo prismático. Con respecto a los elementos de reavivado de las caras de lascado, son variados y aparecen en menor proporción, además las láminas y laminillas sobrepasadas tienen un papel importante en este proceso.

Láminas y lascas corticales: Es difícil de identificar si estas morfologías corresponden al desbastado y configuración de las plataformas de percusión de los núcleos laminares o si se producen al inicio de los procesos de fabricación de lascas, ya que estos dos procesos producen idénticas morfologías. Por otro lado este tipo de productos también son frecuentes en momentos de plena talla, en núcleos que mantienen zonas corticales (flancos, dorso o fondo) durante toda su vida útil.

El número de productos laminares corticales ($N=503$) es reducido (10% de los soportes laminares) si tenemos en cuenta que los productos laminares son el objetivo principal de la producción lítica. Además si nos fijamos en los soportes laminares completamente corticales es ínfima ($N=12$). Por lo tanto parece que no hay un desbastado perimetral en los núcleos laminares, especialmente en los prismáticos de laminillas, sino que se conservan zonas corticales en el dorso y laterales de los núcleos, lo que da lugar a la generación de este tipo de soportes en diferentes fases de la producción.

El número de lascas corticales es bastante mayor ($N=764$) y suponen alrededor de un 20% de las lascas del nivel, siendo más escasos los ejemplares completamente corticales ($N=76$). Éstas últimas pueden estar relacionadas con procesos de apertura de núcleos laminares, con la pervivencia de zonas corticales en estos núcleos y con la talla de lascas que se ha documentado en este nivel.



19. irudia.VI. mailako printzen eta ijeki-euskarrien azalekotasuna.

Figura 19. Corticalidad de lascas y soportes laminares del nivel VI.

Bigarren mailako azal-kentze euskarri hauetako asko tresna bihurturik ageri zaizkigu, eta zulakaitzak, ijeki ukituak eta pieza ezpalduak ditugu batez ere; hau da, ukiera bidez landu beharreko euskarriak aukeratzeko unean ez zuten euskarri mota hau baztertu; areago, berariaz hautatu zituzten. Gainera, Noailles zulakaitzei erreparatzen badiegu, azaleko ijekitxoak eta printzatxoak hautatu zituzten maiz horrelakoak lantzeko.

Azal-kentze printzetan, esanguratsua da Gaintxurizketa, Bidaxune eta, era berean, Urbasako suharrien presentzia. Azal-kentze ijekietan, aldiz, Bidaxuneko suharria da nagusi. Lotua dago hori guztia suharri mota horren lauzatxo angeluzuzenen ganean ijekiak lantzeko bideratu zen prozesu motarekin: haren arabera, plataforma lau bat irekitzen zen eta hegal, bizkar eta hondo azaldunei eusten zitzaizen ustiatze garai guztian zehar. Azal-kentze ijekien artean ozta-ozta agertzen da suharri urgoniarra, ez eta Trebiñukoa edo Chalossekoa ere; azal-kentze printzen artean, berriz, suharri urgoniarra da maizen ageri dena.

Aurpegi bakarreko eta biko gandar-ijekiak

360 gandar berreskuratu ditugu VI. mailan. Aurpegi bikoak dira haietako 40, eta aurpegi bakarrekoak gainerakoak, 320. Kopuru altu xamarak dira hauek, ijeki-nukleoaren kopuruaren aldean.

Oro har esan genezake aurpegi biko gandar-ijekiak neurri handiagokoak direla eta prisma formako nukleoetatik bezala printza gaineko nukleoetatik atereak direla. Gandor hauen arteko sei baizik ez dira ukieren bitartez landu. Bertako Flyncheko suharrian, hau da, Gaintxurizketakoan eta Bidaxunekoan landuak dira gehienak, 8 Urbasakoan eta 2 Chalossekoan.

Printza gaineko ijekitxo-nukleoetatik eta zulakaitzetatik abiatuta landu ziren aurpegi bakarreko gandar gehienak. Bi multzo bereizten dira haien artean. Lehenengoek ebakidura-hiruki oso markatuak, angeluzorrotzak nahiz zuzenak, eta amaiera gauditak ageri dituzte. Printzaren azpialdetik lantzen zuten gandarra, printzaketa-aurpegia irekitzen zuen lehen erazte gidatzeko. Gandor hauek zulakaitz-aurpegiak baino handixeagoak dira, ustiatzearen hasieran landu baitziren produktu hauek. Izan ere, ustiatzeak denboran luzatu ahalean

Gran parte de estos soportes de decorticado secundario están transformadas en útiles diversos, sobre todo buriles, láminas retocadas y piezas astilladas; es decir que a la hora de seleccionar los soportes para ser retocados, no se desprecia este tipo de soportes, sino que se escogen intencionalmente. Incluso, si nos fijamos en los buriles de Noailles, frecuentemente se escogen laminillas y lasquitas corticales para su elaboración.

En las lascas de decorticado vemos presencia importante de los sílex de Gaintxurizketa, Bidache y también de Urbasa, y en las láminas de decorticado destaca el sílex de Bidache, esto está relacionado con un tipo de explotación laminar que se da sobre plaquetas rectangulares de éste sílex, en las que se abre una plataforma lisa y se mantienen los flancos, dorso y fondo corticales durante toda la explotación. Entre las láminas de decorticado apenas encontramos sílex Urganiano, de Treviño y Chalosse, mientras que en las lascas de decorticado es más frecuente la presencia del sílex Urganiano.

Láminas cresta unifaciales y bifaciales


En el nivel VI se han recuperado 360 crestas, de las cuales 40 son bifaciales y 320 unifaciales, son cifras bastante altas si las comparamos con el número de núcleos laminares.

Generalizando, podemos decir que las láminas cresta bifaciales son de mayor tamaño y proceden tanto de núcleos prismáticos como de núcleos sobre lasca. Sólo 6 de estas crestas se han conformado mediante retoque. La mayoría son de sílex de Flynch local, de Gaintxurizketa y Bidache, 8 son de Urbasa y 2 de Chalosse.

Las crestas unifaciales provienen, en su mayoría de núcleos de laminillas sobre lasca y de buriles. Dentro de las crestas unifaciales se distinguen dos grupos. Las primeras tienen secciones triangulares muy marcadas, acutángulo o rectángulo y tienen terminaciones sobrepasadas. La cresta se hace desde la cara ventral de la lasca, para guiar la primera extracción que abre la cara de lascado. Las dimensiones de estas crestas son algo superiores a la de los paños de buril ya que se trata de productos que surgen al inicio de la explotación, y a medida que la explotación se desa-

20. irudia.VI. mailako aurpegi bakarreko eta biko gandorren eta zulakaitz-ebakinen sakabanatze-grafikak.

Figura 20. Gráficos de dispersión de crestas uni y bifaciales y golpes de buril del nivel VI.



murritzen ziren produktuen neurriak. Egokitzapen hauen ugaritasun erlatiboaren kontrastean, oso kopuru urrian azaldu dira multzoan printza gaineko nukleoak.

Aurpegi bakarreko gandor horietako batzuk (K=53) nukleo horien eta zulakaitzen makodura zuzentzeko elementu gisa bideratu ziren. Trapezoide eta trapezio angeluzuzenen itxurako ebakidurak, eta zulakaitz-aurpegiaren aurretiazko negatiboak, ageri dituzte. Euskarri hauen orpoen irakurketak ez digu informazio handiegirik eskaintzen, haien erdiak zatiturik daudelako. Nolanahi ere, orpoak kontserbatu diren kasuetan, aipagarriak dira lauak, puntu-formakoak eta birrinduak.

Laburbilduz, maila honetan erabili ziren gandorrak ustiatzeari ekiteko eta printza gaineko eta Zulakaitz moduko ijekitxo-nukleoaren ganbiltasunak zuzentzeko. Gutxi dira, bestalde, jatorria beste mota bateko ekoizpenetan, ijeki txikiko eta prisma itxurako nukleoetan adibidez, duten gandorrak

Birbizitze-tableta

136 tableta berreskuratuta ditugu maila honetan. 20 x 21 mm-ko neurria dute batez beste, baina oso bestelako neurriak ageri dituzte batzuek eta besteek, eta zaila da tamainaren arabera multzo argitan sailkatzea (21. irudia). Neurri handiko tabletak (>30 mm zabal) gutxi direla esan genezake, eta ageri direnak ijeki-nukleo estuei dagozkie guztiz gehienak. Haietako lauk baizik ez dira, itxuraz, ijeki handien nukleoetatik abiatutik landu.

Bi multzo bereiz genitzake haien jatorrizko nukleo motaren arabera. Prisma formako ijeki edo ijekitxo-nukleoetatik datozenek (orpoan edo alboetan daramatzaten negatibo fosilen zabalaren arabera bereizten dira) lanketa-garapen

errolla los tamaños de los productos se van reduciendo. La relativa abundancia de estos acondicionamientos contrasta con la escasez dentro del conjunto de los núcleos sobre lasca.


Alguna de estas crestas unificiales (N=53) se genera como elemento para corregir el cintrado de estos núcleos y buriles. Presentan secciones trapezoidales, trapecio rectángulo, y negativos previos de paños de buril. La lectura de los talones de estos soportes es poco informativa ya que la mitad de ellos está fragmentado, pero en los casos en que se ha conservado destacan los lisos, puntiformes y machacados.

En síntesis, en este nivel las crestas se utilizan para iniciar la explotación y corregir las convexidades de los núcleos de laminillas sobre lasca y tipo Buril. Las crestas identificadas como procedentes de otro tipo de producciones, como de los núcleos prismáticos de láminas pequeñas son minoritarias.

Tabletas de reavivado

El número de tabletas recuperadas en este nivel es de 136. Tienen un tamaño medio de 20 x 21 mm, pero presentan una gran variabilidad de dimensiones y parece difícil establecer grupos claros en base a ello (Fig. 21). Podemos decir que son escasas las tabletas de grandes dimensiones (>30 mm de anchura), y las que aparecen se corresponden con núcleos de láminas estrechas, solamente cuatro parecen proceder de núcleos de laminas mayores.

Se pueden establecer 2 grupos dependiendo del tipo de núcleo del que proceden. Las procedentes de núcleos prismáticos laminares, de láminas y laminillas (se diferencian por las anchuras de los negativos fósiles que arrastran en el talón o



21. irudia. Birbizitze-tableten sakabanaketa-grafikak.

Figura 21. Gráficos de dispersión de las tabletas de reavivado.

erdi-inguratzailea eta erlaitzak urraturik ageri dituzte, eta hegal azaldunak eramaten dituzte maiz. Anekdotak baizik ez da printza gaineko nukleoetatik abiatuak landu zituzten tabletan presentzia (K=4).

Printzaketa-aurrealdetik erazten zituzten tabletak eskuarki, baina hegaletan sortuak ageri dira 21 kasutan eta bizkaraldean beste lautan. Gainera, maiz ageri dira tabletetan aurretiazko birbizitzeen negatiboak, aurrealdetik edo hegaletatik printzatxo edo tabletan bitartez bideratuak.

Azaldu diren tabletan arteko 32 pieza ukitu ziren, maruskak, zulakaitzak, bizkar lodiko piezak edo karrakagailuak lantzeko. Aipagarriak dira sorta batean ageri diren ale meheak, 19 Noailles zulakaitz lantzeko erabili zirenak. Erabili zuten suharri motari dagokionez, aipagarria da Flysch-eko suharriaren erabilera nagusia (Bidaxuneko eta Gaintxurizketako suharria). Ondoren ageri dira Urbasako mendietako suharrietan landuriko piezak.

Nukleo-hegalak eta printzaketa-aurpegiaren garbiketa-printzak

Garrantzitsua da nukleo-hegalen eta printzaketa-aurpegiaren garbiketa-printzen kopurua, ez ordea altua (K=247). Ijeki gaituak dira gehienak (K=115), eta honako hauek besteak: ijeki eta printza gainezkatzaileak (K=63, haietako 16 azalak eta beste 6 printza gaineko nukleoetatik datozenak) eta printzaketa-aurpegiaren garbiketa-printzak (K=67, haietako 13 zeharkakoak).

Nukleoaren alboetako eremuak daramatzaten pieza gainezkatzaileen artean, tratamendu desberdinak bereiz daitezke hegaletan: landuak, azaldunak, alboko gandorren aztarnak ageri dituztenak eta azpialde fosiletatik itxuratuak. Urri dira azken bi mota horietakoak. Pieza gainezkatzaileak tamaina handikoak dira eta ukiturik ageri dira haietako 11: zulakaitzak, karrakagailuak eta ijeki ukituak dira. VI. mailan, badira halaber printza-nukleoaren hegalak daramatzaten printza gainezkatzaile batzuk, disko itxurakoak gehienak (22. irudia).

en los laterales) muestran desarrollos de talla semienvolventes, abrasión de las cornisas y arrastran con frecuencia flancos corticales. La presencia de tabletas procedentes de núcleos sobre lasca es testimonial (N=4).

Por norma general la extracción de la tableta se hace desde el frente de lascado, pero en 21 casos se han extraído desde un flanco y en otros 4 se han extraído desde el dorso. Además es frecuente la presencia en las tabletas de negativos de reavivados previos por lasquita o tableta, realizadas desde el frente o desde los laterales.

Entre las tabletas se han retocado 32 piezas para elaborar raspadores, buriles, piezas de dorso espeso o raederas. Destaca la selección de algunos ejemplares delgados para fabricar 19 buriles de Noailles. Con respecto a los sílex empleados destaca el uso mayoritario del sílex del Flysch (de Bidache y de Gaintxurizketa) seguido en importancia por los sílex procedentes de la sierra de Urbasa.

Flancos de núcleo y lascas de limpieza de la cara de lascado

El número de flancos de núcleo y de lascas de limpieza de cara de lascado es importante pero no elevado (N=247). Se trata en su mayor parte de láminas sobrepasadas (N=115), láminas y lascas desbordantes (N=63 de las cuales 16 son corticales y 6 proceden de núcleos sobre lasca) y lascas de limpieza de la cara de lascado (N=67, de las cuales solo 13 son transversales).

Entre las piezas desbordantes que arrastran zonas laterales de los núcleos se aprecian distintos tratamientos de los flancos: tallados, corticales, con restos de crestas laterales y formados por caras ventrales fósiles. Estos dos últimos tipos son escasos. Las piezas desbordantes son de buen tamaño y 11 de ellos están retocados, convirtiéndose en buriles, raederas y láminas retocadas. En el nivel VI, hay además algunas lascas desbordantes que arrastran flancos de núcleos de lascas, principalmente discoides (Fig. 22)

Aipagarria da bereziki Bidaxuneko suharrin landuriko ijeki-hegalen eta hegal azaldunen ugaritasuna. Bada neurri handiko ijekiak ekoitziko zirela adieraziko liguke datu horrek: Bidaxuneko suharrizko lauzatxoetan bideraturiko nukleoetatik aterako zituzten. Nukleo horien aurrealdea ustiatzen zuten, erlaitzak arbastaturik, eta euskarriak erazuten zituzten haietatik, bigun kolpekatuz. Egokitzapen horiek gordinean erabiliko zituzten, ez baitira maiz ukiturik agertzen, handiak izanagatik ere.

Hegalez gainera, askotan erazuten ziren pieza islatuen printzaketa-aurpegia eta ez-purutasunak garbitzen edota makodura zuzentzen laguntzen zuten printzak ere. Multzo honetan, plataforma nagusitik erazi ziren batez ere; alabaina, hegaletik erazitako 13 identifikatu dira, bai eta hondotik zetozen beste gutxi batzuk ere. Identifikatu ere egin ditugu hegaletik erazitako pieza horiek, ziren itxura hartuz, erlaitza eta haren ondoko eremu guztia ezabatze baliatu zituzten kasu batzuk. Euskarri hauen arteko 24 ukiturik ageri dira, eta zulakaitzak eta pieza ezpalduak landu zituzten haiekin.

Ijeki eta ijekitxo gaintituak aipatu beharrak dira azkenik, ganbiltasunen zuzenketa modu bideratuena baita maila honetan. Zuzenketa mota hauek prisma formako eta polo bakarreko eta biko nukleoetan bezala bideratzen ziren printza gaineko nukleoetan. Euskarri hauek zuzenean erazuten ziren eskuarki eta maiz eramaten zituzten, beren urrunaldean, hondoko alde azaldunak. Bestalde, gutxiagotan eramaten zituzten elkarren aurkako plataforma aktiboak edo inaktiboak, edo zeharkako gandarrek. Ijeki gaintituen arteko 39 ukiturik ageri dira, haien erdiak Noailles zulakaitzak lantzeko ijekitxoak dira, eta gainekoak hainbat motatako zulakaitzak eta beste molde batzuetako ijeki ukituak fabrikatzeko erabiliko ziren.

Laburbilduz, maila honetan maiz topatzen dugun prozedura da neurri handiko ijeki-nukleoak hegalak eta printzaketa-aurpegiaren garbiketa-printzak erazuz bideraturiko egokitzapena eta teknika horren kontrastean ageri zaigu dokumentatu ahal izan den nukleo kopuru murrizta. Ijekien eta ijekitxoaren lanketarekin eta zulakaitz motako edo printza gaineko ijekitxoaren lanketarekin lotua da inolaz ere ganbiltasunak ijeki-euskarri gaintituak erazuz zuzentzeko teknika.

Lehengaiei dagokionez, Flysch-eko suharri motetan (Bidaxune eta Gaintzurizketa) bideratuak dira euskarri hauen

Debemos mencionar que la abundancia de flancos laminares, corticales, de sílex de Bidache, apunta a un tipo de producción de láminas de buen tamaño, generadas a partir de núcleos realizados sobre plaquetas de este tipo de sílex. Son núcleos de explotación frontal, con cornisas abrasionadas y de los que se extraen los soportes por percusión blanda. Puede que estos acondicionamientos se utilicen en bruto porque a pesar de sus dimensiones no suelen estar retocados.

Además de los flancos, muchas veces se extraen también lascas que ayudan a limpiar la cara de lascado de reflejados, impurezas o para corregir el cintrado. En este conjunto principalmente se extraen desde la plataforma principal, aunque se han identificado 13 extraídas desde el flanco y unas pocas vienen desde el fondo. También hemos identificado algunos casos en que este tipo de piezas extraídas desde el flanco se centran en eliminar la cornisa y la zona inmediata a la misma, adquiriendo forma de cuñas. De esto soportes se han retocado 24 y se han fabricado con ellas buriles y piezas astilladas.


Finalmente hay que mencionar las láminas y laminillas sobrepasadas, que son el tipo de corrección de las convexidades más frecuente en este nivel. Este tipo de correcciones se hacen tanto en núcleos prismáticos unipolares y bipolares, cómo en núcleos sobre lasca. La extracción de estos soportes generalmente es directa y frecuentemente arrastran en su parte distal zonas corticales del fondo, con menos frecuencia arrastran plataformas opuestas activas e inactivas o crestas transversales. Entre las láminas sobrepasadas, 39 están retocadas, la mitad son laminillas destinadas a la fabricación buriles de Noailles y con el resto se fabrican buriles de diversos tipos y láminas retocadas entre otros tipos.


En síntesis, el acondicionamiento de los núcleos laminares de buen tamaño mediante la extracción de flancos y de lascas de limpieza de cara de lascado es un procedimiento frecuente en este nivel y contrasta con el bajo número de núcleos documentados. La corrección de las convexidades mediante la extracción de soportes laminares sobrepasados se relaciona con la talla laminar, con la talla de laminillas, y con la talla de laminillas tipo buril o sobre lasca.

Con respecto a las materias primas, casi dos tercios de estos soportes están realizados en distintas variedades de sílex del

22. irudia.VI. mailako aurpegi bakarreko eta biko 22. irudia.VI. mailako printzaketa-aurpegiaren zuzenketa eta garbiketarako elementuen sakabaketa-grafikak.


Figura 22. Gráficos de dispersión de los elementos de corrección y limpieza de caras de lascado del nivel VI.





23. irudia. Kutxa eta arbotante grafika, VI. mailako printzen eta ijeki formako euskarrien neurri nagusiak erakusgai.

Figura 23. Gráfico de cajas y arbotantes con las principales dimensiones de las lascas y de los soportes laminares del nivel VI.



24. irudia. VI. mailako printzen, ijeki-euskarri osoen eta tresneria ukituaren sakabanaketa-grafika.

Figura 24. Gráficos de dispersión de lascas, soportes laminares enteros y utillaje retocado. del nivel VI.

arteko bi heren; ondotik ageri zaigu Urbasako suharria, eta ale gutxi batzuk baizik ez dira Chalosse edota Trebiñuko suharrietan taxutuak. Baina ukieren bidez landu direnei erreparatzen badiegu, argi ikusiko dugu kanpoko suharri horiek ukiturik ageri direla guztiz gehienak, eta uste izatekoa da, beraz, tresna ordurako ukituak zirela sarrarazi zituztela aztarnategian, hau da, jatorria zatituriko kate operatiboetan zutela.

Euskarriak

Teknologiaren ikuspuntutik azter daitezkeen 7.063 euskarri, 2.898 printza eta 4.163 ijeki-euskarri azaldu dira (6. taula).

Tipometria: Azterketa tipometriko baten gaiak izan dira ijeki-euskarriak eta printzak; hau da, haien dimentsio bakoitzaren azterketa berezia bideratu da, euskarri osoen kasuan, luzera, zabalera eta lodiera neurturik ($K=1.127$), eta zatituriko euskarrienean, zabalera eta lodiera (23. irudia). Printzak neurri txikikoak direla eta ijekienaren pareko lodiera dutela iradokitzen digu laginaren sakabanaketa maila handiak (batez besteko balioak: 15 eta 20 mm bitarteko luzera, 16 eta 19 mm bitarteko zabalera, eta 3 eta 5 mm bitarteko lodiera). Oro har, luzera murriztekoak eta estuak dira ijekiak (batez besteko balioak: 19 eta 24 mm bitarteko luzera, 5 eta 11 mm bitarteko zabalera, eta 2 eta 5 mm bitarteko lodiera), baina kopuru handian ageri dira, halaber, ohiz kanpoko balioak.

Sakabanaketa-grafikak (24. irudia) erakusten duen bezala, euskarri ukituen neurriak (25,9x14,8x4,4 mm) euskarri gordin osoenak baino handixeagoak dira eta badirudi, beraz, neurri handiagoko euskarriak aukeratzen zirela. Euskarri multzo berezi bat azaldu da, gainera, maila honetan lantzen ziren euskarriak baino dezente handiagoak diren aldetik.

N	1866
Shapiro-Wilk W	0,9312
p(normal)	1,73E-28
Jarque-Bera JB	557,5
p(normal)	8,70E-122
p(Monte Carlo)	0,0001
Chi ²	33,057
p(normal)	8,95E-09
Chi ² OK (N>20)	YES
Anderson-Darling A	31,48
p(normal)	3,08E-70

Zabalera / Anchura	Prob	Anchura Media	Stdev
Ijikitxo estuak / Laminillas estrechas	0,38014	6,6049	1,7117
Ijikitxo zabalak / Laminillas anchas	0,40501	10,092	2,298
Ijeki estuak / Láminas estrechas	0,20343	14,967	3,2834
Ijeki zabalak / Láminas anchas	0,011422	25,512	1,8356

25. irudia. Zabalaren sakabanatze-histograma, *Mixture Analysis*-ak lerro jarraian bereizitako lau multzoen banaketa agerian.

Flysch (Bidache y Gaintxurizketa) seguidos del sílex de Urbasa, y aparecen algunos ejemplares de Chalosse y Treviño. Pero si nos fijamos en los retocados, vemos que los ejemplares de estos sílex exógenos que aparecen están retocados en una proporción muy alta, lo que nos lleva a pensar que fueron introducidos en el yacimiento en forma de utillaje retocado.

Soportes

Hay un total de 7.063 soportes, 2.898 lascas y 4.163 soportes laminares, analizables desde el punto de vista tecnológico (tabla 6).

Tipometría: Los soportes laminares y las lascas han sido sometidas a un análisis tipométrico, es decir, un análisis específico de cada una de sus dimensiones, longitud, anchura y espesor en el caso de los soportes enteros ($N=1.127$), y la anchura y el espesor de los soportes fracturados (Fig. 23). La dispersión de la muestra revela que las lascas son de pequeño tamaño y de espesor similar al de las láminas (valores medios entre 15 y 20 mm de longitud, 16 y 19 mm de anchura y 3 y 5 mm de espesor). Las láminas son, por lo general, poco alargadas y estrechas (valores medios entre 19 y 24 mm de longitud, 5 y 11 mm de anchura y 2 y 5 mm de espesor), aunque hay gran cantidad de valores atípicos.

La gráfica de dispersión (Fig. 24) muestra que las medidas de los soportes retocados (25,9x14,8x4,4 mm) son algo mayores que las de soportes brutos enteros, con lo cual parece que se seleccionan los soportes de un tamaño mayor; además vemos un grupo de ellos que tienen un tamaño bastante mayor que los soportes que se fabrican en este nivel.





Figura 25. Histograma de distribución de las anchuras con la distribución de los cuatro grupos diferenciados por el *Mixture Analysis*.



26. irudia. Negatiboen antolakuntza VI. mailako ijeki formako euskarrietan eta printzetan.

Figura 26. Organización de los negativos en los soportes laminares y las lascas del nivel VI.

Lau ijeki-populazio desberdinen existentzia iradokitzen digu, itxura guztien arabera, ijeki formako euskarri osoen nahiz zatituen zabaleraren azterketa xeheak, *Mixture Analysis*-en emaitzetan oinarriturik bururatu denak (Barceló, 2007; Brochier, 2008; Chauvin Grandela, 2012; Ríos et al 2011; Ríos-Garaizar et al 2013) (25. irudia). Honenbestez bereiziko lirateke lau populazio horiek: ijekitxo estuak (4-8 mm), ijekitxo zabalak (8-12 mm), ijeki estuak (12-17 mm) eta ijeki zabalak (23-27 mm). Ijekitxo estuen multzoa da ugariena.

Ijeki eta ijekitxo formako nukleoaren negatiboetatik abiatu-rik identifikatu direnei dagozkie, oro har, aurreneko hiru multzoetako moduluak. Baina mailan ez dugu modulu handiago bati legokiokkeen negatiborik topatu, produktu horiek lanketa hasierako faseetan sortu zirelako (gisa horretakoek ez dute nukleoetan aztarnarik uzten, oso ustiatuak ageri direlako), edo aztarnategi honetan horrelakorik landu ez zelako.

Negatiboak: Ijeki formako produktuen eta printzen negatiboen irakurketak argiro adierazten digu bi produktuen polo bakarreko antolakuntzaren nagusitasuna. Ijeki formako euskarrietan halako proportzioan ageri dira, halaber, polo biko negatiboak dituzten euskarriak, printzaketa-aurpegiatan elkarren aurkako plataformetatik bideratzen zen zuzenketarekin lotu beharko liratekeenak. Aniztasun handiagoa ageri da printzetan: nagusi dira erradio itxuran edo modu zentripetoan antolaturiko negatiboak dituzten printzak, disko motako piezen ustia-zeekin lotuko genituzkeenak.

Gurutzaturiko negatiboak azaldu dira printzetan eta ijekietan. Ustiatze batzuetako hegal landuen presentziarekin lotuko genituzke (26. irudia).

Ebakidurak: Ijeki-euskarriek trapezio isoszele edo hiruki kamutsen itxurako ebakidurak ageri dituzte nagusiki (erpi-na erdialdera eramanik edo alboan utzirik). Ijeki-euskarrietan ebakidura mota horiek ageri diren maiztasun handiak lanketa-garapen erdi-inguratzaileen presentzia, eta hegal oso markatuen presentzia eskasa, iradokitzen digu. Moduluak zenbat eta gehiago azaldu, orduan eta kopuru handiagoan azaltzen dira, era berean, trapezoide itxurako ebakidurak (isoszeleak), eta txikiagoan hiruki edo triangulu itxurakoak. Modulu handia-goetan euskarri orekatuagoen bila saiaturiko zirela iradokitzen digu honek guztiak.


El análisis detallado de la anchura de los soportes laminares tanto enteros como fracturados, a partir de los resultados del *Mixture Analysis* (Barceló, 2007; Brochier, 2008; Chauvin Grandela, 2012; Ríos et al 2011; Ríos-Garaizar et al 2013) (Fig. 25) parece indicar la existencia de cuatro poblaciones laminares diferenciadas. Estas poblaciones pueden definirse como laminillas estrechas (4-8 mm), laminillas anchas (8-12 mm), láminas estrechas (12-17 mm) y láminas anchas (23-27 mm), siendo el grupo de las laminillas estrechas el más numeroso.

En general los módulos de los tres primeros grupos se corresponden, con los identificados a partir de los negativos de los núcleos laminares y de laminillas. Pero no hemos encontrado en el nivel núcleos con negativos que se correspondan con el módulo mayor, bien porque estos productos vengan de fases iniciales de la talla que no han dejado huella en los núcleos (aparecen bastante explotados) o bien porque no se hayan fabricado en el yacimiento.

Negativos: La lectura de los negativos de los productos laminares y de las lascas nos indica una organización eminentemente unipolar en ambos tipos de productos. En los soportes laminares hay también cierta proporción de soportes con negativos bipolares relacionados con la corrección de la cara de lascado desde plataformas opuestas, y en las lascas parece haber mayor variabilidad, destacando las lascas con negativos organizados de forma radial o centrípeta que se pueden vincular con las explotaciones de tipo discode.

La presencia de negativos cruzados tanto en lascas como en láminas se puede vincular con la presencia de flancos tallados en algunas explotaciones (Fig. 26).

Secciones: Los soportes laminares presentan fundamentalmente secciones con forma de trapezio isósceles o con forma de triángulo obtusángulo (indistintamente con el vértice centrado o lateralizado). La alta proporción de este tipo de secciones en los soportes laminares indica desarrollos de talla semienvolventes, con escasa presencia de flancos muy marcados. Vemos que a medida que aumenta el módulo, aumenta también el número de secciones trapezoidales (isósceles) y disminuye el de secciones triangulares, esto puede estar relacionado con la búsqueda de soportes más equilibrados en los módulos más grandes.



27. irudia.VI. mailako ijeki-euskarrien ebakidurak.

Figura 27. Secciones de los soportes laminares del nivel VI.

Zabaleraren txikiaren euskarri erreparatu badiugu (ijekitxo estuak), ebakidura markatuek halako garrantzia zutelako ohartuko gara: trapezio eta hiruki edo triangelu angeluzuzenen itxurakoak dira (% 8 eta % 13 bitartean, guztira), eta printza-sorbatzen edo zulakaitzen gaineko ekoizpen sistemekin lotu beharrekoak dira.

Perfilak: Nahiko zaila da euskarrien kurbadura zehaztea, hainbat gradutan bideratu baitzuten; alabaina, oro har, euskarri lerrozuzenak dira nagusi ijeki formako euskarri multzo guztietan (% >70). Perfil kurbatuak dira ondoren maiz ageri direnak (% 18-22) eta bakanago azaldu dira, aldiz, perfil okertuak eta, aldi berean, kurbatuak, eta okertuak (% <15). Joera hori bera sumatzen da arestian deskribatu ditugun lau ijeki-euskarri multzoetan.

Azpialde fosilak: Lan honetan ez dugu ijeki-euskarrietan azpialde fosilen presentziaren azterketa kuantitatiborik bideratu; halarik ere, argi ikusi dugu presentzia hori ageri dutela angeluzuzen, trapezio angeluzuzen eta triangelu angeluzuzen itxurako ebakidurak dituzten euskarriek. Azpialde fosilen presentziak euskarriak printzetatik, kasu honetan printza-sorbatzetatik, abiatu ekoizten zituztela adierazten digu, albo batean ageri baita aurpegi fosil hori presente dagoen euskarri ia guztietan.

Orpoak: Orpoen irakurketak argi adierazi digu printzen eta ijeki-euskarrien artean ez dagoela alde handirik, kolpekatze-plataforma prestatzeko unean. taulan ez dira islatu, ukiera dela medio piezaren hurbilaldea galdu zelako, orpoa kontserbatu ez duten euskarriak. Ijekien kasuan, % 20 eta % 30 bitarteko kasutan gertatu da horrela, ijekitxoaren artean % 11 eta % 20 bitartean, eta printzetan eta zulakaitz-ebakinetan, aldiz, oso gutxitan baizik ez, ez du balio horrek % 5eko balioa gainditzen.

Oro har, orpo lauak ageri dira nagusi euskarri multzo guztietan (ijekitxo estuen eta zulakaitz-ebakinen multzoan izan ezik, maizago ageri baitira horietan puntu-formako orpoak). Oso proportzio urrian ageri dira orpo azaldunak.

Printzen artean, nagusi dira orpo lauak, birrinduak eta diedroak. Ustiatze sistema zentripetoetako orpo adierazgarriak dira azken horiek, disko itxurako piezetan, esate baterako. Ijekitxo estuek eta zabalek puntu-formako orpoak, lauak eta birrinduak ageri dituzte batez ere. Ijeki estuetan orpo lau birrinduak dira gehienak, baina orpo diedroen eta aurpegidunen presentzia handiagoa nabari da haien artean, puntu-formakoak bezain ugari baitira. Ijeki zabalei dagokienez, garbi esan dezagun aurkezturiko datuak ez direla esanguratsuak, orpoari eutsi dioten euskarrien presentzia oso eskasa izaki. Azkenik, zulakaitz-ebakinen artean bereziki nabarmentzen dira puntu-formakoak, lauak eta birrinduak edo pitzatuak (7. irudia).

Si nos fijamos en los soportes de menor anchura (laminillas estrechas) apreciamos una cierta importancia de las secciones marcadas, con forma de trapezio rectángulo y triángulo rectángulo (entre 8 y 13%) vinculadas con sistemas de producción a partir de fillos de lascas o de tipo buril.

Perfiles: Resulta bastante difícil precisar la curvatura de los soportes ya que se da en distintos grados, pero en general predominan los soportes rectilíneos en todos los grupos de soportes laminares (>70%). Les siguen en frecuencia los perfiles curvados (18-22%) y son bastante escasos los perfiles torcidos y curvados, y los torcidos (<15%). Esta tendencia es común en los cuatro módulos laminares descritos anteriormente.

Caras ventrales fósiles: En este trabajo no hemos realizado un estudio cuantitativo de la presencia de caras ventrales fósiles en los soportes laminares, pero si hemos observado una cierta coincidencia de la presencia de este rasgo en los soportes con secciones con forma de rectángulo, trapezio rectángulo y triángulo rectángulo. La presencia de caras ventrales fósiles es un indicador de la producción de soportes a partir de lascas, en este caso a partir de fillos de lascas, puesto que este paño fósil se encuentra lateralizado en prácticamente la totalidad de los soportes en los que está presente.

Talones: La lectura de los talones indica que entre las lascas y los soportes laminares no hay grandes diferencias a la hora de preparar la plataforma de percusión. En la tabla no se han reflejado los soportes en los que no se conserva el talón a causa del abatimiento de la zona proximal de la pieza por el retoque, que en los casos de las láminas está entre un 20 y un 30%, en el de las laminillas entre un 11 y un 20%, y en el de las lascas y golpes de buril es muy escaso, no llegando a un 5%.

En general, los distintos grupos de soportes muestran un predominio de los talones lisos (salvo en el grupo de las laminillas estrechas y los golpes de buril, donde los talones puntiformes son los más frecuentes), y una proporción muy baja de talones corticales.

Entre las lascas predominan los talones lisos, machacados y diedros, estos últimos característicos de sistemas de explotación centrípetos como el discoide. Las laminillas estrechas y las anchas presentan sobre todo talones puntiformes, lisos y machacados. En las láminas estrechas se mantiene el predominio de los talones lisos y machacados, pero se aprecia un aumento de los talones diedros y facetados que aparecen con la misma frecuencia que los puntiformes. Con respecto a las láminas anchas hay que decir que los datos presentados son poco significativos debido a la reducida muestra de soportes que conservan el talón. Por último, entre los golpes de buril destacan los puntiformes, lisos y machacados o fisurados (tabla 7)

	ljekitxo estuak Laminillas estrechas	ljekitxo zabalak Laminillas anchas	ljekitxo estuak Láminas estrechas	ljekitxo zabalak Láminas anchas	Printzak Lascas	Zulakaitz- ebakinak Golpes de buril
Azalekoa / Cortical	0,52	1,03	0,00	12,50	1,75	0,34
Diedroa / Diedro	3,63	4,79	5,77	12,50	12,72	5,80
Aurpegiduna / Facetado	1,04	1,37	2,88	12,50	2,71	4,27
Lerro-formakoa / Lineal	1,81	2,74	5,77	0,00	1,98	0,00
Laua / Liso	30,31	48,97	63,46	50,00	50,37	32,59
Birringia / Machacado	13,99	15,41	16,35	0,00	18,94	15,70
Puntu-formakoa / Puntiforme	48,70	25,68	5,77	12,50	11,53	41,30

7. taula.VI. mailako orpo motak.

Orpoen azterketak informazioa eskaintzen digu plataformen prestaera motari eta bideratzen den kolpekatze motari buruz. Oro har, forma errazeko plataforma lauak prestatzen dira, azala garbituz. Orpo lau eta puntu-formakoen nagusitasunak argiro adierazten digu ijekitxoaren prestaeran orpoak ozta-ozta baizik ez zirela prestatzen, eta kolpekatze bigunarekin lotzen dira orpo mota horiek. Ijekitxoaren kasuan, handiagoa da orpo diedro, aurpegidun eta lerro-formakoen kopurua eta, beraz, kolpekatu beharreko puntuen prestaeraz gehiago kezkatzen zirela iradokitzen digute. Euskarri mota guztietan orpo birringien edo pitzatuen proportzio handi xamarrek argiro adierazten digu oso maiz bideratzen zutela zuzeneko kolpaketa, erauskailu gogorrez bideratua seguruenik. Kolpaketa-puntua prestatzeko beste modu batzuk dokumentatu dira maila honetan, hala nola erlitzaren urradura, euskarri gehienetan, ijeki-euskarrietan bereziki, agertzen dena.

3.6. TRESNERIA

Sonneville-Bordes Perrot-en tipologiaren arabera sailkatzeko modukoak diren 40 makrotresna, edo haien zatiak, eta 2.622 pieza berreskuratutako ditugu VI. mailan.

Makrotresneria

Bertako lehengaez (hareharria, kuartzita, lutita, marga, eskisto, eta abar) osaturiko harkosko eta lauzatxoak baliatu zituzten makrotresneria lantzeko. Kategoria honetan landu gabeko materia-matrizeak ere hartu ditugu aintzat (K=17), bai eta nolabaiteko erabilera salatzen zuten hatz makroskopikoak ageri zutenak ere (K=23): erauskailuak, suak zartaturiko harkoskoak, okre-lapitz bat, eta abar (8. taula).

Lehengai erabiliena da hareharria makrotresneriaren lanketan, harkosko eta lauzatxoaren bidez (K=20). Zati txikitik (<60x50 mm) zartaturik ageri dira lauzatxoak (K=5), eta zati horien arteko bi dira aipagarriak: azalera lerro-formako ildaxkak ageri ditu bata eta trazu ez figuratiboak besteak (28.1 irudia). Hareharritzko harkoskoak ere zartaturik ageri dira gehienak, eta hainbat modutan erabili ziren. Bereizki aipagarria da suaren eraginez zartaturiko hareharritzko harkosko zatien

Tabla 7. Tipos de talones del nivel VI.

El análisis de los talones nos proporciona información sobre el tipo de preparación de las plataformas y el tipo de percusión que se aplica. En general, se preparan plataformas lisas de forma sencilla limpiando el córtex. El predominio de los talones lisos y puntiformes indica que en la fabricación de laminillas apenas hay preparación de los talones y suelen estar vinculadas a una percusión blanda. En el caso de las láminas estrechas, el incremento del número de talones diedros, facetados y lineales indica una mayor preocupación por la preparación de los puntos de percusión. La proporción relativamente importante de los talones machacados o fisurados en todos los tipos de soportes nos indica que también hay un uso frecuente de la percusión directa, probablemente con percutor duro. En este nivel se ha documentado otro tipo de preparaciones del punto de percusión, cómo la abrasión de la cornisa que aparece en la mayor parte de los soportes, especialmente en los soportes laminares.

3.6. UTILAJE

En el nivel VI se han recuperado 40 macroútiles o fragmentos de macroútiles y 2.622 piezas clasificables tipológicamente según la tipología de Sonneville-Bordes Perrot (De Sonneville-Bordes y Perrot, 1956).

Macrouillaje

El macrouillaje está realizado a partir de cantos y plaquetas de materias primas como arenisca, cuarcita, lutita, marga, esquisto, etc. de origen local. En esta categoría hemos incluido matrices de materia no trabajada (N=17) y aquellas que presentaban huellas macroscópicas de algún tipo de utilización (N=23) cómo percutores, cantos rotos por el fuego, un lápiz de ocre, etc. (tabla 8).

La arenisca es la materia prima más usada dentro del macrouillaje, en forma de cantos y plaquetas (N=20). Las plaquetas (N=5) aparecen fragmentadas en trozos pequeños (<60x50 mm), y entre estos fragmentos destacan dos: uno con estrías lineales en su superficie y el otro con trazos no figurativos (Fig. 28.1). Los cantos de arenisca también aparecen en su mayor parte fracturados y utilizados de diversas

presentzia; euskarri horiek sutegien osagaiak izango ziren edo berotu egingo zituzten, isurkariak irakiteko (Nakazawa, *et al.*, 2009). Hareharrizko beste bi pieza interesgarri azaldu dira. Lerro itxurako ebakiak ageri dituen harkoskoa da haietako lehenena (50x31x22 mm): ebaketak edo mozketak egingo zituzten pieza horren gainean, oinarritzat hartu ondoan (28.3 irudia). Alboetan hiru printzaketa, eta beraien erdialdean egituratzen duten kamerra, ageri dituen beste harkosko landu bat da bigarrena (90x73x22 mm). Azalera zulaketen aztarnak ageri dituen kazola moduko zerbait itxuratu zuten: joa izateko erabiliko zuten behar bada, okrea edo fruitu lehorrak xehatzeko (28.6 irudia).

maneras. Destaca la presencia de fragmentos de cantos de arenisca fracturados por la acción del fuego, estos soportes pueden proceder de hogares o de su utilización calentados para hervir líquidos (Nakazawa, *et al.*, 2009). Otras dos piezas interesantes de arenisca son un canto (50x31x22 mm) con incisiones lineales, posiblemente generadas por actividades de corte utilizando esta pieza como base (Fig. 28.3), y otro canto tallado (90x73x22 mm) con 3 lascados laterales que forman una gran muesca y con una especie de cazoleta con huellas de piqueteado en la superficie (quizá se correspondan con un uso como elemento durmiente para el machacado de ocre o frutos secos) (Fig. 28.6).

	Hareharria Arenisca	Kuartzita Cuarcita	Lutita Lutita	Limonita Limonita	Eskistoa Esquisto	Okrea Ocre	Ofita Ofita	Marga Marga	Guztira Total
Erauskailua / Percutor	0	5	0	0	I	0	0	0	6
Ukigailua / Retocador	0	0	I	I	0	0	0	0	2
Ziria / Cuña	I	0	I	0	0	0	0	0	2
Harkosko edota lauzatxo trazudunak / Cantos o plaquetas con trazos	2	0	0	0	0	0	0	0	2
Lapitza / Lápiz	0	0	0	0	0	I	0	0	I
Suak zartaturiko harkoskoa Canto roto por el fuego	6	0	0	0	0	0	0	I	7
Harkosko landua Canto tallado	I	0	0	0	0	0	0	0	I
Leuntzailea / Alisador	0	0	0	0	0	0	I	0	I
Lauzatxo ildaxkaduna Plaqueta con estrías	I	0	0	0	0	0	0	0	I
Guztira / Total	II	5	2	I	I	I	I	I	23

8. taula.VI. mailako makrotresneria.


Tabla 8. Macrouillaje del nivel VI.

Makrotresnen artean, neurri ertaineko 6 erauskailu azaldu dira (70-50 mm), 5 kuartzitan landuak eta beste bat eskistoa. Zaturik ageri dira batzuk eta kolpekatze eta birrintze aztarnak ageri dituzte ertzetan. Ukigailutzat hartu dira beste bi pieza: suharrizko sorbatzak birbiziterakoan edo itxuratzerakoan sorturiko zulo eta ebaki txikiak ageri dituzten harkosko luzexka apaletan landuak dira (Delgado Raack, 2011; Mozota Holgueras, 2007). Limonitan egin da bata, neurri handi xamarra da (70x31x12 mm) eta zaturik eta deshidrataturik ageri da. Zuloz beteriko alde bat ageri du ertz batean. Lutitan landu zuten bestea eta lau eremu aktibo ageri ditu, kupulak alboetan eta oso markatuak: bina ageri ditu aurpegi bakoitzean, ertzetan. Bestalde, birrintzearen markak eta, eremu zabaletan, azala altxaturiko aldeak ere ageri ditu ertzetan (28.4 irudia).

Maila honetan badira erabileraren arrastoak agertzen dituzten beste harkosko mota batzuk. Azaldu dira, esate baterako, ziri gisa baliatuko zituzten bi harkosko, hareharrian landua bata, eta lutitan bestea; haustura bana ageri dute alde batean eta aurpegi biko erauzte edo birrintzearen markak aurkako aldean. Aipagarria da, halaber, gai urratzaileen marruskadura-aztarnak ageri dituen harkoskoa, ofitan landua eta neurri handikoa (82x77x34 mm); bi gainazal leun (distiratsuak, lauak,

Entre el macrouillaje también se han recuperado 6 percutores, 5 de cuarcita y uno de esquisto, de tamaño medio (70-50 mm). Algunos están fracturados y muestran huellas de percusión y machacamiento en los extremos. Hay un par de piezas que se han interpretado como retocadores, realizados en cantos alargados y aplanados que muestran piqueteados y pequeñas incisiones lineales producidas al reavivar o conformar filos de sílex (Delgado Raack, 2011; Mozota Holgueras, 2007). Uno de ellos ha sido realizado en limonita, es de buen tamaño (70x31x12mm), está fracturado y deshidratado y presenta una zona con piqueteado en un extremo. El otro está realizado en lutita y tiene cuatro zonas activas con cúpulas muy marcadas y lateralizadas, dos en cada cara, en los extremos. Por otro lado también presenta en los extremos machacamiento y un desconchado amplio (Fig. 28.4).

En este nivel hay otros tipos de cantos con huellas de uso, por ejemplo un par de cantos, de arenisca y de lutita, que parecen haber sido usados como cuña, presentan una fractura y en la zona opuesta extracciones o machacamientos bifaciales. Destaca un canto con huellas de raspado de materias abrasivas, de ofita, de grandes dimensiones (82x77x34 mm) que presenta dos superficies pulidas (brillantes, arrasadas, con una



28. irudia. VI. mailako makrotresneria. 1. Lauzatxo zatia, trazuz ez figuratiboak agerian.
2. Erauskailu baten zatia.
3. Lerro itxurako ebakiak ageri dituen harkoskoa.
4. Ukigailua.
5. Okre-lapitza.
6. Harkosko landua, zulaketan arrastoak agerian.
7. Marruskaduren arrastoak ageri dituen harkoskoa.
8. Ziria.

Figura 28. Macrouillaje del nivel VI. 1 Fragmento de plaqueta con trazos no figurativos. 2 Fragmento de percutor. 3 Canto con incisiones lineales. 4 Retocador. 5 Lápiz de ocre. 6 Canto tallado y con piqueteado. 7 Canto con huellas de raspado. 8 Cuña.

fazeta agerian eta ildaxkak luzekarak eta sakonak) ageri dituzte ertz zabaletan (28.7 irudia). Ezaugarri horiei erreparatu ondoren interpretatu dugu pieza hura leuntzaile bat izango zela eta larru idorra lantzeko erabiliko zutela, okrearen edo landare urratzailearen baten gainean. Aipagarria da, bestalde, okre-lapitz baten presentzia, luzexka da eta higadura-arrastoak ageri ditu ertz batean (28.5 irudia).

Maila honetako beste tresneria makrolitikoak ez ditu erabili izana salatuko zuten aztarna argirik ageri. Hareharri, lutita, eskisto, marga eta ofitan bideraturiko harkoskoak edo harkosko zatiak dira. Nahita sarraraziko zituzten aztarnategian, baina ez dago garbi zer asmotan.

faceta visible y estrías alargadas y profundas) en los extremos anchos (Fig. 28.7). Por estas características hemos interpretado esta pieza como un alisador que podría haberse utilizado en un trabajo sobre piel seca con ocre (Cristiani, et al., 2012; Ibañez Estévez y González Urquijo, 1995; Marcos Gómez, 2008) o sobre vegetal abrasivo (Reverdin, et al., 2010). Hay que mencionar también la presencia de un lápiz de ocre, alargado y con huellas de desgaste en uno de sus extremos (Fig. 28.5).

El resto de utillaje macrolítico de este nivel no tiene huellas claras de utilización, se trata de cantos y fragmentos de cantos de arenisca, lutita, esquisto, marga y ofita. Posiblemente fueron introducidos en el yacimiento de forma intencional, pero no está claro con que finalidad.

MOTAK / TIPOS	KOP. / N	%
Marruska soila / Raspador simple	23	0,88
Ez-ohiko marruska / Raspador atípico	3	0,11
Marruska bikoitza / Raspador doble	3	0,11
Marruska zorrotza / Raspador ojival	2	0,08
Printza edo orri ukituaren gaineko marruska / Raspador sobre lasca u hoja retocada	17	0,65
Aurignaciari orriaren gaineko marruska / Raspador sobre hoja aurignaciense	1	0,04
Haizemaile itxurako marruska / Raspador en abanico	7	0,27
Marruska karenatua / Raspador carenado	3	0,11
Ez-ohiko marruska karenatua / Raspador carenado atípico	2	0,08
Marruska laua, muturduna edo sorbaldaduna / Raspador plano en hocico u hombrera	1	0,04
Nukleo formako marruska / Raspador nucleiforme	1	0,04
Marruska – Zulakaitza / Raspador – Buril	16	0,61
Marruska – Mozturadun pieza / Raspador - Pieza truncada	3	0,11
Zulagailua – Marruska / Perforador – Raspador	1	0,04
Zulagailua – Zulakaitza / Perforador – Buril	4	0,15
Zulagailua / Perforador	6	0,23
Ez-ohiko zulagailua edo bec / Perforador atípico o bec	8	0,31
Zulagailua edo bec anizkuna / Perforador o bec múltiple	1	0,04
Mikrozulagailua / Microperforador	5	0,19
Zulakaitz diedro zuzena / Buril diedro recto	18	0,69
Zulakaitz diedro desbideratua / Buril diedro desviado	29	1,11
Angeludun zulakaitz diedroa / Buril diedro de ángulo	7	0,27
Haustura gaineko angeludun zulakaitza / Buril de ángulo sobre rotura	16	0,61
Zulakaitz anizkun diedroa / Buril múltiple diedro	12	0,46
Zulakaitz kakotua edo busqué / Buril arqueado o busqué	7	0,27
Moztura zuzen ukituaren gaineko zulakaitza / Buril sobre truncadura recta retocada	16	0,61
Moztura zehar ukituaren gaineko zulakaitza / Buril sobre truncadura oblicua retocada	47	1,79
Moztura ahur ukituaren gaineko zulakaitza / Buril sobre truncadura cóncava retocada	5	0,19
Moztura ganbil ukituaren gaineko zulakaitza / Buril sobre truncadura convexa retocada	7	0,27
Albo-moztura gaineko zeharkako zulakaitza / Buril transversal sobre truncadura lateral	5	0,19
Kamer gaineko zeharkako zulakaitza / Buril transversal sobre muesca	4	0,15
Moztura ukituaren gaineko zulakaitz anizkuna / Buril múltiple sobre truncadura retocada	23	0,88
Zulakaitz anizkun mistoa / Buril múltiple mixto	19	0,72
Noailles zulakaitza / Buril de Noailles	1564	59,65
Nukleo formako zulakaitza / Buril nucleiforme	1	0,04
Vachons punta / Punta de Vachons	2	0,08
Microvachons / Microvachons	1	0,04
Ez-ohiko La Gravette punta / Punta de La Gravette atípica	2	0,08
Microgravette / Microgravette	2	0,07
Ertza guztiz zanpatua duen orria / Hoja de borde abatido total	62	2,36
Ertza partzialki zanpatua duen orria / Hoja de borde abatido parcial	19	0,72
Mozturadun pieza zuzena / Pieza truncada recta	24	0,92

.../...

.../...

MOTAK / TIPOS	KOP / N	%
Mozturadun pieza zeharra / Pieza truncada oblicua	26	0,99
Mozturadun pieza ahurra / Pieza truncada cóncava	13	0,50
Mozturadun pieza ganbila / Pieza truncada convexa	9	0,34
Moztura bikoitzeko pieza / Pieza de doble truncadura o bitruncada	3	0,11
Ertz batean ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre un borde	63	2,40
Bi ertzetan ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre los dos bordes	25	0,95
Aurignaciari orria / Hoja auriñaciense	7	0,27
Kamerdun pieza / Pieza de muesca	63	2,40
Pieza dentikulatua / Pieza denticulada	17	0,65
Pieza ezpaldua / Pieza astillada	77	2,94
Karrakagailua / Raedera	13	0,50
Raclette / Raclette	2	0,08
Mozturadun orritxoa / Hojita truncada	81	3,09
Bizkardun orritxoa / Hojita de dorso	39	1,49
Bizkardun ijekitxo mozturaduna / Hojita de dorso truncada	8	0,31
Horzdun ijekitxo / Hojita denticulada	3	0,11
Kamerdun orritxoa / Hojita de muesca	45	1,72
Dufour orritxoa / Hojita Dufour	4	0,15
Puntadun ijeki ukitua / Lamina retocada y apuntada	22	0,84
Mozturadun ijeki ukitua / Lamina retocada con truncadura	7	0,27
Bestelakoak / Varios	96	3,66
<i>Noailles zatia litekeena / Posible fragmento de Noailles</i>	13	0,50
<i>Noailles aurreforma / Preforma Noailles</i>	7	0,27
<i>Tresna zatia / Fragmento de útil</i>	15	0,57
<i>Ukitu soileko printza / Lasca con retoque simple</i>	19	0,72
<i>Ertzean ukiera duen printza / Lasca con retoque marginal</i>	8	0,31
<i>Ukiera alderantzikatuko printza / Lasca con retoque inverso</i>	2	0,08
<i>Ukiera txandakatzaileko printza / Lasca con retoque alternante</i>	1	0,04
<i>Ukiera erdi-malkartsuko printza / Lasca con retoque semiabrupto</i>	3	0,11
<i>Ukiera malkartsuaren arrastoak dituen printza / Lasca con restos de retoque abrupto</i>	5	0,19
<i>Ukiera alderantzikatuko ijekia / Lámina con retoque inverso</i>	2	0,08
<i>Ukiera txandakatzaileko ijekia / Lámina con retoque alternante</i>	1	0,04
<i>Ertzean ukiera duen ijekia / Lámina retoque marginal</i>	7	0,27
<i>Ertzean ukiera duen ijekitxo / Laminilla con retoque marginal</i>	8	0,31
<i>Ukiera alderantzikatuko ijekitxo / Laminilla con retoque inverso</i>	2	0,08
<i>Ertzean ukiera duen erdigandorra / Semicresta con retoque marginal</i>	1	0,04
<i>Harkosko landua / Canto tallado</i>	1	0,04
<i>Zulagailu edo punta baten erpina / Ápice de un perforador o una punta</i>	1	0,04
Ukituak / Retocados	2622	15,78
Ukitu gabeak / No retocados	13991	84,22
Guztiak batera / Total general	16613	100,00

9. taula.VI. mailako zerrenda tipologikoa (Sonneville-Bordes y Perrot, 1956).

Tabla 9. Lista tipológica (Sonneville-Bordes y Perrot, 1956) del nivel VI.

Tresneria ukitua

VI. mailako euskarri ukitu nagusiak ageri dira ondoko taulan, Sonnevile-Bordes tipologiaren arabera sailkatuak. Azaldu diren ale batzuk ez dira ongi egokitzen taulan, eta 'bestelakoak' izeneko epigrafera bildu ditugu. Letra etzanean nabarmendu da mota hauen gaineko azalpen orokorra.

2.622 piezak osatzen dute tresneria ukitua, hau da, mailan azaldu diren euskarri guztien % 16. Haien arteko lau baizik (pieza ezpaldu bat eta 'bestelakoak' epigrafepeko hiru), ez ziren suharria ez den lehengairen batean landu (hareharria, harriz-kristala, kuartzoa eta kareharria).

Utilaje retocado

En la tabla 9 se observan los principales soportes retocados del Nivel VI, según la tipología de Sonnevile-Bordes (De Sonnevile-Bordes y Perrot, 1956). Aparecen algunos ejemplares que no se ajustan a la misma, y se engloban en el epígrafe de diversos, la descripción general de estos tipos se ha destacado en cursiva.

El utilaje retocado está compuesto por 2.622 efectivos, que supone un 16% del total de los soportes del nivel, de los cuales solamente cuatro, un astillado y tres diversos, están realizados en materias primas diferentes al sílex (arenisca, cristal de roca, cuarzo y caliza).

MOTAK / TIPOS	KOP. / N	%
Marruskak guztira / Total raspadores	63	2,40
Marruskak guztira / Total compuestos	24	0,92
Zulagailuak guztira / Total perforadores	20	0,76
Zulakaitzak guztira / Total buriles	1.780	67,89
Puntak guztira / Total puntas	7	0,27
Bizkardun ijekiak guztira / Total láminas de dorso	81	3,09
Mozturak guztira / Total truncaduras	82	3,13
Ijeki ukituak guztira / Total láminas retocadas	117	4,46
Pieza ezpalduak guztira / Total piezas astilladas	77	2,94
Substratu-tresnak guztira / Total sustrato	93	3,55
Raclette-ak guztira / Total raclettes	2	0,08
Geometrikoak guztira / Total geométricos	0	0
Ijexitxo ukituak guztira / Total laminillas retocadas	180	6,86
Askotarikoak guztira / Total diversos	96	3,66
Guztira / Total	2.622	100

10. taula. VI. mailako tresneria kategoria handiak.

Kategoria tipologiko handiak ez dira berdin banaturik agertzen (10. taula). Zulakaitzek osatzen dute multzo nagusia, tresneria ukituaren % 68 hartzen duten aldetik. Zulakaitzen multzoaren garrantziak ongi jabetzeko, kontuan hartu beharra dago Noailles zulakaitzek VI. mailako multzo osoan duten pisu handia, ukituriko tresneriaren % 59,6 hain zuzen ere. Ijexitxo ukituen eta bizkardun ijexitxoen, eta ijeki ukituen multzoak datoz ondotik. Neurri txikiagoan eta antzeko portzentaietan (<4) ageri diren beste familia batzuk ditugu substratu-tresneria (kamerrak, horzdunak edo dentikulatuak eta karrakagailuak), molde askotako tresnak, ertzeko ukitu jarraitu erdi-malkartsua ageri duten orriak, eta mozturak. Ondoren datoz pieza ezpalduak eta marruskak. Aipa ditzagun, azkenik, anekdota gisako proportzioetan ageri diren multzo batzuk, hala nola zulagailuak, tresna konposatuak eta puntak.

Guztiz aipatu beharra dago zulakaitz mota batzuen kasuan, horra busqué motakoak edo anizkun diedroak eta mozturaren gainekoak (mota lodiak, oro har), tipologiaren araberako irakurketaz gainera irakurketa teknologikoa ere egin beharko litzatekeela, ijexitxo-nukleo gisa ere erabiliko zituzten (Bordes eta Lenoble, 2002; Klaric, 2006; Le Brun-Ricalens eta Brou, 2003) edo haien nukleo eta tresna erabilera txandaka bide-ratuko zuten aldetik. Antzeko kontsiderazioak hartu beharko


Tabla 10. Grandes categorías de utilaje del nivel VI.

Las grandes categorías tipológicas no se reparten igualmente (tabla 10), los buriles son el grupo mayoritario, alcanzando casi un 68% del utilaje retocado. Esta importancia del grupo de los buriles viene dada por el gran peso de los buriles de Noailles dentro del conjunto del nivel VI, suponiendo un 59,6% del utilaje retocado. Los siguientes grupos representados son las laminillas retocadas y de dorso, y las láminas retocadas. Otras familias representadas en menor medida (<4%) y también en porcentajes similares son los útiles de sustrato (muescas, denticulados y raederas), el utilaje diverso, las hojas con retoque continuo semiabrupto y marginal y las truncaduras, seguidas por las piezas astilladas y los raspadores. Por último hay que mencionar algunos grupos que aparecen en proporciones prácticamente anecdóticas como es el caso de los perforadores, útiles compuestos y puntas.

Debemos mencionar que en el caso de algunos tipos de buriles como los tipo busqué o los múltiples diedros y sobre truncadura (en general los tipos espesos), además de la lectura en términos tipológicos habría que hacer también una lectura tecnológica ya que han podido ser utilizados también como núcleos de laminillas (Bordes y Lenoble, 2002; Klaric, 2006; Le Brun-Ricalens y Brou, 2003) o alternar su uso como núcleos y como útiles. En el caso de las piezas astilladas habría que tener

lirateke gogoan pieza ezpalduen kasuan (De La Peña Alonso, 2011b; Hays eta Lucas, 2007; Martínez-Moreno, et al., 2006).

Ukiera bitartez itxuratzeko hautatu ziren euskarri errepertzen badiegu, neurri eta formatu ugari bideratu eta erabili zituztela ikusiko dugu (ez-ohiko balio ugari), baina ijeki eta ijekitxo-euskarriak aukeratu zituzten nagusiki (% 58), printzak baino askoz ere gehiago (% 19). Hala eta guztiz ere, kopuru handian baliatu eta ukitu ere egin ziren azaleko produktuak (% 12) eta egokitzapenerako produktuak (% 9). Modulu handiagoak, 9-15 mm zabal eta 17-32 mm luze, aukeratu ziren mota honetako euskarri begira (29. irudia).



29. irudia. Kutxa eta arbotante grafika, VI. mailako euskarri gordin ukituen neurri nagusiak erakusgai.

Figura 29. Gráfico de cajas y arbotantes con las principales dimensiones de los soportes brutos y retocados del nivel VI.

Marruskak (30. irudia. 1-11): 63 marruska berreskuratutitu guztira VI. mailan; ijeki ertzaren gaineko marruska soilak dira haietako gehienak (K=23), printza edo ijeki ukituaren gaineko marruskak datoz ondotik (K=17), eta haizemaile itxurakoak gero (K=7). Gainerako motek ordezkari gutxi dituzte zerrendan, eta nukleo formakoak ere (karenatuak eta nukleo formakoak) ez dira kopuru aipagarrian ageri (K=6).

Erabilitako lehengaien artean, argiro ikusten dugu Flyscheko suharri mota erabili zutela nagusiki, Bidaxunekoa hain zuzen ere. Marruskak lantzeko, lehengai horretako ijeki zabal luzekarak hautatzen zituzten batez ere, eta kopuru txikiagoan ageri dira urrunaldean halako kurbadura ageri duten beste batzuk. Azala ageri dute hegaletan erdiek baino gehiagok (K=7). Marruskak Bidaxuneko suharrian lantzeko, egokitzapenerako euskarriak ere hautatzen zituzten, gandorak, garbiketa-printzak edo ijeki gaingituak, baina ekoizpen betean lantzen zituzten ijeki edo ijekitxo produktuak baino proportzio apalagoan.

Bestalde, kopuru aipagarrian ageri dira, halaber, kanpoko marruska motak, Chalosseko suharrian landurikoak bereziki, Urbasa edo Trebiñuko suharrietan landuriko aleren bat edo beste topatu badugu ere. Landu eta gero sartuko zituzten aztarnategian. Kasu horietan ez da erraza euskarri mota hau edo beste hori nahiago izan zuten bereiztea, antzeko proportzioetan ageri baitira printzak, ijekiak, azaleko euskarriak eta egokitzapenak.

Antza denez, formatu estandarizatu xamarrak erabili zituzten oro har (32x21x7 mm batez beste), ijeki ukituko marrusken kasuan batez ere, nahita eginiko hausturaz kontrolatzen baitzuten haien luzera (31. irudia. 7-8). Sorbatz motak

similares consideraciones (De La Peña Alonso, 2011b; Hays y Lucas, 2007; Martínez-Moreno, et al., 2006).


Si nos fijamos en los soportes escogidos para ser conformados mediante retoque, vemos que hay una gran variabilidad de medidas y formatos (abundantes valores atípicos), pero en general se han escogido preferentemente los soportes laminares (58%), tanto láminas como laminillas, frente a las lascas (19%). Sin embargo, un buen número de productos corticales (12%) y de acondicionamiento han sido aprovechados y retocados (9%). De entre estos soportes se ha optado por los módulos más grandes (Fig. 29) entre 9-15 mm de anchura y 17-32mm de longitud media.

Raspadores (Fig. 30. 1-11): En el nivel VI se ha recuperado un total de 63 raspadores, de los cuales la mayoría son raspadores simples sobre extremo de lámina (N=23), seguidos por los raspadores sobre lasca o lámina retocada (N=17) y los raspadores en abanico (N=7), el resto de tipos están poco representados y los tipos nucleiformes (carenados y nucleiformes) tampoco alcanzan un número importante (N=6).

Entre las materias primas usadas se observa una preferencia por el sílex del Flysch, concretamente de Bidache. Se eligen principalmente láminas anchas y alargadas de esta materia prima para elaborar los raspadores, también se eligen algunas con cierta curvatura distal y que conservan laterales corticales, en algo más de la mitad de los casos (N=7). Para fabricar raspadores en sílex de Bidache, también se eligen soportes de acondicionamiento como crestas, lascas de limpieza o láminas sobrepasadas, pero en una proporción más baja frente a los productos laminares de plena producción.

Por otro lado, se aprecia una presencia importante de variedades exógenas, especialmente de sílex de Chalosse, aunque aparece algún ejemplar en sílex de Urbasa y Trebiño, que posiblemente entren en el yacimiento ya elaborados. En estos casos no es tan fácil distinguir una preferencia por un tipo de soporte u otro, ya que aparecen proporciones similares de lascas, láminas, soportes corticales o acondicionamientos.

En general parece que se utilizan formatos bastante estandarizados (32x21x7 mm de media) especialmente en los raspadores sobre lámina retocada, en los que se controla la longitud mediante fractura intencional (Fig. 30. 7-8). Los tipos de filo son



30. irudia. VI. mailako marruskak eta mota bikoitzak. 1-4. marruska soilak; 5-8 ijeki ukituaren gaineko marruskak; 9 haizemaile itxurako marruska; 10 kontrakolpez birbizituriko marruska; 11 nukleio itxurako marruska; 12 marruska-zulakaizta; 13 marruska-pieza mozturaduna.

Figura 30. Raspadores y tipos dobles del nivel VI. 1-4 Raspadores simples; 5-8 Raspadores sobre lámina retocada; 9 Raspador en abanico; 10 Raspador reavivado por contragolpe; 11 Raspador nucleiforme; 12 Raspador-buril; 13 Raspador-pieza truncada.

hainbat eratakoak diren arren, zabalak topatu ditugu nagusiki, eta aurrealdean perfilak ez dira horren ganbilak. Ukiera ezkatatsua da kasu guztietan. Nukleo itxuran landurik dokumentatu ditugun marruska gutxi horien kasuan, negatiboen luzera 10 x 6 mm-koa da batez beste (31. irudia. 11).

Ezin izan ditugu alderdi funtzionalak argituko litzuketan arrasto garbiak topatu, ale bakar batean ere ezin izan dugu sorbatza borobildu izana baieztatu; alabaina, erabileraren poderioz altxaturiko aldeak sumatu ditugu marrusken alboetako sorbatz batzuetan. Gider motarekin edo marrusken beste funtzio batzuekin lotu beharko genituzke behar bada.

Azkenik, ingude gaineko kontrakolpeen bidezko birbizitze teknika ere dokumentatu dugu maila honetan, hiru piezatan gutxienez (30. irudia. 10).

Konposatuak edo mota bikoitzak (30. irudia. 12-13): Gutxi dira multzoaren barruan (K=24), eta ijeki baten ertz banatan ageri diren marruskak eta zulakaitzak osaturiko piezak dira gehienak. Badira, halaber, 4 zulagailu-zulakaitz, zulagailu-marruska bat, eta hiru mozturadun marruska; azken horietan, piezaren luzera kontrolatzeko baliatuko zuten moztura. Erabilitako euskarriak lanketa beteko ijekiak dira gehienak, baina bada printzaren bat edo beste eta aurpegi bakarrek gandarren bat, mota horietako piezak lantzeko erabiliko zituztenak. Lehengaiei dagokionez, Bidaxuneko eta Urbasako suharri motetan bideraturiko euskarriak erabili zituzten gehienetan; proportzio txikiagoan baliatu zituzten beste suharri motak, Trebiñukoak izan ezik, tresneria mota honetan horrelakorik bideratu ez zuten aldetik. Elementu ukitu batzuetatik birziklatu edo berrerauditako produktutzat hartu ditugu tresna multzo honetako piezak.

Zulagailuak (31. irudia): Maila honetan 20 pieza sailkatu ditugu, oro har, zulagailuen artean. Zulagailu petoen artekotzat hartu ditugu haietako sei, bec dira beste bederatzia (anizkun bakarria dago haien artean) eta mikrozulagailutzat hartu dira gainerako bostak. Euskarri mota desberdinen gainean bideratu diren tresna horien: aipagarriak dira, haien artean, printzak eta ijekiak egokitzeko produktuak, baina ijeki-euskarriak ere erabili zituzten. Aukeraturiko euskarriak neurri txikiak dira eskuarki, 20x20 mm-tik beherakoak, baina 45 mm-tik gorakoak dira bi pieza. Bidaxune, Gaintxurizketa eta Urbasako suharriak erabili zituzten nagusiki, antzeko proportzioetan izan ere, eta Trebiñuko suharrian landu zen pieza bat.

Erabilerari dagokionez, zatiturik ageri dira erdiak baino gehiago, azala altxatua ageri dute haietako bik, eta erpinean halako haustura beste batek, erabileraren poderioz seguruenik.

Zulakaitzak (32. eta 33. irudiak): Tresna ukituen artean ordezkari handiena da inolaz ere zulakaitzena, tresneria ukituaren % 67. Zulakaitzen pisu handi hau Noailles zulakaitzak VI. mailan ageri diren proportzio altuaren zuzeneko ondorioa baizik ez da, tresna ukituen % 59 baitira eurak bakarrik. Duten garrantzia dela medio, moztura gainean landuriko beste zulakaitzetatik aparte aztertuko ditugu hauek.

Maila honetako zulakaitzen artean formatu asko agertzen dira eta antzeko ale edo pieza kopurua ageri dute multzo horiek. Halatan, moztura gaineko zulakaitzak (Noailles moldekoak kontuan hartu gabe) gehixeago agertzen dira beste motatakoak baino, 84 ale guztira. Haien ondotik datoz mota soilagoak (diedroak, desbideratuak, angeludunak eta haustura gainekoak), 70 pieza guztira, eta nukleo formako zulakaitzak ondoren (Busqué, nukleo formakoak eta anizkunak): gutxienak dira, 62 ale.

Marrusken kasuan gertatu bezala, ijeki-euskarriak hautatu zituzten nagusiki tresna hauen lanketari begira (% 62). Ijeki lodi

variables, pero principalmente encontramos filos anchos, y las delineaciones de los frentes son poco convexas. El retoque es escamoso en todos los casos. En los escasos raspadores de tipo nucleiforme que se han documentado, los negativos tienen longitudes de unos 10x6 mm de media (Fig. 30.11).

No hemos podido observar huellas claras relacionadas con los aspectos funcionales, no habiéndose apreciado redondeamiento del filo en ningún ejemplar, pero sí se aprecian desconchados de uso en algunos de los filos laterales de los raspadores, quizá vinculados al tipo de empuñadura o a otras funciones de los mismos.

Finalmente, en este nivel también se ha documentado la técnica de reavivado por contragolpe sobre yunque en al menos 3 ejemplares (Fig. 30.10).

Compuestos o tipos dobles (Fig. 30.12-13): Son escasos dentro del conjunto (N=24), la mayoría son piezas compuestas por un raspador y un buril situados en los extremos opuestos de una lámina. También hay 4 perforadores-buril, 1 perforador raspador y 3 raspadores-truncadura, en estos últimos la truncadura puede servir como elemento para controlar la longitud de la pieza. Los soportes utilizados son mayoritariamente láminas de plena talla, aunque hay alguna lasca y también alguna cresta unifacial utilizada para realizar estos tipos. Con respecto a las materias primas, la mayor parte utilizan soportes elaborados en sílex de Bidache y de Urbasa, las restantes variedades se usan en menor proporción, salvo el de Trebiño que no se utiliza para elaborar este tipo de utillaje. Hemos interpretado este grupo de útiles como producto del reciclado o reutilización de algunos elementos retocados.

Perforadores (Fig. 31): En este nivel hay 20 piezas clasificadas genéricamente como perforadores, 6 de ellos pueden considerarse perforadores típicos, 9 son becs (solamente uno es múltiple) y los 5 restantes se han clasificado como microperforadores. Estos útiles se han realizado sobre distintos tipos de soporte destacando las lascas y los productos de acondicionamiento laminar, aunque también se han utilizado soportes laminares. Generalmente los soportes elegidos son de pequeño tamaño, menores de 20x20 mm, aunque hay un par de ejemplares mayores de 45 mm. Los sílex utilizados son sílex de Bidache, Gaintxurizketa y Urbasa en proporciones similares, y un ejemplar de sílex de Trebiño.

Con respecto a su uso, más de la mitad aparecen fracturados, un par de ellos muestra algún tipo de desconchado y otro tiene una pequeña fractura en el ápice quizá derivada de su uso.

Buriles (Fig. 32 y 34): Son la categoría más representada entre los útiles retocados, suponiendo un 67% del utillaje retocado. Este gran peso de los buriles se deriva de la alta proporción de buriles de Noailles dentro del nivel VI, que por sí solos suponen un 59% de los retocados, y debido a esta relevancia los analizaremos separados de los otros buriles sobre truncadura.

Dentro de los buriles de este nivel se da una gran variabilidad de formatos y los distintos grupos tienen un número de efectivos similar. De este modo, los buriles sobre truncadura (sin contar los Noailles) son ligeramente más abundantes y suponen un total de 84 efectivos, seguidos de los formatos más sencillos (diedros, desviados, de ángulo y sobre fractura), que cuentan con 70 ejemplares, y finalmente los buriles nucleiformes (Busqué, nucleiformes y múltiples) son los más escasos, con 62 ejemplares.

Al igual que en el caso de los raspadores, preferentemente se han escogido como soporte de estos útiles los soportes la-



31. irudia. Zulagailuak VI. maila.

Figura 31. Perforadores nivel VI.

xamarrek dira (5-8 mm lodi), neurri onekoak, erregularrak eta ez zabalegiak (20 mm batez beste). Azaleko euskarriak dira laurdenetik gora. Hein txikiagoan bada ere, printzak (% 13), azaleko printzak (% 8) eta egokitzapenerako produktuak (% 15) ere bideratu zituzten tresna hauen prestaerari begira. Anekdotak baizik ez da beste euskarri batzuen erabilera (% 2 gutzira), horra ezpatak, zulakaitz-ebakinak edota formarik gabeko zatiak.

Lehengaiei dagokienez, Flysch-eko suharrian, Gaintxurizketakoan nahiz Bidaxunekoan, landu ziren tresnen % 60 ia, eta guztiz aipagarria da, era berean, Urbasako suharrian landuriko piezen presentzia (% 19). Oso urria da (% 5), berriz, alde urrunagoko suharrien erabilera (Chalosse, Trebiñu edota Tercis), bai eta bertako suharri urgoniarrarena ere, % 1era ere ez baita iristen.

Zulakaitz diedroak (32. irudia. 1-4): Multzto honen barruan, nagusi dira zulakaitz diedro zuzenak eta desbideratuak, zulakaitz angeludunen eta haustura gaineko angeludunen aldean. Zulakaitz diedroek, gainerako zulakaitz multzoen antzera, hasierako euskarrien sendotasuna dute bereizgarri, baina gainerako multzoek baino luzera handiagoko ijekiak hartzen dituzte euskarritzat. Ezagun dute kontuz, halako arretaz, prestatu zizutuztela. Multzto honetan, maiz ageri dira aurreneko erauzteak gidatzeko erabiltzen ziren gandorrek; diedroen kasuan, maiz ageri dira gandorren aztarnak bi sorbatzetan. Zulakaitz-ebakinak luzeak eta zabalak dira (23 x 5 mm batez beste) eta ez da oso ohikoa diedroaren aurpegietan erauzte askoren markak agertzea. Birbizitzeei dagokienez, kontrakolpe birbizituriko ale bat dokumentatu da, bai eta oso erabilera-epe luzea eta birbizitze ugari ageri dituen beste zulakaitz bat ere.


Alde batera utzirik zulakaitz hailetako batzuk nukleo gisa ere erabili zirela, erabilera-arrastoak ageri dituzte hailetako batzuek, hala nola eremu altxatuak alboetako sorbatzetan (maiz xamar agertzen dira horrelakoak), eta alde altxatuak ageri dituzte beste batzuek ertz eta diedroetan. Ale batek halako borobiltzea erakusten du ertzean eta beste batek diedro kamuts bat.

minares (62%), konkretamente láminas bastante espesas (entre 5 y 8 mm de espesor) de buen tamaño, no demasiado anchas (media de 20 mm) y regulares, algo más de un cuarto de estos soportes son corticales. También se han utilizado, aunque en menor medida, lascas (13%), lascas corticales (8%) y productos de acondicionamiento (15%). El uso de otros soportes como astillas, golpes de buril, o fragmentos informes es testimonial (2%).

Entre las materias primas casi el 60% de los sílex proceden del Flysch, de Gaintxurizketa y de Bidache, aunque la presencia de sílex procedentes de Urbasa alcanza también un porcentaje importante (19%). El uso de sílex procedentes de zonas más lejanas como Chalosse, Treviño o Tercis es muy reducido (5%), al igual que el uso de sílex Urgoniano local que no llega a un 1%.

Buriles diedros (Fig. 32. 1-4): Dentro de este grupo encontramos un predominio de los buriles diedros rectos y desviados frente a los buriles de ángulo y de ángulo sobre rotura. Los buriles diedros, al igual que el resto de grupos de buriles se caracterizan por la robustez de los soportes de partida, aunque estos toman como soporte láminas de mayor longitud que el resto de los grupos. Existe un cuidado en su preparación y las crestas para guiar las primeras extracciones son de uso general en este grupo, en el caso de los diedros frecuentemente quedan restos de crestas en ambos filos. Los golpes de buril son largos y anchos (23 x 5 mm de media) y no es muy habitual la existencia de múltiples extracciones en los paños del diedro. Con respecto a los reavivados, se ha documentado un ejemplar reavivado por contragolpe y otro con una vida útil muy larga y múltiples reavivados.

Aparte del uso de alguno de estos buriles como núcleo, otros muestran algunas huellas de uso como desenchados en los filos laterales, que son bastante frecuentes, y también hay algunos ejemplares con desenchados en las aristas y diedros. Hay un ejemplar que muestra cierto redondeamiento en la arista y otro presenta un diedro embotado.



32. irudia.VI. mailako zulakaitzak. 1-4 Zulakaitz diedroak; 5-7 Moztura gaineko zulakaitzak; 8-12 Zulakaitz anizkunak; 13-15 Busqué zulakaitzak.

Figura 32. Buriles del nivel VI. 1-4 Buriles diedros; 5-7 Buriles sobre truncadura; 8-12 Buriles múltiples; 13-15 Buriles busqué.

Zulakaitz anizkunak eta nukleo itxurakoak (32. irudia. 8-15): Zulakaitz anizkun diedro edota mistoen aldean, nagusi dira multzo honetan moztura gaineko zulakaitz anizkunak. Multzo honen ezaugarria da, era berean, beste zulakaitz motetarako baino euskarri sendo eta lodiagoak aukeratu izana (5-10 mm batez beste). Oso markatua da multzo honen nukleo forma izaera, eta gehien batean neurri txikiko (17 x 4 mm batez beste) ijekitxo-matrize gisa erabiliko zen batez ere, 3 alek baizik ez baitituzte erabilera-arrasto makroskopikoak ageri.

Zazpi Busqué zulakaitz identifikatu ditugu zulakaitz anizkunen artean (32. irudia. 12-13). Gelditze-kamera ageri dute gehienek, ez ordea guztiek. Perfila hein batean bihurriturik ageri duten ijekitxo kurbatu laburren ekoizpenarekin lotu beharrak dira mota honetako piezak. Azken fasean pieza ezpaldu gisa edo kontrakolpe bidezko birbizitze jardueran berrerabili zirela ageri dute haien arteko bi alek.

Moztura gaineko zulakaitzak: (32. irudia. 5-7). Bestelako morfologiak ageri dituzte, baina moztura zeiharren edo zuzenen gainean itxuraturikoak dira nagusi; alabaina, askoz ere kopurua txikiagoan bada ere, topatu ere egin ditugu moztura ahur eta ganbilak gainean, eta alboko mozturen eta alboko kamerren gainean, landuriko zulakaitzak. Laburxeagoak eta zabalxeagoak dira haien euskarriak (25x16x6 mm batez beste), baina luzexkak eta estu xamarrek dira haien aurpegi negatiboak (17x3-4 mm batez beste). Dokumentatu ere egin dira gandor gidatzaileen presentzia sorbatzetan, alde batetik, eta gelditze-kamerren erabilera, bestetik.

Noailles zulakaitzak (34. irudia). Maila honetan bideraturiko ukieren helburu nagusia izan ziren inolaz ere, tresneria ukituaren % 59. Noailles zulakaitzen barruan, ez-ohiko Noailles zulakaitz gisa hartu ditugu xehe-xehe halakotzat hartzeko irizpide klasikoak betetzen ez dituzten batzuk; alabaina, kontuan hartzen badugu zulakaitz mota honek horren ugari ageri dituen aldagaiak (Arrizabalaga 1994; Ríos *et al.* 2011), moztura gaineko zulakaitzak baino hurbilago daude ez-ohiko Noailles horiek. Noailles motako zulakaitz peto-petoetatik. Noailles zulakaitz gisa harturiko piezen % 14 hartuko lirake aintzat multzo horren barruan: zera dira, funtsean, euskarri sendoagoetan edo irregularrak bideraturiko Noailles zulakaitzak, baina moztura, aurpegi laburrak eta oso estuak eta gelditze-kamera ageri dituztenak. Bereizkuntza honengatik ere, batera aztertu ditugu ohiko eta ez-ohiko Noailles zulakaitzak, ez-ohiko horiek tresneria mota horren barruko aldagaiak baizik ez baitira gure ustez.

Dagoeneko aipatu dugun bezala, neurri ugartasun handia ageri dute baliaturiko euskarriek, joera nagusia euskarri txikiak eta arinak erabiltzea den arren (18x10x3 mm batez beste). Lanketa beteko ijekitxoak eta neurri txikiko printzak izan ziren Noailles zulakaitzak lantzeko nahien eduki zituzten euskarriak; alabaina, maiz erabili zituzten, era berean, lanketa beteko ijekiak, azaleko ijeki-euskarriak eta ijekitxo islatuak. Askoz ere kopuru txikiagoan erabili zituzten gainerako euskarri motak (gandorrek, ijeki gainekatzailak eta gaindituak, tabletak, garbiketako-printzak, zulakaitz-ebakinak eta ezpalak).

Euskarri eta tamainetan horrenbesteko aukera eduki arren, ohiko Noailles zulakaitzak dira gehienak: mozturen gainean beren gelditze-kamerrekin bideratuak, aurpegiak laburrak eta oso estuak (8x1 mm). Zulakaitz-ebakinak mozturen gainean bideratu ziren eskuarki (moztura zeiharrek % 57, zuzenak eta ahurrak % 19, eta ganbilak % 5). % 15 baizik ez ziren hausturaren gainean bideratu. Bikoitzak dira zulakaitz hauen arteko % 24. Askotarikoak dira, halaber, mailan dokumentatu diren Noailles oinen formak: hiruki itxurakoak, angeluzuzenak, trapezoidalak, erronbo itxurakoak, izar itxurakoak, edota forma

Buriles múltiples y nucleiformes (Fig. 32.8-15): En este grupo predominan los buriles múltiples sobre truncadura, frente a los múltiples diedros o mixtos. Este grupo también se caracteriza por la preferencia de soportes robustos y más espesos (5-10 mm de media) que el resto de tipos de buriles. Este grupo tiene un marcado carácter nucleiforme, posiblemente se han usado mayoritariamente como matrices de laminillas de pequeño tamaño (17x4 mm de media), ya que solamente 3 ejemplares muestran huellas macroscópicas de uso.

Entre los buriles múltiples hemos identificado 7 buriles Busqué (Fig. 32. 12-13), la mayoría presentan muesca de paro aunque no todos. Este tipo de piezas también se relacionan con la producción de laminillas curvadas, cortas (15 mm de media) y con perfil un poco retorcido. Un par de ejemplares muestran una reutilización en su última fase como piezas astilladas o un reavivado por contragolpe.

Buriles sobre truncadura (Fig. 32.5-7): presentan morfologías diferentes, pero predominan los elaborados sobre truncadura oblicua y recta, aunque también aparecen en mucha menor medida sobre truncaduras cóncava, convexa, lateral y sobre muesca lateral. Los soportes de estos buriles son algo más cortos y menos anchos (25x16x6 mm de media) pero los negativos de los paños son alargados y bastante estrechos (17x3-4 mm de media), asimismo se ha documentado la utilización tanto de crestas guía en los filos como de muescas de paro.

Buriles de Noailles (Fig. 34): Son el objetivo prioritario del retoque en este nivel, suponiendo un 59% del utillaje retocado. Dentro de los buriles de Noailles hemos clasificado como buriles de Noailles atípicos algunos que no cumplen de manera rigurosa los criterios clásicos para ser considerado como tales pero que si tenemos en cuenta la variabilidad interna de este tipo (Arrizabalaga 1994; Ríos *et al.* 2011), estos Noailles atípicos se encuentran más cerca del tipo buril de Noailles que de los buriles sobre truncadura. Alrededor de un 14% de los buriles de Noailles se englobarían dentro de este grupo, tratándose fundamentalmente de Noailles realizados en soportes algo más robustos o irregulares, pero con su truncadura, paños cortos y muy estrechos y con muesca de paro. A pesar de esta distinción hemos analizado los buriles de Noailles típicos y atípicos en conjunto puesto que consideramos que responden a la variabilidad interna de este tipo de utillaje.

Cómo ya hemos mencionado, los soportes usados muestran una gran variabilidad de tamaños, aunque la tendencia general es emplear soportes pequeños y ligeros (18x10x3 mm de media). Los soportes preferentes para realizar los Noailles son las laminillas de plena talla y las lascas de pequeño tamaño, también se utilizan frecuentemente láminas de plena talla, soportes laminares corticales y laminillas reflejadas. El resto de soportes (crestas, láminas desbordantes y sobrepasadas, tabletas, lascas de limpieza, golpes de buril y astillas) se emplean en menor medida.

A pesar de esta variabilidad de soportes y tamaños, la gran mayoría son buriles de Noailles típicos sobre truncadura con sus muescas de paro y los paños cortos y muy estrechos (8x1mm). Generalmente los golpes de buril se aplican sobre truncaduras (oblicuas en un 57% de los casos, rectas y cóncavas en un 19% y convexas en un 5%) y solamente en un 15% de los casos se hacen sobre fractura. De éstos buriles un 24% son dobles. Las formas de la planta de los Noailles que se documentan en el nivel son muy variadas: triangulares, rectangulares, trapezoidales, romboidales, en estrella, o formas

irregularrekoak eta sailkatzen zailak. Halaz ere, lerrozuzenak edo hein batean ganbilak izaten dira haien perfilak.


Erabilitako suharri motei dagokionez, multzo honen portae-ra berezi xamarra da gainerako zulakaitz multzoenaren aldean. Flysch-eko suharriaren erabilera nagusi den arren, kasu honetan Bidaxuneko da maizen baliatu zena, eta urri xamarra da, aldiz, Gaintxurizketakoaren presentzia. Urbasako suharria da erabilerari dagokionez bigarrena eta Bidaxunekoaren antzeko proportzioak ageri ditu gainera. Proportzio maila altuan ageri da halaber Chalosseko suharria. Oso bakan ageri dira, bestalde, kanpoko beste suharri batzuk, hala nola Trebiñuko eta Terciskoa.

Zera esan genezake Noailles zulakaitzen erabilerari dagokionez, bizi-bizi erabili izan zituztela, proportzio oso altuan. Azterketa funtzionalaren faltan gaudelarik, erabilerarekin loturiko zantzu batzuen berri eman genezake: haien arteko % 42 baizik ez dira osorik azaldu, zatitunik ageri dira gainerakoak, haustura mota desberdinak (mihi itxurako hausturak, gelditze-kamerren aldean hautsiak, eta abar) eta erabilera-zantzu makroskopikoak, hala nola eremu atxatuak diedroan eta ertzetan. Adierazi beharreko ez-ohiko faktorea gurek zulakaitz hauen aurpegiak zenbaitetan birbiziturik ageri direla.

irregulares o difíciles de definir. Sin embargo los perfiles suelen ser rectilíneos o ligeramente convexos.

Con respecto a los tipos de sílex empleados, este grupo muestra un comportamiento algo diferente al resto de los grupos de buriles. Aunque el uso del sílex del Flysch es el predominante, en este caso es el de Bidache el que se usa con más frecuencia, frente a una presencia bastante escasa del de Gaintxurizketa. El sílex de Urbasa es el segundo más usado, con porcentajes similares al de Bidache y también alcanza una proporción alta el sílex de Chalosse. Otros sílex exógenos como el de Treviño o Tercis aparecen de una forma testimonial.

Acerca de su uso, podemos inferir que debido a su alta proporción ha sido un útil usado intensamente. A falta de un análisis funcional podemos comentar algunos rasgos vinculados con su utilización: solamente un 42% de ellos aparece completo, el resto muestra distintos tipos de fracturas (en lengüeta, fracturados por la zona de las muescas de paro, etc.) y estigmas macroscópicos de uso como desconchados en el diedro o en las aristas. Un factor atípico que hay que señalar es que en ocasiones se reavivan los paños de estos buriles.



33. irudia. Kutxa eta arbotante grafikak, VI. mailan erabilitako euskarrien neurriak agerian.


Figura 33. Gráficos de cajas y arbotantes con las medidas de los soportes empleados en los buriles del nivel VI.

Zulakaitzen arteko multzo desberdinak aztertu ondoren, tamaina handiagoko zulakaitzen multzo bat bereizi beharra dago. Pieza lodiagoak eta nukleo forma argikoak dira (tresna gisa ere erabiliko zirelako iritzia baztertu gabe, euskarrien ekoizpenarekin lotu beharko genituzke antza denez) eta aurpegi zabalagoak eta luzeagoak ageri dituzte (halakoxea da diedroen, anizkunen, busqué motakoen eta moztura gainean bideraturiko zulakaitz lodi batzuen kasua). Beste multzo bat osatzen dute Noailles zulakaitzek eta, beharbada, moztura gainean bideraturiko beste ale arin batzuek.

Bi multzo hauek euskarri desberdinen gainean itxuratu ziren. Aurrenekoan, ijeki lodiak, zabalak eta luzeak bideratu ziren batez ere; bigarrenean, aldiz, ez ziren euskarriak hainbeste berezi eta txikiak eta arinak nahiago izan zituzten oro har. Gainera, badirudi lehen multzoko zulakaitzen erabilera-epa luzeagoa izan zela bigarren multzoko tresna baino, sorbatzen mantentze eta birbizitze lan batzuekin estuago loturik ageri diren aldetik. Zulakaitz arinen multzoko piezen erabilera zirt edo zartekoa izan zen nolabait, eta haien mantentze lanak ez ziren denboran horren iraunkorrak izango. Beraz, badirudi maiz hausten zirela, erabileraren poderioz, eta abandonatu eta beste berri batzuk lantzen zituztela. Horregatik azaldu dira VI. maila honetan horren ugari.

Tras analizar los distintos grupos de buriles podemos distinguir un grupo de buriles de mayor tamaño, y más espesos que tienen un carácter más nucleiforme (sin excluir su uso cómo útiles parecen estar vinculados con una producción de soportes) y que presentan paños más anchos y alargados (es el caso de los diedros, múltiples, busqué y algunos buriles espesos sobre truncadura). El otro grupo estaría formado por los buriles de Noailles, y quizá también otros ejemplares ligeros sobre truncadura.

Estos dos grupos se realizan sobre soportes diferentes, en el primero se escogen preferentemente láminas espesas, anchas y largas, mientras que en el segundo no hay tanta selección de soportes y se prefieren soportes pequeños y poco espesos. Además el primer grupo parece tener una vida útil más larga ya que parecen vinculados con ciertas labores de mantenimiento y de reavivado de los filos más intensa que el segundo grupo. El grupo de los buriles ligeros parece sufrir un uso más expeditivo y un mantenimiento menos intenso, de modo que parece que se fracturan con frecuencia debido a su uso, abandonándose y elaborando otros nuevos, de ahí su abundancia en el conjunto del nivel VI.



35. irudia. Kutxa eta arbotante grafikak, VI. mailako zulakaitzen aurpegi negatiboen neurriak agerian.

Figura 35. Gráficos de cajas y arbotantes con las medidas de los negativos de los paños de los buriles del nivel VI.

Tresneria honen erabilerari dagokionez, antzeko testu-guruetan gai gogorren gaineko lanarekin (adarkiak eta hezur-rrak) lotu izan da zulakaitzen erabilera, eta bat letorke iritzi hau maila honetan adarkiz eta hezurrez landuriko tresneriak ageri duen presentzia mailarekin. Doitasunezko zulaketa eta landare-zuntzen prestakuntza moduko jarduerekin lotu izan dira Noailles zulakaitzak.

Puntas (38. Irudia. 1-6): Anekdotak da ia-ia maila honetan puntak duten presentzia (K=7), eta neurri txikikoak dira adierazgarriak: Microgravetteak direlakoak, bi pieza, eta Microvachons moldekoa, ale bakarra. Badira halaber bi Vachons punta eta beste pare bat Gravette, ez-ohikoak oraingoan. Bidaxuneko suharrian taxutuak dira bi eta, deshidratazioaren eragina dela medio, identifikatzen zailak diren suharri motetan gainerakoak. Zaiturik ageri dira guztiak, eta urrunaldea baizik ez dute konterbatu. Oinarria izan litekeena konterbatu da kasu batean.

Gravette eta Vachons hasierako euskarriak ijekitxo zabalak dira, 8-10 mm-ko zabalera; lauzpabost mm-ko zabalera duten ijekitxo estu luzexken gainean landu ziren, aldez, mikrogravetteak eta mikro-vachonsak. Luze xamarak dirudite euskarriek, baina osorik alerik ere ez dugu berreskuratu. Trapezoida isoszeleen itxurakoak dira, bestalde, haien jatorrizko ebakidurak; alabaina, trapezio angeluzuzenaren itxura hartzen dute bizkarrarekin.

Zuzeneko ukiera malkartsu baten bitartez taxutzen zuten bizkarrak, eta ukiera gurutzatua erabiltzen zuten urrunaldeko eta hurbilaldeko eremuetan. Vachons gisa sailkatu den piezeta batek oinarria meharturik ageri du (38. irudia. 1), lzturitzen dokumentatu diren elementu batzuek ageri duten modu berean. Beste Vachons punta eta mikro-vachons delakoak meharturik dute erpina, bizkarraren beste aldeko sorbatzean bideraturiko ukiera alderantzikatu baten bidez.

Talka-arrastoak liriatekeenak ageri dituzte bi alek: erabile-eraginiko azal-altxatze zeiharrek ageri ditu ez-ohiko Gravette batek sorbatzean, erpinaren ondoan, eta hausturan, eta erpinean haustura konplexu bat Mikrogravette batek.

Ertza zanpatua ageri duten piezak (36. irudia. 10-12): Ertza guztiz edo hein batean zanpatua ageri duten 82 pieza azaldu dira guztira VI. mailan. Bertako suharrian landuak dira gehienak. Neurri txiki eta ertaineko ijeki-euskarriak (20x13x2 mm batez beste) dira haietan bideraturiko euskarriak, bai eta printzak ere

Con respecto al uso de este utillaje, en contextos similares se ha vinculado el uso de los buriles con el trabajo de materias duras como el asta o el hueso (Ríos, et al., 2011), que podría ser coherente con la presencia en este nivel de utillaje en asta y hueso. Los buriles de Noailles se han vinculado con actividades como la perforación de detalle (Arrizabalaga, 1994) y la preparación de fibras vegetales (Aranguren y Reverdin, 2001).

Puntas (Fig. 38.1-6): La presencia de puntas en el nivel es testimonial (N=7), y las más características son las de pequeño tamaño, Microgravettes con dos ejemplares y Microvachons con un ejemplar, frente a dos puntas de Vachons y otras dos Gravettes atípicas. Dos están fabricadas en sílex de Bidache, y el resto sobre sílex difíciles de identificar a causa de la deshidratación. Todas ellas están fragmentadas, y solamente se conserva la zona distal de las mismas, salvo en un caso en que se conserva una posible base.

Los soportes de partida de las Gravettes y Vachons son laminillas anchas de unos 8-10 mm de anchura y las microgravettes y microvachons sobre laminillas estrechas y alargadas, de unos 4-5 mm de anchura. Los soportes parecen bastante alargados pero no se conserva ninguno completo y las secciones originales son trapezoidales isósceles pero mediante el dorso quedan con forma de trapecio rectángulo.

El dorso se realiza mediante retoque abrupto directo y en la zona distal o proximal se utiliza el retoque cruzado. Una de las piezas clasificadas como Vachons presenta un adelgazamiento basal (Fig. 38.1) parecido al que presentan algunos elementos documentados en Isturitz (Simonet, 2009b), la otra punta de Vachons y la microvachons presentan adelgazamiento en el ápice mediante retoque inverso desde el filo opuesto al dorso.

Un par de ejemplares muestran posibles huellas de impacto, una Gravette atípica tiene desconchados oblicuos de uso en el filo junto al ápice y en la fractura, y una Microgravette muestra una fractura compleja en el ápice.

Piezas de borde abatido (Fig. 36.10-12): En el nivel VI se han recuperado un total de 81 piezas de borde abatido, total o parcial. Están fabricadas fundamentalmente en sílex de procedencia local. Los soportes usados son soportes laminares de tamaños pequeños y medios (20x13x2 mm de media), y

(16x18x3,5 mm batez beste). Ordezkarri gutxi utzi ditu, aldiz, beste euskarri batzuen erabilerak (ezpalak, azaleko euskarriak).

Finak dira bizkar gehienak (mm batekoak) eta ertzeko ukiera erdi-malkartsuen bidez itxuratu ziren; bederatzik kasuetan baizik ez da ukiera malkartsua eta lodia. Malkartsu irau du, oro har, bizkarraren beste aldeko sorbatzak; halaz ere, bizkar bikoitzeko piezak dira haietako bi.

Mozturadun ijekiak (36. irudia. 13-18): 82 moztura zenbatu ditugu VI. mailan; orri ukituen gainean bideratu zituzten haietako zazpi eta hiru baizik ez dira bikoitzak. Ukiera malkartsu lodien edo erdi-malkartsuaren bitartez bideratu ziren mozturak eta, sorbatzen perfilen arabera, lerrozuzenak eta zeharrek dira nagusi, ahurrak eta ganbilak askoz ere gutxiago izaki. Hiru alditan gutxienez landu ziren sorbatz haiek aurreko hausturen gainean, mozturak partzialak baitira: irauin egin dute haien arrasto batzuek. Gainera, moztura gaineko zulakaitz arinen aurreformatzat har litezke beste ale gutxi batzuk (K=7).

Mozturadun piezetan nagusi da bertako Flysch-eko suharriaren erabilera (Bidaxunekoa eta Gaintxurizketakoa), eta kanpoko suharri motak oso kopuru txikian baizik ez ziren erabili. Euskarriak askotarikoak dira tipologiari dagokionez, azaleko euskarriak bezala bideratu ziren egokitzapenak (gandorrek, lamina gaindituak, garbiketa-printzak eta tabletak) eta neurri ertaineko printzak (19x16x4,4 mm batez beste), baina ijeki estuak dira (34x15x4 mm batez beste), batez ere, mozturak bideratzeko erabili ziren euskarri nagusiak.

Ijeki ukituak (36. irudia. 1-9): Maila honetako hirugarren tresna multzo ugariena da; 117 pieza dira guztira, haietako hirurogeita hiruk ukiera soila ageri dute ertz batean, hogeita bostek bi ertzetan, hogeita bi ukiturik eta puntadun bilakaturik ageri dira, eta zazpik ukiera ezkatatsua edo aurignaciarra ageri dute ertz batean edo bietan.

Ijeki-euskarriak dira batez ere erabilitako euskarriak, baina formatu luzeko egokitzapenak ere baliatu zituzten horretarako. Euskarrien formatuak estandarizatu xamar azaldu dira, ijeki zabalak baina ez horren lodiak (66x20x6 mm batez beste), eta azaleko eremu gutxi ageri dituztenak. Hemezortzi euskarrik baizik ez dituzte azal arrastoak ageri. Bidaxune eta Urbasako suharrian landuak dira nagusiki, eta Gaintxurizketako suharria ere baliatu zuten horretarako, baina kopuru txikiagoan. Azaldu ere egin dira, halaber, Chalosse, Tercis eta Trebiñuko suharriak, baina portzentaia apaletan.

Sorbatz ukituek perfil lerrozuzenak edo hein batean ganbilak ageri dituzte, eta ukiera soilaren bitartez itxuratu ziren batez ere. Ale batzuetan ukiera ertzetan baizik ez da ageri, bi aletan angelu apaleko ukiera suma daiteke (lau xamarrek dira), eta ukiera ezkatatsua ageri dute zazpik, eta aurignaciari ijekitzat hartu izan dira beraz.

Tresneria mota honen erabilerari dagokionez, erabilerak eraginik, azala altxaturiko eremuak ageri dituzte sorbatzetan ale batzuek, hala ukituen artean nola aurkako sorbatz gordinetan. Dokumentatu ere egin dira talkak eraginikoen antzeko hausturak (mihi itxurako hausturak, gontza motako hausturak eta zulakaitz itxurakoak), zazpi piezetan hain zuzen ere: ijeki ukitu puntadunak dira haietako bost, eta sorbatz batean eta bi sorbatzetan ukituriko ijekiak beste biak.

Kontuan hartu beharra dago, gainera, tresna horietako ez gutxi zulakaitzen aurreformatzat har genitzakeela: haietan alboetako gandorrek edo gandor gidatzailak landu baziren ere, ez zizkieten zulakaitz-ebakinak bideratu. Oro har, denboran hainbat lekutan bideratu eta luzatu zen lan modu eta kudeaketa batekin lotu beharra dago tresneria hau.

también lascas (16x18x3,5 mm de media), mientras que el uso de otros soportes como astillas o soportes corticales es muy poco representativo.

La mayor parte de los dorsos son finos (1 mm) y están conformados mediante retoque semi-abrupto marginal, solamente en nueve casos el retoque es abrupto y espeso. En general el filo opuesto al dorso permanece bruto, salvo en un par de casos en que se trata de piezas con dorso doble.

Piezas truncadas (Fig. 36.13-18) En el nivel VI se han contabilizado 82 truncaduras, de las cuales 7 están realizadas sobre hoja retocada y solamente 3 son dobles. Las truncaduras se han realizado mediante retoque abrupto espeso o semiabrupto, y según la delineación de los filos predominan las rectas y oblicuas, siendo las cóncavas y convexas mucho más escasas. Estos filos, en al menos tres casos se han fabricado sobre fracturas previas de las que quedan restos, ya que las truncaduras son parciales. Además hay unos cuantos ejemplares (N=7) que se pueden considerar como preformas de buriles ligeros sobre truncadura.

Predomina el uso de sílex local del Flysch (de Bidache y Gaintxurizketa) en las piezas truncadas, mientras que las variedades de sílex exógeno se emplean de una forma bastante marginal. Los soportes son variados, se usan tanto soportes corticales, como acondicionamientos (crestas, láminas sobrepasadas, lascas de limpieza y tabletas) y lascas de tamaños medios (19x16x4,4 mm de media), pero son las láminas estrechas (34x15x4 mm de media) el soporte preferente para su conversión en truncaduras.

Láminas retocadas (Fig. 36.1-9): Es el tercer grupo de útiles más importante de este nivel, cuenta con 117 ejemplares, de los cuales 63 tienen retoque simple sobre un borde, 25 sobre los dos bordes, 22 están retocadas y apuntadas y 7 presentan retoque escamoso o aurignaciense en uno o los dos bordes.

Los soportes utilizados son fundamentalmente soportes laminares, aunque también se usan algunos acondicionamientos con formatos alargados. Los formatos de los soportes son bastante estandarizados, láminas anchas y no demasiado espesas de unos (66x20x6 mm de media) y poco corticales, solo 18 tienen restos de córtex. Están fabricadas en sílex de Bidache y Urbasa principalmente, y se usa sílex de Gaintxurizketa en menor medida. Los sílex de Chalosse, Tercis y Trebiño están presentes pero en porcentajes bajos.

Los filos retocados tienen perfiles rectilíneos o ligeramente convexos y se han conformado fundamentalmente mediante retoque simple, hay algunos ejemplares en los que el retoque es marginal, dos ejemplares muestran un retoque con ángulo bajo (plano), y siete tienen retoque escamoso por lo que se han considerado láminas aurignacienses.

Acerca del uso de este tipo de utillaje, unos cuantos ejemplares muestran desconchados de uso en los filos tanto en los retocados como en los filos brutos opuestos. También se han documentado fracturas similares a las de impacto (fracturas en lengüeta y en charnela y burinantes) en 7 ejemplares, se trata de 5 láminas retocadas y apuntadas, una lámina retocada en un filo y otra en los dos filos.

Hay que tener en cuenta además, que parte de este utillaje puede considerarse preformas de buriles, en las que se han elaborado las crestas laterales o crestas guía pero todavía no se han aplicado los golpes de buril. En general este utillaje parece estar vinculado con una gestión que se prolonga en el tiempo y en distintos lugares.



36. irudia. VI. mailako ijeki ukituak, bizkardun piezak eta mozturak. 1-9 Ertz batean edo bietan ukituriko ijekiak; 10-12 Bizkarra zanpaturik ageri duten piezak; 13-17 Mozturak.

Figura 36. Láminas retocadas, piezas de dorso y truncaduras del nivel VI. 1-9 Láminas retocadas en uno o los dos bordes; 10-12 Piezas de dorso abatido; 13-17 Truncaduras.

Pieza ezpalduak (37. Irudia. 1-5): 77 pieza ezpaldu berreskuratutako VI mailan. Euskarri gisa, printza soilak eta azaleko printzak bideratu zituzten batez ere (printzen herenak azala kenduak edo larrutuak dira), baina garbiketa-printzak (K=8), ijeki zabalak (K=7) eta formarik gabeko zatiak (K=5) ere baliatu zituzten. Euskarri handi eta lodiko piezak dira oro har (30,4x21x8,8 mm batez beste), eta jatorrian are eta neurri handiagoak izango ziren, baina txikiagotu egin zituzten, erabileraren poderioz.

Flysch-eko suharrarian, Gaintxurizketakoan kasu honetan, landu zen pieza guztien herena ia-ia. Ez-purutasun eta bakuola ugari ageri dituzte. Proporzio txikiagoan baliatu ziren beste motak, baina aipagarri da haien artean Urbasako suharrarian presentzia (K=13) eta, neurri txikiagoan, Trebiñukoarena (K=8). Harri-kristala erabili zuten kasu batean. Trebiñuko suharrarian itxuraturiko piezen presentzia hein batean garrantzitsu hau (beste kategorietan oso urri baizik ez da ageri), inportaturiko euskarrien berrerailearekin lotu beharko genuke, aztertutegian gai horretan berean landu ziren marrusken kasuan ikusi genuen bezala (kontrakolpeka birbizitu zituzten haiek).

Pieza ezpalduak erabileraren bidez iristen dute berezko morfologia, hala lehengai gogorrek, hezurrekin edo zurarekin adibidez, bideratzen den bitarteko pieza gisa, nola ezpalak lortzeko matrize gisa erabilia. Frogatzen zaila den arren, uste izan dugu maila honetan halako asmoa erabili zutela euskarriak kontrakolpeen bidezko jotze teknikaren bitartez ekoizteko, ezpalak erabili baitzituzten tresna ukitu batzuk lantzeko euskarri gisa (Noailles zulakaitzak, kamerrak, ezpal ukitu bat eta marruska bat). Horrexegatik hartu ditugu aintzat, nukleoen atalean, matrizetat ere har zitezkeen pieza ezpaldu lodi xamar batzuk.

Bitarteko piezatzen hartu dira gainerako pieza ezpalduak, ziriaren moduko egitekoekin lotzen dituzten ezaugarri makroskopiko batzuk direla medio (sorbatz pitzatuak sorrarazi zuten aurpegi biko ukiera ezpaldua tresnaren kolpekatze-eremuarekin lotu beharko litzateke, eta hausturaz horniturik eta azala altxaturik ageri diren sorbatz irregularrekin lotuko genuke, aldiz, eremu aktiboa edo eragilea). Maila honetako piezak maiz ageri dira hautsirik edo zartaturik, erabileraren eraginez, eta dokumentatu ere egin dugu euskarri batzuen erabilera bizia edo intentsiboa; izan ere, eremu aktiboak kamusten zirenean, biratu egiten zituzten euskarriak, alboetako sorbatzetan eremu aktibo berriak irekitzeko.

Substratu-piezak (37. irudia. 6-12): Kamerduen piezak dira substratu-pieza gehienak (K=63) eta oso bakan azaldu dira, bestalde, pieza horzdunak edo dentikulatuak eta karrakagailuak. Euskarri erreparatzen badiegu, pieza horien erdiak printzen gainean eta gainerako guztiak egokitapenerako produktuen eta beste euskarri mota batzuen gainean taxutu zituztela ohar-tuko gara. Neurri ertaineko euskarriak dira (26,8x21,6x4,8 mm batez beste). Ijeki-euskarrien erabilerak kamerren multzoan baizik ez du halako garrantzia (K=16), eta oso gutxi baliatu dira horrelakoak pieza horzdunen eta karrakagailuen fabrikazioan.

Nagusi ageri da bertako Flysch-eko suharrarian erabilera. Kanpoko suharriak presente dauden arren, bakan ageri dira inolaz ere. Aipagarria da Urbasako mendietako suharri mota bideratu izana.

Substratu-piezek sorbatz bakarra dute eskuarki, karrakagailu bikoitz bat ageri den kasu batean izan ezik. Ukiera arin xamarra da. Karrakagailuen kasuan, ordea, ezkatatsua da beti ukiera. Kamerrak ertzetan eginak dira sarri askotan, euskarri berean hainbat direnean kontrako sorbatzetan daude, eta isolatuak direnean alboetako sorbatzetan identifikatzen dira eus-

Piezas astilladas (Fig. 37.1-5): Se han recuperado 77 piezas astilladas en el nivel VI. Como soportes se han empleado mayoritariamente lascas simples y lascas corticales (1/3 de las lascas son de decorticado), pero también se han usado lascas de limpieza (N=8), láminas anchas (N=7) y fragmentos informes (N=5). En general se trata de soportes grandes y espesos (30,4x21x8,8 mm de media) que en origen debieron ser de un tamaño mayor pero que se han visto reducidos debido a su uso.

Casi un tercio de las piezas astilladas están fabricadas en sílex del Flysch, en este caso de Gaintxurizketa, que además se presenta con abundantes impurezas y vacuolas. El resto de variedades se emplean en menor proporción, pero entre ellas hay que destacar la presencia del sílex de Urbasa (N=13) y del de Treviño (N=8), y también el empleo en una ocasión del cristal de roca. Quizá esta presencia relativamente importante de piezas realizadas en sílex de Treviño (muy escaso en el resto de categorías) pueda relacionarse con la reutilización de soportes importados que ya hemos visto en algunos raspadores de esta materia que se han introducido en el yacimiento, y se han reavivado por contragolpe.


Los astillados son un útil que adquiere su morfología típica a través de su uso bien como pieza intermedia usada con materias primas duras como el hueso o la madera, o bien como matriz para obtener astillas. Aunque es difícil de probar, en este nivel hemos considerado que puede haber una intención de producir soportes mediante percusión por contragolpe (De La Peña, 2009) ya que se han empleado astillas como soportes para realizar algunos útiles retocados (buriles de Noailles, muescas, una astilla retocada y un raspador) por ello hemos contabilizado en el apartado de núcleos algunas piezas astilladas bastante espesas que podrían considerarse como matrices.

El resto de astillados se han considerado piezas intermedias, por ciertas características macroscópicas (el retoque astillado bifacial que da lugar a filos fisurados se correspondería con la zona de percusión del útil y los filos irregulares con fracturas y desconchados pequeños se asociarían con la zona activa) que los vinculan con trabajos de tipo cuña (De La Peña Alonso, 2011b; Hays y Lucas, 2007). Las piezas de este nivel frecuentemente aparecen fracturadas por el uso, además también se ha documentado un aprovechamiento intensivo de algunos soportes ya que cuando las zonas activas se embotan, el soporte se gira abriendo nuevas zonas activas en los filos laterales.

Piezas de sustrato (Fig. 37.6-12): La mayor parte de las piezas de sustrato son piezas de muesca (N=63) y los denticulados y las raederas son muy escasos. Si nos fijamos en los soportes se observa que la mitad de estas piezas están realizadas sobre lasca y el resto sobre productos de acondicionamiento y otro tipo de soportes. Son soportes de un tamaño medio (26,8x21,6x4,8 mm de media). El uso de soportes laminares solo alcanza cierta relevancia (N=16) en el grupo de las muescas, mientras que apenas se utilizan para fabricar denticulados o raederas.

Predomina el uso de sílex local del Flysch y entre los sílex exógenos, presentes pero escasos, destaca el uso de la variedad procedente de la sierra de Urbasa.

Las piezas de sustrato muestran por lo general un filo, salvo en un caso en que aparece una raedera doble. El retoque es poco espeso, salvo en el caso de las raederas en que se trata de retoque escamoso. Las muescas frecuentemente son marginales, cuando hay varias en el mismo soporte aparecen ubicadas en los filos opuestos y cuando son aisladas, aparecen



37. irudia.VI. mailako substratuko pieza ezpalduak eta tresneria. 1-6 Pieza ezpalduak; 6-7 Pieza horzdunak; 9-10 Karrakagailuak; 11-12 Kamerrak.

Figura 37. Piezas astilladas y utilaje de sustrato del nivel VI. 1-6 Piezas astilladas; 7-8 Denticulados; 9-10 Raederas; 11-12 Muestras.

karri txikietan. Horregatik, hain zuzen ere, kamerren multzoan sailkatutako tresna askok eta askok amaitu gabeko Noailles zulakaitzen itxura dute, edo Noailles zulakaitzen aurrekariaren itxura. Horregatik beragatik, VI. mailan Noailles zulakaitz asko agertu izanarekin lotu beharko genuke, inolaz ere, kamerrek substratu-tresnen multzoaren barruan duten garrantzia.

Racletteak: Multzo honetako aletzat har litezkeen bi pieza berreskuratu ditugu maila honetan, baina erresalbu guztiakin diogu hori, pieza horiek zatitunik agertu direlako. Urbasako suharriaren landuriko printza baten zatia da bata eta Gaintxurizketako suharriaren landuriko ijeki baten zatia bestea. Azken honek ukiera malkartsu lodi xamarra eta irregularra ageri du sorbatzen luzera osoan. Anekdotak baizik ez da VI. mailan bi elementu hauen presentzia.

Ijekitxo ukituak (38. irudia. 8-23): VI. mailako bigarren multzoa da, piezen kopuruari dagokionez.

180 ijekitxo ukitu berreskuratu ditugu guztira, eta mozturadun orritxoaren multzora bildu ditugu haietako gehienak. Ondoren datoz kamerdun eta bizkardun orritxoak, eta presente dauden arren anekdota baizik ez dira, bestalde, bizkardun orritxo mozturadunak, orritxo horzdun edo dentikulatuak eta Dufour orritxoak.

Askotarikoa da ijekitxo hauek landu ziren lehengaiak. Berreziki aipagarria da bertako Flysch-eko suharrien presentzia, Bidaxuneko batez ere, erabilitako suharri guztien herena baita molde horretakoa, eta Urbasakoa. Mugatu xamar ageri zaigu, kopuruaren aldetik, beste suharri moten erabilera.

Ijekitxoak bideratu zituzten euskarri gisa, eta haien tamaina ijekitxoek VI. mailako multzo osoan batez beste ageri dutenaren heinekoa dela esan dezakegu (17,9x7,8x2,6 mm batez beste). Aukeraturiko euskarriak ijekitxo zabalak baino estuxeagoak dira, baina ukiera bideratzerakoan moztuko zituzten seguruenik. Halaxe esan genezake, behinik behin, bizkardun ijekitxoek edo Dufour motakoez.

Erdigandorrak, ijekitxo gaintuak eta islatuak, eta zulakaitz-ebakinak ere erabili zituzten, baina oso kopuru txikian berarek ere. Zaila da euskarri hauek lantzeko ijekitxoaren ekoizpen sistema zein zen zehaztea baina, seguruenik, prisma formako ijekitxo-nukleoetatik aterako zituzten batez ere, eta neurri txikiagoan bideratuko zituzten, halaber, printza gaineko edo zulakaitz motako nukleoak, euskarri estuenak lantzeko hain zuzen ere.

Bizkardun ijekitxoak eta bizkardun ijekitxo mozturadunak ez dira ugari azaldu eta euskarri erregularragoen eta estuagoen gainean bideratzen zituzten. Sei kasutan azaldu dira bizkar bikoitzaz hornituak, eta bizkar bakarrek dira gainerako guztiak. Bizkarrak finak dira oro har, eta halako puntadun itxura ageri dute ale batzuek (K=3). Mikrogravette zatitzat har litezke beste hiru pieza (bizkar lodiak ageri dituzte molde horretako piezek) eta urrunaldeko mihi itxurako haustura ageri du haietako batek.

Talka-arrastoak ageri dituzte bizkardun ijekitxo batzuek: jaurtigai-armadura gisa erabiliko zituzten beharbada (38. irudia: 8, 9, 11, 12 eta 13).

Ukiera malkartsu oso finaren bitartez bideraturiko moztura zuzenak, zeharrik eta ahurrak ageri dituzte mozturadun ijekitxoek. Bizkardun ijekitxoak baino ijekitxo zabalagoak dira euskarriak eta haietakoren bat printza gaineko nukleoetatik datorrela zehazteko moduan gaude. Kamerdun ijekitxoek mozturadunek baino euskarri zabalxeagoak baliatu dituzte eta kamer bat edo batzuk ageri dituzte, oso ukitu finen bitartez eginak. Mozturadun ijekitxoaren eta kamerdun ijekitxoaren multzoak dira, hain zuzen ere, ijekitxo ukituen talde osoaren barruko ugariak. Noailles zulakaitzen eta aukeraturiko euskarri eta formatuen ekoizpenak

en los filos laterales de soportes de pequeño tamaño. Esto hace que gran parte del utillaje englobado en el grupo de las muescas tenga el aspecto de buriles de Noailles inacabados o preformas de Noailles. Por ello hemos considerado que la importancia de las muescas dentro de los útiles de sustrato puede estar vinculada con la abundancia de buriles de Noailles en el nivel VI.

Raclettes: En este nivel se han localizado dos piezas susceptibles de ser consideradas dentro de este grupo, aunque con reservas puesto que se hallan fracturadas. Se trata de un fragmento de lasca de sílex de Urbasa y un fragmento laminar de sílex de Gaintxurizketa, que presentan retoque abrupto un poco espeso e irregular a lo largo de sus filos. La presencia de estos elementos en el nivel VI es anecdótica.

Laminillas retocadas (Fig. 38.8-23): Es el segundo grupo en importancia numérica en el conjunto del nivel VI.

Se han recuperado un total de 180 laminillas retocadas, de las cuales la gran mayoría se incluyen dentro del grupo de hojitas truncadas. Las siguen en importancia las hojitas de muesca y las de dorso, mientras que las hojitas de dorso truncadas, las hojitas denticuladas y las hojitas Dufour están presentes pero tienen valores testimoniales.

La materia prima de estas laminillas es variable destacando la presencia de sílex del Flysch locales, especialmente de Bidache que alcanza casi un tercio de los sílex empleados, y de Urbasa. La utilización de otras variedades de sílex es bastante limitada.


Los soportes empleados son laminillas de un tamaño en la media de las laminillas del conjunto del nivel VI (17,9x7,8x2,6 mm de media). Los soportes elegidos son un poco más estrechos que las laminillas anchas, pero probablemente se vieron reducidos por el retoque, al menos en los casos de las laminillas de dorso o Dufour.

También se emplean de una forma muy reducida semi-crestas, laminillas sobrepasadas y reflejadas, así como golpes de buril. Es difícil decir qué sistema de producción de laminillas genera estos soportes, pero probablemente proceden principalmente de núcleos prismáticos de laminillas y en menor medida, los soportes más estrechos, procedan de núcleos sobre filo de lasca o tipo buril.

Las laminillas de dorso y laminillas de dorso truncadas no son muy abundantes, se realizan sobre soportes más regulares y estrechos. En seis casos el dorso es doble, mientras que en el resto es simple. Los dorsos son por lo general finos y algunos ejemplares están ligeramente apuntados (N=3). Otros tres ejemplares podrían considerarse fragmentos de microgravettes, éstos presentan dorsos gruesos y uno de ellos muestra una fractura en lengüeta distal.

Alguna de estas laminillas de dorso presenta huellas de impacto y podrían haber sido utilizadas como barbas de proyectil (Fig. 38: 8, 9, 11, 12 y 13).

Las laminillas truncadas presentan truncaduras rectas, oblicuas y cóncavas realizadas mediante retoque abrupto muy fino. Los soportes son laminillas un poco más anchas que las laminillas de dorso y alguna de ellas se puede identificar como procedentes de núcleos sobre lasca. Las laminillas con muesca aprovechan soportes un poco más anchos que las truncadas y presentan una o varias muescas hechas mediante retoque muy fino. Tanto las laminillas truncadas como las laminillas de muesca son los grupos más abundantes dentro de las laminillas retocadas. Su importancia numérica en un nivel que destaca por



38. irudia. VI. mailako bizkardun puntak eta bizkardun ijekitxoak. 1-3 Vachons eta Mikrova-chons punten zatiak; 4-5 Ez-ohiko Gravette punten zatiak; 6 Mikrogravette zatiak; 8-18 Bizkardun ijekitxoak; 19-22 Bizkardun ijekitxo mozturadunak; 23 Kamerdun ijekitxoak.

Figura 38. Puntas de dorso y laminillas de dorso del nivel VI. 1-3 Fragmentos de puntas de Vachons y Microva-chons; 4-5 Fragmentos de puntas de la Gravette atípicas; 6 Fragmento de Mikrogravette; 8-18 Laminillas de dorso; 19-22 Laminillas de dorso truncadas; 23 Laminilla de muesca.

hainbesteko munta duen maila honetan, molde horretako ijekitxoak Noailles zulakaitzen aurreformak izango zirela pentsarazten digu horren kopuru garrantzitsuan azaldu izanak.

Dufour ijekitxoak aipatu beharrak dira, azkenik. Oso gutxi agertu dira, lau ale gutxira eta osorik bakarra baino ez. Sorbatz baten ertzean ageri duten ukitu alderantzikatu erdi-malkartsua da haien ezaugarri nagusia. Haien erabileraren aztarnei dagokienez, ez da ale hauetan horrelakorik dokumentatu.

Beste batzuk: 96 tresna ukitu sailkatu ditu gutxira 'bestelakoen' artean. Haien artetik, bereziki aipagarriak dira identifikatzen zailak diren tresna zati batzuk, ertzean ukituak ageri dituzten ijekiak eta printzak, bizkar edo moztura txikiz hornituriko printzak, Noailles zulakaitzen zatiak eta aurreformak izan litezkeenak, eta harkosko landu bat. Suharran eginak dira guztiak, hareharran landuriko harkoskoa eta kuartzoan itxuraturiko printza ukitua izan ezik. Tresna zatiak eta hala moduan, aukeratu beharreko euskarriei halako arreta jarri gabe, landuko ziren beste tresna zati batzuk bildu dira batez ere tresneria kategoria honetara.

Harrizko tresneriaren taxuketa eta mantentzea

Birbizitze-printzak: Maila honetako birbizitze-printzak (K=112) tresneria lodiaren birbizitze lanetarako tresnen mantentzearekin lotu beharrak dira: marruskak, moztura lodiak, karrakagailuak edota aurignaciak ijekiak. Printza horiek oso neurri txikikoak dira (6,4x9,4x2,3 mm batez beste) eta modulu lauangeluarrak edo trapezoidalak eta perfil kurbatuak ageri dituzte, neurri handi xamarreko ale gutxi batzuk berreskuratu baditugu ere. Horiexek dira, hain zuzen ere, gerokoan tresna bihurtuko ziren euskarri gisa erabiliko zirenak (mozturadun printza bat eta bizkar lodiko pieza bat).

Lehengaie dagokienez, bereziki aipatu beharra dago erabilgaitako suharrien erdiak ia-ia identifikatu gabe gelditu direla, eta gainerako piezen arteko beste erdiak kanpoko suharrian landu zituztela, Urbasako motan batez ere. Zera adierazten digu honek guztiak, maizago birbizitzen zirela kanpoko materialetan landuriko tresnak, aztarnategira guztiz landurik eramaten zirenak, hantxe erabiltzen baitziren.

Zulakaitz-ebakinak: Atal honetan sailkatu ditugu ebakidura oso markatuak (lauangeluarrak, angeluzuzenak edo trapezoidal angeluzuzenak) ageri dituzten euskarriak, ijekitxotzat ezin hartu direnean. Kopuruaren aldetik, kategoria garrantzitsua da hau multzo honetan (K=883), eta bat dator datu hori VI. mailaren izaerarekin, kontuan hartzen badugu zeinen ugari azaldu diren hartan zulakaitzak.

Euskarri horien guztien artetik, 75 Noailles zulakaitzetatik atereak dira eta, ohi bezala, euskarriaren ertza eta kamer zati bat eraman dituzte eurekin. Birbizitze zantzuak ere ageri dituzte, alde zurreko aurpegiak eramanez.

Ugari dira lehen belaunaldiko zulakaitz-ebakinak (% 55), eta gandarren negatiboak erakusten dituzte askotan beren bizkaraldeetan. Horrenbestez berretsi ahal izan dugu zulakaitzetan ikusia genuena, zulakaitz-ebakinaren eraztea elementu hauetatik abiatu bideratzen zela. Ondoz ondo jotako ukaldien bidez birbizitzen ziren gainera; bigarren mailako ukaldi horietan (% 45) islatu ziren aurreko aurpegi negatiboak eta, batzuetan, irekitze erdigandarren arrastoak ere.

Produktu hauen neurriak txikiak dira (15,7x4x2,8 mm batez beste), ijekitxo estuen multzoko piezena baino txikiagoa da neurri horien batez bestekoa. Kontserbatu diren orpo gehienak lauak edo puntu-formakoak dira, eta hein txikiagoan

la producción de buriles de Noailles y los soportes y formatos elegidos nos lleva a interpretarlas como preformas de buriles de Noailles.

Por último hay que mencionar las laminillas Dufour, que son muy escasas, apenas cuatro ejemplares, y solamente uno está completo. Se caracterizan por el retoque inverso semia-brupto marginal en un filo. Respecto a las huellas de uso, no se han documentado en estos elementos.

Diversos: Hay un total de 96 útiles retocados clasificado como diversos. Entre ellos destacan los fragmentos de útiles difíciles de identificar; láminas y lascas con retoques marginales, lascas con pequeños dorsos o truncaduras, posibles fragmentos y preformas de Noailles y un canto tallado. Todos ellos están fabricados en sílex salvo el canto tallado de arenisca y una lasca retocada de cuarzo. Esta categoría de utillaje recoge sobre todo fragmentos de útiles y otros que se han fabricado de forma expeditiva y sin una excesiva atención a los soportes elegidos.

Conformación y mantenimiento del utillaje lítico

Lascas de reavivado: Las lascas de reavivado (N=112) de este nivel están vinculadas con el reavivado de utillaje espeso como raspadores, truncaduras espesas, raederas o láminas aurifiacientes. Estas lascas son de muy pequeño tamaño (6,4x9,4x2,3 mm de media) y presentan módulos cuadrangulares o trapezoidales y perfiles curvos, aunque también aparecen algunos escasos ejemplares de tamaño bastante grande, que son los que luego se han usado como soportes para ser convertidos en útiles (una lasca truncada y una pieza de dorso espeso).

Acerca de las materias primas, es destacable que casi el 50% de los sílex usados son difíciles de clasificar, y entre los restantes más de la mitad de los efectivos son de sílex exógeno, especialmente de Urbasa. Aunque esta abundancia de sílex difíciles de clasificar distorsiona la imagen general, esta parece indicar que se reavivan con más frecuencia útiles fabricados en estos materiales exógenos que se traen fabricados al yacimiento, donde se usan y reavivan.


Golpes de buril: Hemos clasificado en este apartado aquellos soportes que muestran secciones muy marcadas (cuadrangulares, rectangulares o trapezoidales rectángulo) y no son susceptibles de clasificarse como laminillas. Esta categoría es numéricamente importante en este conjunto (N=883), lo que es coherente con la abundancia de buriles que ha proporcionado el nivel VI.

Del total de estos soportes, 75 han sido extraídos de buriles de Noailles y suelen arrastrar la arista del soporte y parte de la muesca. También aparece alguno de reavivado, arrastrando paños previos.

Los golpes de buril de primera generación son abundantes (55%), y en muchos casos muestran en sus caras dorsales negativos de crestas, con lo cual se confirma lo observado en los buriles, que la extracción del golpe de buril se hace a partir de estos elementos. Además se reavivan mediante golpes sucesivos, en estos golpes secundarios (45%) se reflejan los negativos de los paños previos y en ocasiones restos de esas semicrestas de apertura.

Las dimensiones de estos productos son reducidas (15,7x4x2,8 mm de media), la media es un poco menor que la del grupo de laminillas estrechas. La mayor parte de los talones que se conservan son lisos o puntiformes, y en menor medida

Kop. / N	447
Shapiro-Wilk W	0,9135
p(normal)	2,65E-15
Jarque-Bera JB	176,6
p(normal)	4,50E-39
p(Monte Carlo)	0,0001
Chi ²	39,971
p(normal)	2,58E-10
Chi ² OK (N>20)	YES
Anderson-Darling A	11,18
p(normal)	6,52E-27



Zabalera / Anchura	Prob	Mean	Stdev
Noailles-ebakinak / Golpes de Noailles	0,083408	1,4951	0,52713
Ebakin estuak / Golpes estrechos	0,68364	3,5166	1,125
Ebakin zabalak / Golpes anchos	0,23295	6,1907	2,1844

39. irudia.VI. mailako zulakaitz-ebakinen banaketa, haien zabalaren arabera; kolore motelekoan, gris argian, ageri da banaketa, eta kurba gorrien bitartez adierazi dira *Mixture Analysis* delakoaren bidez identifikaturiko hiru multzoak.

Figura 39. Distribución por anchuras de los golpes de buril del nivel VI en la que se observa la distribución suavizada (en gris claro) y los tres grupos que han sido identificados por el *Mixture Analysis* (curvas en rojo).

agertzen dira diedro eta fazetaturiko pieza batzuk. Hamabost zulakaitz-ebakin ukitu azaldu dira; tresnak lantzeko erabili zituzten, Noailles zulakaitzak dira haietako gehienak, eta bizkardun ijekitxoa, kamerdun ijekitxoa eta ertzean ukiera ageri duen ijekitxoa dira gainerakoak.

Arestian ikusi dugun bezala, zulakaitz mota batzuetatik abiatuak landuko zituzten maila honetan ijekitxo batzuk. Zulakaitz-ebakinen moduluei erreparatzen badiegu, hiru multzotan banatzen direla ikusi ahal izango dugu. Noailles zulakaitzen kolpeei legokioke aurreneko multzoa, 2 mm-tik behe-rako zabalera aurkeztu dizkigunak, eta zulakaitz-ebakin estuek osatuko zuten bigarrena, 3 eta 5 mm bitarteko zabalerekin. Zulakaitz-ebakin zabalagoak ageri dira hirugarren multzoan, 6 mm-tik gora zabal baitira guztiak. Azken multzo honetako piezak ditugu, hain zuzen ere, maila honetako ijekitxoaren ekoizpe-zen batekin hobekien lotzen direnak, kontuan hartzen badugu, euskarritzat duten printzaren azpialdean aurpegi fosil bana eskaintzen digutelarik, estuxeagoak direla. Nolanahi ere, hipotesi hori berretsi ahal izateko, komeni litzateke euskarri horien azterketa funtzionala bideratzea, erabili eta modu batean edo bestean landu izan ote ziren ikusteko.

Ezpalak: Ugari ageri da hondakin mota hau VI. maila osoan zehar (K=329). Molde askotakoak dira, morfologiari dagokionez, euskarri hauek, eta handi xamarrek eta finak (17x11x3,6 mm batez beste) eta Flysch-eko eta Urbasako suharrietan landuak dira.

aparecen algunos diedros y facetados. Quince golpes de buril se han retocado para fabricar utillaje, casi todos se han transformado en buriles de Noailles y el resto se han convertido en una laminilla de dorso, una laminilla de muesca y una laminilla con retoque marginal.

Como hemos visto anteriormente, es posible que en este nivel se dé una talla de laminillas a partir de ciertos tipos de buriles. Si nos fijamos en los módulos de los golpes de buril apreciamos la existencia de 3 grupos: el primero de ellos puede corresponderse con los golpes procedentes de los buriles de Noailles, con anchuras menores de 2 mm, el segundo grupo de golpes de buril estrechos con anchuras entre 3 y 5 mm y por último un grupo de golpes de buril más anchos, mayores de 6 mm de anchura. Este último grupo sería el que mejor encaja con alguna de las producciones de laminillas de este nivel, hay que tener en cuenta que son algo más estrechos ya que portan un paño fósil con la cara ventral de la lasca soporte. De todos modos, para confirmar esta hipótesis convendría hacer un análisis funcional de estos soportes para ver si han sido utilizados y comprobar que son un objetivo de la talla.

Astillas: Son un tipo de resto bastante abundante en el conjunto del nivel VI (N=329). Son soportes de morfología variada, relativamente grandes y finos (17x11x3,6 mm de media) y están realizadas en sílex del Flysch y de Urbasa.

Maila honetan kontrakolpe bideraturiko nukleoak dokumentatu badira ere, gutxi dira eta ijekitxo-nukleo enaierako faseekin lotu beharrekoak. Tresna ezpalduak ere identifikatu dira: ugari xamar agertu dira eta bitarteko pieza gisa erabiliko zituzten. Halatan, azterketa funtzional xehe baten faltan gaudela, kontrakolpe teknikaren ondorioz sorturiko hondakinak genituzke maila honetako ezpalak, ziri gisa erabiliko baitzituzten pieza ezpalduak.

Hala eta guztiz ere, ezin alboratu genezake ezpalak nahita ekoiztiko zituzten aukera, kontrakolpe bidezko perkusioaz hain zuzen ere, beste pieza batzuk lantzeko ukitu egin baitzituzten batzuk. Jatorri horretakoak dira Noailles zulakaitz eta kamer batzuk, ezpal ukitu bat eta marruska bat, azken hauen portzentzia oso txikia bada ere.

3.7. LABURPENA

Palimpsestoaren fenomeno delat eta, zaila da VI. mailan gertatu ziren giza okupazioaren kopurua, iraupena eta helburua zehaztea. Harrizko industriari dagokionez, badirudi maila horretan hainbat jarduera desberdin bideratu zirela.

Hona hemen VI. mailako multzoaren ezaugarri tekno-tipologikoak:

- Maila handiko koherentzia teknologikoa eta homogeneotasuna ageri ditu VI. mailako multzoak. Palimpsestoaren fenomenoaren eraginagatik ere, halako sinkronia islatzen dute maila horretan berreskuraturiko materialek; mihizatzeen presentziak ematen digu izaera horren lekukotasuna eta, horretaz gainera, material horien ezaugarri tekno-tipologikoek zuzenean garrantzitate aldi krono-kultural jakin batera, Gravette aldiko kulturara hain zuzen ere.
- Lehengaie dagokionez, suharriaren erabilera ia bakarra dokumentatu da (% 99). Flysch-eko suharrien erabilera nahiko intentsiboaz mintza gintezke: bertakotzat jo ditugu suharri mota horiek. Dokumentatu ere egin da urrunago dauden lekuetako suharrien halako emana edo zirkulazioa; ikusi dugu, adibidez, ugari xamar erabili zela Urbasako mendietako suharria, baina ez da horren garrantzitsua are eta aldenduago agertzen diren beste toki batzuetako lehengaien erabilera (Trebiñu, Chalosse eta Tercis).
- Mota askotako lanketa sistemekin egin dugu topo, ijeki-euskarriak ekoizteko batez ere, baina printzen ekoizpen independenteak ere azaldu zaizkigu aldi berean. Dokumentatu diren lanketa sistemen artean, bereziki aipagarria da ijeki-euskarrien ekoizpena (ijekiak bezala ijekitxoak) prisma formako nukleo polobakarretatik abiatutik, baina elkarren aurkako plataformak bideratu zituzten zenbaitean, printzaketa-aurpegiaren ganbiltasunak zuzentzeko bitarteko gisa. Plataformak eta gandorrek sortzea zen ustiatze modu honen hasiera, eta erraza zen, era berean, haren mantentzea, tableta, erdigandor eta printzaketa-aurpegiaren zuzentzeko elementu desberdinen bitartez (gaintituak, gainekatzailak, hegalak). Ijekien ekoizpen horien barruan, bereziki nabarmendu behar litzateke tamaina handiko ijeki-euskarrien ekoizpena, Bidaxuneko suharrian landuriko lauzatxoetatik abiatutik; hegal eta hondo azalduen eus-tzen zieten ustiatze-aldi osoan zehar, eta erlaitzak urratuz prestatzen zituztela ageri dute. Zulakaitzak, marruskak eta ijeki ukituak lantzeko erabili ziren euskarri haiek.

En este nivel se han documentado núcleos por contragolpe, aunque son bastante escasos y se corresponden con fases finales de núcleos laminares, así como útiles astillados, que son bastante abundantes, usados como piezas intermedias. De este modo y a falta de un análisis funcional pormenorizado las astillas de este nivel se considerarían como los restos saltados a causa del contragolpe al usar astillados como cuñas.

Aún así, no podemos descartar la intencionalidad de la producción de astillas mediante percusión por contragolpe ya que algunas se han retocado para hacer buriles de Noailles, muescas, una astilla retocada y un raspador; aunque la proporción de estos es muy pequeña.

3.7. SÍNTESIS

Resulta difícil establecer el número, duración y objeto de las ocupaciones humanas que tuvieron lugar en el nivel VI, ya que se trata de un palimpsesto. En relación a la industria lítica parece que en este nivel se ha dado una cierta variedad de actividades.

Las características tecno-tipológicas del conjunto del nivel VI son las siguientes:

- El conjunto del nivel VI muestra una coherencia tecnológica y una homogeneidad marcadas. Los materiales de este nivel reflejan una cierta sincronía (a pesar del fenómeno de los palimpsestos) como queda atestiguado por la presencia de remontados y porque sus características tecno-tipológicas se corresponden con las típicas de un periodo crono-cultural concreto, el Gravetiense.
- En cuanto a materias primas, se documenta un uso casi exclusivo del sílex (99%). Hay un uso bastante intenso de los sílex del Flysch, que hemos considerado locales. También se ha documentado una circulación de sílex procedentes de lugares alejados, vemos por ejemplo, un uso importante de sílex importado de la sierra de Urbasa, pero es menos relevante la presencia de materias primas procedentes de afloramientos más alejados (Trebiño, Chalosse y Tercis).
- Abundante variabilidad de sistemas de talla utilizados para producir principalmente soportes laminares, aunque también se han reconocido producciones independientes de lascas. Entre los sistemas de talla documentados destaca la producción de soportes laminares (tanto láminas como laminillas) a partir de núcleos prismáticos unipolares, aunque a veces se recurre a plataformas opuestas como medio de corregir las convexidades de las caras de lascado. Este tipo de explotaciones se inicia mediante una creación de plataformas y crestas, y el mantenimiento del mismo también es sencillo, a través de tabletas, semicrestas, y diferentes elementos de corrección de la cara de lascado (sobrepasadas, desbordantes, flancos). Dentro de estas producciones laminares debemos destacar la producción de soportes laminares de buen tamaño a partir de plaquetas de sílex de Bidache, que suelen conservar los flancos y fondo corticales a lo largo de toda la explotación y que muestran una preparación de las cornisas mediante abrasión. Estos soportes se han utilizado para fabricar buriles, raspadores y láminas retocadas.

Lekukotasun gisa baizik ez bada ere, ijekiak eta ijekitxoak ekoizteko erabiltzen ziren beste nukleo mota batzuk dokumentatu ditugu orobat. Piramide itxurako nukleoak, prisma formako nukleo konberjenteak eta hainbat ustiatze motatarako pieza konplexuak ditugu horiek. Ijeki-euskarri txikiaren lanketari dagokionez, arestian aipatu ditugun sistema horietaz gainera, printza-sorbatzen eta zulakaitz lodien lanketan oinarrituriko sistema berezi bat dokumentatu dugu, ijekitxoaren ekoizpenari begira.

Printzei dagokionez, ijekien lanketa-prozesuen baitan egon ziren haietako gehienak, baina halako loturarik gabeko ekoizpen independenteak ere sumatu ditugu neurri txiki-koen arloan (20x20 mm-tik beherakoak). Printza gaineko nukleoaren euskarri gisa (ijekitxo eta printzen euskarriak) bideratu ziren printza lodi handiak ijeki-nukleoaren egokitzapenerako lanetan bazterturiko produktuak izango ziren behar bada, edo aztarnategian sarraraziko zituzten beste-rik gabe kanpotik. Oro har, prestaera eskasa eta gogoan ongi hartu gabeko printzaketa-estrategiak salatzen dituzte printza-nukleoek (ordenarik gabeko nukleo polobakarrak eta polo-anizkunak). Salbuespena da honetan disko formako sistemekin lotu diren lau aleen kasua.

Ikusi dugun bezala, modulu desberdineko ijeki-euskarrien fabrikazioa izan zen Aitzbitarte III- haitzuloko VI. mailako lanketaren helburu garrantzitsua. Lau modulu bereizi ditugu, zabalaren arabera: ijekitxo estuak eta zabalak, eta ijeki estuak eta zabalak. Mailan berreskuratu diren ijeki eta ijekitxo-nukleoetan identifikatu diren negatiboekin bat datoz aurreneko hiru multzoak. Baina modulu handiena ez da nukleoetan identifikatu, bai ordea egokitzapen batzuetan, hala produktu horiek lanketaren hasierako fase-tan itxuratu zirelako, nola aztarnategian landu ondoren sarrarazi zizutzelako. Horrelako zerbaite gertatu da, era berean, printza gaineko nukleoaren euskarri gisa bideratu ziren printza lodi erabilien kasuan.

Ijeki-euskarriak, maila honetako lanketaren helburua nagusiak hain zuzen ere, morfologia eta neurri desberdineko zulakaitzak (Noailles zulakaitzak barne), ijeki ukituak eta ijekitxo ukituak eta bizkardun ijekitxoak egiteko erabili ziren nagusiki, alde batera utzirik gordinean eman zitzaizkien erabilera. Printzak gordinean erabili ziren, bai eta tresneria lantzeko ere, pieza ezpaldu edo substratu-tresna gisa besteak beste. Bestalde, egokitzapenerako produktu batzuk ere berrerabili eta ukitu izan ziren, hainbat moldetako tresnak lantzeko.

- d. Tresna ukituen artean askotariko piezak aurki daitezkeen arren, VI. mailaren bereizgarri handia da zulakaitzek, Noailles zulakaitzek zehazkiago, hartan erakusten duten nagusitasuna (tresna ukituen % 59). Hiru multzo bereizten dira zulakaitzen artean: zulakaitz diedroak (ijeki-euskarri zabalagoen gainean landuak; inportatuak dira haietako batzuk), anizkunak eta nukleo formakoak (euskarri lodien gainean itxuratuak eta bitariko erabilera ageri dutenak, zulakaitz eta ijekitxo-nukleo gisa aldi berean), eta mozturadun zulakaitzak (zulakaitz arinagoak, oro har). Ukieren xede nagusia izan ziren Noailles zulakaitzak maila honetan, eta askotariko euskarriak bideratu zituzten haien fabrikazioari begira, ijekitxoak nagusi ageri diren arren. Euskarri eta neurrietan sumatzen den aniztasun horrengatik ere, moztura gaineko Noailles zulakaitz tipikoak dira guztiz gehienak, gelditze-kamerrak agerian, eta aurpegiak laburrak eta oso estuak. Etengabe erabili izan ziren tresna haiek, askotan azaldu baitira zatiturik, eta erabilera-estigma makroskopikoak ageri dituzte gainera ez gutxitan.

También se documentan, aunque de forma testimonial, otro tipo de núcleos destinados a la producción de láminas y laminillas, son núcleos piramidales, prismáticos convergentes y complejos de múltiples explotaciones. Por lo que se refiere a la talla de los soportes laminares más pequeños, aparte de estos sistemas mencionados anteriormente, se ha documentado una producción de laminillas a partir de filo de lasca y de buriles espesos.

En cuanto a las lascas, una parte de ellas son subsidiarias de los procesos de talla laminar, pero también se han reconocido producciones independientes de lascas de pequeño tamaño (menores de 20x20 mm). Las lascas espesas y grandes que sirven como soporte a los núcleos sobre lasca (de laminillas y de lascas), pueden ser productos desechados del acondicionamiento de núcleos laminares o quizá fueron introducidos en el yacimiento. En general, los núcleos de lascas muestran escasa preparación y estrategias de lascado más o menos inmediatas (núcleos unipolares y multipolares desordenados), salvo en el caso de cuatro ejemplares que se corresponden con sistemas de tipo discoide.

Como hemos visto, en el nivel VI de Aitzbitarte III el objetivo más importante de la talla ha sido la fabricación de soportes laminares de diferentes módulos. Según su anchura, se han distinguido cuatro módulos: laminillas estrechas y anchas, láminas estrechas y anchas. Los tres primeros grupos se corresponden con los negativos identificados en los núcleos laminares y de laminillas recuperados en el nivel. Pero el módulo mayor no se ha identificado en los núcleos, aunque sí en ciertos acondicionamientos, bien porque estos productos vengan de fases iniciales de la talla o bien porque se hayan introducido fabricados en el yacimiento. Algo parecido ocurre con las lascas espesas usadas como soporte de los núcleos sobre lasca.

Los soportes laminares, que eran los principales objetivos de la talla en este nivel, se han utilizado fundamentalmente para la realización de buriles de diferente morfología y tamaño (incluidos los buriles de Noailles), láminas retocadas y laminillas retocadas y de dorso, aparte de su posible uso en bruto. Las lascas se han utilizado en bruto y para fabricar utillaje como piezas astilladas o útiles de sustrato entre otros, y algún producto de acondicionamiento también fue reaprovechado y retocado para elaborar distintos útiles.

Zulakaitz-ebakinak: Aipatzeko moduko luzera ageri dute osorik azaldu diren zulakaitz-ebakinak, baina oso euskarri es-tuak dira oro har (20,4x3,9x2,5 mm batez beste). Mota asko-tako ebakidurak ageri dituzte euskarri horiek, baina oso mar-katuak guztiak; lauangeluarrak eta laukizuzenak dira batez ere, baina badira, halaber, trapezio angeluzuzenak eta hiruki ange-luzuzenak edo angeluzorrotzak. Euskarri hauen orpoen erdiak ere ez dira kontserbatu, baina leunak eta puntu formakoak dira nagusi. Bestalde, ale bakar batek baizik ez ditu aurpegiak ageri.

Flysch-eko, hau da, Bidaxune eta Gaintxurizketako suharri motak dira nagusi lehengaien artean, eta Urbasako suharrian landuriko pieza bat dokumentatu dugu.

Oso gutxi dira lehen belaunaldiko zulakaitz-ebakinak (% 23) eta, zulakaitz-ebakinen erauzte gidatzeko, alde zurretik bideraturiko gandorren negatiboak ageri dituzte gehienek. Ugari dira bigarren belaunaldiko ebakinak (% 77), alde zurreko aurpegi negatiboak ageri dituzte eta irekierarako erdigandorren aztarnak ageri dituzte bi kasuetan.

Zulakaitz-ebakinen talde honetako piezen zabalera txikia-goia da IV. mailako multzoan identifikatu diren ijeki taldeetako piezuna baino. Bestalde, euskarri horietako bakarrik ere ez zen ukitu eta, beraz, maila honetan ez dago zulakaitzetatik abiatu-rik landuko ziren ijekixoen ekoizpenen zantzurik ere ageri. Ez dugu, gainera, Noailles zulakaitzetatik abiatu-rik sortuko zuketan zulakaitz-ebakinak dokumentatu, Noailles pieza horiek horren ugari ageri izanagatik ere. Beraz, zulakaitz lodien erabilera eta birbizitze jardueren ondorio genituzke berreskuratu ditugun zulakaitz-ebakinak.

Ezpalak: Ugari xamar ageri da hondakin mota hau IV. mailan aztertutako laginean (K=14). Askotariko morfologia ageri dute euskarri hauek, neurri ertainekoak dira (18,3x14,6x5,7 mm batez beste) eta Gaintxurizketa eta Bidaxuneko suharri-ean, eta bertako suharri urgoniarrean, landuak dira.

Euskarri hauen ekoizpena hala nahirik bideratu zen ala ez jakin nahian egin genezakeen galderari ezetz erantzun behar-ko genieke seguruenik, maila honetan ez baita kontrakolpe sorturiko nukleorik dokumentatu, ez eta ezpalik ukitu. Pieza ezpalduak bai, pieza ezpalduak berreskuratu ditugu eta ez gutxi; beraz, azterketa funtzional baten faltan gaudela, tresna ezpalduak bitarteko pieza gisa erabiltzearen poderioz sortuko ziren euskarri haiek.

6.7. LABURPEN TEKNOLOGIKOA

Arazoak planteatu dizkigu inolaz ere IV. mailak, arrazoi bat-zuk direla medio ezin izan baitugu haren osotasuna ziurtatu: badirudi hartan materialak irauli zirela eta halako material na-hasteak gertatu zirela, dokumentatu den zoladuraren (elkarren gainean pausaturiko harri zabalak) jatorri antropikoarengatik eta mailaren beraren potentzia eskasagatik. V. eta IV. mailen ar-teko kontaktu-eremuan orri hostokara baten zatia agertu iza-nak ere berresten digu hipotesi hori, pieza hori berez IV. mailari dagokiola uste dugun aldetik. Mailaren izaera nahasia iradoki-tzen diguten beste faktore batzuk dira materialen kontserbazio egoera txarra, mihizatzerik eza eta materialen banaketa des-berdina induskaturiko eremuetan barrena.

te abundantes. De este modo se han identificado 15 astillas y 13 golpes de buril, esto resulta coherente con lo que hemos visto en este nivel dónde los buriles son el grupo tipológico mayoritario y las piezas astilladas son otro de los grupos más relevantes.

Golpes de buril: Los golpes de buril enteros muestran una longitud notable, pero son por lo general soportes muy estre-chos (20,4x3,9x2,5 mm de media). Estos soportes muestran secciones variadas pero muy marcadas, principalmente cua-drangulares y rectangulares, aunque también aparece alguna con forma de trapecio rectángulo y triángulo rectángulo o acutángulo. Se conservan menos de la mitad de los talones de estos soportes, pero predominan los lisos y puntiformes, mientras que solamente un ejemplar está facetado.

Las materias primas predominantes son el sílex del Flysch de Bidache y Gaintxurizketa, y se ha documentado un ejem-plar de sílex de Urbasa.

Los golpes de buril de primera generación son muy es-casos (23%), y la mayoría muestran negativos de crestas reali-zadas previamente para guiar la extracción del golpe de buril. Los golpes secundarios son abundantes (77%), muestran nega-tivos de los paños previos y en un par de ocasiones muestran restos de esas semicrestas de apertura.

Las anchuras de este grupo de los golpes de buril son menores que la de los grupos laminares identificados en el conjunto del Nivel IV. Por otra parte ninguno de estos sopor-tes se ha retocado, así que no hay indicios de una producción de laminillas a partir de buriles en este nivel. Además tampoco hemos reconocido ningún golpe de buril identificable como producido a partir de buriles de Noailles, a pesar de la abun-dancia de estos útiles. Con lo cual, los golpes de buril recupera-dos serían el resultado de las labores de uso y reavivado de los buriles espesos.

Astillas: Son un tipo de resto bastante abundante en la muestra analizada del nivel IV (N=14). Son soportes de mor-fología variada, de tamaño medio (18,3x14,6x5,7 mm de me-dia) y están realizadas en sílex de Gaintxurizketa, Urganiano y de Bidache.

Con respecto a la intencionalidad de la producción de estos soportes no parece probable puesto que en éste nivel no se han documentado núcleos por contragolpe ni se ha re-tocado ninguna astilla. Lo que sí se ha recuperado y en buena cantidad son piezas astilladas, con lo cual, y a falta de un análisis funcional, estos soportes se han producido a causa del uso de útiles astillados como piezas intermedias.

6.7. SÍNTESIS TECNOLÓGICA

El nivel IV es un nivel problemático del que no podemos asegurar su integridad por diversas razones: parece que ha su-frido una remoción de los materiales y se han podido dar mezclas de materiales a causa de posible origen antrópico del pavimento de lajas yuxtapuestas documentado y por la escasa potencia del propio nivel. La presencia del un fragmento de foliácea en la zona de contacto entre el nivel V y IV, que consideramos que puede pertenecer a este último nivel también apoya esto. Otros factores que sugieren un estado alterado del nivel son el mal estado de conservación de los materiales, la ausencia de remontados y la distribución desigual de los mismos por las distintas zonas excavadas.

Honengatik guztiarengatik ere, maila hau ahalik eta hobekien ezaugarritzen saiatuko gara:

- a. Mailaren egoera nahasia.
- b. Suharrria erabili zuten nagusiki lehengai gisa (materialen % 97), baina beheko mailetakoa baino apalxeagoa da indize hori, beste gai batzuk puntualki erabili zituztelako, industria makrolitikoarekin loturiko jardueretan batez ere. Suharriaren arloan, nabarmen apaldu dira kanpoko hornikuntza-iturriak, begien bistakoa baita kontraste hori beheko mailen aldean, kontuan harturik haietan pisu bereziki garrantzitsua zuela Urbasako suharriak. Areagotu egin da, beraz, bertako Flysch-eko suharrien eta haizuloan berean eskura zuten suharri urgoniarraren erabilera.
- c. Eragin txikiagoa dute lanketa jarduerak eta oso aniztasun maila apala ageri dute, bestalde, ekoizpen sistemek. Printzen ekoizpen sistemez gainera, ijekitxo zabalak ekoizpena ere hauteman dugu: bertan bideratzen zen eta, itxura guztien arabera, unean uneko premia larrienei aurre egiteko baliatzen zituzten. Beste ijeki ekoizpen mota batzuk dokumentatu ditugu, halaber: ijeki zabalak eta estuak lantzen zituzten, baina ez dugu bertan landu zirela ziurtatuko ligukeen lekukotasunik topatu. Beste aztarnategi batzuetatik ekarriko zituzten edo landu eta gero sarraraziko zituzten aztarnategian.

Printzen kasuan, ijekien ekoizpen metodoekin lotu beharrik dira euskarrietako batzuk, eta polo anizkuneko nukleoetatik abiatuak sortuko ziren besteak (neurri txiki-kiko euskarriak): prestaera eskasekoak eta irakurtzen zailak dira. Azaldunak dira printza horietako asko eta pieza ezpaldurak, zulagailuak, mozturak, substratu-tresnak eta bestelako tresnak sortu zituzten haietatik.

Nukleo sasipiramidaletatik (edo prisma itxurako nukleo konbergenteetatik) eta printzeetatik (hegalak markatuak eta garapena erdi-garatzaila) edota zulakaitz lodiko nukleoetatik abiatuak landu zituzten ijekitxo zabalak. Ijekitxoen ekoizpen hori ez da oso ugaria, eta haietako gutxi batzuk baizik ez ziren ukitu Noailles zulakaitz, bizkardun elementu eta mozturadun eta kamerdun ijekitxo bihurtzeko. Antza denez, gordinik erabiliko zituzten, beraz, elementu hauek.

Neurri handiagoko ijeki-euskarriak (ijekitxo zabalak eta estuak) inportatu ziren, bestalde. Tresna ukitu bilakatuko zituzten maiz, zulakaitzak, mozturak, ijeki ukituak eta maruskak sortuz batez ere. Maila honetan ez dira ekoizpen hauei zegozkiekeen nukleoak azaldu, eta kopuru txikian berreskuratu diren egokitzapenak ere ukiturik azaldu dira. Alabaina, horrek ez du esan nahi leku urrunetatik ekarri zituztenik, bertako suharrian, Bidaxunekoan bereziki, fabrikatu baitziren.

Aztarnategian bideratu ziren ustiatze jarduerak bizi xamarrik izan ziren eta nukleo ahituak utzi zituzten; haiena ez da zaindu itxura eta ez da, era berean, baliaturiko lehengaien kalitatearen aurrean halako kezka sumatzen (suharri urgoniarra eta Gaintxurizketako suharria, bakuolak eta ez-purutasunak maiz ageri dituztenak).

- d. Euskarri guztien aldean, ukitu ziren euskarrien portzentajea altuena da, inondik ere, Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeto sekuentzia guztian. Handiagoa da, gainera, maila honetan azaldu diren talde tipologikoen arteko oreka, beheko mailetakoa baino. Halarik ere, zulakaitzen taldea ageri zaigu nagusi, eta garrantzitsua da betiere haien artean Noailles zulakaitzen multzoak duen presentzia (% 151

A pesar de esto vamos a intentar caracterizar éste nivel lo mejor posible:

- a. Estado alterado del nivel.
- b. Predominio del uso del sílex como materia prima (97% de los materiales) aunque desciende un poco con respecto a los niveles inferiores, derivado del uso puntual de otras materias, fundamentalmente en relación con la industria macrolítica. En el sílex hemos observado un descenso notable de las fuentes de aprovisionamiento exógenas, que contrasta con los niveles inferiores donde tenía un peso especialmente importante el sílex de Urbasa, a la vez que se intensifica el uso del sílex del flysch local y del sílex Urganiano procedente de la propia cueva.
- c. Menor incidencia de las actividades de talla y escasa variedad en los sistemas de producción. Además de sistemas de producción de lascas hemos detectado una producción de laminillas anchas que se realiza *in situ* y que parecen orientadas a hacer frente a las necesidades más inmediatas. Se han documentado además otras producciones laminares, de láminas anchas y estrechas, pero no hay evidencias que se hayan hecho *in situ*, puede que procedan de otras zonas del yacimiento o se hayan introducido en él ya elaboradas.

En el caso de las lascas, una parte de los soportes es subsidiario de los métodos de producción laminares, y otra parte (soportes de pequeño tamaño) se genera a partir de núcleos multipolares, con escasa preparación y de difícil lectura. Muchas de estas lascas son corticales y se transforman en astillados, perforadores, truncaduras, útiles de sustrato y utillaje diverso.

La producción de laminillas anchas se realiza a partir de núcleos pseudopiramidales (o prismáticos convergentes) y sobre lasca (con flancos marcados y desarrollo semienvolvente) o de tipo buril espeso. Ésta producción de laminillas es abundante, pero sólo unas pocas se retocan para hacer buriles de Noailles, elementos de dorso y laminillas truncadas o de muesca con lo cual el resto pudieron ser usadas en bruto.

Por otro lado, hay una importación de soportes laminares de mayor tamaño (láminas anchas y estrechas) que frecuentemente están transformados en útiles retocados, fundamentalmente buriles, truncaduras, láminas retocadas y raspadores. En este nivel no se han hallado núcleos correspondientes con estas producciones y los escasos acondicionamientos hallados también están retocados. Pero esto no quiere decir que se traigan de lugares lejanos, ya que la mayoría están fabricadas en sílex locales, de Bidache fundamentalmente.

Las explotaciones realizadas en el yacimiento son bastante intensas y dejan núcleos agotados, que presentan un aspecto poco cuidado, y no se aprecia demasiada preocupación por la calidad de las materias primas empleadas (sílex Urganiano y de Gaintxurizketa presenta frecuentes vacuolas e impurezas).

- d. El porcentaje de soportes retocados con respecto al total de los soportes es el más alto de toda la secuencia del interior de Aitzbitarte III. Además se da un mayor equilibrio entre los grupos tipológicos representados en este nivel, en comparación con los niveles inferiores. Aún así el grupo de los buriles sigue siendo el más representado, y todavía se mantiene una presencia importante del grupo

23). Mozturak ere pisu garrantzitsua dute maila honetan. Pieza ezpalduek, substratu-tresnak eta bestelako tresnak ere talde ugariak dira eta euskarrien baliakuntza oportunistak, berehalako erabilerari begirakoa, salatzen digute (printzak eta, askotan, azaleko printzak aukeratuz). Ijekitxo ukituak eta makrotresneria, bertan fabrikatzen zirenak, eta marruskak, aztarnategira kanpotik inportaturiko ijekien gainean landuak, kopuru esanguratsuan azaldu dira era berean. Gainerako mailen aldean, izugarri apaldu da er-tzean bizkar malkartsua ageri duten piezak, eta urri azaldu dira, halaber, zulagailuak eta tresna konposatuak (beheko mailetan ere sumatzen da joera hori). Guztiz aipagarria da, bestalde, maila honetan puntarik azaldu ez izana; mota honetako elementu bakarra dugu V. mailarekiko kontaktu-eremuan topatu genuen erramu-puntaren zatia, jatorriz kanpokoa dena.

Badirudi euskarri zabalagoak eta lodiagoak erabili zituztela IV. mailan beheko mailetan (V eta VI) baino; ukierak bideratu zituzten haietan. Haitzuloko beste gune batzuetatik edo beste aztarnategi batzuetatik eramango zituzten euskarri haietako batzuk.

- e. Aztarnategi hau eskualdeko beste batzuekin harremanetan jartzen duten portaera konplexu batzuk ikus daitezke IV. mailako multzoan, irauli eta nahasi bazen ere. Euskarrien ekoizpen eta kontsumo jarduerak bideratu ziren, alde batetik, oinarriko premiei berehala aurre egin ahal izateko, eta espazio hartan bideratuko ziren jarduera batzuen alde aurreko planifikazioa ere sumatzen da, bestetik, mota desberdineko eginbeharretan erabiliko ziren euskarri eta tresna jakin batzuk sarrarazi zirelako. Elementu horien artekotzat jo liteke, beharbada, maila honen eta V. mailaren arteko kontaktu-eremuan azaldu zen pieza hostokararen zatia. Maila honetan, zehatz-mehatz ezin dokumentatu izan dugu esportaziorako euskarrien ekoizpena.
- f. IV. mailako harrizko multzoak antzekotasunak ageri ditu, ikuspegi tipologiko eta teknologikotik, Aitzbitarte III haitzuloaren sarrerako multzoarekin.

de los Noailles (23%). Las truncaduras también tienen un peso importante en este nivel. Las astilladas, útiles de sustrato y diversos, son grupos abundantes y denotan un aprovechamiento oportunista de los soportes (eligiendo lascas a menudo corticales) para un uso inmediato. Las laminillas retocadas y el macrouillaje, fabricados *in situ*, y los raspadores, elaborados sobre láminas introducidas en el yacimiento, mantienen una presencia discreta. Desciende mucho con respecto a los demás niveles la presencia de piezas de dorso abrupto marginal, y también son escasos los perforadores y útiles compuestos (esta tendencia continúa de los niveles inferiores). Hemos de mencionar la ausencia en este nivel de puntas, el único elemento de este tipo es el fragmento de punta de laurel encontrado en el contacto con el nivel V y de procedencia exógena.

En el nivel IV parece que se seleccionan soportes más anchos y espesos para su retoque que en los niveles inferiores (V y VI), una parte de los cuales parecen ser importados desde otras zonas de la cueva o desde otros yacimientos.

- e. En el conjunto del nivel IV, a pesar de su posible alteración, se observan unos comportamientos complejos que comunican este yacimiento con otros de la zona. Por un lado se dan unas actividades de producción y consumo de soportes orientadas a hacer frente a unas necesidades inmediatas y por otro se aprecia la planificación previa de ciertas actividades que se van a dar en este espacio, puesto que se introducen ciertos soportes y utillajes para ser empleados en diferentes tareas. Quizá se puede incluir entre estos elementos un fragmento de foliácea que se encuentra en el contacto entre este nivel y el V. En este nivel no hemos podido documentar claramente la producción de soportes orientados a su exportación.
- f. El conjunto lítico del Nivel IV muestra ciertas semejanzas desde el punto de vista tipológico y tecnológico, con el conjunto del nivel III de la entrada de Aitzbitarte III.

7. II-III. MAILA

7.1. SARRERA

II-III. mailak 3., 4. eta 5. azalak hartzen ditu eta 39-40 m²-ko eremuan induskatu zen. Potentzia eskaseko maila da, 6 cm-ko lodiera baizik ez batez beste. Kolore iluneko lur harro lohitsu eta pikortsutzat hartu zen mailako matrizea. Mailan sakonago jo heinean azaltzen hasten dira harkoskoak eta blokeak, mailaren oinarrian ageri direnak.

7.2. MULTZOAREN OSOTASUNA

II-III. mailan aztertutako multzoak bere osotasuna zalan-tzan jarrarazten diguten zantzu batzuk ageri ditu inondik ere, eta materialak noizbait nahasiko ziren susmoa gorpuztu da horrenbestez gudan. Oso maila fina da, alde batetik, eta eremu batzuetan ez du I. mailak estaltzen, baizik eta maila honen gainazala zuzenean lotzen da azaleko geruza mehearekin eta,

7. NIVEL II-III

7.1. INTRODUCCIÓN

El Nivel II-III comprende los lechos 3-5 y fue excavado en una extensión de 39-40 m². Se trata de un nivel de escasa potencia, 6 cm de espesor medio. La matriz del nivel se definió como tierra suelta limosa, granulosa y de color oscuro, a medida que se profundiza en el nivel van apareciendo cantos y bloques que se asientan en la base del nivel.

7.2. INTEGRIDAD DEL CONJUNTO

El conjunto analizado del nivel II-III muestra algunos rasgos que hacen que pongamos en duda la integridad del conjunto y nos hacen sospechar que haya podido haber cierta mezcla de materiales. Por un lado se trata de un nivel muy fino que en algunas zonas no aparece cubierto por el nivel I, sino que la superficie de este nivel está en contacto directamente con la fina capa

beraz, eremuko gainazalean gertatuko ziren elementu natural eta antropiko guztien mendean egon da maila hau.

Gainera, maila honetako materialen % 34,6 aldarazirik azaldu dira eta arkeologia aztarnen espazio-banaketa mudatu egingo zuketzen prozesu tafonomikoen hatzak eta arrastoak ageri dira han eta hemen. Patinak eta deshidratazioa, uraren ekinarekin loturiko prozesu kimikoen eragin bizia adierazten duten fenomenoak biak, dira II-III. maila honetan maizenik ageri diren arrasto nagusiak. Baina, materialen proportzio garrantzitsu batean alterazio mekanikoak eraginiko prozesuen berri ematen diguten zantzu batzuen presentzia da, hain zuzen ere, maila hau zati batean aldarazia izan zela salatzen digun seinalea: halatan, aldarazitako euskarrien % 10ek molde bateko edo besteko alterazioak ageri dituzte aldi berean, eta eremu altxatu eta haustura berriak % 9k.

Material leunduak, erreak eta konkrezionatuak ere dokumentatu dira, oso ehuneko apaletan bada ere (% 2tik behera betiere). Prozesu arras bestelakoak jasan dituzte maila bereko piezek aldi berean, eta desberdinak izango ziren, beharbada, pieza haien jatorria eta bilakaera. Mailaren izaera nahasiaren berri damaigu han berean zerri arruntaren bi aztama azaldu izanak.

Material batzuek ageri duten itxura oso nahasia den arren, mailaren nolabaiteko osotasuna adierazte digute beste faktore batzuek, hala nola materialen koherentzia teknologikoak eta tipologikoak, eta II-III. multzoan mihizatze fisikoen segida batzuk berreskuratu izanak.

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala (22. taula), mihizatze-segida laburrak dira, eta izatez bestelakoak gainera (zera da honetan interesgarriena, lanketa-segidaren bat, lanketa-hausturak eta haustura zaharrak azaldu direla, eta halako egonkortasunaren berri ematen digute zantzu horiek). Behealdeko azaletan, 5. azalean hain zuzen ere, agertu dira halako osotasuna adierazten diguten mihizatze horiek; 4b azalean agertu da, aldiz, haustura berria, jatorri tafonomikoa dena. Ez dugu azalen artean edota mailen artean mihizatze bakarrik ere topatu, baina ezin bazter genezake aukera hori, ez baititugu mihizatzeak modu sistematikoa bilatu.

Induskaturiko eremuan aztarnak azaldu diren banaketa horizontalari erreparatzen badiogu, laster asko ohartuko gara banaketa hori homogenea ez dela. Aztarna pila handiagoak sumatzen dira 58P-Q eta 59O-Q laukietan (alde huraxe bereizi genuen, hain zuzen ere, azterketarako lagin gisa), 58-59 K-L laukien inguruetan eta 63ko bandan. Material dentsitate txikiagoak eskaini dituzte, aldiz, 57, 61 eta 62 bandek eta 58-59-60 M-N laukiek (74. irudia). Bestalde, oso aldakorra da azalen araberako banaketa. Banaketa homogeoagoa ageri dute, oro har, behealdeko azalek (4 eta 5), eta materialak laukien eremuaren eskuinaldeko gainaldean pilatu dira bereziki haietan. 3. azalean, aldiz, barreiatuago eta dentsitate apalagoetan ageri dira aztarnak.

Laburbilduz esan dezagun, azkenik, maila honek alterazio batzuk jasango zituzketela, eta azaldu diren material batzuk goragoko edo beheagoko mailetako intrusioak diratekeela.

superficial, lo que lo deja expuesto a los elementos naturales y antrópicos que hayan podido darse en la superficie.

Además el 34,6% de los materiales de este nivel están alterados y presentan una serie de huellas vinculadas con diferentes procesos tafonómicos que han podido modificar la distribución espacial de los restos arqueológicos. Las huellas más frecuentes en el nivel II-III son las pátinas y la deshidratación que indican una fuerte incidencia de procesos químicos vinculados con la acción del agua. Lo que nos indica que este nivel puede estar parcialmente alterado es la presencia de ciertos rasgos que indican procesos de alteración mecánicos en una parte relativamente importante de los materiales, así un 10% de los soportes alterados presentan diversas alteraciones a la vez y un 9% muestran desconchados y fracturas recientes.

También se ha documentado, aunque en porcentajes muy bajos (menos del 2%) materiales rodados, quemados y concrecionados. Esta diversidad de procesos que han sufrido las piezas de un mismo nivel puede indicar diferentes procedencias y vicisitudes sufridas por las mismas. La presencia de dos restos de cerdo doméstico en este nivel confirma su carácter alterado.

A pesar del aspecto alterado de ciertos materiales, hay otros factores que apoyan cierta integridad del nivel, como son su coherencia tecnológica y tipológica y el hecho de que se han recuperado varias secuencias de remontados físicos en el conjunto del nivel II-III.

En el la tabla anterior (tabla 22) vemos que se trata de secuencias de remontado cortas y que son de distinta naturaleza (lo interesante es que aparece alguna secuencia de talla, fracturas de talla y fracturas antiguas que pueden indicar cierta estabilidad). Estos remontados que indican cierta integridad proceden de los lechos inferiores, concretamente del lecho 5, mientras que la fractura reciente, de origen tafonómico procede del lecho 4b. No hemos localizado ningún remontado entre distintos lechos ni entre distintos niveles, pero no se pueden descartar puesto que la búsqueda de los remontajes no ha sido sistemática.

Si nos fijamos en la distribución horizontal de los restos por el área excavada vemos que no es homogénea. Se observa una mayor concentración de restos en torno a los cuadros 58P-Q y en los 59O-Q (que coinciden con la zona elegida para la muestra de nuestro estudio), en torno a los cuadros 58-59 K-L y en la banda de los 63. Las zonas con bajas densidades son la banda de los 57, 61 y 62, y en los cuadros 58-59-60 M-N (Fig. 74). La distribución por lechos varía mucho. En general los lechos inferiores (4 y 5) muestran una distribución más homogénea y los materiales se concentran en la zona superior derecha de la cuadrícula, mientras que el lecho 3 muestra una mayor dispersión de los restos y unas densidades más bajas.

En conclusión, se trata de un nivel que parece haber sufrido algunas alteraciones y parece probable que algunos materiales sean intrusivos de niveles superiores o inferiores.

Kop. N°	Siglak Siglas	Mihizatze mota Tipo de remontaje	Piezaren deskribapena Descripción de la pieza	Maila Nivel
1	AITIII.58Q.120.22	Itzuli gabe Secuencia de talla	Itzuli gabe Denticulado sobre lasca cortical	III, 5. azala / Lecho 5
	AITIII.58Q.118.21		Itzuli gabe Raedera sobre lasca cortical	III, 5. azala / Lecho 5
	AITIII.58Q.120.14		Itzuli gabe Denticulado sobre lasca	III, 5. azala / Lecho 5
	AITIII.58Q.116.aa		Itzuli gabe Fragmento de canto	III, 5. azala / Lecho 5
2		Haustura zaharra Fractura antigua		
	AITIII.58Q.116.ab		Itzuli gabe Fragmento de canto	III, 5. azala / Lecho 5
3	AITIII.59P.126.a	Itzuli gabe Fractura de talla	Itzuli gabe Fragmento proximal de lasca cortical	III, 5. azala / Lecho 5
	AITIII.59P.126.a		Itzuli gabe Fragmento distal de lasca cortical	III, 5. azala / Lecho 5
	AITIII.59O.126.10		Itzuli gabe Fragmento proximal de raspador	II, 4. azala / Lecho 4b
4		Itzuli gabe Fractura reciente, tafonomica		
	AITIII.59O.126.11		Itzuli gabe Fragmento distal de raspador	II, 4. azala / Lecho 4b

22. taula. VI. mailako mihizatze-segidak.


Mailak ageri dituen arazo tafonomikoak aintzat hartu ondoren, jakin dezagun 830 aztarna aztertu ditugula guztira II-III. mailako laginean, eta ukiera bitartez taxutuak ziren haietako 81. Margazko harkosko erabili bat eta haizuloko suharrizko 5 nodulu, aldatu eta erabili gabeak guztiak, erregistratu ditugu haien artean. Formarik gabeko 237 zati eta 368 ezkail eta 10 mm-tik beherako zati zenbatu ditugu, bestalde. II-III. maila garrantzitsu xamarra da harrizko aztarnen kopuruari dagokionez, garrantzitsuena Aitzbitarte III haizularen barrunbeko sekuentziaren gaindeari erreparatuz gero.

Tabla 22. Secuencias de remontados del nivel II-III.

Una vez analizados los problemas tafonomicos que presenta el nivel, el total de restos analizados en la muestra del nivel II-III es de 830, de los cuales 81 han sido conformados mediante retoque. Entre ellos se ha registrado un canto usado de marga y 5 nódulos de sílex de cueva no modificados ni usados. Por otro lado, se ha contabilizado un total de 237 fragmentos informes y 368 esquirlas y fragmentos menores de 10 mm. El nivel II-III es un nivel relativamente importante en términos de efectivos líticos, y el más importante si nos fijamos en la parte superior de la secuencia del interior de Aitzbitarte III.

74. irudia. II-III. mailako harrizko aztarna koordinatuen banaketa.

Figura 74. Distribución de los restos líticos coordinados del nivel II-III.



7.3. LEHENGAIAK

Aitzbitarte III haizuloaren barruneko beste maila guztietan bezala, II-III. multzoan aztertu dugun laginean ia guztizkoa da suharriaren erabilera lehengai gisa, % 97koa, beheragoko mailetakoa baino txikixeagoa, kasu honetan (23. taula). Kuartzoa, kuartzita eta marga dira batez ere baliatu ziren gainerako materialak, eta kareharrizko zatiren bat edo beste azaldu da era berean. Printza, forma gabeko zati eta ezkail gisa ageri da kuartzoa, printzak dira kuartzitak eskaini dituen aztarnak, eta errekarri itxurako piezak margak.

Suharri motei dagokienez, aldaketak nabaritzen ditugu maila honetan beheragoko mailen aldean, haizuloko bertako suharri urgoniarra baitugu oraingoan erabiliena (% 52), eta ondoren dator Gaintzurizketako Flysch-eko suharria (% 16); Bidaxuneko Flysch-eko eta Urbasako suharriak, gainerako mailetan horren ugari ageri direnak, ez ziren ia erabili. Anekdotak hutsa baizik ez dira Trebiñuko suharriak eskaintzen dituen portzentajeak. Esan dezagun, bestalde, suharrizko piezen % 24 zehaztu gabeen taldearen barruan sailkatu direla, oso zaila baita zein motatakoak diren zehaztea. Forma gabeko zatiak eta ezkailak horren ugari agertu izana dugu haizuloko bertako suharri urgoniarraren garrantziaren arrazoia: suharri mota horren kalitate eskasa eta lanketa zaila direla medio sortuko ziren horrenbeste forma gabeko zati eta ezkail. Baina landu gabeko blokeak, lanketa beteko euskarriak, tresneria ukitua eta nukleo landuak azaldu dira, era berean, suharri mota horretan taxutuak.

7.3. MATERIAS PRIMAS

En la muestra estudiada del conjunto II-III encontramos, al igual que en el resto de los niveles del interior de Aitzbitarte III, un predominio casi absoluto del uso del sílex como materia prima, alcanzando en este caso un casi un 97% (tabla 23), algo menor que en los niveles inferiores. El resto de materias empleadas son fundamentalmente cuarzo, cuarcita, marga y aparece también algún fragmento de calcita. El cuarzo aparece en forma de lascas, fragmentos informes y esquirlas, y la cuarcita en forma de lascas aisladas, mientras que las margas aparecen en forma de cantos rodados.

En lo que concierne a las variedades de sílex, en este nivel vemos cambios con respecto a los niveles inferiores siendo el más utilizado el sílex Urganiano procedente de la propia cueva (52%), seguido por el sílex del Flysch de Gaintzurizketa (16%), mientras que el sílex del Flysch de Bidache y el de Urbasa, muy abundantes en los demás niveles, aquí apenas se utilizan. Otros sílex exógenos como el de Trebiño aparecen en porcentajes anecdóticos. Además hay que mencionar que casi un 24% de los sílex se han clasificado en el grupo de los indeterminados ante la dificultad de identificar la variedad a la que pertenecen. La importancia del sílex Urganiano procedente de la cueva se deriva de la gran abundancia de fragmentos informes y esquirlas, probablemente producidos por la mala calidad y la dificultad de su talla. Pero también aparecen bloques sin tallar, soportes de plena talla, utillaje retocado y núcleos elaborados en esta materia.

LEHENGAIAK / MATERIAS PRIMAS	KOP. / N	%
Beste gai batzuk / Otras materias	25	3,01
Suharria / Sílex	805	96,99
Guztira / Total	830	100,00

23. taula. VI. mailako lehengaien sailkapena, kategoria handitan banatuta. / Tabla 23. Clasificación de las materias primas del nivel II-III en grandes categorías.

7.4. SAILKAPEN TEKNOLOGIKOA

Harrizko 830 aztarnak osatzen dute II-III. mailako lagina (24. taula), eta forma gabeko zatiak eta 10 mm-tik beherako ezkaikak dira haien % 70etik gora. Bigarren talde garrantzitsua osatzen dute lehen asmoko produktuek, hau da, printzek eta ijeki-euskarriek (% 16), eta antzeko proportzioetan agertu dira horiek. Oso portzentajea apaletan ageri dira, berriz, gainerako taldeak, egokitzapenerako produktuek eta birbizitzearekin loturiko piezak eta nukleoak. Aipatzekoa da, bestalde, aldarazi eta erabili ez diren lehengai bloke batzuen presentzia, eta harkosko erabilien urria (ale bat baizik ez da agertu).

Ikusi dugun bezala, oso nukleo gutxi berreskuratu ditugu (aztarna guztien % 0,72 baizik ez), eta gutxi azaldu dira, halaber, egokitzapenerako produktuak (% 1,33): Badirudi, beraz, lanketa jarduerak pisu gutxi eduki dutela multzo honetan. Hala eta guztiz ere, balio esanguratsuagoak ageri dituzte produktu azaldunek (% 5,56): gehiago lotu beharko genituzke, behar bada, nukleoetan azaleko gainaldee eusteko jarduerekin lanketa hasierako lanekin baino. Bestalde, ukituriko tresneriaren ukitze eta birbizitze jarduerak bideratuko ziren aztarnategian, itxura guztien arabera, lan horiekin loturiko euskarriak azaldu direlako, gutxi badira ere (% 2,5).

7.4. CLASIFICACIÓN TECNOLÓGICA

La muestra del nivel II-III está compuesta por 830 restos líticos (Tabla 24), de los cuales más de un 70% son fragmentos informes y esquirlas menores de 10 mm. El segundo grupo importante son los productos de primera intención, lascas y soportes laminares (16%) que aparecen en similares proporciones. El resto de grupos, los acondicionamientos, piezas relacionadas con el uso y reavivado del utillaje y los núcleos aparecen en porcentajes muy bajos. Hay que mencionar la presencia de algunos bloques de materia prima no modificados ni utilizados y la escasez de cantos usados (solamente un ejemplar).

Cómo hemos visto los núcleos son bastante escasos (apenas suponen un 0,72% de los restos) y los productos de acondicionamiento son también escasos (1,33%) con lo cual parece que las actividades de talla tienen escaso peso en el conjunto. Sin embargo los productos de decortinado presentan valores más notables (5,66%) quizá más relacionados con mantenimiento de superficies corticales en los núcleos que con labores de inicio de talla. También parece que se han llevado a cabo en el yacimiento actividades de retoque y reavivado del utillaje retocado, ya que aparecen soportes vinculados a estas labores, aunque sea en bajas proporciones (2,5%).

EUSKARRIAK / SOPORTES	KOP / N	%
Nukleoa / Núcleo	2	0,24
Printza nukleoa / Núcleo de lascas	1	0,12
Ijeki-nukleoa / Núcleo laminar	2	0,24
Printza gaineko ijeki -nukleoa / Núcleo laminar sobre lasca	1	0,12
Lehen mailako azal-kentze printza / Lasca decortinado primario	5	0,60
Bigarren mailako azal-kentze printza / Lasca decortinado secundario	37	4,46
Bigarren mailako azal-kentze ijekia / Lámina decortinado secundario	5	0,60
Aurpegi bakarrekko gandorra / Cresta unifacial	4	0,48
Ijeki gainditua / Lámina sobrepasada	1	0,12
Ijeki islatua / Lámina reflejada	3	0,36
Birbizitze-tableta / Tableta de reavivado	1	0,12
Printzaketa-aurpegiaren garbiketa-printza / Lasca de limpieza de cara de lascado	2	0,24
Printza / Lasca	65	7,83
Ijeki-euskarriak / Soportes laminares	69	8,31
Birbizitze-printza / Lasca de reavivado	2	0,24
Zulakaitz-ebakina / Golpe de buril	10	1,20
Ezpala / Astilla	9	1,08
Formagabea / Informe	237	28,55
Ezkailak / Esquirlas	368	44,34
Blokea / Bloque	5	0,60
Harkosko erabilia / Canto usado	1	0,12
Guztira / Total	830	100,00

24. taula. II-III. mailako multzoaren sailkapen teknologikoa.

Tabla 24. Clasificación tecnológica del nivel II-III.

7.5. IRAKURKETA TEKNOLOGIKOA

II-III. mailako multzoan harrizko tresneriaren ekoizpenaren inguruan sumatu ditugun estrategietara hurbiltzen saiatuko gara oraingoan.

Nukleoak

II-III. mailan aztertu dugun laginean oso nukleo kopuru urria azaldu zaigu ($K=6$), eta hainbat formatu edo molde ageri dituzte gainera. Hiru ijeki-nukleo, printza-nukleo bat, disko itxurako nukleo baten zatia eta ale ahitu bat, irakurketa zailekoa, identifikatu ditugu.

Prisma formako nukleo polobakarrak dira ijeki-nukleoetako bi; neurri txikiko noduluena gainean itxuratu zituzten eta azaleko bizkarrari eutsi diote. Zehaztu gabeko suharran taxutu zuten lehendabizikoa ($37 \times 29 \times 26$ mm), eta plataforma leun bat ageri du aldi berean, printzaketa txikien bitartez landua eta ondoren birbizitua. Landua ageri du eskuinaldeko hegala eta eremu azaldunak erakusten ditu bizkarraldean eta ezker aldeko hegalean (75.1 irudia). Ijeki zabal laburrak dira lorturiko produktuak (35×19 mm eta 37×12 mm-ko neurriak dituzte haien azkeneko negatiboak). Bertan behera utzi zuten nukleo hau, printzaketa-aurpegia ganbiltasunik gabe gelditu eta gero.

Antzeko ezaugarriak ditu beste ijeki-nukleoak ($41 \times 29 \times 11$ mm), baina ahiturik dago guztiz: haren perfla laua da arras, ganbiltasunik eta birbizitzeko aukerarik gabe. Ijekitxo zabalak, lerrozuzenak eta luzexkak ageri ditu nukleoak (22×8 mm eta 36×9 mm-ko neurriak dituzte azkeneko negatiboak). Birziklatu egin zuten nukleoa (75.2 irudia), angeludun zulakaitz diedro bilakatzeko. Aurpegi bat landu zuten nukleoaren hondoan eta beste bat albo batean.

Beste ijeki-nukleo bat dokumentatu dugu, azaleko printza lodieran gainean oraingo honetan. Aurreko nukleoaren antzeko ezaugarriak ditu: alde zurreko ustiatze erdi-inguratzailearen trazak ageri ditu eta gerokoan, ahitu eta gero, halako zulakaitz lodia sortu edo zulakaitz baten moduko ustiatze berria bideratu zuten nukleoaren hondoan eta albo batean. Zulakaitz anizkunen antzeko formatua du nukleo honek ($52 \times 33 \times 19$ mm), baina askoz ere handiagoa eta lodiagoa da euskarriaren formatua (76. irudia). Gaintxurizketako suharrizko printza azaldun bat aukeratu ondoren, plataforma leun bat landu zuten printzaketa batzuen bitartez eta hartatik abiaturik hasi ziren ijeki estuak ustiatzen. Lanaketaren garapena erdi-inguratzailea da eta printzaren azpialdeari eta hegala azaldunari eutsi zieten. Bizkar gisa bideratu zuten printzaren azpialdea. Erdi neurrikoak dira erauzitako ijekiak (32×14 mm, printzaketa-aurpegian kontserbatu diren negatibo batzuen arabera), eta perfl hein batean ganbila ageri dute. Ahitu egin zen ustiatze hura, zeharkako ganbiltasun eza zela medio, eta zulakaitzen itxurako beste bati ekin zioten nukleoaren hondoan eta alboan. Zulakaitzen moldeko ustiatzea plataformatzat harturiko aurpegian oinarritu zen eta azalak ageri dituen eremu baterantz ireki zen. Ustiatze nagusikoak baino laburragoak eta estuagoak dira ustiatze honetako amaierako negatiboak (17×9 mm).

Printzen lanketa ere dokumentatu dugu maila honetan, baina printza-nukleo polobakar bat baizik ez dugu identifikatu ($37 \times 58 \times 37$ mm), Gaintxurizketako suharrizko tektofraktu batean landua hain zuzen ere (77. irudia). Norabide bakarreko bi erauzte ageri ditu plataforma lauan, azalera naturala da haren hondoan, erdigandorren modukoa ageri du hegalean eta bes-

7.5. LECTURA TECNOLÓGICA

En este apartado vamos a intentar acercarnos a las estrategias de producción del utillaje lítico que se dan conjunto del II-III.

Núcleos


En la muestra analizada del nivel II-III el número de núcleos es escaso ($N=6$) y muestra cierta variabilidad de formatos. Hemos identificado tres núcleos laminares, un núcleo de lascas, un fragmento de núcleo discoide y un ejemplar muy agotado de difícil lectura.

Entre los núcleos laminares tenemos dos núcleos prismáticos unipolares realizados sobre nódulos de pequeño tamaño en los que se mantiene el dorso cortical. El primero de ellos ($37 \times 29 \times 26$ mm) está elaborado sobre sílex indeterminado, presenta una plataforma lisa que ha sido preparada mediante pequeños lascados y reavivada. El flanco derecho está tallado y el dorso y el flanco izquierdo permanecen corticales (Fig. 75.1). Los productos obtenidos son láminas anchas y cortas (los últimos negativos muestran unas dimensiones de 35×19 mm y 37×12 mm). Este núcleo se ha abandonado por falta de convexidades en la cara de lascado.

El otro núcleo laminar ($41 \times 29 \times 11$ mm) presenta similares características, aunque está totalmente agotado quedando un perfil totalmente plano, sin convexidades ni posibilidad de reavivado. El núcleo es de laminillas anchas, rectilíneas y bastante alargadas (medidas de los últimos negativos 22×8 mm y 36×9 mm). Este núcleo (Fig. 75.2) se ha reciclado convirtiéndose en un buril diedro de ángulo, elaborando un paño en el fondo del núcleo y otro en el lateral.

Además se ha documentado otro núcleo laminar sobre lasca espesa cortical que presenta similares características al núcleo anterior: presenta una explotación previa semienvolvente y posteriormente al agotarse se ha creado una especie de buril espeso o nueva explotación de tipo buril en el fondo y lateral del núcleo. Este núcleo ($52 \times 33 \times 19$ mm) tiene un formato similar al de los buriles múltiples pero el formato del soporte es mucho más grande y espeso (Fig. 76). Se ha elegido una lasca cortical espesa de sílex de Gaintxurizketa, se ha creado una plataforma lisa mediante varios lascados y se ha comenzado a realizar una explotación de láminas estrechas. El desarrollo de la talla es semienvolvente y se ha mantenido la cara ventral de la lasca como dorso y el flanco cortical. Las láminas extraídas tienen un tamaño medio (32×14 mm según alguno de los negativos conservados en la cara de lascado) y perfil ligeramente convexo. Esta explotación se ha agotado por falta de convexidad transversal y se ha emprendido una nueva, de tipo buril en el fondo y lateral del núcleo. La explotación de tipo buril se asienta en el paño lateral que sirve como plataforma, facetado, y se abre hacia una zona con córtex. Los negativos finales de esta explotación son más cortos y estrechos que los de la principal (17×9 mm).

La talla de lascas en este nivel también está documentada, pero solamente hemos identificado un núcleo unipolar de lascas ($37 \times 58 \times 37$ mm) realizado sobre tectofracto de sílex de Gaintxurizketa (Fig. 77). Presenta una plataforma lisa de la que salen un par de extracciones unidireccionales, el fondo es una superficie natural, en el flanco tiene una especie de semicresta y al dorso hay lo que parecen restos de otra explotación. Las




75. irudia. Prisma formako nukleo polobakarrak.

Figura 75. Núcleos prismáticos unipolares.

76. irudia. Printza gaineko ijeki-nukleoa.

Figura 76. Núcleo laminar sobre lasca.



te ustiatze baten hondarrak diruditenak ageri ditu bizkarraldean. Erdi tamainako printza irregularrak (35x26 mm) lortu zituzten. Utzia zen nukleoa, printzaketa-aurpegiak diaklasa eta gorabehera ugari ageri zituelako.

Printza itxura dute beste bi nukleoek, baina zailak dira behar bezala irakurtzen, zatitua baitago bata eta guztiz ahitua bestea. Suharri urgoniarrean taxuturiko nukleo zatia da lehen-dabizikoa (42x34x28 mm), disko itxurakoa da eta plataforma perimetral baten zatia ageri du: erradiala izan zen, antza denez, lanketaren garapena. Gaintxurizketako suharrian landu zuten bestea (42x38x22 mm), azaleko bizkarraldeari eutsi dio eta badirudi azken ustiatze faseetan neurri txikiko printzak (28x19) erauzi zitzaizkiola. Aldez aurreko beste ustiatze baten aztarna ez horren argiak ageri ditu era berean.

Mihizatzeak


Lau mihizatze-segida bideratu ditugu II-III. mailako lagin-ean (22. taula), baina bakar batek baizik ez digu teknologiaren ikuspegitik informazioirik eskaini; haustura zaharren eta lan-ken emaitzak (okupazio mailetan maiz agertzen direnak), eta haustura berriak, dira gainerakoak. Bi printza azaldunek eta printza soil batek osatzen dute segida, nukleoa prestatzeko bideratu ziren azal-kentze eta garbiketa jardueren hasieran erauzi zituzten. Tamaina oneko euskarriak dira, eta ukiera bitartez landu ziren ondoren hirurak, substratu-tresna bihurtzeko: bi denticulatu eta karrakagailu bat.

lascas obtenidas son de tamaño medio e irregulares (35x26 mm). El núcleo se ha abandonada ya que la cara de lascado muestra múltiples diaclasas e irregularidades.

Con respecto a los dos núcleos restantes parecen ser también de lascas, pero resulta difícil su lectura al estar fragmentado uno y completamente agotado el otro. El primero es un fragmento de núcleo discoide de sílex Urgoniano (42x34x28 mm) en el que se aprecia parte de una plataforma perimetral y parece que el desarrollo de la talla fue radial. El otro (42x38x22 mm) está fabricado en sílex de Gaintxurizketa, conserva un dorso cortical y parece que en estas últimas fases de explotación se extrajeron lascas de pequeño tamaño (28x19), pero quedan restos no muy claros de al menos otra explotación previa.

Remontados

La muestra del nivel II-III hemos recuperado realizado 4 secuencias de remontados (Tabla 22), pero sólo una de ellas aporta información desde el punto de vista tecnológico, el resto son producto de fracturas antiguas y de talla (frecuentes en niveles de ocupación), y recientes. La secuencia (Fig. 78) está compuesta por dos lascas corticales y una lasca simple, extraídas en las primeras fases de decorticado y limpieza para la preparación del núcleo. Son soportes de buen tamaño y los tres se han conformado mediante retoque para hacer útiles de sustrato, dos denticulados y una raedera.



77. irudia. Printza-nukleo polobakarra.

Figura 77. Núcleo unipolar de lascas.

Egokitzapenak

Lanketaren prestaera eta mantentze jardueren bitartean sorturiko euskarri batzuk berreskuratu ditugu II-III multzoan. Bereizi egiten dira azal-kentze lanen ondorioz sorturiko besteetatik eta badirudi, beraz, plataformak eta printzaketa-aurpegiak euskarri azaldunak zuzenean erazuz irekitzeko estrategiak ongi dokumentatuak direla. Urri azaldu dira, aldiz, printzaketa-aurpegiak irekitzeko beste elementu batzuk, gandorrak adibidez, eta beste horrenbestekoa gertatzen da printzaketa-aurpegiak berregokitzeko elementuekin, hala nola hegal eta printzaketa-aurpegiak birbizitzeko printzekin eta plataformak birbizitzeko elementuekin (tabletak).

Azaleko ijekiak eta printzak

Oso kopuru txikian agertu dira produktu guztiz azaldunak (K=5) eta printzak dira guztiak. Euskarri zati batean azaldunei erreparatzen badiegu, garbi dago askoz ere gehiago direla (K=43), baina printzak dira gehienak. Oso ijeki-euskarri gutxiak daramate eremu azaldunen bat eta badirudi, beraz, ijekien ekoizpenean hegal azaldunei eustea ez zela maiz gertatzen zen zerbait. Dokumentaturiko nukleo gehienek ustiatze osoan zehar eutsi diete eremu azaldun batzuei eta arrazoi horrexegatik agertu dira horren ugari azal-kentze jardueren ondorioz sorturiko printzak, baina zaila da euskarri horiek eta lanketaren hasierako uneetan sorturikoak bereiztea.

Acondicionamientos


En el conjunto II-III hay diferentes soportes producto de la preparación y mantenimiento de la talla, destacándose entre los demás los productos de decorticado, con lo cual parece que las estrategias de apertura de plataformas y caras de lascado mediante la extracción directa de soportes corticales están bien documentados. Mientras que otros elementos de apertura de caras de lascado como las crestas son muy escasos. Lo mismo ocurre con elementos de reacondicionamiento de las caras de lascado, como los flancos y lascas de reavivado de cara de lascado, y con los reavivados de las plataformas como las tabletas.

Láminas y Lascas corticales

El número de productos totalmente corticales es muy reducido (N=5) y todos ellos son lascas. Si nos fijamos en los soportes parcialmente corticales vemos que aumenta bastante el número de los mismos (N=43), pero en su mayoría se trata de lascas. Los soportes laminares que arrastran zonas corticales son escasos con lo cual parece que no es demasiado frecuente el mantenimiento de flancos corticales en las producciones laminares. La mayoría de los núcleos documentados mantienen ciertas zonas corticales a lo largo de toda su explotación, lo que contribuiría a la abundante presencia de lascas de decorticado, pero es difícil diferenciar éstos soportes de los producidos en los momentos iniciales de la talla.

78. irudia. Mihizatze-segida. Azaleko printza lodi batzuk erauzi zituzten, ondoren ukiera bitartez lantzeko.

Figura 78. Secuencia de Remontado. Se han extraído varias lascas espesas y corticales que posteriormente han sido retocadas.




Tresna bihurtu zituzten azal-kentze jardueretan sorturiko euskarni horietako batzuk (K=12). Molde desberdineko tresnak (bizkardun piezak, zulakaitzak, mozturak, raclette dire-lakoak, printza ukituak, eta abar) lantzeko hautatu zituzten pieza mota haiek, baina substratu-tresnak, hala nola karrakagailuak eta dentikulatuak, lantzeko aukeratu zituzten batez ere.

Baliaturiko lehengaiei dagokienez, mailako joera orokorra sumatzen da berriro ere azal-kentze jardueretan sorturiko euskarnien artean, nagusi ageri baita berta-bertako suharri urgoniarren eta Gaintxurizketako Flysch-eko suharriaren erabilera. Bidaxuneko suharrin landu zituzten ale batzuk, eta anekdota hutsa baizik ez dira Urbasako edo Trebiñuko suharrietan taxaturikoak. Aipagarria da, halaber, lehen azal-kentze jardueran sorturiko printza berezi baten presentzia, kuartzitan landua den aldetik.

Una parte de estos soportes de decortinado se ha transformado en diversos útiles (N=12). Se ha elegido este tipo de piezas para fabricar diversos útiles (piezas de dorso, buriles, truncaduras, raclettes, lascas retocadas, etc.) pero preferentemente se han elegido para elaborar utillaje de sustrato como raederas y denticulados.

Con respecto a las materias primas empleadas, en los soportes de decortinado vemos la misma tendencia general del nivel, predominando el uso de sílex Urganiano ultra-local y del Flysch de Gaintxurizketa. También aparecen algunos ejemplares en sílex de Bidache, y las variedades de sílex exógenos como el de Urbasa o Treviño aparecen de forma testimonial. También debemos mencionar la presencia de una lasca de decortinado primario de cuarcita.



79. irudia. II-III. mailako printzen eta ijeki-euskarrien azalekotasuna.

Figura 79. Corticalidad de lascas y soportes laminares del nivel II-III.

Beste egokitzapen batzuk: gandor-ijekiak, birbizitze-tabletak eta printzaketa-aurpegiaren garbiketa-printzak. Ez da ia-ia nukleoan egokitzapenerako produkturik azaldu eta, beraz, mugatua da oso haietatik jaso genezakeen informazioa.

Gandor-ijekiak aurpegi bakarrekokoak dira guztiak (K=4) eta zatiturik agertu dira. Haien zabalera salatuta bezala, ijeki-nukleo estuetatik abiatuta landu zituzten eta printzaketa-aurpegiak irekitzeko erabiliko zituzten seguruenik. Bertako suharrian tautu zituzten hiru eta Urbasaokoan laugarrena.

Are eta gutxiago dira azaldu zaizkigun birbizitze-euskarriak. Birbizitze-tableta bat, printzaketa-aurpegiaren garbiketarako bi printza (printza-nukleo batetik sortu zuten haietako bat) eta aurkako plataforma daraman ijeki gaitutu bat dokumentatu dira.

Ukitu egin zituzten euskarri horietako gehienak, kamekarrak, konposatuak, karrakagailuak eta beste tresna batzuk lantzeko. Modulu handi lodiak ageri zituztelako aukeratu zituzten oro har.

Dokumentatu ditugun aldagai teknologiko horiek kasu ia guztietan lotu beharrek dira ijekiak ekoizteko metodoen hasiera eta mantentze jardueren gaineko estrategiekin, baina printza-nukleoan egokitzapenerako jarduerekin lotu beharko genuke ale horietako bat gutxienez.

Euskarriak

Teknologiararen ikuspuntutik azter daitezkeen 134 euskarri, 65 printza eta 69 ijeki-euskarri azaldu dira azterketarako aurreratu dugun laginean (24. taula).

Estos soportes proceden de útiles fabricados fundamentalmente con sílex local del Flysch, aunque aparece algún ejemplar fabricado en sílex exógeno indeterminado y en sílex de Urbasa. La categoría de los golpes de buril tiene una presencia discreta en el nivel, coherente con la escasez de buriles recuperados, y ninguno de ellos se ha retocado posteriormente.

Algo parecido ocurre con las astillas que tienen una presencia similar a los golpes de buril y serían producto del uso de los escasos útiles astillados documentados ($N=3$). Quizá también se produzcan por el reavivado de otro tipo de utillaje, debemos recordar que en este conjunto se recuperó una ramera reavivada mediante contragolpe.

Son soportes de morfología variada, módulos medianos y pequeños ($17 \times 12 \times 5$ mm de media) y en algunos casos se han fracturado por el impacto al extraerse. Las materias primas empleadas son el sílex del Flysch de Gaintxurizketa y el sílex Urganiano de la cueva. No parecen ser soportes buscados y solamente un ejemplar de un tamaño mayor al de la media se ha retocado mediante retoque semiabrupto marginal.

7.7. SÍNTESIS TECNOLÓGICA

El conjunto del nivel II-III está bastante afectado por distintos procesos posdeposicionales que indican una mezcla de materiales que hace que pongamos en duda la integridad del conjunto. A pesar del aspecto alterado del conjunto hay otros factores que apoyan cierta integridad del nivel, como son su coherencia tecnológica y tipológica y el hecho de que se han recuperado varias secuencias de remontados físicos.

Una vez comentados los problemas del nivel vamos a pasar a intentar caracterizar el conjunto:

- Carácter alterado del conjunto.
- El sílex es la materia prima preferida (97%) aunque se detecta un uso puntual de otras materias como cuarzo, cuarcita o margas. A diferencia del nivel anterior, en que esta presencia de otras materias primas derivaba de su uso en la industria macrolítica, en este nivel aparecen en forma de lascas y restos de talla.
- Incremento de las fuentes de aprovisionamiento de sílex cercanas de inferiores calidades. En este aspecto se aprecian cambios notables con respecto a los niveles inferiores siendo el más utilizado el sílex Urganiano procedente de la propia cueva seguido por el sílex del Flysch de Gaintxurizketa, mientras que el sílex del Flysch de Bidache y el de Urbasa, muy abundantes en los demás niveles, aquí apenas se utilizan. Otros sílex exógenos procedentes de lugares bastante alejados, como el de Treviño, aparecen en porcentajes anecdóticos.
- Desde el punto de vista tecnológico se trata de un nivel peculiar; puesto que más de un 70% de los restos son fragmentos informes y esquirlas menores de 10 mm, lo que nos hace pensar en actividades intensas de talla, pero esto no se corresponde con la escasez de núcleos y

baina uste hori ez dator nukleo eta egokitzapenerako produktuen arloan dokumentatu diren kopuru urriekin bat. Uste izatekoa da, beraz, ezkail eta formarik gabeko zatien kopuru handi hori lanketarako gaitasun ezaren eta erabili beharreko lehengaiak hautatzeko uneko jokamolde zabarraren, edo mailak ageri duen izaera nahasiaren, ondorioa izango dela. Bestalde, tresnen ukitze eta birbizitze jarduerak ere ez dira behar bezala adieraziak azaldu.

- e. Lanketa-sistema gutxi dokumentatu dira. Ijeki-euskarrien ekoizpen-sistemak, prisma itxurako nukleoetatik abiatuturik eta printza gainean, alde batetik, eta printzen ekoizpenerako sistema oso ximpleak, bestetik. Ekoizpen mota hauek bertan bideratzen ziren eta ez zuten, itxura guztien arabera, nukleoan halako prestaera edo mantentze jarduera berezirik eskatzen, kontuan hartzen bada maila honetan zeinen egokitzapen gutxi azaldu den. Arras ustiatuak eta ahitze bidean ageri dira bertan bideratzen ziren ekoizpen-jarduera haietan baliaturiko nukleoak. Ijeki-nukleoaren kasuan, zulakaitzen moduko lanketa-eskemak bideratu zituzten azken faseetan bi kasuetan. Aztarnategian landuriko ijeki-euskarriak ijekitxo ukituak, bizkardun ijekitxoak eta askotariko tresnak lantzeko erabili ziren batez ere.

Printzen kasuan, ijekien lanketa-sistemen arabera landu ziren batzuk, baina helburu horri begira berariaz eta,aldi berean, oso oinarritzko moduan bideratu ziren ekoizpeneren emaitza ditugu beste batzuk (sistema polobakarrak eta disko motakoak). Aztarnategian taxuturiko printzak tresneria ukituaren zati handi bat itxuratuzeko baliatu ziren, eta haien artean bereziki aipatuko ditugu substratu-piezak, pieza ezpalduak eta zulagailuak, maila honetan ugari azaldu direnak.

Bertan bideratu zen euskarri-ekoizpen horretaz gainera, kanpotik inportatzen ziren, itxuraz, neurri handiagoko ijeki-euskarriak. Bi modulu bereizten dira haien artean, ijeki zabalena bata eta neurri handiko ijekiena bestea. Euskarri horiek askoz ere gutxiago dira eta tresna ukitu bihurtu zituzten aiz, orri ukituak, mozturak, zulakaitzak eta marruskak lantzeko, baina maila honetan ez dira horren ugari ageri.

- f. Tresneria ukituari dagokionez, II-III maila da, hain zuzen ere, Aitzbitarte IIIko sekuentzia osoan euskarri ukitu gutxien ageri duena (% 9,7). Ikuspegi teknologikotik, haustura nabari da maila honen eta behekoen artean: aurrenik, konpentsatuago ageri dira talde tipologiko desberdinak, eta zulakaitzen taldea ez da nagusi ageri, Noailles zulakaitzen bat edo beste azaldu arren. Substratu-piezak dira maila honetan talde nagusia, eta ondotik datoz tresneria ukitua eta ijekitxo ukituak. Aipatzeko moduko ordezkariak dute, bestalde, zulagailuen (mikrozulagailuak dira gehienak) eta mozturadun piezen taldeak. Zulakaitzak, bizkardun piezak, raclette direlakoak eta pieza ezpalduak ez dira horren kopuru esanguratsuetan azaldu, eta oso urri agertu direlako ditugu aipagarri beste talde batzuk, hala nola marrusketa eta tresna bikoitz edo konposatuena. Puntarik, ez bizkardunik eta ez hostokaririk, azaldu ez izana dugu nabarmendu beharra, azkenik.

Taxutuak izateko hautatu ziren euskarriei erreparatu gero, hautatzeko unean beste mailetan baino zabarrago jokatu zela aipatuko dugu lehenik. Printzak bezala –azalekoak ziren haietako asko– ijeki-euskarriak ukitu ziren, eta modulu handienak eta lodienak aukeratu zituzten gehien batean. Gutxi eta zabar landuriko tresneria itxuraz trauskila da oro har nagusi.

productos de acondicionamiento documentados. Con lo cual nos lleva a pensar que esta abundancia de esquirlas y fragmentos informes se derivan de la mala aptitud para la talla y escasa selección de las materias primas usadas, o del carácter alterado del nivel. Por otro lado las actividades de retoque y reavivado del utillaje tampoco aparecen bien representadas.

- e. Escasez de sistemas de talla documentados. Por un lado sistemas de producción de soportes laminares (laminillas y láminas estrechas) a partir de núcleos prismáticos y sobre lasca, y por otro sistemas bastante simples orientados a la producción de lascas. Este tipo de producciones se realizan *in situ* y parece que no conllevan una preparación o un mantenimiento excesivo de los núcleos, en vista de la escasa presencia de acondicionamientos en el nivel. Los núcleos correspondientes con estas producciones *in situ*, aparecen muy explotados y en fases de agotamiento. En el caso de los núcleos laminares, en un par de casos en las últimas fases se ha pasado a utilizar esquemas de talla de tipo buril. Los soportes laminares fabricados en el yacimiento se han empleado fundamentalmente para elaborar laminillas retocadas y de dorso, y utillaje diverso.

En el caso de las lascas, una parte son subsidiarias de los sistemas de talla laminar, pero otras son producto de explotaciones específicas aunque bastante sencillas (se emplean sistemas unipolares, y discoides). Las lascas fabricadas en el yacimiento se emplean para conformar gran parte del utillaje retocado, entre los que destacan los útiles de sustrato, las piezas astilladas y los perforadores, muy abundantes en este nivel.

Además de esta producción de soportes *in situ*, parece que hay una importación de soportes laminares de mayor tamaño, pudiéndose diferenciar dos módulos, uno de láminas anchas y otro de láminas de gran formato. Estos soportes son mucho más escasos y con frecuencia se transforman en utillaje retocado como hojas retocadas, truncaduras, buriles o raspadores, que en este nivel no son tan abundantes.

- f. Acerca del utillaje retocado, el nivel II-III es el nivel con menor proporción de soportes retocados (9,7%) de toda la secuencia de Aitzbitarte III. Desde el punto de vista tipológico vemos una ruptura entre este nivel y los niveles inferiores: en primer lugar los grupos tipológicos están más compensados, y ya no hay un predominio del grupo de los buriles, aunque todavía aparece algún buril de Noailles. Aquí son las piezas de sustrato el grupo mayoritario, seguidas de cerca por el utillaje diverso y por las laminillas retocadas. Otros grupos bien representados son las láminas retocadas, los perforadores (la mayoría son microperforadores) y las piezas truncadas. Los buriles, las piezas de dorso, las raclettes y las piezas astilladas presentan valores discretos, y destacan por su escasez otros grupos como los raspadores o el utillaje doble o compuesto. Por último, hay que mencionar la ausencia de puntas, tanto de dorso como foliáceas.

Si nos fijamos en los soportes que se han escogido para ser conformados vemos una menor selección de los mismos, retocándose indistintamente tanto lascas, muchas de ellas corticales, como soportes laminares, eligiéndose por norma general los módulos más grandes y espesos. En general predomina el utillaje poco elaborado y de aspecto tosco.

- g. En el conjunto del nivel II-III predomina una estrategia más

- g. II-III. mailan bereziki nabarmentzen da berehalakotasuna lehenesten zuen estrategia; haren arabera, bertako lehengaiak baliatu ziren bertan neurri txikiko printzak eta ijeki-euskarriak lantzeko, eta gordinik nahiz ukiturik erabili ziren pieza haiek berehalako beharrei begira. Estrategia honen osagarri bideratu zen modulu handiagoko ijeki-euskarrien inportazioa, baina ez dirudi leku urrunetatik ekarriko zituztenik, arras gutxi azaldu baitira leku oso urrunetako lehengaiak.
- h. Mailaren ezaugarri eta funtzioari dagokienez, badirudi bizileku edo bizileku-lantegi izaerako okupazio ez oso egonkor eta ez oso espezializatu baten aurrean gaudela. Hara eramaten ziren aurrez landuriko euskarri eta tresna jakin batzuk, eta euskarriak lantzeko jarduera batzuk bideratzen ziren bertan berehalako premiei erantzuteko. Ehizarekin loturiko tresnak konpontzeko jarduerak ere bideratuko ziren beharbada (bizkardun ijekitxoek maila honetan duten garrantziagatik).

inmediata que implica el uso de materias primas locales para fabricar *in situ* lascas y soportes laminares de pequeño tamaño, que se emplean en bruto o retocados para las labores más inmediatas. Esta estrategia se ve complementada con la importación de soportes laminares de módulos mayores, aunque no parece que se introduzcan desde lugares lejanos, ya que las materias primas procedentes de lugares muy alejados son muy escasas.

- h. Respecto a las características y función del nivel, parece que se trata de ocupaciones poco estables de carácter doméstico o mixto y poco especializadas. Donde se introducen ciertos soportes y cierto utillaje elaborado previamente y dónde realizan algunas tareas de fabricación de soportes orientadas a hacer frente a las necesidades más inmediatas y quizá también tareas de reparación de útiles relacionados con tareas cinegéticas (por la importancia del grupo de las laminillas de dorso).

8. AITZBITARTE III HAITZULOAREN BARRUNBEKO GOI MAILEN EBALUAZIO OROKORRA

IV. mailak ca. 22,8 eta 16 ka BP arteko datazioa jaso du (27869 – 18750 cal BP), eta II-III. mailak 18 eta 13,8 ka BP arteko datazioa (22900 – 16215 cal BP). Oso arazotsuak dira datazio horiek; aldi kronokultural desberdinei (Gravette, Solutre eta Madeleine) dagozkien probabilitate-tarte oso zabalak hartzen dituzte, alde batetik, eta probabilitate-tarteak elkarren gainean, eta datazio bat alderantziz, ageri dira batzuetan, bestetik. Egoera argi lezake hein batean mailen izaerak, jatorri tafonomikoko alterazioen lekukotasunak ageri baitituzte bi mailek; halatan, okupazio-une desberdinei dagozkien material nahasteak adieraziko lizkigukete data horiek. Adibidez, Noailles zulakaitzek IV. mailan iraun izanak eta V. eta IV. mailen arteko kontaktu-eremuan Solutre aldiko erramu-punta bat azaldu izanak itxuraz adierazi nahi ligukete maila horretan materialen nahaste bat gertatu zela beheragoko mailetako Gravette okupazioetako materialen eta Solutre aldiaren haizuloaren barrunbean izan ziren okupazioetakoak izango ziren materialen artean. Horrelako zerbait gertatuko zen goiko mailan, mailako materialekin batean nahasiko baitziren hartan haizuloaren gainazaletik edota beste eremu batzuetatik etorritako materialak.

8. VALORACIÓN GENERAL DE LOS NIVELES SUPERIORES DE AITZBITARTE III INTERIOR

El nivel IV ha sido datado entre ca. 22,8 y 16 ka BP (27869 – 18750 cal BP) y el Nivel II-III se ha datado entre 18 y 13,8 ka BP (22900 – 16215 cal BP). Estas dataciones son muy problemáticas, por un lado enmarcan lapsos largos de probabilidad que se corresponden con diferentes periodos cronoculturales (Gravetiense, Solutrense y Magdaleniense), además los intervalos de probabilidad se solapan y una de las dataciones está invertida. La naturaleza de los niveles, puede aclarar un poco la situación puesto que ambos niveles presentan evidencias de alteración de origen tafonómico, con lo cual las fechas nos estarían indicando mezclas de materiales correspondientes con diferentes momentos de ocupación. Por ejemplo, la continuidad de buriles de Noailles en el nivel IV y la presencia de una punta laurel solutrense en el contacto entre los niveles V y IV parecen indicar en este nivel se produce una mezcla de materiales entre las ocupaciones gravetienses de los niveles inferiores con materiales que podrían proceder de ocupaciones solutrenses de la cueva. Algo parecido ocurriría en el nivel superior dónde se mezclarían materiales del nivel con otros procedentes de la superficie o de otras zonas de la cueva.

Maila Nivel	Metodoa Método	Azala Lecho	Erreferentzia Referencia	Materiala Material	Batez bestekoa Media	Desbideratzea Desviación	Cal BP % 99,7
II-III		5	Ua-3119	Hezurra Hueso	13870	130	17428-16215
II-III		5	Ua-3116	Hezurra Hueso	18270	220	22900-21296
IV		6	Ua-3117	Hezurra Hueso	16015	185	20035-18750
IV		6	Ua-3118	Hezurra Hueso	22840	315	27869-26105

28. taula. C14 datazioak Aitzbitarte haizuloaren barrunbeiko goi mailetan, OxCal 4 bitartez eta IntCal13 baliaturik kalibratuak.

Tabla 28. Dataciones C14 de los niveles superiores de la zona interior de Aitzbitarte III, calibradas con OxCal 4.2 (Bronk Ramsey, 2009) usando la curva IntCal13 (Reimer, et al., 2013).

Laburbidurik, eskura dauzkagun datuekin ezin dugu maila hauen kronologia ziurtasunez zehaztu.

IV. mailako datazioetako batek zuzenean lotzen du aipaturiko IV. maila hori sarrerako III. mailarekin (ca. 25.815 eta 18.400 BP datazio egokitu zaio). Nolabaiteko hurbiltasun kronologiko hori kontuan harturik, hona hemen bi maila horien artean dauden elementu komun eta desberdintasun nabarietako batzuk.

Sarrerako III. mailako multzoaren berezigarrien antz handia dute IV. mailako harrizko multzoaren ezaugarri batzuk. Adibidez, suharria lehengai gisa guztiz erabilia izan zen arren, beste gai edo material batzuk erabili ziren puntualki; hala eta guztiz ere, suharriaren hornikuntza-lekuei dagokienez, sarrerako III. mailan bestean baino garrantzi handiagoa dute kanpokoek. Ekoizpenaren arloan, bi mailetan dokumentatu dira printzen eta ijekitxo zabal eta estuen *in situ* ekoizpen-sistemak, neurri handiagoko ijeki-euskarrien inportazioarekin batera. Ijekitxoen ekoizpena hegalak markaturik eta aurrealdeak estu ageri dituzten nukleoetatik abiatzen zen, eta garrantzia zuen, halaber, zulakaitz lodietatik abiatutako ekoizpenak. Bizkardun euskarri txikiak eta Noailles zulakaitzak lantzeko baliatzen ziren bertan edo *in situ* bideratzen ziren ekoizpen horien araberako produktuak.

Ikuspuntu teknologikotik, antzekoak dira bi mailak, honako berezitasun hauek gora-behera: puntarik ez da azaldu IV. mailan eta bizkardun piezen presentzia oso eskasa da maila horretan. Zulakaitzak dira aipagarri bi mailetan, haien artean Noailles zulakaitzak ageri dira, bai eta zulakaitz anizkunak eta Busqués motakoak ere, nukleo gisa bideratu zirenak. Marrusken presentzia ez da horren esanguratsua, baina aurrealde estuak ageri dituzte bi mailetan, ijeki estu eta arinen erabilera-erren poderioz. Bi mailetan sumatu denez, badirudi tresna ukitu gehienak inportaturiko ijeki-euskarrien gainean landu zituztela, neurri handiagokoak izaki. Gainera, barrunbeto IV. eta V. mailen arteko kontaktu-eremuan punta hostokara bat azaldu da. Ez da horrelakorik gertatu kanpoaldeko III. mailan, ez baita hartan Solutre aldiko elementurik azaldu.

En síntesis, con los datos disponibles no podemos determinar con seguridad la cronología de estos niveles.


Una de las dataciones del nivel IV lo pone en relación con el nivel III de la entrada (datado entre ca. 25.815 y 18.400 BP). Debido a esta relativa cercanía cronológica vamos a ver algunos elementos comunes y diferencias entre estos dos niveles.

Algunas características del conjunto lítico del nivel IV muestran cierto parecido con los del conjunto del nivel III de la entrada. Por ejemplo aunque predomina la utilización del sílex como materia prima, se acude a un uso puntual de otras materias, sin embargo con respecto a las fuentes de aprovisionamiento de sílex en el nivel III de la entrada se observa una mayor importancia las fuentes de aprovisionamiento exógenas. Con respecto a la producción en ambos niveles se documentan sistemas de producción de lascas y de laminillas anchas y estrechas *in situ*, junto con importación de soportes laminares de mayor tamaño. La producción de laminillas se realiza a partir de núcleos con flancos marcados y frentes estrechos, y también adquieren importancia las producciones a partir de buriles espesos. Se utilizan los productos de estas producciones *in situ* para fabricar pequeños soportes de dorso y buriles de Noailles.

Desde el punto de vista tipológico ambos niveles son semejantes salvo por la ausencia de puntas en el nivel IV y por la escasa presencia de piezas de dorso en el mismo. En ambos niveles destacan los buriles, entre los cuales aparecen ejemplares de buriles de Noailles, y también buriles múltiples y Busqués que sirven como núcleos. Los raspadores muestran una presencia discreta, pero en ambos niveles tienen frentes estrechos derivados del uso de láminas estrechas y poco espesas. En ambos niveles parece que el grueso del utillaje retocado se fabrica sobre soportes laminares importados, de mayor tamaño. Además en el contacto del nivel IV y V interior se ha documentado una punta foliácea, a diferencia del nivel III exterior donde no hay elementos solutrenses.

88. irudia. Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeto maila guztietan zehazturiko datazioen kalibratio-kurbak.

Figura 88. Curvas de calibración de las dataciones disponibles de todos los niveles de la zona interior de Aitzbitarte III.



Kanpoaldeko III. mailaren eta barrunbeto IV. mailaren arteko antzekotasun horiek, eta 22000 datazioa, kontuan hartzen baditugu, Kantauri aldeko Gravette aldiko amaieraren eta Solutre aldiaren arteko kronologia arazotsuaren barnean egokitu beharra dago IV. mailako multzoa. Nolanahi ere, ongi kontuan eduki beharra dago Kantauri aldeko Gravette eta Solutre aldiaren arteko multzoetatik (Foucher, 2007; Rios-Garaizar et al., 2013; De la Rasilla eta Straus, 2004; Corchón, 1999; de la Peña, 2011a; Arrizabalaga eta Iriarte, 2010) urruntzen dituzten bezitasunen jabe direla bi maila horiek (Rios et al. 2011). Zera da arazoa, Gravette eta Solutre aldiaren arteko garai horretako maila gutxi dagoela, eta gutxi direla, era berean, azalpen koherentea eskaini ahal izateko kontrasta daitezkeen elementuak.

Bestalde, Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeto goi mailen (II-III eta IV) datazioek elkar ezkatzen duten eremua erreferentziatzen hartzen badugu, 17 ka BP inguruan, zertxobait aldatzen da koadroa une hartan berean gertatu baitzen Solutre alditik Lehen Madeleine aldirako trantsizioa (final del *Last Glacial Maximum*, LGM), 18-16,5 ka BP eta 23-19 ka cal BP bitartean, hain zuzen ere. Garai hura ez da behar bezain zehazturik ageri Kantauri aldean eta kronologia-tarte horretan dokumentaturiko aztarnategietan eta, antzeko ezaugarriak dituzten arren, Azken Solutre aldiaren amaieran, Badegoule aldiaren edota Antzin Madeleine aldiaren kokatu izan dituzte autore eta tradizio batzuek eta besteek, horra, adibidez, Asturiasko La Rierako kasua.

Testuinguru horiek bat dituzte Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeto IV. mailak, zati batean, eta II-III. mailak ere partekatzen dituzten ezaugarri tekno-tipologikoak. Ezaugarri horietako batzuk ditugu bertako lehengaien erabilera, printzen ekoizpena, bizkardun ijekitxoaren eta antzinako itxurako tresnen presentzia garrantzitsua, raclette batzuen agerpena eta Solutre aldiko tresnen eskasia handia (Altuna, et al., 2012; Aura, et al., 2012; De La Rasilla, 1996; De La Rasilla eta Straus, 2004; Rios Garaizar, et al., 2013). Hezur industriaren ikuspegitik, garai hartako elementu guztiz adierazgarriak dira ebakidura biribileko edo lauako azagaiak, eta sasi-ebakiz bideraturiko dekorazioa (Aura, et al., 2012; Barandiarán, 1967); azken ezaugarri hori Aitzbitarteko komplexuko beste haizuloetako batean dokumentatu da, Aitzbitarte IV haizuloko III. eta IV. mailek bat egiten duten puntuan, hain zuzen (Utrilla, 1986).

Hona hemen Solutre aldiaren amaieraren eta Antzin Madeleine aldiaren arteko kronologia honekin lotu diren Kantauri aldeko multzo batzuk: Las Caldas (Corchón, 1990), Cueto de la Mina (Hoyos Gomez eta De La Rasilla Vives, 1994) eta La Riera (Bosselin eta Djindjian, 1999; Straus eta Clark, 1986) Asturiasen; Chufín (Cabrera Valdés, 1977), Altamira (Altuna eta Straus, 1976), El Pendo (Montes Barquin eta Sanguino González, 2001); El Ruso I (Muñoz eta Serna, 1999); Cueva Morín (González Echegaray eta Freeman, 1971) eta El Mirón (Straus, et al., 2011) Kantabrian; Arlanpe (Rios Garaizar, et al., 2013), Askondo (Garate eta Rios-Garaizar, 2012); Antoliñako Koba (Aguirre, 1998), Bolinkoba (Altuna eta Straus, 1976); Ermittia (Esparza eta Mujika, 1999), Urriaga (De La Rasilla Vives eta Straus, 2004); Amalda (Altuna, et al., 1990); Aitzbitarte IV (Straus, 1974), Euskadin.

Azterketa teknologiko gutxi bideratu dira kronologia honetako multzoei buruz. Arlanpe, orain berri induskatu eta argitaratu den aztarnategiko II. eta III. mailekin alderatuko dugu guk geure multzoa, horren arazotsu dena. Azterketa teknologiko xehea izango da eta ez du arazo tafonomiko gehiegi ageri, ongi zehaztua da kronologiari dagokionez eta kontraste-elementu

Si tomamos en cuenta estas semejanzas entre el nivel III exterior y IV interior; y la datación de 22000, el conjunto del nivel IV se ubica dentro de la problemática del final del Gravetiense y Solutrense cantábricos. Aunque hay que mencionar que ambos niveles presentan peculiaridades (Rios et al. 2011) que los diferencian de los demás conjuntos del Gravetiense y Solutrense cantábricos (Foucher, 2007; Rios-Garaizar et al., 2013; De la Rasilla y Straus, 2004; Corchón, 1999; de la Peña, 2011a; Arrizabalaga e Iriarte, 2010). El problema recae en que para este periodo de transición entre el Gravetiense y Solutrense hay pocos niveles y elementos con los que contrastar y elaborar una explicación coherente.

Por otro lado, si tomamos como referencia el área en que se solapan las dataciones de los niveles superiores del interior de Aitzbitarte III (II-III y IV), en torno a 17 ka BP, el cuadro cambia un poco ya que es el momento en que se produce la transición del Solutrense al Magdaleniense arcaico (*Last Glacial Maximum*, LGM) entre 18-16,5 ka BP o 23-19 ka cal BP (Rios Garaizar, et al., 2013). Éste periodo está poco definido en la zona cantábrica y los yacimientos documentados para este lapso, aunque presentan características similares, han sido atribuidos al Solutrense terminal, Badegouliense o Magdaleniense arcaico según los distintos autores y tradiciones, este es el caso por ejemplo de La Riera en Asturias (Aura, et al., 2012; Bosselin y Djindjian, 1999; Straus y Clark, 2000).

Estos contextos comparten una serie de características tecno-tipológicas de las que también participan parcialmente el nivel IV y más concretamente el nivel II-III de Aitzbitarte III, interior. Algunos de estos rasgos son la utilización de materias primas locales, la producción de lascas, presencia importante de las laminillas de dorso y de herramientas de apariencia arcaica, algunas raclettes y gran escasez de herramientas solutrenses (Altuna, et al., 2012; Aura, et al., 2012; De La Rasilla, 1996; De La Rasilla y Straus, 2004; Rios Garaizar, et al., 2013). Desde el punto de vista de la industria ósea los elementos característicos son las azagayas de sección redondeada o plana y el uso de decoración pseudo-excisa (Aura, et al., 2012; Barandiarán, 1967), este último rasgo se ha documentado en otra de las cuevas del complejo de Aitzbitarte, en el contacto de los niveles III y IV de Aitzbitarte IV (Utrilla, 1986).

Algunos de los conjuntos cantábricos asociados a esta cronología entre el Solutrense final y el Magdaleniense arcaico son: Las Caldas (Corchón, 1990), Cueto de la Mina (Hoyos Gomez y De La Rasilla Vives, 1994) y La Riera (Bosselin y Djindjian, 1999; Straus y Clark, 1986) en Asturias; Chufín (Cabrera Valdés, 1977), Altamira (Altuna y Straus, 1976), El Pendo (Montes Barquin y Sanguino González, 2001); El Ruso I (Muñoz y Serna, 1999); Cueva Morín (González Echegaray y Freeman, 1971) y El Mirón (Straus, et al., 2011) en Cantabria; Arlanpe (Rios Garaizar, et al., 2013), Askondo (Garate y Rios-Garaizar, 2012); Antoliñako Koba (Aguirre, 1998), Bolinkoba (Altuna y Straus, 1976); Ermittia (Esparza y Mujika, 1999), Urriaga (De La Rasilla Vives y Straus, 2004); Amalda (Altuna, et al., 1990); Aitzbitarte IV (Straus, 1974) en País Vasco.

Los estudios tecnológicos son bastante escasos para los conjuntos de esta cronología. Nosotros vamos a comparar nuestro conjunto, que es muy problemático, con los niveles II y III de Arlanpe (Rios Garaizar, et al., 2013), yacimiento excavado y publicado recientemente, con un estudio tecnológico detallado, que no presenta demasiados problemas tafonomicos, está bien definido cronológicamente y nos puede servir como elemento de contraste.

gisa baliatu ahal zango dugu.

Antzeko ezaugarriak dira haizuloen inguruko lekuetan topaturiko lehengaien etengabeko erabilera (lutita Arlanpeko kasuan, eta suharri urgoniarra Aitzbitarten); kalitate txarragokoa da suharri hori eta gordinik erabiltzen printzak taxutzeko eta, ondoren, ukitu eta substratu-tresnak lantzeko erabili zuten. Tresna mailan zituzten premiak etengabe asetzea zen haien helburua. Bat dute, gainera, tresneriaren morfologia eta teknologia erraza. Topo egiten dugu, halaber, printza eta ijekitxoekin *in situ* ekoi-zpen-sistema ximpleekin, alde batetik, eta dagoeneko landuak diren ijeki-euskarri handiagoen inportazioarekin, bestetik. Tipologiari dagokionez, gutxi taxuturiko tresna taldeak dira eta kopuru esanguratsuetan ageri dira, gainera: horra substratu-tresnak eta askotariko tresnak, eta ijekitxo ukituak eta bizkardun piezak. Nabarmena da, bestalde, orrien eskasia (ale bat baizik ez da azaldu Aitzbitarten). Azaldu ere egin dira beste elementu mota batzuk, hala nola raclette direlakoak eta zulagailuak.

Antzekotasun hauek guztiz adierazgarriak badira ere, ez digute besterik gabe aztarnategi haiek kronologia berekoak izan zirenik ziurtarazten, eta haien funtzio berberaren ondorio izan zitezkeen, hau da, antzekoak izango ziren orobat haietan bideratzen ziren jarduerak.

Laburbildurik, Solutre aldiaren amaierako uneetan haizuloan okupazio batzuk izan zirena har genezake kontuan, goi mailetako material batzuk Solutre aldiaren eta Madeleine aldiaren bitarteko trantsizio garaikoak izan baitzitezkeen. Gravette aldiko elementuekin nahasiko ziren IV. mailan, eta gugandik hurbilago dauden beste kronologia batzuetakoekin III. mailan. Zera da arazoa, *in situ* landu zen aldea multzoko zati nahasi eta aldatutik bereiztea. Gainera, Aitzbitarte III haizuloko sekuentzia estratigrafikoan, sarrerako aldean hain zuzen ere, Solutre aldiko kronologia beharbada zaharrago bat duen maila identifikatu zen, baina ez da hartan ukitu lauaren bidez taxuturiko elementurik azaldu: III. maila da. Alabaina, maila horrek ez du Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeto sekuentzian landu ditugun mailekin halako loturarik ageri, eta zaila da, beraz, haien arteko lotura zertan zen zehaztea.

Maila hauen azterketarako eman ditugun datuak baliagarriak izan daitezke eskualde horretan Solutre aldiaren eta Madeleine aldiaren bitartean gertatu zen aldaketa-epea aztertzeko, kontuan harturik ageri dituzten arazoak eta multzoaren egoera nahasia eta itxura, hein batean bederen, aldarazia.

9. I-GAIN MAILA

Gainazaleko mailak eta I. mailak osatzen dute maila hau. Egungo gainazala eta I. azala dagozkio gainazaleko mailari, eta azal batean, 2. azalean hain zuzen ere, induskatu da I. maila. Maila hau gutiz aldaturik ageri da, sekuentzia osoko gainazala izaki; horrez gainera, alde hau istil eta putzuz beterik ageri zen indusketa-lanak hasi aurretik, eta herrestatzeen ondorioak jasan dituzte materialek.

42 m²-tan induskatu zen I-GAIN maila; 59S laukian, agerian utzi zen I. mailako gainazala eta 58S laukian II. mailakoa. Hona hemen tarte horietako betegarriaren ezaugarriak: geruza organiko fin batek osatzen zuen gainazaleko maila; kolorez beltzexka, lodiera aldakorrekoa eta osatu berria zen geruza hura. I. mailako matrizea lur horixka, hareatsua, garbia eta harroa da, eta 3 bat cm-ko lodieran ageri da, ez ordea induskatu diren eremu guztietan. Beraz, Gainazaleko maila II. mailaren gainean ageri da gainazaleko alde jakin batzuetan.

Encontramos rasgos similares en la utilización intensa de materias primas locales procedentes de zonas cercanas a la cueva (la lutita en el caso de Arlanpe y el sílex Urganiano en Aitzbitarte), de peor calidad y que se emplea para fabricar lascas que se usan en bruto y se retocan para hacer utillaje de sustrato poco formalizado, orientado a hacer frente a las necesidades inmediatas de utillaje. Tienen en común además una sencillez en la morfología y tecnología del utillaje. Nos encontramos con sistemas simples de producción de lascas y laminillas *in situ* y la incorporación al yacimiento de soportes laminares mayores ya configurados. Respecto a la tipología nos encontramos con una buena representación de grupos de utillaje poco configurado, como los útiles de sustrato y los útiles diversos, y de las laminillas retocadas y de dorso frente a la escasez de elementos foliáceos (en Aitzbitarte solamente se documenta un ejemplar). Otros elementos que aparecen representados son las raclettes y los perforadores.

Estas similitudes son relevantes, aunque no tienen porque significar una relativa contemporaneidad de los yacimientos, sino que pueden derivarse de una convergencia funcional de los mismos, es decir que en ellos se llevasen a cabo una serie de actividades parecidas.

En resumen, podemos suponer ciertas ocupaciones de la cueva en momentos avanzados del Solutrense, ya que parte de los materiales de los niveles superiores podrían pertenecer a un momento de la transición del Solutrense al Magdalenense, mezclados con otros elementos Gravetienses (en el nivel IV) y con otros más recientes (en el nivel III), el problema radica en separar la parte alterada del conjunto de la parte *in situ*. Además, en la secuencia estratigráfica de Aitzbitarte III se identificó, en el sector de la entrada, un nivel de cronología solutrense probablemente más antigua aunque carece de elementos con retoque plano, es el nivel III, pero no muestra demasiada vinculación con los niveles que estamos tratando de la secuencia del interior de Aitzbitarte III y resulta difícil concretar la relación entre los mismos.

Los datos proporcionados por el estudio de estos niveles, siempre teniendo en cuenta los problemas que presentan y el estado parcialmente alterado del conjunto, pueden ser útiles en el estudio del periodo de transformación del Solutrense al Magdalenense inicial en la región.

9. NIVEL I-SUP

Este conjunto está formado por el nivel Superficial y el Nivel I. El Nivel Superficial se corresponde con el lecho I y el nivel superficial actual, y el Nivel I se ha excavado en un lecho, el lecho 2. Este nivel está muy alterado al ser la superficie de la secuencia, además esta zona estaba encharcada antes de comenzar la excavación y los materiales habían sufrido arrastre.

El nivel I-SUP se excavó en una superficie de 42 m², en el cuadro 59S se dejó expuesta la superficie del nivel I y en el cuadro 58S se dejó en superficie el nivel II. Las características del relleno en estos tramos son las siguientes: el nivel Superficial se definió como una fina capa orgánica, de color negruzco, de potencia variable y de formación reciente. La matriz del nivel I es una tierra amarillenta, arenosa, limpia y suelta que tiene una potencia de unos 3 cm y que no aparece en todas las zonas excavadas, de modo que en determinadas partes de la superficie el nivel Superficial se apoya sobre el nivel II.

Maila honetako faunaren eta harrizko aztarnen ezaugarrien arabera, maila nahasia da hau guztiz, garai eta jatorri desberdinetako aztarnak eta hondakinak ageri dira hartan.

Mailaren izaera nahasi hori dela eta, gaingiroki baizik ez dugu azalduko hartan dokumentaturiko industria.

9.1. SAILKAPEN TEKNOLOGIKOA

53 harrizko aztarnak osatzen dute I-Gain mailako lagina (29. taula); haien erdiak ia lehen asmoko produktuak dira, printzak eta ijeki-euskarriak, eta proportzio bertsuan ageri dira bi motak. Ez da nukleorik dokumentatu, azal-kentze euskarriak oso gutxi dira eta egokitzapenen artean birbizitze-tableta bat besterik ez da dokumentatu. Ugariago azaldu dira, bestalde, tresneria ukituaren erabilera eta birbizitze jarduerekin loturiko piezak. Laginaren laurdena ia osatzen dute formarik gabeko zatiek eta 10 mm-tik beherako zatiek. Aipatu beharra dago, bestalde, aldatu eta ukitu gabeko bi lehengai-blokeren eta erabilitako harkosko pare baten presentzia.

Las características de los restos faunísticos y líticos de este nivel indican que se trata de un nivel de revuelto, en el que aparecen restos de distintas épocas y procedencias.

Debido a este carácter alterado del nivel simplemente haremos un somero recuento de la industria documentada en el mismo.

9.1. CLASIFICACIÓN TECNOLÓGICA

La muestra del nivel I-Sup está compuesta por 53 restos líticos (Tabla 29), de los cuales algo menos del 50% son productos de primera intención, lascas y soportes laminares, que aparecen en la misma proporción. No se ha documentado ningún núcleo, los soportes de decortinado son escasos y entre los acondicionamientos solamente se ha documentado una tableta de reavivado. Por otro lado, las piezas relacionadas con el uso y reavivado del utillaje retocado son algo más abundantes. Los fragmentos informes y esquirlas menores de 10 mm alcanzan casi un 25% de la muestra. Además hay que mencionar la presencia de un par bloques de materia prima no modificados ni utilizados y otro par de cantos utilizados.

EUSKARRIAK / SOPORTES	KOP./ N	%
Bigarren mailako azal-kentze printza / Lasca decortinado secundario	3	5,66
Ijeki islatua / Lámina reflejada	1	1,89
Tableta / Tableta	1	1,89
Printzak / Lascas	13	24,53
Ijeki-euskarriak / Soportes laminares	13	24,53
Birbizitze-printza / Lasca de reavivado	1	1,89
Zulakaitz-ebakina / Golpe de buril	2	3,77
Ezpala / Astilla	1	1,89
Formagabea / Informe	2	3,77
Ezkailak / Esquirlas	12	22,64
Blokea / Bloque	2	3,77
Harkosko erabilia / Canto usado	2	3,77
Guztiak batera / Total general	53	100,00

29. taula. I-Gain mailako multzoaren sailkapen teknologikoa.

Tabla 29. Clasificación tecnológica del nivel I-Sup.

9.2. SAILKAPEN TIPOLOGIKOA

10 piezak osatzen dute I-Gain multzoko tresneria ukitua, eta mailako euskarri guztien % 18,87 dira beraz. Bi Noailles zulakaitzek, ijeki eta ijekitxo ukituek eta substratu-tresnek osatzen dute tresneria ukitua (30. taula).

9.2. CLASIFICACIÓN TIPOLÓGICA

El utillaje retocado del conjunto I-Sup está compuesto por 10 efectivos, que suponen un 18,87% del total de los soportes del nivel. El utillaje retocado está compuesto por un par de buriles de Noailles, láminas y laminillas retocadas y utillaje de sustrato (tabla 30).

.../...

MOTA / TIPO	KOP / N	%
Noailles zulakaitza / Buri de Noailles	2	20,00
Ertz batean ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre un borde	1	10,00
Bi ertzetan ukiera jarraitua duen pieza / Pieza de retoque continuo sobre los dos bordes	1	10,00
Pieza ezpaldua / Pieza astillada	1	10,00
Karrakagailua / Raedera	1	10,00
Mozturadun orritxo / Hojita truncada	1	10,00
Bizkardun orritxo / Hojita de dorso	1	10,00
Bestelakoak / Diversos	2	20,00
Tresneria ukitua / Utillaje retocado	10	18,87
Tresneria ez ukitua / Utillaje no retocado	43	81,13
Guztiak batera / Total general	53	100,00

30. taula. I-Gain mailako zerrenda tipologikoa (Sonneville-Bordes eta Perrot, 1954).

Tabla 30. Lista tipológica (Sonneville-Bordes and Perrot, 1954) del nivel I-Sup.

10. AMAIERA

Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeko sekuentziaren gaineko azterketa honek amaiera eman dio aztarnategi honi buruzko azterketari (aurreko sekuentziaren gaineko argitalpenaz eman zitzaion hasiera, Altuna *et al.* 2011). Gainera, barrunbeko sekuentziako mailak kanpoaldeko sekuentzian ageri ez ziren uneekin lotzen dira edo ezaugarritze mailako arazo batzuk ageri zituzten eta, beraz, guztiz ongi osatu du azterketa honek aurrekoa.

Behealdeko mailen gaineko azterketak (VI eta V) beste aukera bat eman digu Kantauri aldeko, Mendebaldeko Pirinioetako eta Frantziako Hego-mendebaldeko Gravette aldiko aztarnategiak hobekiago ezaugarritzeko. Une bati buruzko, hau da, Erdi Gravette aldiari buruzko informazioa eskaini du zehazkiago, eta kontuan hartu beharra dago aztarnategi gutxiak eskaintzen dituztela aldi horren gaineko datazio fidagarriak. Halatan, Aitzbitarte haizuloaren barrunbeko sekuentzian Noailles zulakaitzetan jori ageri den Gravette aldi bateko okupazioak dokumentatu dira 25-23.000 uncalBP daten artean: Erdi Noailles aldiko fase berri baten aurrean geundeke, eta hori oso gutxitan dokumentatu da orain arte Mendebaldeko Pirinioetan.

Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeko sekuentziako goi maileri dagokienez, informazio baliotsua eskaini digute, inolaz ere, osotasun mailako arazoak ere ageri dituzten arren. Barrunbeko IV. mailaren eta sarrerako III. mailaren antzak, adibidez, bidea zabaldu digu multzo hauek Gravette eta Solutre aldiaren arteko trantsizio-une bateko okupazioen emaitzat hartzeko. Beste horrenbestekoa esan genezake II-III. mailari buruz, kontu handiz harturik betiere, lurraldean Solutre aldiaren eta Lehen Madeleine aldiaren artean izan zen trantsizioa aztertzeke datu baliagarriak eskaini liezazkigukeen aldetik.

10. CIERRE

En definitiva este estudio de la secuencia interior de Aitzbitarte III concluye el estudio de este yacimiento, iniciado con la publicación de la secuencia exterior (Altuna *et al.* 2011). Además los niveles de la secuencia interior se corresponden con momentos que no aparecían representados en la secuencia del exterior o mostraban algunos problemas de caracterización, con lo cual complementan perfectamente nuestro estudio previo.

El estudio de los niveles inferiores (VI y V) nos ofrece una nueva oportunidad para caracterizar los conjuntos del Gravetiense en el Cantábrico, los Pirineos occidentales y el SO de Francia. Concretamente aporta información para un momento, el Gravetiense con buriles de Noailles, en que el número de yacimientos que ofrecen dataciones fiables es escaso. De este modo, en la secuencia interior de Aitzbitarte se recogen ocupaciones atribuibles a un Gravetiense rico en buriles de Noailles con fechas entre 25-23.000 uncalBP, que puede representar una fase reciente del "Noailense Medio francés" y que aparece escasamente representado en los Pirineos Occidentales.

Con respecto a los niveles de la parte alta de la secuencia del Interior de Aitzbitarte III, a pesar de que muestran problemas de integridad, también aportan información que tiene su valor. Concretamente el parecido entre el nivel IV interior y el III de la entrada nos permiten valorar estos conjuntos como producto de ocupaciones que posiblemente tuvieron lugar en un momento de transición entre el Gravetiense y el Solutrense. Algo parecido ocurre con el nivel II-III, el cual nos aporta datos que tratados con cautela pueden contribuir al estudio de la problemática del periodo de transición del Solutrense al Magdalenense inicial en la región.

BIBLIOGRAFÍA

- AGUIRRE, M., (1998) Antoliñako Koba (Gautegiz Arteaga). II Campaña de excavaciones. *Arkeoikuska*, 99-102.
- AGUIRRE, M., (2012) Ocupaciones gravetienses de Antoliñako koba: aproximación preliminar a su estratigrafía, cronología e industrias. In De Las Heras, C., Lasheras, J.A., Arrizabalaga, A., & De La Rasilla, M., (eds.), *Pensando el Gravetiense: nuevos datos para la región cantábrica en su contexto peninsular y pirenaico*. 216-228.
- ALTUNA, J., (1985) Aitzbitarte III (Rentería, Guipúzcoa) I Campaña de excavaciones. *Arkeoikuska*:34-36.
- ALTUNA, J., (1992) Dataciones de radiocarbono para el Perigordense Superior del País Vasco. *Munibe (Antropología-Arkeología)* 44, 31-32.
- ALTUNA, J., BALDEÓN, A. & MARIEZKURRENA, K., (1990) *La Cueva de Amalda (Zestoa, País Vasco). Ocupaciones Paleolíticas y Pospaleolíticas*. Fundación José Miguel Barandiarán. San Sebastián.
- ALTUNA, J., MARIEZKURRENA, K., DE LA PEÑA, P., & RÍOS-GARAIZAR, J., (2012) Los niveles gravetienses de la cueva de Aitzbitarte III (Gipuzkoa). Industrias y faunas asociadas. In De Las Heras, C., Lasheras, J.A., Arrizabalaga, A., & De La Rasilla, M., (eds.), *Pensando el Gravetiense: nuevos datos para la región cantábrica en su contexto peninsular y pirenaico*. 184-204.
- ALTUNA, J., MARIEZKURRENA, K., & RÍOS, J., (2011) *Ocupaciones Humanas en Aitzbitarte III (País Vasco) 33.600-18.400 BP (Zona de entrada a la cueva) EKOB Vol. 5*. San Sebastián-Donostia: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- ALTUNA, J. & STRAUS, L.G., (1976) The Solutrean of Altamira: The Artifactual and Faunal Evidence. *Zephyrus*, 26/27, 175-182.
- ÁLVAREZ FERNÁNDEZ, E., (2007) La explotación de los moluscos marinos en la Cornisa Cantábrica durante el Gravetiense: primeros datos de los niveles E y F de La Garma A (Omoño, Cantabria). *Zephyrus*, 60: 43-58.
- ARANGUREN, B. & REVERDIN, A., (2001) Interprétation fonctionnelle d'un site gravettien à burin de Noailles. *L'Anthropologie*, 105, 533-545.
- ARRIZABALAGA, A., (1994) Individualización morfológica de los buriles gravetienses. El «Noailense» de Bolinkoba (Abadiño, Bizkaia). *Munibe (Antropología-Arkeología)*, 46, 33-51.
- ARRIZABALAGA, A. & DE LA PEÑA, P., (2012) El registro de la industria lítica como base para una organización del Gravetiense cantábrico. In De Las Heras, C., Lasheras, J.A., Arrizabalaga, A., & De La Rasilla, M., (eds.), *Pensando el Gravetiense: nuevos datos para la región cantábrica en su contexto peninsular y pirenaico*. 347-368.
- ARRIZABALAGA, A., & IRIARTE, M.J., (2010) El Gravetiense en la encrucijada. Actualización de la información y propuesta de relectura para el caso vasco. *Cuaternario y Arqueología. Homenaje a Francisco Giles Pacheco*. Cádiz. 133-145.
- ARRIZABALAGA, A., & IRIARTE, M.J., (2011) Lower and Upper Palaeolithic settlements in Irikaitz (Zestoa, Basque Country, Spain). Deconstruction of a Pleistocene archaeological site in the Eastern Cantabrian range. *Revista Cuaternario y Geomorfología*, 25 (1-2), 105-119.
- ARRIZABALAGA, A., CALVO, A., ELORRIETA, I., TAPIA J., & TARRIÑO, A. (2014a) Where to and what for? Mobility Patterns and the Management of Lithic Resources by Gravettian Hunter-Gatherers in the Western Pyrenees. *Journal of Anthropological Research*, vol. 70.
- ARRIZABALAGA, A., RÍOS-GARAIZAR, J. & ÁLVAREZ-ALONSO, D., (2014b) The past is out there: Open-air Palaeolithic sites and new research strategies in the Cantabrian region (northern Iberia). *Quaternary International*.
- AURA, J.E., TIFFAGOM, M., JORDÁ, J. F., DUARTE, E., FERNÁNDEZ DE LA VEGA, J., SANTAMARIA, D., DE LA RASILLA, M., VADILLO, M. & PEREZ, M., (2012) The Solutrean-Magdalenian transition: A view from Iberia. *Quaternary International* 272-273, 75-87.
- BARANDIARÁN, I., (1967) *El Paleomesolítico del Pirineo Occidental: bases para una sistematización tipológica del instrumental óseo paleolítico*. Monografías arqueológicas Universidad de Zaragoza, 3. Seminario de Prehistoria y Protohistoria, Facultad de Filosofía y Letras. Zaragoza.
- BARANDIARÁN, I., (1980) Auriñaciense y Perigordense en el País Vasco: Estado Actual. *Munibe (Antropología-Arkeología)*, 3-4, 325-333.
- BARANDIARÁN, I., CAVA, A., & AGIRRE, M., (2013) El taller de sílex de Mugarduia sur: una ocupación de Urbasa (Navarra) durante el Gravetiense. *Anejos de Veleia*, vol 13. Universidad del País Vasco.
- BARANDIARÁN, I., & CAVA, A. (2001) El Paleolítico superior de la cueva de Zatoya (Navarra): actualización de los datos en 1997. *Trabajos de Arqueología navarra*, 8. 5-99.
- BARANDIARÁN, I., & CAVA, A., (2008) Identificaciones del Gravetiense en las estribaciones occidentales del Pirineo: modelos de ocupación y uso. *Trabajos de Prehistoria*, 65, N.º 1, 13-28.
- BARCELÓ, J.A., (2007) *Arqueología y estadística. Vol. I. Introducción al estudio de la variabilidad de las evidencias arqueológicas*. Bellaterra, Universitat Autònoma de Barcelona.
- BORDES, J-G., LENOBLE, A., (2002): La "lamelle Caminade": un nouvel outil lithique aurignacien. *Bulletin de la Société préhistorique française*, 99, N 4, 735-749.

- BOSELIN, B. & DJINDJIAN, F., (1994) La Chronologie du Gravettien Français. *Préhistoire Européenne*, 6, 77-115.
- BOSELIN, B. & DJINDJIAN, F., (1999) Une révision de la séquence de la Riera (Asturies) et la question du Badegoulien cantabrique. *Bulletin de la Société Préhistorique Française*, 96 (2) 153-173.
- BRADTMÖLLER, M., (2012) Knapping spots and palimpsests. New aspects from Amalda, Level V. In De Las Heras, C., Lasheras, J.A., Arrizabalaga, A., & De La Rasilla, M., (eds.), *Pensando el Gravetiense: nuevos datos para la región cantábrica en su contexto peninsular y pirenaico*, 401-415.
- BRADTMÖLLER, M., (2014) Höhlenlager des Gravettien. Muster jungpaläolithischer Höhlennutzung am Beispiel des Gravettien Nordspansiens. Kovac, Dr.Verlag.
- BROCHIER, J.E. (2008) Plus c'est long, plus c'est large... mais encore? Sur quelques caractères métriques des lames de plein débitage. In Brochier, J. É., Guilcher, A. & Pagni, M. (eds.) *Mélanges offerts à Gaétan Congès et Gérard Sauzade, Archéologies de Provence et d'ailleurs, supplément n°5 au Bulletin Archéologique de Provence*, 75-86.
- BRONK RAMSEY, C., (2009) Bayesian analysis of radiocarbon dates. *Radiocarbon* 51 N° 1, 337-360.
- CABRERA, V., (1977) El yacimiento solutrense de Cueva Chufín (Riclones, Santander). *Actas del XIV Congreso de Arqueología Peninsular, Zaragoza*. 157-164.
- CALVO, A., TAPIA, J., ARRIZABALAGA, A. & IRIARTE, M.J., (2012) El yacimiento de Ametzagaina (Donostia, País Vasco). Un campamento gravetiense al aire libre en el Cantábrico. In De Las Heras, C., Lasheras, J.A., Arrizabalaga, A., & De La Rasilla, M., (eds.), *Pensando el Gravetiense: nuevos datos para la región cantábrica en su contexto peninsular y pirenaico*. 229-240.
- CAVA, A., ELORRIETA, I., & BARANDIARÁN, I., (2009) El Gravetiense de la cueva de Alkerdi (Urdax, Navarra): análisis y contexto de su industria lítica. *Munibe (Antropología-Arkeologia)*, 60, 51-80.
- CHAUVIN, A., (2012) *Tecnología lítica de los cazadores-recolectores del final del Pleistoceno. La producción y transformación de los soportes en La Gama A (Cantabria, España) entre ca. 15.000 y 12.000 cal BC*. BAR International Series, Archaeopress. Oxford.
- CORCHÓN, M. S., (1990) La cueva de Las Caldas (Priorio, Oviedo). Investigaciones efectuadas entre 1980 y 1986. *Excavaciones Arqueológicas en Asturias 1980-1986*, 37-53.
- CORCHÓN, M. S., (1999) Solutrense y Magdaleniense del oeste de la Cornisa Cantábrica: dataciones 14C (calibradas) y marco cronológico. *Zephyrus*, 52. 3-32.
- CRISTIANI, E., LEMORINI, C. & DALMERI, G. (2012) Ground stone tool production and use in the Late Upper Palaeolithic: The evidence from Riparo Dalmeri (Venetian Prealps, Italy). *Journal of Field Archaeology*, 3, N° 1, 34-50.
- DE LA PEÑA, P., (2009) *Propuesta experimental sobre piezas astilladas: El ejemplo de la talla bipolar*. Póster.
- DE LA PEÑA, P., (2011a) *Sobre la unidad tecnológica del Gravetiense en la Península Ibérica: Implicaciones para el conocimiento del Paleolítico Superior Inicial*. [Universidad Complutense de Madrid]
- DE LA PEÑA, P., (2011b) Sobre la identificación macroscópica de las piezas astilladas: propuesta experimental. *Trabajos de Prehistoria*, 68, N.º 1, 79-98.
- DE LA RASILLA, M., (1996) El Solutrense y Magdaleniense en la Región Cantábrica. *Gallaecia*, 14/15, 103-111.
En este momento solo dejamos entrever, aparte de las áreas espaciales en que se puede descubrir cierta sintonía o relación entre objetos, que los restos de puntas-azagayas nos refieren unas determinadas actividades cinegéticas; que los restos técnicos nos proporcionan información sobre actividades de fabricación de utillaje en hueso o asta; que determinado conjunto de útiles comunes (punzones, alisadores) nos hablan de una serie de actividades de tipo doméstico relacionadas con el trabajo en las pieles fundamentalmente; que las puntas de tipo lzturitz manifiestan una muy interesante conexión espacial con las costillas con rayas encontradas en el yacimiento y refuerzan un marcado paralelismo con otros yacimientos y una clarificadora pertenencia cultural y cronológica; y que, finalmente, los objetos de adorno, básicamente colgantes, también presentan un área relativamente homogénea de agrupación y nos sugieren algún tipo de actividades domésticas, relaciones sociales y de reconocimiento personal, sin prescindir de un sistema de ocupación y presencia en el territorio abierto a influencias e intercambios.



El conjunto de la industria ósea, *lato sensu*, contribuye, en su medida, junto al resto de factores de investigación (líticos, faunísticos, sedimentológicos, palinológicos, arqueopetrologicos) a acercarnos al conocimiento de la realidad funcional en la que se movían los moradores de Aitzbitarte III en el período crono-cultural del Gravetiense cantábrico y que nos sugiere una serie diferenciada de actividades, aunque el número de restos hallados nos obligue a ser cautos y a relativizar alguna de las informaciones.


I.7. MATERIA PRIMA DEL SOPORTE DEL UTILLAJE ESTUDIADO

Presentamos, en la tabla (Tabla 3) y en el gráfico circular sectorial (Gráfico 3), el número y el porcentaje de la materia prima empleada como soporte de las diferentes piezas del utillaje de la industria ósea de Aitzbitarte III (zona interior).





4. plano. / Plano 4.

-  Izturitze motako Punten aurkikuntzen banaketa. Distribución de hallazgos de Punta de Izturitz.
-  Saihets marraduna. Costilla con rayas.




5. plano. / Plano 5.

-  Zulatutako zintzilikarioen aurkikuntzen banaketa. Distribución de hallazgos de Colgantes perforados.
-  Ustezko Zintzilikarioa. Posibles Colgantes.

Lehengaia Materia Prima	Objektu Kopurua Número De Objetos	Portzentajea Porcentaje	Fauna Fauna
Hezurra / Hueso	6	22%	Cervus/Behiaren familiakoa Cervus/Bóvido
Adarra / Cuerno	15	56%	Cervus
Hortza / Diente	5	19%	Cervus/Vulpes
Harria / Lítico	1	3%	

3. taula.VI. mailan aztertutako tresneriarako euskarriaren lehengaia.

Tabla 3. Materia prima del soporte del utillaje estudiado en el nivel.VI.



3. grafikoa.VI. mailan aztertutako tresneriarako euskarriaren lehengai.

Gráfico 3. Materia prima del soporte del utillaje estudiado en el nivel VI.

Adarrean landutako tresnak dira ugari, baita portzenta-jean ere; gehienak oreinaren familiako animalien adarrean landuak dira. Punta-azagaia guztiak, lzturitze motako punta guztiak, gutxi landutako piezak (matrizea, mihia) eta leuntzaile bat eta uestezko beste zintzilikario bat adarrean landuak dira.

Hezurrean landuak dira batez ere saihs marradunak, zizel-ziriarena egiteko femur-zatia eta hezur-printza/eztena; horiek ere ez dira gutxi. Oreinaren eta behiaren familiako animalienak dira diafisi horien hezurrak.

Era berean, esanguratsua da *Cervus* eta *Vulpes* espezieen letaginen presentzia, halakoxeak dira apaingarri guztiak, hots, zintzilikario gisa erabilitako edo erabiltzeko prest zeuden hortzak.

Azkenik, harrizko elementu bat, silizeoduna, aintzat hartu dugu multzo honetan, dauzkan ezaugarriengatik zintzilikario gisa erabil zitekeelako edo elementu deigarri gisa.

El número y porcentaje mayor corresponde a los útiles realizados sobre cuerno, genéricamente de cévido. La totalidad de las puntas-azagayas, puntas de Isturitz, piezas poco elaboradas (matriz, lengüeta) y un alisador y otro posible colgante están realizados sobre ese soporte.

Sobre hueso, fundamentalmente las costillas con rayas, el fragmento de fémur para el cincel-cuña, y la esquirla-punzón, también hay una parte relativamente numerosa. La materia ósea de estas diáfisis provienen de ciervo y bódido.

También es significativa la presencia de dientes, caninos de *Cervus* y *Vulpes*, que copan prácticamente el conjunto de adornos como colgantes perforados o en disposición de serlo.

Finalmente un elemento lítico, silíceo, que también incluimos, por sus características, como potencial colgante o como elemento llamativo aportado.

I.8. GRAVETTE ALDIKO MAILEN KRONOLOGIA HEZURREZKO INDUSTRIAREN ARABERA

Kronologiaren gaiari buruzko errepikapenak saihs alde, eta C14 bidezko analisisen bidez lortutako kronologia absolutuari dagokionez, liburuki honetan bertan harrizko industriari sarrera egiten dioten kapituluetan eta azterketan jada eskaintako informazioa aintzat hartuko dugu, bertan agertzen dira lortutako datu guztiekin osatutako taulak (Altuna, Ríos-Garaizar, San Emeterio, liburuki honetan), eta bertan adierazten da V. eta VI. mailen emandako datekin, maila horiek gazteago bihurtzen duten datekin bat ez datorren iruzkinen bat material arkeologikoei eta egitura organikoari dagokienez; izan ere, material horiek emaitza analitikoek eskaintzen dutena baino lehenagoko fase batekoak direla iradokitzen dute, betiere Gravette aldiaren baina.

Estratigrafia arkeologikotik eta landutako hezurrezko aurkituzten tipologiatik eta beren testuingurutik eratorritako kronologia erlatiboari dagokionez, VI. maila argi eta garbi sailkatzen da Gravette kultura-aldi aztarnategi batean, Noailles zulakaitzak baititu eta zulakaitz horiek "adierazgarriak" direlako harrizko industriari dagokionez. Eta horri lzturitze motako hiru puntaren eta erabilitako bi saihs marradunen presentzia oso esanguratsua gehitzen badiogu –kontuan izan hezurrezko industriari "adierazgarri" gisa identifikatzen diren elementu mor-

I.8. CRONOLOGÍA DE LOS NIVELES GRAVETIENSES EN RELACIÓN A LA INDUSTRIA ÓSEA

Para no caer en reiteraciones sobre el tema cronológico, en lo que se refiere a la cronología absoluta a partir de los análisis de C14, nos remitiremos a la información ya proporcionada en este mismo volumen en los capítulos de introducción y estudio de las industrias líticas, donde aparecen tablas con todos los datos obtenidos (Altuna, Ríos-Garaizar, San Emeterio, en este volumen) y donde se comenta algún resultado discordante y el rejuvenecimiento de fechas para los niveles V y VI en relación a los materiales arqueológicos y la estructura orgánica del yacimiento que sugieren su pertenencia a una fase más antigua del Gravetiense que la que proporcionan los resultados analíticos.

En lo que respecta a la cronología relativa, derivada de la estratigrafía arqueológica y de la tipología de los hallazgos óseos trabajados y su contexto, el nivel VI manifiesta una clara pertenencia a un yacimiento gravetiense con buriles de Noailles, como claros "marcadores" de identificación en lo que respecta a la industria lítica. Si a esta constatación añadimos la presencia muy significativa de tres puntas de tipo Isturitz y dos costillas utilizadas con rayas, elementos morfo-tipológicos característicos que se señalan claramente identificables como

fo-tipologikoak direla horiek, eta Pirinio eta Kantauri aldeko beste aztarnategi batzuekin partekatutako Gravette kultura-aldiko funtsari dagokiola (San Juan-Foucher, C. 2013)– argi eta garbi ikusten dugu emaitza, eta prest gaude maila horri –V. eta VI. mailak kultur unitate bakartzat hartuak baitira– Gravette kultura-aldiko izaera, Erdi edo Antzin Gravette aldikoa, inolako zalantzarik gabe emateko.

Hezurrezko industria osatzen duten beste objektu arruntak, dekoratuak batzuk eta apaingarriak bestetzuk, indusketa-lanetan landuak eta honez gero azalduak, aldi jakin batean kokatzeko behin betiko izaera ez duten arren, ez dira bateraezinak hizpide dugun etaparekin, izan ere, guztiz bateragarriak dira aipatutako kultura- eta funtzio-testuinguru horrekin.

I.9. AURKIKUNTZEI ETA BEREN SAKONERA MAILA-BURUZKO GOGOETAK

Hezurrezko industriaren multzoaren ikuspegi orokorrari emandako lehenengo atal honi eta bilduma hori osatzen duten piezen banakako deskribapenari amaiera emateko, materialak agertu ziren sakonera-mailari eta maila horietan materialek elkarren artean dituzten loturei buruzko gogoeta bat egitea baizik ez zaigu falta.

Jakinik geruza arkeologikoetan pausatutako sedimentuek, arrazoi geologikoak edo antropikoak direla-eta, ez dutela beti lodiera uniforme bat, jakinik jakin horiek lodiera aldatzen duten faktoreen mende izaten direla, lodiagoak direla batzuetan eta meheagoak bestetzetan, errealitate hori islatu nahi izan dugu geure azterlanaren xede diren objektuei leku egin dieten laukietan.

Grafiko batean (4. grafikoa) islatu ditugu piezak berreskuratu ziren sakonera-maila desberdinak, elementuak aurkitu ziren laukiak, mailak eta azalak adierazirik. Eta beste grafiko batean (5. grafikoa) pieza gehienak aurkitu ziren sakonera-mailaren banda nagusia azaldu dugu, betiere kontuan izanik azalak eta mailak ez direla lauki guztietan uniformetasun eta lodiera berekoak beti.

Aztertutako datuen argitara ikusten dugu soilik bi pieza ageri direla 129-139 cm bitarteko lehen tartean, femur-zatiaren diafisia (Zizela-Ziria/Ukigailua) eta hezur-printza (Zizela-Ziria/Karrakagailua). Bi pieza horiek halako bizitegiko jardura bat salatuko lukete beste tresna batzuk lortzeko, lantzeko, ukitzeko edo birbizitzeko. Aitzitik, deigarria da Ait.III.59L.129.3 tresna (2. Marrazki-orria, 7. irudia) 15. azalean eta VI. mailaren sakonera apalenean agertu izana. Era berean, harrigarria da beste pieza, Ait.III.60P.135 (1. Marrazki-orria, 12. irudia) IV. mailako 6. azalean aurkitu izana. Lehendik ere aipatu dugu zirkunstantzia hori, eta agian aintzat hartu beharko litzateke argitalpen honen aurreko kapituluetan adierazten zena gai honi dagokionez (Altuna, Ríos-Garaizar, San Emeterio, liburuki honetan): lodiera apala, ekintza antropikoak bertan egokitutako lauzatxoek bidez nahasitako maila, azal bakarra (6.a) induskatzeko metodo arkeologikoan, V. mailaren gainazalarekiko berehalako ukiera. Horrek guztiak eramaten gaitu V. mailari hobe egokitzen zaion testuingurutik iritsia dela pentsatzera, hau da, Gravette aldian kokatzera, hezurrezko industriaren gainerakoak bezala. V. mailako hezurrezko pieza bakarra litzateke.

“marcadores”, en la industria ósea, de un fondo cultural grave-tiense pirenaico compartido con otros yacimientos en la región cantábrica (San Juan-Foucher, C. 2013), estaríamos validados para asignar a este nivel, dado que el V y VI se consideran una unidad cultural, un carácter indudablemente Gravetiense, cercano al período medio o antiguo.

Los otros objetos de la industria ósea común, decorada y de adornos, obtenidos en la excavación y de los que ya se ha dado razón, aunque no tengan el carácter definitorio y significativo de un período determinado, no suponen en absoluto elementos de discordancia con la etapa a la que nos referimos, sino que son perfectamente compatibles con ese contexto cultural y funcional.

I.9. CONSIDERACIONES SOBRE LOS HALLAZGOS Y SU PROFUNDIDAD

Para terminar esta primera parte dedicada a una visión general del conjunto de la industria ósea, así como del análisis descriptivo e individualizado de las piezas que lo integran, solo nos quedaría hacer una consideración sobre las profundidades en las que aparecen los materiales y la conexión de estos en sus niveles.

Sabiendo que los sedimentos depositados en los estratos arqueológicos, por circunstancias geológicas o antrópicas, no tienen siempre un espesor uniforme sino que se ven sometidos a factores diversos que alteran el grosor, reduciéndolo o aumentándolo, queremos reflejar esa realidad en los cuadros que afectan a los materiales objeto de nuestro estudio.

Reflejaremos en un gráfico (Gráfico 4) las diferentes profundidades a las que han sido recuperadas las piezas con notaciones sobre los cuadros, así como de los niveles y lechos en los que han sido ubicados. Y consignaremos en otro gráfico (Gráfico 5) la banda principal de las profundidades en la que han aparecido la mayoría de las piezas, siempre teniendo en cuenta la salvedad de que lechos y niveles no tienen la misma uniformidad y espesor en todos los cuadros.

A la vista de los datos observados, vemos que dos piezas únicamente pertenecen al primer tramo entre 129-139 cm, las correspondientes al fragmento, diáfisis, de fémur (Cincel-Cuña/Retocador) y a la esquirola de hueso (Cincel-Cuña/Raeder). Ambas piezas denotarían una cierta actividad doméstica en la obtención, elaboración, retocado o reavivado de otros útiles. Llama, sin embargo, la atención que el útil Ait.III.59L.129.3 (Lámina Dibujo 2, fig. 7) pertenezca al lecho 15 y, sin embargo, ocupe la menor profundidad del nivel VI. Asimismo, encontramos un tanto extraño que la otra pieza, Ait.III.60P.135 (Lámina Dibujo 1, fig. 12), haya sido recuperada en el lecho 6 del nivel IV. Ya habíamos mencionado esta circunstancia y quizá habría que tener en cuenta lo que se señala en capítulos anteriores de esta publicación (Altuna, Ríos-Garaizar, San Emeterio, este volumen) respecto a este nivel: escasa potencia, alteración del nivel por acción antrópica en relación a la capa de plaquetas dispuesta, un solo lecho (6) en el método arqueológico de excavación, contacto inmediato con la superficie del nivel V. Todo ello nos permite pensar en la posibilidad de una procedencia más acorde al contexto del nivel V, perteneciente al Gravetiense como el resto de la industria ósea. Sería la única pieza ósea del nivel V.

Arestian adierazitako salbuespena alde batera utzi eta Noailles zulakaitzak ugari direlako Gravette aldiaren kokatutako V. maila horrek ez du hezurrezko industriaren elementu bakar bat ere. Horrexek azaltzen du grafikoan jada VI. mailari dagokion hurrengo tartearen hasierara arte ikusten den hutsunea.

Hurrengo tartea (140-150 cm), VI. mailaren lodieraren zatia modu konbentzionalen zatitu baitugu, hezurrezko industriari dagokion tresnen kontzentrazio handia eskaintzen digu, betiere lehen ere aipatu dugun hein bateko eskasiaren barruan; guztira 16 pieza, piezen guztizkoaren % 76. Multzo horretan proportzio handia hartzen duite pieza interesgarriak,


El nivel V, asignado al Gravetiense por la abundancia de buriles de Noailles, salvo la posible excepción señalada inmediatamente antes, no contiene ningún elemento de industria ósea. Eso explicaría el vacío que se observa en el gráfico hasta el inicio del siguiente tramo, ya perteneciente al nivel VI.

El siguiente tramo (140-150 cm), en el que hemos dividido convencionalmente parte de la potencia del nivel VI, nos depara una enorme concentración de útiles de industria ósea, dentro de la ya aludida relativa escasez, 16 piezas, el 76% del total. El conjunto revela una notable proporción de piezas de interés y de una diversidad funcional considerable en la ocupación de ese nivel. No son muchas, pero sí significativas. Empe-

126															
127															
128			VI L15												
129															
130															
131															
132															
133															
134										IV L6					
135															
136															
137															
138															
139	VI L9														
140										VIL16					
141				VI L11											
142						VI L10						VI L9			
143		VI L10			VI L12		VI L17b								
144															
145								VI L14						VI L10	
146					VI L13				VI L11						
147										¿?					
148														VI L12	
149									VI L12		VI L7		VI L14		
150												VI L13			
151															
152															
153															
154															
155														VI L15	
156															
157															
158															
159														VIL17b	
160															
161															
162															
	59K	58L	59L	59M	58N	61N	58O	60O	62O	58P	60P	61P	63P	61Q	

4. grafikoa. Piezen kokalekuak beren sakonera-mailetan, azalak eta mailak adierazirik.

Gráfico 4. Ubicación de las piezas en sus profundidades con referencia a lechos y niveles.



maila horren okupazioan askotariko funtzioak garatzen zirela uzten dute agerian. Ez dira asko, bai ordea oso esanguratsuak. Bi hondakin tekniko aipatuko ditugu lehenik (adarrean landutako matrizea, prestakin-ildaxkarekin, Ait.III.60P.150.2, eta hondakin-mihia, Ait.III.58N.144) (1. Marrazki-orria, 11. eta 13. irudiak). Bi pieza horiek bizitokiko jarduera bat salatzen dute haitzuloan, oreinaren familiako animalien adarretan tresnak landuko zituzten. *In situ* bideratzen zituzten jarduera horien "egoneko" izaera sendotu egiten du larruak, jantziak eta landare-zuntzak lantzeko beste tresna batzuen presentziak, agian aldi baterako edo sasoiko egonaldia gainditzen duen egonaldia salatu baitezakete pieza horiek. Bi leuntzaile-espataluz ari gara, haietako bat aurkitu gabea, nahiz eta siglak salatzen duenez (Ait.III.58P.148) inoiz aurkitua izan zen; bestea pieza ohikoa da, ongi landua (Ait.III.58O.144.236) (1. Marrazki-orria, 7. irudia). Beste horrenbeste esan genezake funtzio bikoitzaren aukera eman diogun beste objektuetako bati buruz: punta-azagaia-urren urrunaldeko zati zanpatua edo ekonomia-eztena (Ait.II.59M.142) (1. Marrazki-orria, 6. irudia). Hezurrezko euskarrian landua denez eta hauskorra denez, guk uste dugu eztena dela, eztenak ere bizitokiko ekonomiari lotutako jardueretan erabiltzen baitzituzten.

Jaurtigaien motakoak dira tarte horretan aurkitutako beste tresna batzuk. Tresna horiek aberastu egiten dute Gravette aldiko biztanleen panorama funtzionala, agerian uzten baitute ehizarekin loturiko zereginak bideratzen zituztela. Horixe berretsi lezakete bi alakak edo punta-azagaia-urren hurbilaldeko zatiek. Biak dira alaka bakarrekoak, arrakala zeharra dute soilik alde batean, eta batek giderra hobe finkatzeko ildaxka teknikoak agerian edo ongi markatuta baditu ere (Ait. III.59K.140.29) (1. Marrazki-orria, 9. irudia), erabat laua da bestea (Ait.III.58L.144.31) (1. Marrazki-orria, 10. irudia).

Ondorio eta garrantzi handiko aurkikuntza da, egiazki berezia delako, Izturitze motako puntun hurbilaldeko bi zatiri dagokiena. Bi pieza horiek nabarmen aberasten dute forma eta tipologia horretako tresnen presentzia Kantauri aldean, eta zentzu horretan, oraingoz bederen, Kantauri aldeko Pirinioen hegoaldeko isurialdeko aztarnategi garrantzitsuen bihurtzen dute Aitzbitarte III haitzuloko aztarnategia; izan ere, Izturitze motako hiru puntaren aztarnak bereizi dira bertan, eta halakoak Gravette aldiaren benetako adierazgarritzat hartuak dira. Hala eta guztiz ere, oso gogoan dugu Atlantiko aldeko Pirinioetako eta erdi Pirinioetako aztarnategi aberatsen aldean (Izturitze, Gargas eta beste batzuk) gure ondarea oso eskasa dela. Bi zatietan –batak hautsita ditu bi muturrak (Ait. III.60Ø.146) (2. Marrazki-orria, 3. irudia) eta besteak hurbil-

zaremos señalando dos restos técnicos (matriz en cuerno con surco en preparación, Ait.III.60P.150.2, y lengüeta de desecho, Ait.III.58N.144) (Lámina Dibujo 1, fig. 11 y 13) productos que reflejan una actividad doméstica en la cueva encaminada a la fabricación y elaboración de útiles de asta de cérvido. El carácter "sedentario" de estas actividades *in situ* también se ven, en cierto modo, reforzadas por la presencia de otros útiles asociados al trabajo con las pieles, vestimenta y fibras vegetales, que suponen un grado de permanencia que quizá vaya más allá de la estancia temporal o estacional o compatibles con ellas. Nos referimos a dos alisadores-espátulas, uno de ellos no hallado, pero del que hay constancia al proporcionársele una sigla Ait.III.58P.148; el otro es un ejemplar muy característico y bien realizado (Ait.III.58O.144.236) (Lámina Dibujo 1, fig. 7). En el mismo sentido puede considerarse otro de los objetos al que hemos atribuido una doble posibilidad de función: fragmento distal de punta-azagaya aplanada o punzón de economía (Ait.III.59M.142) (Lámina Dibujo 1, fig. 6). El hecho de que esté realizado sobre soporte de hueso, dada su fragilidad, nos inclina más por la segunda opción, la de punzón, útil que integra también actividades de economía doméstica.

Otro grupo de útiles hallados en este tramo pertenecería al tipo de los proyectiles, que enriquecería el panorama funcional de los ocupantes gravetienses con actividades de carácter cinegético y tareas de caza. Dos biseles o fragmentos proximales de punta-azagaya podrían confirmarlo. Ambos son monobiseles, con hendidura oblicua en un solo lado, pero mientras uno tiene bien visibles y marcadas las estrías técnicas facilitadoras de la fijación del enmague (Ait.III.59K.140.29) (Lámina Dibujo 1, fig.9), el otro es liso (Ait.III.58L.144.31) (Lámina Dibujo 1, fig. 10).

Como hallazgo de gran repercusión e importancia, por su carácter excepcional, es la aparición de dos fragmentos proximales de puntas de tipo Izturitz, que vienen a engrosar de forma notable la presencia de este morfo-tipo en la región cantábrica, convirtiendo, en este aspecto y por el momento, el yacimiento de Aitzbitarte III en el más importante al otro lado del Pirineo, en su vertiente sur; a lo largo de la cornisa cantábrica, reuniendo vestigios de tres puntas Izturitzenses, consideradas verdaderos tipos directores del período Gravetiense, pero teniendo muy en cuenta lo exiguo de nuestro bagaje en relación a los ricos yacimientos pirenaicos atlánticos y centrales (Izturitz, Gargas y otros). Ambos fragmentos, uno roto por los dos extremos (Ait.III.60Ø.146) (Lámina Dibujo 2, fig. 3) y el otro conservando el extremo apuntado de la zona proximal (Ait.III.62Ø.148.139) (Lámina Dibujo 2, fig. 2), tienen bien re-

deko mutur zorrotza kontserbatu du (Ait.III.62Ø.148.139) (2. Marrazki-orria, 2. irudia)— ongi asko bereizten dira ohiko marra zehiarrak, etenak eta ebakiak, hurbilaldekotzat hartutako muturra inguratuz. Elkarren ondoan zeudela azaldu ziren (O banda 60. eta 62. laukietan), eta ia sakonera-maila berean (146 eta 148 cm). Punta edo azagaia deitu arren, oraindik zalantza batzuk eragiten ditu tresna horien jaurtigai-izaerak; nolana ere den, segur asko ehizarekin lotuta egongo den ekintza edo zeregin jakin bat sendotzen dute.

140 eta 150 cm bitarteko tarte horretan ere garai batean erabilitako saihesten zati bat azaldu zen, marra paraleloak eta zehiarrak dauzka (Ait.III.62Ø.147) (2. Marrazki-orria, 6. irudia). Apaintzeko motibo bakun eta geometrikoren bat izan dezakeen hezurra izateaz gain, oso interesgarria da lzturitze motako puntekin izan dezakeen lotura (lauki eta sakonera-maila berean azaldu ziren), izan ere, lehen ere esan dugun bezala, Gravette aldia salatzen duten elementutzat hartuak dira bi piezak. Maila txikian bada ere, Aitzbitarte III haitzuloak elementu horiek lituzke beste hezurrezko industriaren multzoan, nahiz eta oraindik beste elementu adierazgarri batzuk falta diren.

Azkenik, norbera apaintzeko elementuen multzo garrantzitsu bat dugu aipagarri: *Cervus elaphus* eta *Vulpes vulpes* espezieen lau letagin zulatuez ari gara, zintzilario gisa erabiliko zituzten letagin zulatuez. Hiru oreinaren letagin atrofikoak dira (Ait.III.58N.145.22; Ait.III.58P.141 eta Ait.III.61Q.149.67) (3. Marrazki-orria, 2., 3. eta 1. irudiak) eta bestea azeriaren beheko letagina da (Ait.III.61N.143.81) (3. Marrazki-orria, 4. irudia). Argi eta garbi apaingarrizat dauzkagun pieza horiei, zalantza zalantza ustez kategoria honetan bil genitzakeen beste hiru elementu gehitu behar dizkiegu. Hasteko, *Vulpes* espezieko animalia baten goiko letagin bat dugu (Ait.III.61Q.146.72) (3. Marrazki-orria, 5. irudia), ez dugu ekintza antropikorik edo manipulatu izan delako arrastorik hautematen hartan, baina baliteke zulo bat egiteko eta zintzilario gisa erabiltzeko xedearekin bildu edo kontserbatu izana. Aukera eta iritzi hori sendotu baizik ez du egiten pieza hori azeriaren beste letagin zulatua azaldu zen lauki berean eta ia sakonera-maila berean topatu izanak. Lehen ere esan dugu arkeologiaren esparruan onartua dagoela maskor jakin batzuen (*Littorina obtusata*, *Dentalium*, *Trivia*, *Nassa*) presentzia edo bilketa hutsa ustezko elementu apaingarrizat hartzea, halakoak sarritan ageri baitira zintzilarioak, eskumuturrekoak edo besokoak osatzeko zulatuta. Beste horrenbeste esan liteke tarte horretan aurkitutako beste objektu baten inguruan; barratxo, zutabetxo edo silize-harrizko "giltzurrun" batez ari gara, apur bat kurbatua da, hautsita dago goiko aldean, eta hortz baten sustraia gogorarazten du (Ait.III.63P.150.2) (3. Marrazki-orria, 7. irudia). Haustura oztopo da zintzilikatua izateko zulo edo hozkadurarik hautemateko piezan, baina baliteke zintzilario gisa erabili izana. Beren ezauzgarriengatik arreta eta interesa pizten duenez, historiaurreko gizakiak biltzen eta kontserbatzen zituen objektu naturalen kategorian sailkatuko litzateke. Ez da harritzekoa jatorri aloktonoko fosil mota desberdinak aurkitzea geruza arkeologikotan, ez da harritzekoa halakoetan arroka-kristalak, drusak eta beste mineral batzuk agertzea, geuk suposatuz genitzakeen edo ihes egiten diguten arrazoiak direla-eta garai hartako gizakien jakin-mina asetzeko bilduak izan zirenak. Ustezko zintzilario hau 14. azalean azaldu zen, VI. mailako Erdiko tartearen muturrean. Bukatzeko, beste elementu bat aipatu behar dugu multzo honetan, landutako adar-zati bat, ongi ebakia bere luzeran eta ongi marruskatua eta leundua beheko muturrean (Ait.III.61P.143.109) (3. Marrazki-orria, 6. irudia); hautsita du goiko zatia. Kasu honetan ere haustura oztopo da piezan zintzilikatua izateko zulo edo estugune bat landu izanaren arrastoak hau-

conocibles las características líneas transversales, discontinuas e incisas que rodean su extremo considerado proximal. Han sido encontrados bastante próximos (cuadros 60 y 62 de la banda O) y a una profundidad casi idéntica (146 y 148 cm). Su presencia, aunque su carácter de proyectil todavía suscita ciertas dudas a pesar de su denominación como puntas o azagayas, vendría a acentuar una determinada acción o función relacionada previsiblemente con lo cinegético.

Un fragmento de costilla utilizada con rayas paralelas, oblicuas, también se ha encontrado en este tramo convencionalmente situado entre los 140 y 150 cm (Ait.III.62Ø.147) (Lámina Dibujo 2, fig. 6). Aparte de su posible condición de hueso con algún tipo de motivo decorativo simple y geométrico, resulta interesante su conexión (mismo cuadro y misma profundidad) con las puntas de Isturitz, toda vez que, como ya hemos citado, ambas piezas son consideradas elementos identificadores del Gravetiense. A pequeña escala, Aitzbitarte III tendría, en su conjunto de industria ósea, esos elementos, aunque faltaran, a día de hoy, otros también referenciales.

Finalmente, hay que señalar un notable conjunto de elementos de adorno personal, concretados en cuatro colgantes por perforación en dientes caninos de *Cervus elaphus* y *Vulpes vulpes*. Tres son de caninos atroficos de ciervo (Ait.III.58N.145.22; Ait.III.58P.141 y Ait.III.61Q.149.67) (Lámina Dibujo 3, fig. 2, 3 y 1) y el otro de canino inferior de zorro (Ait.III.61N.143.81) (Lámina Dibujo 3, fig. 4). A este grupo, perfectamente definido como objetos de adorno, añadimos, con las cautelas necesarias, otros tres elementos a los que podríamos incluir como presunta o potencialmente en esta categoría. Hablamos de un diente canino superior de *Vulpes* (Ait.III.61Q.146.72) (Lámina Dibujo 3, fig. 5) al que no se aprecia ninguna acción antrópica o vestigio de manipulación, pero que bien podría haber sido recogido o conservado para realizar en él una perforación y usarlo como colgante. Abunda esta posibilidad y consideración el hecho de que se encontraba en el mismo cuadro, y casi a la misma profundidad, que el otro canino de zorro perforado. Ya hemos aludido anteriormente al hecho, aceptado en el entorno arqueológico, de considerar presuntamente como elemento decorativo u ornamental la mera presencia o recolección de determinadas conchas (*Littorina obtusata*, *Dentalium*, *Trivia*, *Nassa*) dada la frecuente y abundante circunstancia en que aparecen perforadas formando collares, pulseras o brazaletes. La misma consideración podría presumirse de otro objeto hallado en este tramo consistente en una especie de barrita, columnita o "riñón" lítico, de sílice, algo curvado, roto en la parte superior y que recuerda a la raíz de una pieza dentaria (Ait.III.63P.150.2) (Lámina Dibujo 3, fig. 7). La rotura impide observar ningún tipo de perforación o entalladura para ser colgado, aunque bien podría haberlo estado. Entraría en esa categoría de objetos naturales que el hombre prehistórico recoge y conserva por sus características y que llaman su atención e interés. No es extraño encontrar diferentes variedades de fósiles de origen alóctono, en los estratos arqueológicos, así como cristales de roca, drusas y otros minerales, que han merecido, por razones que podemos intuir o que se nos escapan, su curiosidad y acopio. Este presunto colgante está localizado en el lecho 14, en el límite del tramo central del nivel VI. Por último, mencionaríamos en este conjunto otra pieza, un fragmento de cuerno trabajado y finamente cortado longitudinalmente y en su extremo inferior, raspado y pulido (Ait.III.61P.143.109) (Lámina Dibujo 3, fig. 6), roto en su parte superior. Tampoco aquí podemos observar, por la fractura, ninguna acción encaminada a su perforación o estrangulamiento para ser utilizado como colgante, pero su

temateko, baina kontuan hartzen badugu piezaren kurbadura eta pieza bera bikain landua dela, oso litekeena da zintzilikario gisa erabili izana.

Apaingarren multzo horrek agerian uzten du gizarte-ingurune jakin bat, Aitzbitarte III haitzuloko giza taldean edo haitzulo hori partekatu zezaketen giza taldeetan bideratuko ziren zeregin edo jarduera jakin batzuen banaketa uzten du agerian, erabilgarritasun hutsetik harago eta sinbolismoaren eta estetikaren mundu zail, konplexu eta nahasi bezain erakargarrian sartuta norberaren izaerari lotutako edo halako itzala ezagutzeko adierazgarriak baitira apaingarri horiek.

N, O, P eta Q bandetan eta 58., 59., 60., 61. eta 62. laukietako gutxi gorabehera 10 cm-ko tarte horretan (140-150 cm) bereizitako edukiaren hein bateko aniztasunak eta aberastasunak aukera ematen digute Aitzbitarte III haitzuloko Gravette aldiko mailetan bizi izan ziren pertsonak bideratu zituzten hainbat funtzio erdizka ikusteko. Agregazio deritzen lekuetako bat ez bada ere, eskualdeko Gravette aldiko eremuan eragin eta harreman garrantzitsuak bizi izan zituen lekura hurbiltzeko eta aztertzeko aukera ematen digu.

Hirugarren tarteak ere (151 eta 160 cm bitartekoa) baiditu hezurrezko industriari dagozkion piezak; oso gutxi dira, hiru baizik ez, baina garrantzi handikoak dira. Lehenengo pieza, ezten edo punta-azagaia mehea (Ait.III.61P.151.238) (1. Marraski-orria, 5. irudia) aurreko tarte ukitzen ari dela dago, eta beraz, inolako zailtasunik gabe eta erabilitako irizpideari jarraiki saillatu daiteke aurreko tarte horretan. Bigarren piezak, punta-azagaia baten muturreko zatiak (Ait.III.61Q.156) (2. Marraski-orria, 4. irudia), punta kamutsa duenak, arte higigarriari dagozkion dekoraziozko motiboak dauzka: alboko marrak, bat egiten dutenak hiru sektore puntadun eratzeko, apur bat kurbatuak, aurpegietako batean; lerro-formako lau marra zehar eta erregular albotik gertu dagoen espazioan, beste aurpegian, eta lerro-formako ildo sakon pare bat alboetako ertzetako batean. Hautsia du beheko muturra. Formaz biribila du punta, agerikoa da estugune ez nabarmena, eta horrexegatik uste dugu behin hautsi eta jatorrizko funtzioa ezin bete zezakeenean, hau da, ezin jaurtigai gisa erabil zitekeenean, beste funtzio bat beteko zuela, apaingarri bihurtu zutela, hots, zintzilikario; nolahi ere den, hipotesiaren mailan utzi behar dugu hori. Interpretazio hori sendotu lezake pieza hori lehen aztergai izan ditugun *Cervus* espeziearen hotz zulatua eta *Vulpes* espeziearen letagina azaldu ziren lauki berean (61Q) azaldu izanak. Punta-azagaia zapal baten erdialdeko zatia da hirugarren pieza, bi muturrak dauzka hautsita (Ait.III.61Q.160) (1. Marraski-orria, 8. irudia). Eztenak, arte higigarriko piezak eta punta-azagaiak agerian uzten dute bertan bideratzen zituzten jardueren aniztasuna. Hala eta guztiz ere, zuhur jokatu behar dugu, eta ez dakigu Aitzbitarte III haitzuloko biztanleen benetako irismena zein izango zen aipatu funtzioei dagokienez.

Hezurrezko industriaren ikuspegitik aztarnategi osoaren ikuspegi orokorrago eta doiago bat edukitzeko, labur-labur aipatu behar ditugu Aitzbitarte II haitzuloko galeriatik iritsitako piezak. Lehen ere esan dugun bezala, pieza horiek arrastean eta hustubide-efektuaren ondorioz iritsiak dira goiko haitzuloko Gravette aldiko mailetatik eta maila horiei loturik, tesuingurutik kanpora baina. Bitxia da, baina zalantzarik gabe, ez da kasualitatea berreskuratutako sei piezak, zintzilikarioak alde batera utzirik (hemen ez baitago horrelakorik), aztarnategian *in situ* aurkitu genituen tresnen mota berekoak izatea; gainera, metakin arkeologiko guztiak kultur unitate bakarra osatzen duela adierazten digute. Horrenbestez, bizitegiko jardueren izaera sendotuko luketen leuntzaile-espátula bat, oin alakatu

curvatura y su esmerada factura y elaboración podría hacernos pensar en ello como una posibilidad real.

El grupo de los adornos hace presente, en ese reparto de determinadas funciones o actividades que se desarrollarían en el grupo o grupos que compartieran la cueva de Aitzbitarte III, una concreta dedicación a ese entorno social, de reconocimiento personal o de prestigio, más allá de lo meramente utilitario y entrando en el difícil, complicado y enrevesado, aunque atrayente, mundo de lo simbólico y lo estético.

La variedad y riqueza de lo contenido, dentro de sus limitaciones, en este tramo de unos 10 cm (140-150 cm) concentrado en los cuadros 58, 59, 60, 61 y 62 y en las bandas N, O, P y Q, nos permite entrever una cierta variedad funcional en el desarrollo de las ocupaciones llevadas a cabo por las gentes del nivel Gravetiense de Aitzbitarte III. Sin ser un lugar de los llamados de agregación, sí nos deja aproximarnos y reconocer un sitio arqueológico con importantes influencias y contactos en el área del Gravetiense regional.

El tercer tramo, entre 151 y 160 cm, también tiene materiales de la industria ósea, pero en pequeña cantidad, tres, aunque no por ello dejen de tener su importancia. La primera pieza, un fragmento de punzón o punta-azagaya fina (Ait. III.61P.151.238) (Lámina Dibujo 1, fig. 5) se encuentra prácticamente tocando el tramo anterior por lo que, sin dificultad y sin distorsionar el criterio adoptado, bien podría considerarse también como incluido en él. La segunda pieza, un fragmento de extremo de punta-azagaya (Ait.III.61Q.156) (Lámina Dibujo 2, fig. 4), con la punta roma, tiene evidencias decorativas de arte mueble: líneas adyacentes que convergen formando tres sectores en punta, algo curvados, en una cara; cinco líneas incisas oblicuas, regulares, en el espacio próximo al lateral, en la otra cara, y un par de líneas incisas, profundas, en uno de los bordes laterales. Tiene roto el extremo inferior: Su forma redondeada en la punta y un ligero, pero visible, estrangulamiento, nos hace pensar en una posible reutilización de la punta-azagaya, una vez fracturada e inservible para su primitiva función de proyectil, como elemento decorativo convirtiéndolo en supuesto colgante por suspensión, manteniendo todas las reservas sobre esta hipótesis. Podría acentuar esta interpretación el hecho de compartir cuadro (61Q) con un colgante por perforación de diente de *Cervus* y el diente canino de *Vulpes* del que ya hemos dado información anteriormente. La tercera es un fragmento medial de punta-azagaya aplanada, rota en sus dos extremos (Ait.III.61Q.160) (Lámina Dibujo 1, fig. 8). El punzón, la pieza de arte mobiliario y la punta-azagaya, vuelven a manifestar la variedad de las actividades funcionales, siempre desde la cautela y desconociendo su real dimensión, en que se podían mover los habitantes de Aitzbitarte III.

Para tener una visión más global y ajustada del conjunto del yacimiento, desde la perspectiva de la industria ósea, tenemos que referirnos, brevemente también, a las piezas procedentes de la galería de Aitzbitarte II que, como ya dijimos, vienen, por efecto sumidero y de arrastre, de los niveles gravetienses de la cueva superior y en conexión con ellos, aunque descontextualizados. No deja de ser curioso, pero sin duda no es casual y nos habla de la unidad cultural de todo el depósito arqueológico, que las seis piezas recuperadas reflejan, excepción hecha de los colgantes, que no aparecen aquí, el mismo tipo de herramientas que hallamos en el yacimiento *in situ*. Así, por ejemplo, tenemos un alisador-espátula, de base biselada (Ait.III.IN.1) (Lámina Dibujo 1, fig. 1) y un punzón de los llamados de economía, aprovechando y aguzando una esquirla de hueso (Ait.III.2) (Lámina Dibujo 1, fig. 3) que reforzaría el

duena (Ait.III.IN.1) (1. Marrazki-orria, 1. irudia) eta ekonomiako deritzogun ezten bat, hezur-printza bat zorrotzuta landua (Ait. III.2) (1. Marrazki-orria, 3. irudia) dauzkagu; punta-azagaiaren bi zati, bata oso ongi kontserbatua bere urrunaldean (Ait.III.4) (1. Marrazki-orria, 2. irudia) eta soilik hurbilaldeko muturra kontserbatzen duen beste bat, alaka bikoitzarekin eta funtzionalizat hartutako ildaxka zehar ugarirekin (Ait.III.1.1. Ataria 0-5.3) (1. Marrazki-orria, 4. irudia), ehiza-jardueren esparrura garamatzatenak; eta, azkenik, Izturitze motako punta bat, osoena eta ongien ezagutzen dena (Ait.III.5) (2. Marrazki-orria, 1. irudia), erabilitako saiheks marradunarekin batean (Ait.III.6) (2. Marrazki-orria, 5. irudia), beren izaera "adierazgarriagatik" bete-betean V. eta VI. mailetakoko Gravette kultura-aldira garamatzatenak. Hau da, testuingurutik kanpora aurkitutakoa ez da bat ez datorren zerbait, guztiz aurkakoa baizik, testuinguruan aurkitutakoarekin erabateko bat etortzea islatzen du, inolaz ere.

2. AITZBITARTE III HAITZULOKO IZTURITZE MOTAKO PUNTAK. ESPARRUA ETA ERREFERENTZIAK

Izturitze motako Puntek, "Izturitze motako azagaiek" edo Izturitzeko Puntek izena ematen dioten aztarnategian berreskuratutako oreinaren familiako animalien adarretan landutako pieza bereziei egiten diete erreferentzia. Aztarnategi horretan halako asko aurkitu zituzten (ehun eta berrogeita hamar inguru), oso ezaugarri jakin batzuk dauzkate (zorrotzak dira hurbilaldean, ebakidura zapala, ebaki asko eta askotarikoak gainaldeko aurpegian eta ertzetan, fusiformeak dira eta hein batean luzeak, 150 eta 200 mm bitartekoak), ongi bereizten dira beste punta-motetatik; halako puntak aurkitu izan dituzte Pirinio aldeko eta Dordoinako beste aztarnategi arkeologiko batzuetan, baita gure Kantauri aldean ere, baina askoz ere kopuru apalagoan; era berean, halako asko aurkitu zituzten Pirinioen erdialdean dagoen Gargasko haizuloan. (1. mapa).

Punta-azagaia horiei garrantzi berezia ematen zaie segur asko izaera berezikoak direlako eta aski urriak direlako (ez Pirinio aldean), beren funtzioa zalantzazkoa delako edo ez delako erabat azaldu (Rios-Garaizar eta Garate 2014), eskuarki hurbilaldetzat hartzen den aldean lerro-formako ebaki deigarriak dituztelako eta, funtsean, Noailles zulakaitzak dituen fazieari atxikirik antzin eta erdi Gravette kultura-aldiko "adierazgarri" fidagarriak direlako.

Gure lurraldeko aztarnategietan Izturitze motako punta gutxi aurkitu direnez, oso aintzat hartzen dira eta oso modu berezian aztertzen dira. Berriki argitaratu da (Rios-Garaizar eta Garate, 2014) Kantauri aldeko Izturitze motako puntun zerrenda eguneratua; bertan ematen da egungo egoeraren berri, batez ere Askondo leizeko hormetan aztarna batzuk aurkitu ondoren; lehendik ere aurkitu zuten aztarna bat, baina gainazalean zegoen eta testuinguru arkeologikotik gabe. Argitalpen horretatik jaso dugu ezagututako piezen eta halako eztabaidak pizten dituzten beste pieza batzuen ikuspegi laburra eskaintzeko informazioa.³

Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeka hezurrezko industriaren ikerkuntza- eta azterketa-lanetan zehar aurkitu genituen bi pieza horiek, eta halakotzat sailkatuta ez zeudenez, ezi-

³ Joseba Rios-Garaizarrek eta Diego Garatek eguneratu dute Izturitzeko puntun zerrenda edo inbentarioa, eta informazio hori oso erabilgarria eta interesgarria izan da, oso aintzat hartua izan da, kontu honi buruzkoak laburbiltzeko.

carácter de actividad funcional doméstica; dos fragmentos de punta-azagaya, uno muy bien conservado en su zona distal (Ait.III.4) (Lámina Dibujo 1, fig. 2) y el otro, del que sólo se conserva el extremo proximal, con doble bisel y abundantes estrías oblicuas consideradas funcionales (Ait.III.1.1. Portal 0-5.3) (Lámina Dibujo 1, fig. 4), que nos indicaría el ámbito de actividades de caza; y, finalmente, una punta de Izturitz, la más completa y conocida, (Ait.III.5) (Lámina Dibujo 2, fig. 1) junto a una costilla utilizada con rayas (Ait.III.6) (Lámina Dibujo 2, fig. 5) que nos meten de lleno, por su carácter de "marcadores", en el período cultural Gravetiense de los niveles V y VI. Es decir; lo hallado fuera de contexto no es discordante sino todo lo contrario; refleja la plena concordancia con lo encontrado contextualizado.

2. LAS PUNTAS DE TIPO ISTURITZ DE AITZBITARTE III. ÁMBITO Y REFERENCIAS

Las Puntas de tipo Izturitz, las "azagayas de Izturitz" o las Puntas Izturitzenses hacen referencia a las singulares piezas de asta de cérvido recuperadas en el yacimiento epónimo, en número llamativo (un largo centenar y medio), de rasgos muy característicos y reconocibles (forma apuntada en zona proximal, sección aplanada, incisiones múltiples, variadas y finas sobre la cara dorsal y los bordes, forma fusiforme y relativamente alargada, entre 150 y 200 mm) y que se encuentran también en otros yacimientos arqueológicos de la zona pirenaica y de la Dordogne, así como en nuestra región cantábrica, aunque en cantidad mucho más reducida, excepción hecha de Gargas en el Pirineo central. (Mapa 1).

La relevancia de estas puntas-azagayas y la importancia que se les da, viene seguramente dada por su carácter peculiar y bastante excepcional (aunque no en la región pirenaica), por su dudosa, o no del todo explicada, funcionalidad (Rios-Garaizar y Garate 2014), por sus llamativas líneas incisas en la zona comúnmente asumida como proximal y, básicamente, por su fiabilidad como "marcador" del período cultural Gravetiense asociado a la facies con buriles de Noailles, en sus fases media y antigua.

La escasez de puntas de Izturitz halladas en yacimientos de nuestro entorno regional, las hace ser consideradas y tratadas de una manera especial. Recientemente se ha publicado (Rios-Garaizar y Garate 2014) una actualización del inventario de puntas de tipo Izturitz de la región cantábrica, donde se da cuenta del estado de la cuestión, fundamentalmente tras la aparición de evidencias parietales en la cueva de Askondo, yacimiento en el que ya se había descubierto una, aunque en superficie y sin contexto arqueológico. De esa publicación hemos recogido información para la visión resumida de las piezas reconocidas y de otras con cierta controversia.³

La coincidencia con la fase de investigación y estudio de la industria ósea de la zona interior de Aitzbitarte III y el reconocimiento de ambas piezas en el transcurso de dicha tarea, puesto que no estaban clasificadas como tales, imposibilitó

³ La actualización del inventario de puntas de Izturitz realizado por Joseba Rios-Garaizar y Diego Garate ha resultado muy útil e interesante para la recapitulación de la cuestión y del que se ha obtenido cumplida información.



1. mapa. Izturitze motako puntak dituzten aztarnategiak. N. Goutas-en arabera. 2008. Eric Gaba-ren mapa da, moldatua baina. (Ríos-Garaizar eta Gárate (2014).

Mapa 1. Yacimientos con puntas de tipo Isturitz. Según N. Goutas 2008. Mapa modificado a partir del original de Eric Gaba. (Ríos-Garaizar y Gárate (2014).

nezkoa izan zen Gravette aldiko VI. mailan aurkitutako Izturitze motako bi punta horiek (5 I. argazkia) aipatu corpusean jasota egotea, ezinezkoa zen bilduma horretan sailkatuta egotea. Horrenbestez, iruzkin labur baten bidez emango dugu egoeraren berri, aurkitutako pieza berriak aintzat harturik.

que las dos nuevas puntas isturitzenses halladas en el nivel VI Gravetiense (Foto 51) pudieran formar parte de dicho corpus y, por consiguiente, no estén consignadas en él. En consecuencia, resumiremos en un breve comentario la situación a la vista de las inéditas incorporaciones.

2.1. IZTURITZE MOTAKO PUNTAK KANTAURI ALDEAN

Kantauri aldean identifikatutako Izturitze motako punten kopurua oso apala da, baina aurkikuntza berriei esker, % 50 gehiago dira egun. Gaur egun sei pieza dira halakotzat hartuak, eta horietatik hiru Aitzbitarte III haitzuloan aurkitu dira, bi ongi asko bereziak beren testuinguru arkeologikoan eta hirugarrena testuingurutik kanpora baina kultur metakin eta geruza estratigrafiko berean (52. argazkia). Errealitate horrek azpimarratu eta sendotu egiten ditu Aitzbitarte III haitzuloko aztarnategiaren garrantzia eta pisu espezifikoarekin geure eskualdean, eta agerian uzten du aztarnategi honek Kantauri ekialdeko muturreko eta mendebaldeko Pirinioetako Gravette aldiko aztarnategien artean izango zuen eragina.

1. ASKONDO (Mañaria, Bizkaia, Urkiolako Parke Naturala). Izturitze motako punta bat aurkitu den lekurik mendebaldekoena da. Testuingurutik kanpora aurkitu zuten, leizearen gainazalean, 1980. urtean. Ez zuten halakotzat hartu, 2011. urtean berriro ere identifikatu eta aztertu zuten arte (Ríos-Garaizar eta Mozota Holgueras, 2012). 2010. urtean haitzuloetako arteari dagokion multzo garrantzitsu bat aurkitu zuten, 23.760 ± 110 BP datazioa eskaini zuten. Erdi Paleolitikotik 31.000 eta 17.000 BP bitartean datatutako beste maila batzuetara arte luzatzen da sekuentzia arkeologikoa (Ríos-Garaizar; Garate Regalado, 2012). Kontserbazio-egoera onean dago punta, mu-

2.1. PUNTAS DE ISTURITZ EN LA REGIÓN CANTÁBRICA

El número de puntas tipo Isturitz identificadas en la región cantábrica es muy reducido, aunque con los nuevos hallazgos se haya visto incrementado en un 50%. A día de hoy, son seis los ejemplares señalados como tales piezas, de los que tres, la mitad, han sido encontrados en Aitzbitarte III, dos de ellos con precisión en la recuperación arqueológica y el otro desconectado pero perteneciente al mismo depósito cultural y estratigráfico (Foto 52). Esta realidad subraya y acentúa la importancia y el peso específico que adquiere el yacimiento de Aitzbitarte III en nuestra región y refuerza su papel en los lazos entre los yacimientos gravetienses del extremo oriental cantábrico y los Pirineos occidentales.

1. ASKONDO (Mañaria, Bizkaia, parque natural de Urkiola). Es el descubrimiento más occidental de una punta de Isturitz. Sin contextualización, ya que fue hallada en la superficie de la cueva en los años 1980. No fue reconocida como tal, hasta que fue identificada y estudiada en 2011 (Ríos-Garaizar y Mozota Holgueras 2012). En 2010 fue descubierto un importante conjunto de arte parietal datado en 23.760 ± 110 BP. La secuencia arqueológica va desde el Paleolítico medio a otros niveles datados entre 31.000 y 17.000 BP (Ríos-Garaizar; Garate Regalado 2012). Buen estado de conservación, con rotura reciente en uno de los extremos. Punta fusiforme



51. argazkia. Izturitze motako bi punta berri Aitzbitarte III haizuloan. Ait.III.62O.148.139 eta Ait.III.60O.146.

Foto 51. Dos nuevas puntas tipo Izturitz en Aitzbitarte III. Ait.III.62O.148.139 y Ait.III.60O.146.

turretako batean aspaldikoa ez den haustura bat du. Punta fusi-formea, ertz paraleloak erdialdean eta konbergenteak hurbilaldean. Hurbilalde mutur zorrotza apur bat desbideratuta dago piezaren luzerako ardatzarekiko, eta ondorioz, alboko alakaren morfologia erakusten du. Ebakidura ganbil bikoitza. Ohiko ildoak, sakonera apalekoak, meheak eta zeharrak gainaldean eta sakonagoak, irregularragoak eta laburragoak hurbilalde here-naren ertzetan. (Rios-Garaizar eta Garate 2014) (53. argazkia).

Funtzionaltasuna. Oraindik zalantza guztiei zirrikitu guztiak ixteko moduan ebatzi ez den kontua izaten jarraitzen du, nahiz eta Noailles zulakaitzekin gertatzen den bezala, kultura-aldi jakin baten “adierazgarri” gisa garrantzitsuak diren eta tipologiaren ikuspuntutik ongi sailkatu daitezkeen, aldaerak barne. S. de Saint-Périerrek “Izturitze motako azagaia” deritzonaren funtzioa oraindik hein handi batean da eztabaidagarri eta aztergarri. Tresna ala jaurtigaia izan, etxeko lanetarako ala ehizarako erabili, kontserbatu diren aztarna gehienak oso-oso txikiak dira, oso-oso gutxi dira osorik kontserbatu diren piezak, eta horrenbestez zaila da behin betiko ondorio batera iristea (Goutas, N. 2008). Jaurtigaitzat hartuz gero, kontserbatzen den zatirik zorroztzena hurbilaldea dela proposatzen du, giderra izango zuen aldea, ustezko urrunaldea, osorik kontserbatzen diren piezetan, amaiera obalagoa eta zabalagoa dituen zatia den bitartean (62. argazkia). Lan jakin baterako erabilera-arrastoen gabeziak, oso-oso gutxi baitira erdialdea edo urrunaldea kontserbatu duten piezak (gehien-gehienak hurbilaldeari dagozkion zatiak dira, halakotzat hartzen baditugu), ez du etxeko funtzio jakin bat esleitzeko aukerarik ematen, ez baitago distiraren, erabilera-patinararen edo kolpe zein marruskadura-arrastoen arabera balizko funtzioa zehazterik. Espekulatiboegia lirudikeen arren, soilik eguneroko erabilerarekin eta esparru materialarekin lotzen ez duten beste aukera batzuei zirrikitu bat utzi beharko genieke, agian. Halako adierazgarritasuna eta balioa dituen objektua genuke gogoan, nahiz eta hori ez datorren bat aztarnategi jakin batzuetan azaldu diren kopuru handiekin. Dena dela, gisa honetako elementuen funtzionaltasunak oraindik guztiz erakartzen du ikerlarien arreta, batez ere, zalantzarik ez dagoelako Frantziaren hego-mendebaldean eta Kantauri aldean Gravette kultura-aldiaren adierazgarriak direla molde horretako puntak hezurrezko industriaren baitan.

La funcionalidad. Sigue siendo una cuestión que no se ha resuelto satisfactoriamente aún en la actualidad, aunque eso no impida su clasificación tipológica, sus variantes, su importancia como referencia de “marcador” para una determinada fase cultural, como ocurre con los buriles de Noailles. La función de la llamada por S. de Saint-Périer, “azagaya de Isturitz”, sigue, en buena medida, abierta al debate y a la indagación. Útil o arma arrojadiza, ligada a tareas domésticas o a actividades cinegéticas, el carácter fragmentario de la gran mayoría de los restos conservados y los escasos ejemplares completos no contribuyen a zanjar definitivamente el tema (Goutas, N. 2008). Plantea interrogantes, desde el punto de vista de su consideración como proyectil, que la parte más apuntada que se conserva sea la zona proximal, la que iría enmangada, mientras que la teórica zona distal, en las piezas completas, tenga una terminación más oval y ancha (Foto 62). La ausencia de huellas de uso para alguna tarea determinada, dada la escasez de piezas en sus zonas medial o distal, ya que la mayor parte de los restos son fragmentos de la zona proximal, si así lo consideramos, tampoco permiten el adjudicar por su lustre, pátina de uso o marcas de golpeo o frotamiento, alguna determinada función de tipo doméstico. Aun cuando pudiera parecer demasiado especulativo, quizá debiéramos dejar un resquicio abierto a otras posibilidades que no lo vinculen exclusivamente al uso de lo cotidiano y de lo estrictamente material. Estaríamos pensando en algún objeto dotado de cierta representatividad y valor, aunque eso difícilmente se compaginaría con su extraordinaria abundancia en algunos destacados yacimientos. Sea lo que fuere, la funcionalidad es una cuestión que sigue mereciendo la atención de investigadores, sobre todo porque su rasgo de elemento característico de la industria ósea como identificador del Gravetiense en el Sudoeste de Francia y en la región cantábrica está incuestionablemente reconocido.




62. argazkia. Izturitze motako punta osoak. Marrazkia R. Saint-Périer.

Foto 62. Puntas de tipo Isturitz completas. Dibujo R. Saint-Périer.

Ebaki bereziak. Hurbilaldeko piezaren zati handi bat, osorik ez denean, hartzen duen ebakien multzo deigarria da ikerlarien arreta pizten duen beste kontua. Oineko ebakiak, hozkak eta alakak besterik gabe baliabide teknikoak edo giderra jartzeko lanak direla onartzen badugu, harri-garria gerta daiteke pieza asko eta asko zeinen xehetasun handiarekin landuta dauden, nolako lanketa konplexua duten, batez ere punta-azagaia arruntetako alaketan bereizten diren ildo bakun eta errepikatuekin alderatzen baditugu. Ebaki anizkun horiek eratzen dituzten moten aniztasunak berez bihurtzen dituzte halakoak identifikatzeko ezaugarri edo adierazgarri nagusi: zeharkako lerroak, etenak, gutxi gorabehera erregularrak, modu irregularrean barreiatuta edo ongi antolatutako zerrenda edo ardatzetan, bereizirik, gainjarrita edo parekatuta, zuzenak, zeiharrek eta uhin-formakoak, alakekin edo hozkekin nahiz hozkadurekin, asimetrikoak, aldaera sorta aberatsa eta erakargarriak agerian baina piezari eutsiko zien giderrak, irismen edo indar handia emango zien giderrak, ezkutututa geratuko zirenak (63. argazkia). Bestalde, jaurtigaitzat hartzen baditugu, pentsa liteke berreskuratutako hurbilaldeko zati zorrotzen kopuru handia, urrunaldeko zatiak baino askoz ere gehiago baitira hurbilaldekoak, balizko talken ostean hautsi eta hurbilaldeko zatiak errazago kontserbatzen direlako gertatzen dela, edo balizko giderrak babestuta egon direlako kontserbatu direla. Baina hipotesi horri helduta oso harri-garria da pieza bakar bat ere aurkitu ez izana legokiokeen giderraren barruan sartuta; segur asko zurezkoak izango ziren giderrak, eta usteldu egingo ziren denboraren joanean. Itxura guztien arabera ez dira apaingarriak edo dekoraziozko motiboak, baina kontuan eduki behar dugu ia beti direla subjektiboak objektu "erabilgarrien" "arte higigarriaren" edo industria "dekoratuaren" kontzeptuak, eta kontzeptu horiek gure ezagutza zientifikoaren parean egin dutela beren bidea (San Juan-Foucher, C., 2013). Izturitze motako punta horien hurbilaldeko zatietan ageri diren ebakiak, marrak edo markak egingo balituzte hezurrean edo adarrean landutako azagaia baten ardatzean edo beste edozein aztarnatan, "dekoraziozko motibotzat" hartuko genituzke inolako zalantzarik gabe. Soilik jaurtigaia direlako ideia hein batean zalan-

Las singulares incisiones. Otro aspecto que sigue atrayendo poderosamente la atención es el llamativo conjunto de incisiones que recubren buena parte de la zona proximal, cuando no enteramente. Si admitimos que las incisiones, muescas y biseles de la base, simplemente son recursos técnicos o parte del dispositivo de empuje, nos puede sorprender el detalle y la complejidad con que se realizan en muchas de las piezas, sobre todo si las comparamos con las simples y repetidas estrías que encontramos en los biselés de las puntas-azagayas habituales. La variedad de tipos que conforman esas múltiples incisiones lo convierten en sí mismo en una de sus principales características de identificación: líneas transversales, discontinuas, más o menos regulares, dispersas irregularmente o en bandas y ejes organizados, separadas, superpuestas o pareadas, rectas, oblicuas u onduladas, con biselés o muescas y entalladuras, asimétricas; toda una rica gama de variantes y atractivas a la vista que estarían destinadas a quedar ocultas en las profundidades del mango que las sujetara y les diera más alcance o potencia (Foto 63). Por otra parte, en su consideración como proyectil, pudiera pensarse que la gran cantidad de zonas proximales apuntadas recuperadas, en abrumadora desproporción con respecto a las zonas distales, se deba a la mayor facilidad de conservación de esa parte, tras la rotura de la pieza por el posible impacto, así como que su mejor estado de preservación viniera dado por su situación protegida en un hipotético mango. Lo extraño de esa suposición es que no se ha hallado ninguna pieza embutida en su dispositivo de empuje, quizá porque al estar colocada en un presumible astil de madera, no haya perdurado. Cierto que parecen descartarse como elementos decorativos o motivo de decoración, pero no debíamos perder de vista la consideración de que los conceptos de industria "decorada" o de "arte mueble" sobre objetos "utilitarios" son casi siempre subjetivos y que esas nociones han ido evolucionando a la par que nuestro conocimiento científico (San Juan-Foucher, C. 2013). Si reprodujéramos esas incisiones, rayas o marcas que aparecen en las zonas proximales de las puntas de tipo Izturitz, en cualquier fuste de azagaya, objeto de hueso o asta, o cualquier otro resto, es de suponer que no dudaríamos en calificarlo de "motivo decorativo". Solo sugeriríamos que, lo mismo que su función exclusiva como punta arrojada o de proyectil puede ser cuestionada



63. argazkia. Izturitze motako puntan hurbilaldeak. Marrakia R. Saint-Périer.

Foto 63. Partes proximales de puntas de tipo Izturitz. Dibujo R. Saint-Périer.

tzan jar daitekeen bezala, eta egun ihes egiten diguten beste aukera batzuk ikertzeko bidean, ez dugu erabat baztertzeko pieza horien betekizun funtzional edo teknikitik harago, pieza horiek berariaz dekoratzeko asmoa izateko aukera.

3. AITZBITARTE III HAITZULOA GRAVETTE KULTURA-ALDIKO TESTUINGURUAN ETA HARREMANAK KANTAURI-PIRINIO ALDEKO BESTE AZTARNATEGIEKIN

3.1. AITZBITARTE III (BARRUNBEA), GRAVETTE KULTURA-ALDIKO AZTARNATEGIA

Aitzibitarte III haitzuloko aztarnategi arkeologikoak, haitzuloren barrunbean induskatuak, agerian utzi du, indusketa-lanean zehar berreskuratutako aztarnari eta aztarna horien analisi kronologikoek eskaini dituzten datuei esker, Gravette kultura-aldiko munduarekiko harmonia eta bat etortze bikaina. Aztarnategiko V. eta VI. mailek koherentzia eta jarraitutasun handia islatzen dute funtsezko alderdietan, multzo bat eta bakartzat hartzeraino, nola harrizko industriak hala hezurrezkoak beren barne-koherentzia eta Paleolitoko kultura-aldi hori berresten baitituzte beren tresnekin eta objektuekin. Itxura guztien arabera, garai horretako haitzuloko okupazioaren oinarritzko nukleo biltzailea da VI. maila, eta bi mailak biltzen dituen garaitik ia aldentzen ez den beste fase bati legokioke V. maila. VI. mailaren nagusitasuna oso ongi egiaztatzen da hezurrezko industrian, objektu guztiak azaltzen baitira, bat izan ezik, funtsezko pisu espezifikoak hartzen duen maila horretan.

Aitzibitarte III haitzuloa, aztertutako V. eta VI. mailetan, Noailles fazieko Gravette kultura-aldiko aztarnategien multzoan kokatu behar dugu; halakoetan ugari dira Noailles zulakaitzak, eta esanguratsua da Izturitze motako puntuen presentzia, beste elementu bereizgarri batzuekin batean (Rios-Garaizar eta San Emeterio, liburuki honetan).

Hemen azalduko ditugu Aitzibitarte III haitzuloko aztarnategiko hezurrezko industrian bereizten ditugun elementu morfo-tipologikoak, Pirinio aldeko Gravette kultura-aldiak berezkoak dituenak eta inguru horretako hainbat aztarnategitan komuna den kultura-metakinaren "adierazgarritzat" hartuak direnak (San Juan-Foucher, C., 2006).

(San Juan-Foucher, C., 2013):

- *"Izturitze motako puntak"*. Aitzibitarte III haitzuluan (barrunbea) hiru pieza aurkitu dira. Lehendik zabal azaldu ditugunez, ez dugu deus berririk gaineratuko. Besterik gabe, esan dezagun halakotzat hartuak izateko ezaugarri guztiak betetzen dituztela.
- *Erabilitako saiheksak, ebakiekin apainduak*. Gargasko aspaldiko bildumak aztertzean eta berrikustean eta aztarnategi horretako Gravette kultura-aldiko piezak Izturitzeko aztarnategiko piezekin eta Gravette aldiko mailak eta Noailles zulakaitzak dituzten Frantziaren hego-mendebaldeko beste aztarnategi batzuetan aurkitutakoekin alderatzean (San Juan-Foucher, C., 2006), "Izturitze motako azagaien" kultura- eta lurralde-esparru berean apaindutako objektu horien balio adierazgarria bereizi uste izan du. Aztarnategi

parcialmente, buscando otras que actualmente se nos escapan, no se descartara radicalmente la posibilidad de un componente de intencionalidad decorativa más allá de lo estrictamente funcional o técnico.

3. AITZBITARTE III EN EL CONTEXTO GRAVETIENSE Y SUS RELACIONES CON OTROS YACIMIENTOS EN EL ÁREA CANTÁBRICO-PIRENAICA

3.1. AITZBITARTE III (ZONA INTERIOR) YACIMIENTO GRAVETIENSE

El yacimiento arqueológico de Aitzibitarte III, excavado en su zona interior, ha revelado, por los restos recuperados a lo largo de la excavación y por los datos cronológicos de sus análisis, su perfecta armonía e integración en el mundo cultural gravetiense. Sus niveles V y VI, reflejan una gran coherencia y continuidad en lo fundamental, hasta el punto de ser considerado como un conjunto común, en el que tanto la industria lítica como la ósea corroboran con sus útiles y objetos la coherencia interna y la adscripción cultural a ese período paleolítico. El nivel VI parece constituirse en núcleo básico y aglutinante de la ocupación de la cueva en ese estadio, siendo el V otra fase apenas distante del período que engloba a ambos. Esta predominancia del nivel VI se constata muy bien en la industria ósea, donde todos los objetos, menos uno, aparecen en ese nivel que adquiere un peso específico fundamental.

Aitzibitarte III, en los niveles V y VI estudiados, pertenece al conjunto de yacimientos del Gravetiense de facies Noailles, con la presencia abundante de buriles de Noailles y la significativa aparición de puntas de tipo Isturitz, junto a otros elementos característicos. (Rios-Garaizar y San Emeterio, en este volumen).

Señalaremos aquí los elementos morfo-tipológicos característicos del Gravetiense pirenaico que encontramos presentes en la industria ósea del yacimiento de Aitzibitarte III, y que son identificados como "marcadores" de un depósito cultural común en varios yacimientos de esa zona (San Juan-Foucher, C. 2006).

(San Juan-Foucher, C. 2013):

- *Las puntas de "tipo Isturitz"*. En Aitzibitarte III (interior) se han encontrado tres piezas, como ya hemos explicado anteriormente y con amplitud, por lo que no abundaremos en reiterar lo dicho. Baste solo con hacer notar que cumplen con todas las características requeridas para ser consideradas como tales.
- *Las costillas utilizadas y decoradas con incisiones*. En su estudio y revisión de las antiguas colecciones de Gargas y la comparación de piezas gravetienses de este yacimiento con las de Isturitz y otros yacimientos del Sudoeste francés con niveles gravetienses y buriles de Noailles, (San Juan-Foucher, C. 2006) ha creído reconocer el valor identificativo de estos objetos decorados en el mismo ámbito cultural y territorial que el de las "azagayas de Isturitz". En la industria ósea de estos yacimientos se en-

horietako hezurrezko industriaren artean unglatu handien hezur-zatiak daude, eta zati horietan, aurpegi batean edo bietan, ez dira oso landuak dekorazio-lanak, ebaki luze eta meheak dira, zeharkakoak edo zeharrek piezaren ardatzarekiko, batzuk sekuentzia edo erregistro baten moduan antolatuta, tartean hutsarteak daudela. Urrunaldeko muturretan erabilera-arrastoak nabari dira (ildo luzekarak eta zeharrek, urradura- eta marruskadura-arrastoak, materia galdu duten ezpalduak, ertzak higatuta eta leunduta). Grabatutako dekoraziozko motiboetan alde txikiak dauden arren (ebakien kopuruan eta ebakien sekuentzien erritmoan daude alde nagusiak), oso homogeenak dira gutxi landuta dauden tresna horien ezaugarri morfologikoak eta tresna horiek erabili izanaren arrastoak (saihetsak dira euskarriak, ebakien bidez dekoratuak dira, eta agerikoak dira zati aktiboan erabilera-arrastoak). Pieza horiek A. Leroi-Gourhanek (1963) "belarjaleen saihtsean landutako pikotzak" esaten zienaren ustezko aldaera batekin lotzen dira. Bi motatan sailkatu dira dekoratutako pieza horiek, 1. Mota eta 2. Mota: 1. Motan biltzen dira aurpegietan ebaki luzeak eta meheak dituzten saihtsak (64. argazkia) eta 2. Motan erdialdeko-hurbilaldeko ertzetan ebaki labur eta sakonak dauzkatenak (65. argazkia). Dekoratuak pieza horien zabalkundearekin lotutako lurraldeari dagokionez, agerikoa da Pirinioetan elkarren artean eta lerro zuzenean 100 km-ko tartea gainditzeko duten aztarnategietan bereizitako 1. Motako hezurrezko tresnen artean dagoen antzekotasun handia; izan ere, egokitzat hartzen da kultur esparruaren "adierazgarri" gisa, baita bere lurraldea eta eragin-eremua finkatzeko ere. Aitzitik, 2. Motako elementuak askoz ere hedatuago daude, sarritan topatzen baitira halakoxeak Pirinioetako aztarnategietan ez ezik Euskal Herrian, Quercyn eta Dordoinan ere.

Aitzbitarte II haizuloan goian azaldutako irizpideei erantzuten dieten bi pieza aurkitu ditugula uste dugu. Ungulatuak bi saihts dira; ez dakigu zer erabilera-maila izan zuten bi muturrak hautsita dauzkatelako, baina aurpegiatoko batean ebaki luze eta meheko sekuentzia bakun bat ikus daiteke, figurarik osatzen ez duten elementu apaingarriak izan daitezke, eta 1. Motako piezen artean sailkatu daitezke. Bi saihts horiek aztarnategiko "Izturitze motako" puntekin batean azaldu ziren. Haietako bat (Ait.III.6) Aitzbitarte II haizuloan jaso genuen, baina Aitzbitarte III haizuloaren barrunbeka VI. mailako Gravette aldiko jalkinetik iritsia da; gainaldeko aurpegiak, saihtsaren ardatz nagusiarekiko ebaki paraleloak eta zeharkakoak, irregularrak, ditu, eta haustura ezpaldua eta puntan amaitua (belarjale baten saihtsean landutako pikotza ote?) zatitako batean (2. Marraski-orria, 5. irudia). Bestea, behiaren familiako animalia handi baten saihtsa da (Ait.III.62Ø.147), ebaki luze eta finak ditu, zeharrek luze ardatzarekiko, apur bat tangenteak diren hiru trazuk etendako beste hainbeste trazuko sortetan antolatuta. Era berean, marra laburrago batzuk ikusten dira, paraleloan egokituta. Pieza hori jatorrizko lekuan azaldu zen, Izturitze motako punta azaldu zen lauki eta sakonera-maila berean (2. Marraski-orria, 6. irudia). Beste antzeko aztarnategi batzuetan aurkitutakoekin bat etorrita, guk uste dugu Gravette kultura-aldiaren "adierazgarritzat" har daitezkeela inolako zalantzarik gabe, eta aintzat hartu behar direla maila horretan. Eta horrek guztiak berriro ere kokatzen du Aitzbitarte III haizuloan Pirinioetako lurraldean eta Izturitzeko aztarnategi garrantzitsuen eragin-eremutik gertu edo hari lotuta, izan ere, lerro zuzenean 55 km-ko tartera baizik ez dago aipatu aztarnategia.

uentzen fragmentos de costilla de grandes unglados que presentan, sobre una o las dos caras, una decoración poco elaborada a base de incisiones largas y finas, transversales al eje longitudinal de la pieza u oblicuas, a veces organizadas en forma de secuencia o registro, alternando con espacios vacíos. En las extremidades distales suelen observarse huellas de utilización (estrías longitudinales y oblicuas, estigmas de abrasión y raspado, astillados con pérdida de materia, desgaste y pulido de los bordes). Aunque haya ligeras diferencias en el motivo decorativo grabado (versatilidad en el número y ritmo de las secuencias de incisiones), las características morfológicas y las huellas de utilización de estos útiles poco elaborados son muy homogéneas (costilla como origen anatómico del soporte, decoración de incisiones, rastros de uso en la parte activa). Se pone en relación estas piezas con una posible variante de lo que A. Leroi-Gourhan (1963) llamaba "piquetas sobre costillas de herbívoros". Estas piezas decoradas se han clasificado en dos tipos, denominados Tipo 1 y Tipo 2: el Tipo 1 comprende las costillas con incisiones largas y finas sobre las caras (Foto 64) y el Tipo 2 las que tienen incisiones cortas y profundas sobre los bordes medio-proximales (Foto 65). Respecto al área territorial de difusión de dichas piezas decoradas, se constata la notable similitud entre estos útiles óseos del Tipo 1 procedentes de yacimientos pirenaicos de estatus diferentes y distantes entre sí de más de 100 km en línea recta, hasta el punto de valorar su viabilidad como "marcador" cultural y de establecer su área territorial y de influencia. En cambio, el Tipo 2 presenta una difusión mucho más amplia, hallándose con frecuencia no solo en los yacimientos pirenaicos sino también en el País Vasco, en Quercy y en la Dordogne.

En Aitzbitarte III creemos haber encontrado dos piezas que responden a los criterios expuestos más arriba. Son dos costillas de unglados cuyo grado de utilización queda incierto por las roturas sufridas en ambos extremos, pero en las que se observa una sencilla secuencia de incisiones largas y finas sobre una de las caras, como posible elemento decorativo no figurado, pudiéndose clasificar e integrar dentro del Tipo 1. Ambas costillas aparecieron relacionadas y asociadas a las puntas de "tipo Izturitz" del yacimiento. Una (Ait.III.6) recogida de Aitzbitarte II, pero procedente de los sedimentos gravetienses del nivel VI del interior de Aitzbitarte III, con una serie irregular de incisiones paralelas y transversales al eje mayor de la costilla en su cara dorsal, y con rotura astillada y en pico (¿piqueta en costilla de herbívoro?) en una de sus partes (Lámina Dibujo 2, fig.5). La otra (Ait.III.62Ø.147) es una costilla de gran bóvido, con incisiones largas y finas, oblicuas sobre el eje longitudinal, en una serie de tres trazos que se ven interrumpidos por otros tres ligeramente tangentes. También se observan otras líneas más cortas, paralelas. Esta pieza apareció en posición primaria, en el mismo cuadro y profundidad, junto a una punta isturitzense (Lámina Dibujo 2, fig. 6). Pensamos que pueden constituir y ser valoradas también, sin mayores reservas, como "marcadores" del Gravetiense, en concordancia con los aparecidos en otros yacimientos similares. Esto viene, asimismo, a situar Aitzbitarte III en el área territorial pirenaica y cerca o en contacto con el contorno de influencia del importante yacimiento de Izturitz, por otra parte distante tan solo a 55 km en línea recta.

- *Oreinaren familiako animalien adarretan landutako objektu dekoratuak.* Erresalbu osoz aurkezten dugu hemen oreinaren adar baten zati bat, dekoratua, punta-azagaia beten muturrari dagokiona –hautsita du beste muturra–, lehenago adierazi dugunez agian zintzilikario gisa berrerabili izan zutena (Ait.III.61Q.156) (2. Marrazki-orria, 4. irudia). Besterik gabe, azpimarratu egingo luke Aitzbitarte III haitzuloko aztarnategiaren eta aipatu lurraldeko aztarnategietan berreskuratutako hezurrezko beste multzoen arteko bat etortzea.

Aitzbitarte III haitzuloko Gravette kultura-aldiko mailetan aurkitutako hezurrezko industriaren piezak Pirinioetako Gravette kultura-aldiari dagozkion elementuen eredutzat edo adierazgarritzat hartuta, Aitzbitarte III haitzuloko aztarnategia aipatu lurraldekoekin zuen harreman-maila planteatzen dugu; izan ere, segur asko harremanak uste baino handiagoak izango ziren, elkarrekintza handiagoa izango zen hurbilen zegoen Izturitzeko eta Aitzbitarte III haitzuloko aztarnategiaren artean, eta azken horrek eragin handiagoa izango zuen Kantauri aldean bataren eta bestearen arteko lotura gisa.

Atal honetan ez ditugu aipagarri izan aztarnategi desberdinetan aurkitutako beste pieza dekoratu gabe batzuk, Paleolitoko beste garai eta aldi batzuetan ere erabili zituztenak, esate baterako, eztenak, punta-azagaia, ukigailuak eta beste batzuk, ez eta animalien hortzekin landutako zintzilikarioak edo beste apaingarri batzuk, aztergai dugun aztarnategiko V. eta VI. mailetan ere badirenak, elementu horiek ez baitira Gravette kultura-aldiaren “adierazgarri” garbitzat hartzen.

3.2. HARREMANA KANTAURI ALDEKO GRAVETTE KULTURA-ALDIKO BESTE AZTARNATEGIEKIN

Gure Kantauri aldean Gravette kultur konplexuak berezko dituen elementu batzuk partekatzen dituzte Aitzbitarte III haitzuloak (barrunbea) eta beste aztarnategi batzuek, eta horien zerrenda labur bat ekarri dugu hona. Ez da gure asmoa konparazio sakon bat egitea, besterik gabe aztarnategi horiek adieraziko ditugu (2. mapa).

- *Objetos decorados en asta de cérvidos.* Con toda cautela y reserva presentamos aquí un fragmento de asta de ciervo, decorado, perteneciente al extremo de una punta-azagaya, rota en el otro extremo, y del que hemos considerado anteriormente la posibilidad de su reutilización como colgante (Ait.III.61Q.156) (lámina Dibujo 2, fig. 4). Vendría simplemente a subrayar la sintonía del yacimiento de Aitzbitarte III con otros conjuntos óseos recuperados en yacimientos del área aludida.

La presencia de piezas de industria ósea halladas en los niveles gravetienses de Aitzbitarte III consideradas como morfo-tipos del Gravetiense pirenaico, nos plantea el grado de relación o integración de este yacimiento con los de esa región, posiblemente en el sentido de incrementar o intensificar esas influencias, estableciéndose una interacción mayor entre Izturitz, el más cercano, y Aitzbitarte III, y adquiriendo este un grado de influencia más importante en la región cantábrica como nexa entre una y otra.

No hemos hecho ninguna alusión aquí a otras piezas no decoradas de fondo común, y persistentes también en otras épocas y períodos paleolíticos como punzones, alisadores, puntas-azagayas, retocadores, etc., ni de los colgantes o elementos de adorno sobre dientes de animales, que también están presentes en los niveles V y VI del yacimiento sobre el que versa nuestro estudio, porque no forman parte de los elementos considerados claramente como “marcadores” del período gravetiense.

3.2. RELACIÓN CON OTROS YACIMIENTOS GRAVETIENSES EN LA REGIÓN CANTÁBRICA

Nombraremos una somera relación de aquellos yacimientos con los que Aitzbitarte III (interior) comparte algunos elementos característicos del complejo Gravetiense en nuestra zona cantábrica, sin pretender ninguna comparación en profundidad, tan solo una mención meramente indicativa. (Mapa 2).



2. mapa. Kantauri-Pirinio aldeko Gravette kultura-aldiko aztarnategiak. (De la Rasilla, M., Santamaría, D., 2006).

Mapa 2. Yacimientos gravetienses de la región cantábrico-pirenaica. (De la Rasilla, M., Santamaría, D. 2006).

3.2.1. Noailles zulakaitzak dituzten Gravette kultura-aldiko aztarnategiak, Gravetteko nahiz Vachonseko puntak edo Gravetteko mikropuntak bezalako harrizko beste pieza adierazgarriak izan ala ez

- Bolinkoba (F/VI maila). Noailles zulakaitzak eta Gravetteko eta Vachonseko puntak ikus daitezke (Iriarte-Chiapusso, M.J. eta Arrizabalaga, A. 2013).
- Aitzbitarte III (sarrerako eremua) (III. eta IV.-Va mailak) Noailles zulakaitzak bereizten dira harrizko multzoan (Altuna, J. et alii. 2013) (Altuna, J. et alii. 2011).
- Antoliñako Koba (Lmbk eta Lab mailak). Era berean, Noailles zulakaitzak daukate, kopuru desberdinean baina (Aguirre, M. 2013).
- Amalda (VI. maila). Noailles zulakaitzak daude (Altuna et alii, 1990) (Baldeón, A. 1990).
- Ametzagaina. Estratigrafiaren alorreko arazoak planteatzen dituen haize zabaleko kanpalekua. Harrizko multzoan badira Noailles zulakaitzak (Calvo, A. et alii. 2013).
- Gaztelua (12. eta 14. unitateak). Noailles zulakaitzen aleak azaldu ziren.
- La Viña (X.-VIII. mailak). Ale bizkardun batzuk eta Noailles zulakaitzak egiaztatzen dira (Martínez, L., De la Rasilla, M., 2013).
- Cueto de La Mina (G-H mailak). Presentzia urria: Gravette motako punta batzuk eta Noailles zulakaitz bat (De la Rasilla, M., Santamaría, D., 2006).

3.2.2. Gravette kultura-aldiko aztarnategiak, hezurrezko industria dekoratua eta apaingarriak dauzkatena

- Bolinkoba (F/VI; E/V mailak). Oparoa da hezurrezko industria, tartean hezur-printza zorrotzak (ekonomia-etzekak) eta beste elementu batzuk: leuntzaileak, puntak. Era berean, aipagarri dira 2. Motako alboko ebakiak ("ehiza-arrastoak") dauzkan saiheutsu dekoratuaren zatiak (VI. m). Halaber, apaingarriak daude V. mailan: maskor zulatuak eta orein baten hortz zulatu bat (Barandiarán, J.M., 1978) (Iriarte-Chiapusso, M.J. eta Arrizabalaga, A., 2013).
- Aitzbitarte III (sarrerako eremua) (III. eta IV.-Va mailak). Aski oparoa (batik bat III. mailan), hondakin teknikoekin eta eztenak, azagaiak eta orratzaren urrunaldeko zatiak bezalako tresnekin. Apaingarriak: azeriaren letagin zulatu bat eta hezur-ale baten zati bat (Altuna, J. et alii., 2013) (Altuna, J. et alii., 2011).
- Antoliñako Koba (Lmbk eta Lab mailak). Hezurrezko industria gutxi bi mailetan, azagaia zapal gutxi batzuk baizik ez. Apaingarriak: oreinaren letagin atrofiko zulatu batzuk, zintzilario-ale zati bat eta alboetan hozka sakonak dituen hagatxo zorrotza (Aguirre, M. 2013).
- Amalda (P.VII maila). Urria da hezurrezko industriaren presentzia, punta-azagaiaren bi zati eta zulatuak hezur-zati batekin egindako zintzilarioa. Beste maila ere (P.V) urria da, hezur luze batean landutako ukitzaila bat eta oreinaren eta azeriaren letagin zulatu bana (Baldeón, A., 1990).
- El Cuco (III. maila). Hezurrezko industria gutxi, horien artean ezten eta espatularen bat eta hezur-printza zorrotz gutxi batzuk (Rasines, P. eta Muñoz, E., 2013).

3.2.1. Yacimientos gravetienses con presencia de buriles de Noailles, acompañados o no de otras piezas líticas características como puntas de La Gravette, de Vachons o Microgravettes

- Bolinkoba (nivel F/VI). Se constata presencia visible de buriles de Noailles y también puntas de La Gravette y Vachons. (Iriarte-Chiapusso, M.J. y Arrizabalaga, A. 2013).
- Aitzbitarte III (sector exterior) (niveles III y IV-Va). Se encuentran buriles de Noailles en su conjunto lítico. (Altuna, J. et alii. 2013) (Altuna, J. et alii. 2011).
- Antoliñako Koba (niveles Lmbk y Lab). También contienen, en distinta proporción, buriles de Noailles. (Aguirre, M. 2013).
- Amalda (nivel VI). Presencia de buriles de Noailles. (Altuna et alii, 1990) (Baldeón, A. 1990).
- Ametzagaina. Campamento al aire libre con problemas estratigráficos. Contiene en su conjunto lítico buriles de Noailles. (Calvo, A. et alii. 2013).
- El Castillo (unidades 12 y 14). Aparecen ejemplares de buriles de Noailles.
- La Viña (niveles X-VIII). Se constatan algunos elementos de dorso y buriles de Noailles. (Martínez, L., De la Rasilla, M. 2013).
- Cueto de La Mina (niveles G-H). Escasa presencia: algunas puntas de La Gravette y un buril de Noailles. (De la Rasilla, M., Santamaría, D. 2006).

3.2.2. Yacimientos gravetienses con presencia de industria ósea y decorada y elementos de adorno

- Bolinkoba (niveles F/VI; E/V). Contiene abundante industria ósea con esquirlas óseas apuntadas (punzones de economía) y otros elementos: alisadores, puntas. También destacan (n.VI) fragmentos de costilla decorada con incisiones laterales ("marcas de caza") del Tipo 2. Asimismo se encuentran (n.V) elementos de adorno: conchas perforadas y un diente de ciervo perforado. (Barandiarán, J.M. 1978) (Iriarte-Chiapusso, M.J. y Arrizabalaga, A. 2013).
- Aitzbitarte III (sector exterior) (niveles III y IV-Va). Relativamente abundante (sobre todo en el III) con restos técnicos y útiles como punzones, azagayas y fragmentos distales de aguja. Como elementos de adorno: un diente canino de zorro perforado y un fragmento de cuenta de hueso. (Altuna, J. et alii. 2013) (Altuna, J. et alii. 2011).
- Antoliñako Koba (niveles Lmbk Lab). Escasa industria ósea en ambos horizontes, con algunas azagayas aplanadas. Como elementos de adorno: algunos caninos atroficos de ciervo perforados, un fragmento de cuenta de collar, una varilla apuntada con muescas laterales profundas. (Aguirre, M. 2013).
- Amalda (nivel P.VII). Escasa representación de industria ósea con dos fragmentos de punta-azagaya y un colgante por perforación en fragmento de hueso. El otro nivel (P.V), también escaso, con un retocador en hueso largo y dos dientes perforados de ciervo y zorro respectivamente. (Baldeón, A. 1990).
- El Cuco (nivel III). Escasa industria ósea entre la que se encuentra algún punzón, espátula y esquirlas apuntadas óseas. (Rasines, P. y Muñoz, E. 2013).

- La Viña (X.-VIII. mailak). Hezurrezko industria gutxi. Zintzilikario batzuk eta buruxka-itxurako motibo batekin grabatutako hezur-zati bat (Martínez, L., De la Rasilla, M., 2013).
- Cueto de La Mina (G-H mailak). Oso urria. Ezer nabarmenezkotan, oin ebakia duten bi punta-azagaiak, beste ikerlari batzuek "Izturitze motako" puntatzat dauzkatenak, aipatuko genituzke hemen (De la Rasilla, M., Santamaría, D., 2006).
- Llonin (V. maila). Hezurrezko industria urria da eta ez oso adierazgarria (Martínez, L., De la Rasilla, M., 2013).

3.2.3. "Izturitze motako puntak" dauzkaten Gravette kultura-aldiko aztarnategiak

- Bolinkoba (F/VI maila). "Izturitze motako" punta baten hurbilaldeko zati baten presentzia (Barandiarán, J.M., 1978).
- Usategi (III. maila). "Izturitze motako" punta baten hurbilaldeko zatia, Gravette kultura-aldiko beste elementurik gabe (Ríos-Garaizar, J., Garate, D., 2014).
- Askondo (testuingurutik kanpora, gainazalean). "Izturitze motako" punta baten hurbilaldeko eta erdialdeko zatia, Gravette kultura-aldiko beste egiaztapenik gabe, aipatu kultura-aldiari dagokion haitzuloko artearen multzoa kon-tuan hartzen ez bada (Ríos-Garaizar, J., Garate, D., 2014).

Aintzat hartzekoak dira gure ustez Pirinioetako Izturitzeko aztarnategiarekin partekatzen dituen harremana eta bat etortzea, betiere alde batera uzten badugu bi aztarnategien artean dagoen proportziorik eza, Frantziako aztarnategia oso-oso aberatsa baita arkeologikoki Gravette kultura-aldiko mailetan, maila horietan harrizko nahiz hezurrezko tresneria oparora ez ezik kalitate handikoa ere badelako.

- Bi aztarnategiek esku-hartzen dute eta partekatzen dute Gravette kultur-horizontea Noailles zulakaitzak dituen faziean.
- Bietan daude harrizko "adierazgarri" horien kantitate eta aldaera ugari, bai kopuruari dagokionez bai gainerako harrizko tresneriaren aurreko proportzioari dagokionez. Ist.IV mailan zulakaitzen multzoa da guztietan garrantzitsuena (harrizko tresnen % 49), zulakaitzen guztizkoaren % 36 hartzen dute Noailles zulakaitzek, hau da, tresnen guztizkoaren % 18. Bizkardunen, punten eta Gravetteko eta Vachonseko mikropunten taldean nagusi dira, multzo horretan % 76 hartzen dute. Ist.III mailan zifrak apur bat behera egiten du, baina hor ere pisu espezifiko handia du. Maila horretan ere zulakaitzak dira nagusi, multzoaren % 46 hartzen dute. Noailles zulakaitzak, ugari diren arren, ez dira aurreko mailan iristen zuten ehunekora heltzen, zulakaitzen % 21 dira eta harrizko industriaren guztizkoaren % 9 (Esparza, 1995). Aitzbitarte III haitzuloko VI. mailan ere zulakaitzen taldea da, argi eta garbi, nagusi (harrizko tresnen % 68), zulakaitzen guztizkoaren % 88 Noailles zulakaitzak direla eta tresnen guztizkoaren % 59. Aitzitik, urria da tresna bizkardunen ehunekoa (% 3). Kopuruaren ikuspegitik behera nabarmen egiten duen arren, Aitzbitarte III haitzuloko V. mailan ere tresnen multzoan handia da zulakaitzen taldearen ehunekoa (% 63).
Noailles zulakaitzak hemen ere nagusi dira zulakaitzen taldean, % 86 dira, harrizko tresnen guztizkoaren % 55. Era berean, oso urria da pieza bizkardunen multzoa (% 4).

- La Viña (niveles X-VIII). Industria ósea poco representada. Algunos colgantes y un fragmento de hueso grabado con un motivo en espiga. (Martínez, L., De la Rasilla, M., 2013).
- Cueto de la Mina (niveles G-H). Notablemente escasa. De destacar, las dos puntas-azagayas de base recortada, aceptadas por otros investigadores como puntas de "tipo Izturitz", las mencionaríamos aquí. (De la Rasilla, M., Santamaría, D., 2006).
- Llonin (nivel V). Industria ósea escasa y poco diagnóstica. (Martínez, L., De la Rasilla, M., 2013).

3.2.3. Yacimientos gravetienses con presencia de "Puntas de tipo Izturitz"

- Bolinkoba (nivel F/VI). Presencia de un fragmento proximal de punta "tipo Izturitz". (Barandiarán, J.M., 1978)
- Usategi (nivel III). Hallazgo de un fragmento proximal de punta "tipo Izturitz" sin otras evidencias gravetienses. (Ríos-Garaizar, J., Garate, D., 2014).
- Askondo (descontextualizado, en superficie). Fragmento proximal y parte del medial de punta de "tipo Izturitz" sin otras constataciones gravetienses, salvo el conjunto de arte parietal atribuido a dicho horizonte cultural. (Ríos-Garaizar, J., Garate, D., 2014).

Una consideración especial merecería la relación y sintonía que nos parece encontrar con el yacimiento pirenaico de Izturitz, salvando siempre la desproporción existente entre ambos lugares por la riqueza arqueológica extraordinaria de los niveles gravetienses debido a la cantidad y calidad del utillaje, lítico y óseo, proporcionado por el yacimiento francés.

- Ambos yacimientos participan y comparten el horizonte cultural Gravetiense en la facies con buriles de Noailles.
- Los dos contienen notables cantidades y variedades de estos "marcadores" líticos, no solo en número en sí, sino en proporción con respecto al resto del utillaje de la industria lítica. El nivel Ist.IV tiene al grupo tipológico de los buriles como el más importante (49% de los útiles líticos), suponiendo el específico de los buriles de Noailles el 36% de los buriles y el 18% del total de útiles. En el grupo de las piezas de dorso, las puntas y micropuntas de La Gravette y de Vachons, forman el grueso del grupo con el 76% del total del mismo. El nivel Ist.III baja un poco las cifras, pero sigue manteniendo un peso importante. Los buriles siguen siendo el grupo mejor representado con el 46%. Los buriles de Noailles, aunque abundantes, no alcanzan el porcentaje que tenían en el nivel anterior; suponen un 21% del grupo de buriles y un 9% del total de la industria lítica (Esparza 1995). En el nivel VI de Aitzbitarte III, también el grupo de buriles resulta de forma abrumadora el más numeroso (68% de los útiles líticos), siendo los buriles de Noailles el 88% del total de buriles y el 59% del total de útiles. En cambio, es escaso (3%) el porcentaje de útiles con dorso. En el nivel V de Aitzbitarte III, se mantiene el alto porcentaje, aunque en número baja muy considerablemente, del grupo de buriles sobre el conjunto de útiles (63%).

También los buriles de Noailles tienen la preeminencia en su grupo con un 86% y un notable 55% del total de útiles líticos. También es muy escaso (4%) el conjunto de piezas de dorso.

Oro har, Aitzbitarte III haizuloko V. eta VI. mailen eta Pirinio aldeko aztarnategien eta bereziki Izturitzeko Gravette kultu aldiko mailen artean lortura estuak eta antzekotasun handiak daudela esan dezakegu.

- Bi aztarnategietako hezurrezko industriek elementu komunak dauzkate aztarnen kopuruari eta aberastasunari bagagozkie, eta horietako batzuk Gravette kultur-horizontearen elementu "adierazgarritzat" hartuak dira. Ist.V mailan oso oparoa da hezurrezko industria, puntuen tipologiari erantzuten diotenen multzoa da nagusi. Pieza horien artean aipagarri dira 150etik gora punta edo "Izturitze motako azagaia", tresnen gutzizkoaren % 14 hartzen dute horiek. Era berean, aipagarri dira "ehiza-arrastoak" deituak, hainbat euskarritan landuak, nahiz hobe bereizten diren ertzak apainduta dauzkaten saihetsetan, 2. Motara biltzen direnetan. Kopuruaren ikuspegitik ez dira gutxi zizelak, printza zorrotzak, ziriak eta leuntzaileak. Ist.III mailaren osaerak antz handia dauka aurrekoarekin, nagusi dira hor ere puntak, baina "Izturitze motako azagaiak" askoz ere gutxiago dira, tresnen gutzizkoaren % 8. Maila horretan ere badira I. Motako saihets dekoratu batzuk eta etxeko lanak edo ehizari lotutako jarduerak burura eramateko eguneroko pieza batzuk, baita apaingarriak eta dekoraziozko motiboak dauzkaten elementuak ere. Aitzbitarte III haizuloko VI. mailan piezak gutxi diren arren oso garrantzitsuak dira, tipologia sorta handi samarra bereizten da haien artean. Aipagarrienak, "Izturitze motako" bi puntaren hurbilaldeko zatiak; horiek, Aitzbitarte II haizulotik arrastean iritsitako jalkinetik bildutakoarekin batean, hezurrezko piezen gutzizkoaren % 11 hartzen dute, eta multzo aparta osatzen dute gure lurraldean (Kantauri aldeko % 50, Cueto de la Mina zalanazko piezak eta Las Caldasko eta Antoliñako pieza aski zurrak kontuan hartu gabe; pieza horiek sakonago aztertu beharko lirakeke, eta agian aldatuko lukete piezen ehunekoak). Era berean, punta-azagaiaren aztarnak (4), eztenak (1), leuntzaileak (2), ukigailua/ziria/zizel mar-radunak (1), hondakin teknikoak (2), I. Motako saihets dekoratuak (2), zati dekoratua (1), oreinaren eta azeriaren hotz zulatuekin egindako zintzilikarioak (4) daude, aipatu aniztasunaren erakusgarri. Aitzbitarte III haizuloko Gravette kultura-aldiko mailetatik iritsitako Aitzbitarte II haizuloaren hondoko jalkinean ere aniztasun hori bereizi genuen berreskuratutako objektu urrietan: aspalditik ezagutzen den "Izturitze motako" punta, lehendik ere adierazia, punta-azagaiaren zatiak (2), ekonomia-eztena (1), leuntzailea-espátula (1) eta I. Motako saihets marraduna (1).

Bi aztarnategietan egindako aurkikuntzen datuak erkatuko bagenitu, horien artean dagoen antzekotasuna ikusiko genuke soilik aintzat hartuko bagenitu Gravette kultura-aldiak berezko dituen elementuak (Noailles zula-kaitzak, pieza bizkardunak, "Izturitze motako" puntak, erabilitako saihets dekoratuak [I. Mota], apaingarriak). Horrek guztiak berretsi egiten du Izturitzeko eta Aitzbitarte III haizuloetako aztarnategiei leku egiten dien eremuan harreman garrantzitsuak (garrantzitsuak bai baina ez maila berean) edo halako integrazioa izan zirelako gure uste osoa.

En líneas generales, se aprecia en los niveles V y VI una importante vinculación y fuertes paralelismos con la región pirenaica y muy singularmente con los niveles gravetienses de Isturitz.

- La industria ósea de ambos yacimientos también muestran en cuanto a presencia, en absoluto respecto al número y riqueza, elementos comunes, algunos considerados como "identificadores" del horizonte cultural gravetiense. El nivel Ist.IV presenta una industria ósea muy abundante, donde el grupo tipológico de las puntas es el mejor representado. Entre estas piezas destacan las más de 150 puntas o "azagayas de Isturitz" que suponen el 14% de los útiles. También la presencia de las llamadas "marcas de caza" sobre diferentes soportes, aunque se reconozcan mejor en las costillas decoradas en los bordes o de Tipo 2. Otros tipos de piezas presentes en cierta cantidad son los cinceles, esquirlas apuntadas, cuñas y alisadores. El nivel Ist.III tiene una composición bastante parecida al anterior, dominando las puntas, si bien las "azagayas de Isturitz" son bastante menos numerosas, suponiendo el 8% de los útiles. Igualmente están confirmadas en el contenido del nivel, algunas costillas decoradas del Tipo 1 y otras piezas cotidianas presentes para la realización de actividades de tipo doméstico o cinegético, o elementos de adorno y con motivos de decoración. En el nivel VI de Aitzbitarte no se encuentran muchas piezas, pero sí bien representadas, cubriendo un abanico interesante de tipos. Lo más destacado, las dos puntas de "tipo Isturitz", fragmentos proximales que, unidas a la recogida en el depósito acumulado por arrastre de Aitzbitarte II, supone el 11% del total de piezas óseas y constituyen un extraordinario conjunto para nuestra región (el 50% de la región cantábrica, sin contar las discutidas de Cueto de la Mina, ni las más que probables de Las Caldas y de Antoliña, que exigirían una revisión más a fondo y, quizá, alterarían la proporción). Asimismo encontramos presentes restos de punta-azagaya (4), punzones (1), alisadores (2), retocador/cuña/cinzel con rayas (1), restos técnicos (2), costilla decorada Tipo 1 (1), fragmento decorado (1), colgantes en diente perforado de ciervo y zorro (4), que manifiestan la variedad aludida. En el sedimento del fondo de Aitzbitarte II, procedente de los niveles gravetienses de la cueva III, también hallamos esta variedad en los pocos efectivos recuperados: la mencionada punta de "tipo Isturitz" conocida desde hace tiempo, fragmentos de punta-azagaya (2), punzón de economía (1), Alisador-espátula (1), costilla con rayas del Tipo 1 (1).

Si cruzáramos los datos de hallazgos entre ambos yacimientos veríamos la similitud que se observa en ellos, atendiendo solo a elementos típicos del Gravetiense (buriles de Noailles, piezas de dorso, puntas de "tipo Isturitz", costillas utilizadas decoradas [Tipo 1], objeto decorado). Todo eso nos reafirma en la convicción de la existencia de relaciones importantes o de la integración en un área de influencia en el que están presentes, aunque no en el mismo nivel de importancia, los yacimientos de Isturitz y Aitzbitarte III.

4. ONDORIOAK

1. Aitzibitarte III haitzuloaren barrunbeko aztarnategi arkeologikoak, bere V. eta VI. mailetan, argi eta garbi egiaz-tatzen du Gravette kultura-aldiko horizonteari dagokiola, Noailles zulakaitzak dituen faziako Gravette kultura-aldiari zehazki. Lortutako datu kronologikoen eta aztertutako har-rizko eta hezurrezko industrien edukiak bermatzen dute baieztapen hori, baita faunaren azterketak, sedimentuen azterketak eta azterketa palinologiko zein arkeopetrologi-koek ere.
2. Aitzibitarte III haitzuloko barrunbea, oraingoz bederen eta, zer esanik ez, lzturitzeko aztarnategiaren mailara iritsi gabe, Kantauri aldeko Gravette kultura-aldiko aztarnate-gi eredugarri bihurtu da, nola harrizko hala hezurrezko "adierazgarriek" Gravette aldiko ezaugarri garrantzitsu batzuk inolako zalantzarik gabe identifikatzea ahalbidetzen baitute. Noailles zulakaitzen ugaritasunak, pieza bizkardun-ek, lzturitze motako puntak erabilitako saiheks dekoratuekin batean aurkitu izanak eta apaingarrien (hortz zu-latuekin egindako zintzilarioak eta uestezko beste pieza batzuk) kopuru interesgarriak, baita faunaren azterketak eskaintzen duen informazioak ere, agerian uzten dute az-tarnategi honen izaera aparta Kantauriko erlaitzaren men-dealdean.
3. Hezurrezko industriaren garrantzia, kopuru aldetik urria izan arren esanguratsua baita piezen aniztasunari bagagoz-kio, areagotu egiten da "lzturitze motako" bi punta berri-ren aurkikuntzarekin; hurbilaldeko zati txikiak diren arren, izena ematen dioten aztarnategiaren eragina sendotzen dute eskualde osoan, eta ageriago uzten dituzte Euskal Herriko kostaldeko herrialdeetako Gravette kultura-aldiko aztarnategien (bereziki Aitzibitarte III haitzuloaren) eta Pirinio aldeko aztarnategien arteko harremanak. lzturitzeko aztarnategia litzateke nagusia, eta hari lotuko li-tzaizkioke, modu egonkorrean edo ez hain egonkorrean, Gravette kulturako hainbat komunitate beren jarduerak burura eramateko; horrek guztiak trukeak egitea edo jar-duera jakin batzuk elkarrekin egitea ahalbidetuko zuen.
4. Aitzibitarte III haitzuloko hezurrezko industrian pieza-mo-ta desberdinak daude. Kopuru aldetik ez baina kalitate aldetik esanguratsua den aniztasun horrek aukera ematen du aztarnategia okupatu zuen Gravette kultura-aldiko giza taldearen lanak eta zereginak erdizka ikusteko edo hautemateko. Ikusirik pieza motak, haien lantzeko eus-karrien lehengaiak eta baliabide teknikoak, ez dirudi han bideratuko zituzten jarduerak oso espezifikoak zirenik, ez dirudi espezializazio handiko jarduerak garatuko zituztenik (nahiz eta, harrizko tresneriari dagokionez, Noailles zu-lakaitzen ugaritasun sinestezinak harrituta uzten gaituen, oraindik ez dakigu zergatik diren hainbeste); segur asko etxeko kontuekin, ehiza kontuekin eta, nolabait esateko, estetika-gizarte kontuekin zerikusia duten jardueren aztar-nak dira. Eztenen, printza zorrotzen, leuntzaile-espátulen eta karrakagailuaren taldeak larruak, landareak eta arro-pak tratatzeko lanekin zerikusia duten etxeko zereginetara eramaten gaituzte; punta-azagaiek eta "lzturitze motako" puntak (elementu fusiforme gisa) hornigai eta baliabideen iturritzat hartutako ehiza-jarduerari lotutako jaurtigaien egituretara garamatzate; lortutako hondakin teknikoak, zi-zel-ziriak eta ukigailua, era askotako tresnen lanketarekin edo ukituekin zerikusia duten lanez mintzo zaizkigu, eta apaingarriek, hortz zulatuek, hezur landuek eta bildutako

4. CONCLUSIONES

1. El yacimiento arqueológico de Aitzibitarte III, en su zona interior, en los niveles V y VI, acredita de forma fehaciente su pertenencia al horizonte cultural Gravetiense, dentro de lo que se denomina Gravetiense de facies con buriles de Noailles. Esta afirmación viene avalada por los resultados de los datos cronológicos obtenidos y por el contenido de las industrias líticas y óseas analizadas, así como complementadas por las aportaciones desde el estudio faunístico, sedimentológico, palinológico y arqueopetroológico.
2. Aitzibitarte III, interior, se convierte en el momento actual, por supuesto a otra escala de la de lsturitz, en yacimiento gravetiense tipo de la región cantábrica, donde la presencia de "marcadores", tanto líticos como óseos, permiten identificar con seguridad varias de las principales características del período Gravetiense. La abundancia de buriles de Noailles, la presencia de piezas de dorso, el hallazgo de puntas lsturitzenses asociadas a costillas utilizadas decoradas y un interesante número de elementos de adorno (colgantes en dientes perforados y otras posibles piezas), aparte de la importante información faunística, marcan de forma nítida el carácter notable del yacimiento en el área oriental de la cornisa cantábrica.
Aipatu lanean Aitzbitarteko mendixka honetako haitzuloetan 1892. urtetik (urte hartan aurkitu baitzuten, IV. haitzuloan, hain zuzen ere, Euskal Herriko Paleolitoko lehenengo aztarnategia) 2002. urtera arte bideratutako hainbat esku-har-tzeren berri eman genuen.

Lan hartan haitzuloaren sarreran eta 1994 eta 2002 urte bitartean J. Altunaren zuzendaritzapean egindako induskete-tara mugatu ginen. Baina indusketa-lan horiek egin baino lehen, beste indusketa batzuk egin zituzten 1986 eta 1993 urte bitartean zuzendaritza berdinarekin haitzulo horren barrunbean. Indusketa haietan lortutako materialak eta emaitzak dakartzagu orriotara.

8 maila ditu barrunbeto jalkinaren **estratigrafiak**.

Errekarriek eraturiko terraza bat da VIII. maila, eta errekarri horien artean Moustier itxurako pieza batzuk azaldu ziren.

VII. maila lur kolore hori eta pikortsuaz eratuta dago, ugari dira hartxintxarrak. Era berean antzua da, eta dauden elementu urriak VI. mailaren oinetik iritsiak direla ematen du.

VI. maila lur hareatsu-lohitsu ilunagoaz osatuta dago, eta oparoa da Gravette moldeko industria, Noailles zulakaitzekin batean.

Lor kolorez horiagoak osatuta dago V. maila, hareatsua da, eta VI. mailako industriaren pareko industria ageri du.

Baldosen moduan elkarren ondo-ondoan egokitutako harri xabal txikien geruza batek eratua da IV. maila, segur asko jatorri antropikokoa da. Geruza mehearen eta aipatutako ekin-tza antropikoaren ondorioz, agian nahasi egin dira Gravette moldeko elementu batzuk Solutre moldeko beste batzuekin,

Unitate bakarra osatzen duen III-II maila lur ilunak eta lohitsuak eratuta dago, ugari dira harkoskoak haren oinean. Haren maila, azken Paleolitikoa, ez dago ongi zehaztuta.

I. mailak nahasian ditu materialak: izan ere, etxekotutako animalien aztarnak daude *Ursus spelaeus* espeziearen beste aztarna batzuekin batean.

Sedimentologiak adierazten digu beheko maila hezetasun handiko uneetan eratu zela, isurketa handiko uneetan, egun haitzuloaren beheko aldetik igarotzen den ibaia haitzuloan sartu eta kanpoko materialak haitzuloaren barrunbera sartu zituen uneetan.

VI. eta V. mailek ere halako isurketa salatzen dute, ez ordea terrazako mailan hautematen den isurketa bezain indartsua. Nolanahi ere den, handiago da V. mailan VI. mailan baino.

Harrizko industriaren azterketan kontserbazio-arazo larriak hauteman dira sekuentziaren goiko tartean (IV. eta III-II mailetan), eta arazo horiek mugatu egin dute maila horietan lortutako emaitzen irismena. Mailaz maila bildutako laginak izan ditugu aztergai harrizko industria aztertzeko.

Beheko VIII. mailak harrizko oso multzo txikia eskaini du (K=6); sarrerako eremuko VI. maila, Erdi Paleolitoko multzotzat hartua, gogorarazten du. VII. maila ia erabat antzua da, eta eskaini duen harri-sorta (K=95) soilik bi laukitatik eratorria da. Harrizko multzo hori teknologiaren eta tipologiaren arabera aztertu eta zalantza batzuk sortzen zaizkigu, ez dugu uste maila arkeologikoa osatzen dutenik, bai ordea VI. mailaren oinarria osatzen dutela.

En 2011 publicamos un extenso trabajo interdisciplinar acerca de las excavaciones llevadas a cabo en la cueva de Aitzbitarte III (Rentería, País Vasco) y de los materiales diversos recuperados durante ellas (Altuna, Mariezkurrena, Ríos, 2011).

En el trabajo citado dábamos noticia de las diversas intervenciones habidas en las cuevas de esta colina de Aitzbitarte desde 1892 (año en que se descubre el primer yacimiento paleolítico del País Vasco en la cueva IV de la misma) hasta 2002.

En esa publicación nos limitábamos a las excavaciones realizadas a la entrada de la cueva entre 1994 y 2002 bajo la dirección de J. Altuna. Pero antes de esas excavaciones se practicaron otras en la zona profunda de la misma entre 1986 y 1993 bajo la misma dirección. Son los resultados y materiales obtenidos en éstas últimas las que damos a conocer en el presente trabajo.

La estratigrafía del relleno de la zona profunda presenta 8 niveles.

El nivel VIII es una terraza de cantos rodados entre los que aparecieron algunas piezas de aspecto musteroide.

El VII, de tierra amarillenta, granulosa, con muchas guijas pequeñas es también casi estéril y sus pocos elementos parecen provenir de la base del nivel VI.

El nivel VI, de tierra arenoso-limosa más oscura, con industria muy abundante de tipo Gravetiense con abundantes buriles de Noailles.

El nivel V es de tierra más amarillenta, arenosa, con una industria similar a la del VI.

El nivel IV es una fina capa de pequeñas lascas yuxtapuestas a modo de embaldosado, probablemente de origen antrópico. Su poco espesor y la acción antrópica citada han podido mezclar algunos elementos de tipo Gravetiense con otros Solutrenses.

El nivel III-II, que forma una unidad, está formado por una tierra limosa oscura, con grandes cantos en su base. Su nivel, Paleolítico final, no está bien definido.

El nivel I contiene materiales mezclados: hay restos de animales domésticos por un lado, junto a otros de *Ursus spelaeus*.

La Sedimentología indica que el nivel inferior se deposita en momentos de gran humedad, con fuerte escorrentía, con penetración del río que discurre hoy bajo la cueva y que aporta materiales del exterior de la caverna hacia el interior.

Los niveles VI y V muestran también una escorrentía, si bien no tan potente como la que se observa en el nivel de la terraza. En todo caso es mayor en el nivel V que en el VI.

En el estudio de la **industria lítica** se han detectado problemas serios de conservación en el tramo superior de la secuencia (niveles IV y III-II) que limitan el alcance de los resultados obtenidos en estos niveles. El estudio de la industria lítica se ha realizado sobre una muestra representativa de cada nivel.

El nivel VIII inferior presenta un conjunto lítico muy pequeño (N=6) que recuerda al Nivel VI de la entrada, interpretado como un conjunto del Paleolítico Medio. El nivel VII es un nivel prácticamente estéril, y el lote lítico (N=95) que ha proporcionado procede exclusivamente de dos cuadros. El estudio tecnológico y tipológico de este conjunto lítico nos hace dudar de su entidad como un nivel arqueológico y nos indica que estos materiales se corresponden de hecho con la base nivel VI.

VI. mailak era askotako lanketa-sistemen bidez egindako modulu askotako ijeki-euskarrien ekoizpen handia salatzen du. Aurrez landutako ijeki zabalen inportazioarekin batean in situ egiten zituzten ijekiak ageri dira. Azken horiek batez ere prisma-itxurako nukleo polobakarretatik eratorriak dira, baina kasu batzuetan aurkako plataformak baliatu zituzten piezak zuzentzeko bitarteko gisa. Era berean, badira piramide-itxurako nukleoetatik, prisma-formako nukleo konbergenteetatik eta askotariko ustiapen-konplexuetatik eratorritakoak ere. Ijekitxoek ekoizpenaren kasuan, prisma-formako nukleoetatik abiatuta landu zituzten horiek, harri-printzaren ertza zulakaitzekin moldatuta. Bestalde, disko-formako nukleoetatik abiatuta, printza txikien ekoizpen independenteak ere hauteman dira.

Ukitutako tresnerian erabat nagusi dira zulakaitzak, batez ere Noailles zulakaitzak, ukiera bidezko lanen xede nagusi baitira horiek. Ijekitxoetan landutako lanabesak eta ukiera bidez landutako ijekiak eta mozturak ere dezentzera dira kopuru aldetik, substratu-tresneria, askotarikoak, bizkar-piezak, pieza ezpalduak eta marruskak bezalako oinarriko moldeak gutxiago diren bitartean. Aipagarri dira, oso gutxi direlako, zulagailuak eta puntak. Tresna handiak ez dira asko, baina jarduera-sorta handi baten erakusgarri dira.

Industria-multzo hori ondoz ondo etorritako okupazioen ondorioz osatu da, eta itxura guztien arabera Noailles zulakaitzen erabilerarekin eta ekoizpenarekin zerikusia zuten jarduera espezializatu batzuek pisu handia izan zuten okupazio horietan; hala eta guztiz ere, ez ziren soilik aipatu tresnen lanketari emanak bizi, jarduera-sorta zabalago bat iradokitzen duten beste tresna batzuk azaldu baitira haiekin batean, esate baterako, bobido handien armazoiak prozesatzeko lanekin zerikusia duten tresnak.

VI. mailaren oso antzekoa da V. maila, nahiz eta ijeki-euskarriak sortzeko xedean erabilitako lanketa-metodoen aniztasuna murrizten den eta printzen ekoizpen independenteak ezaugarritzen zailak diren. Ijeki-euskarrien (ijekiak eta ijekitxoak) lanketa batez ere prisma-formako nukleo polobakarretatik abiatuta bideratzen da (aurkako plataformetatik egindako zuzenketekin). Ijekitxoek kasuan, printza-sorbatzen gainean edo zulakaitz lodien gainean egindakoak ere dokumentatu ditugu.

Osaera tipologikoari dagokionez, V. mailan alde batzuk hautematen dira VI. mailarekiko, gutxiago dira Noailles zulakaitzak eta pieza ezpalduak V. mailan, baina gehiago dira mozturak eta substratu-tresnak. Era berean, Solutre aldiko punta bat dokumentatu genuen, baina azken hori intrusio-elementutzat hartua da.

Oro har gutxitzen dira ukitutako tresnak eta tresna horien aniztasuna, okupazioen intentsitatean eta okupazio horietan bideratzen zituzten eginkizunetan aldaketa bat gertatu zela iradokitzen dutela.

Haitzuloaren barrunbean gutxi gorabehera 31.000 eta 24.000 cal BP bitartean gertatu ziren giza okupazio etengabeak irudikatzen dituzte VI. eta V. mailek. Beren kronologiagatik eta osaera tekno-tipologikoagatik Erdi Gravette Aldiarekin lotzen dira, eta Antoliñako Koba, Bolinkoba, Izturitze eta Gatzarria bezalako haitzuloetako multzoekin eta Hego Mugarduia eta Ametzagaina bezalako haize zabaleko aztarnategietako multzoekin jar daitezke harremanetan. Aitzbitarte III haitzuloaren sarrerako eremuko Va eta IV. mailen kronologiak hein batean gainjartzen diren arren, hizpide ditugun okupazioak ez dira agertzen aipatu kanpoko edo sarrerako eremuan, eta osatu egiten dute IV. mailaren (Antzin Gravette aldia) eta III. mailaren (Gravette aldiaren amaiera) artean hautemandako etenaldia.

IV. mailak halako arazoak planteatzen ditu kontserbazioaren ikuspuntutik. Multzo honetan batera ageri zaizkigu

El nivel VI muestra una intensa producción de soportes laminares de diferentes módulos a partir de sistemas de talla variados. Hay una importación de láminas anchas ya conformadas junto a una producción de láminas *in situ* que se hace preferentemente a partir de núcleos prismáticos unipolares, aunque a veces se recurre a plataformas opuestas como medio de corrección. También se documentan producciones a partir de núcleos piramidales, prismáticos convergentes y complejos de múltiples explotaciones. En el caso de la producción de laminillas, esta se realiza a partir núcleos prismáticos, sobre borde de lasca y a partir de buriles. También se han reconocido producciones independientes de lascas de pequeño tamaño a partir de núcleos de tipo discoide.

El utillaje retocado se caracteriza por el predominio absoluto de los buriles, destacando los Noailles, que son el objetivo prioritario del retoque. El utillaje fabricado sobre laminilla y las láminas retocadas y truncaduras también son importantes mientras que otros tipos primarios como el utillaje de sustrato, diversos, piezas de dorso, piezas astilladas y raspadores aparecen algo menos representados. Destacan por su escasez los perforadores y las puntas. El macroutillaje no es muy abundante pero sí representativo de una gran variedad de actividades.

Este conjunto industrial se ha acumulado por la reiteración de ocupaciones en las que parece que ciertas actividades especializadas, relacionadas con el uso y fabricación de buriles de Noailles, tienen un peso muy importante, sin llegar a ser exclusivas ya que conviven con otros elementos que sugieren un abanico más amplio de actividades, por ejemplo las relacionadas con el procesamiento de las carcasas de los grandes bóvidos.

El Nivel V es muy similar al VI, aunque se reduce la variedad de métodos de talla utilizados para producir soportes laminares y las producciones independientes de lascas son difíciles de caracterizar. La talla de soportes laminares (láminas y laminillas) sigue haciéndose fundamentalmente a partir de núcleos prismáticos unipolares (con correcciones desde plataformas opuestas) y en el caso de las laminillas también se documenta la talla a partir de filo de lasca o buril espeso.

Acerca de la composición tipológica, se observan algunas diferencias con el nivel VI, a partir de la menor proporción de Noailles y piezas astilladas en el nivel V, que se compensa con una mayor presencia de truncaduras y de utillaje de sustrato. Asimismo se documenta la presencia de una punta solutrense interpretada como un elemento intrusivo.

En general desciende el porcentaje de utillaje retocado y la variedad del mismo, lo que sugiere un cambio en la intensidad de las ocupaciones y en la función de las mismas.

Los niveles VI y V representan ocupaciones humanas continuadas de la zona profunda de la cavidad que se producen entre ca. 31.000 y 24.000 cal BP. Tanto por su cronología, como por su composición tekno-tipológica, se relacionan con un Gravetiense Medio, que puede relacionarse con otros conjuntos en cueva como Antoliñako Koba, Bolinkoba, Izturitz y Gatzarria, y con yacimientos al aire libre como Mugarduia Sur o Ametzagaina. Estas ocupaciones, aunque su cronología se solapa parcialmente con la de los niveles Va y IV de la zona exterior de Aitzbitarte III, no están representadas en esta zona exterior y completan el hiato observado entre el nivel IV (Gravetiense antiguo) y el III (Gravetiense terminal).

El Nivel IV es un nivel problemático desde el punto de vista de su conservación. En este conjunto conviven sistemas

printza eta ijekitxo zabalak zein estuak ekoizteko sistemak eta inportatutako ijeki-euskarri handiagoak. Ertz markatuak eta aurrealde estuak (ia piramide-formakoak edo printza-sorbartzaren gainean egindakoak) dituzten nukleoetatik eta zulakaitz lodietatik abiatuak landu zituzten ijekitxoak, eta polo ugariko nukleoak baliatu zituzten printzak ekoizteko.

Ukitutako tresneriaren artean aipagarri dira Noailles zulakaitzak, anitzak eta Busqué zulakaitzak, eta mozturak. Era berean, sorta oparoa osatzen dute pieza ezpalduek, substratu-tresnek eta askotarikoek, eta euskarriek etekin handia ateratzen zuten dute agerian.

Gutxi gorabehera 22,8 eta 16 ka BP (27869 - 18750 cal BP) bitartean datatu da IV. maila, eta beraz, arazoak planteatzen dira multzoaren osotasunari dagokionez. Hala eta guztiz ere, ikusirik haitzuloaren sarrerako eremuko sekuentziako III. mailarekin duen antza eta bi maila horien datazioen arteko gutxi gorabeherako bat etortzea, Kantauri aldeko Gravette aldiaren amaieraren eta Solutre aldiaren hasierako faseen gainjartzeak eragiten duen problematikaren baitara bildu behar dugu multzo hau.

IV. mailak bezala, osotasun arloko arazoak planteatzen ditu III-II mailak. Tokiko lehengaiak erraz erabili zituztela hautematen da, eta agerikoa da tresneriaren morfologian eta tipologian halako sinpletasun bat. Printzak eta ijekitxoak *in situ* ekoizteko sistema sinpleak dokumentatzen dira, eta aztarnategira aurrez konfiguraturata zeuden ijeki-euskarri handiagoak ekarri zituztela. Tipologiari dagokionez, ugari dira gutxi landutako tresna-sortak, esate baterako, substratu-tresnak eta askotariko tresnak eta ukitutako ijekitxoak. Maila honetan ageri diren elementuen artean badira raclette-ak eta zulagailuak.

Ezaugarri horietatik eta multzoaren dataziotik abiatuak ematen du Solutre alditik Madeleine aldiaren hasierarako trantsizioan kokatu genitzakeela okupazio hauek. Eta hala balitz, halako lotura izango luke Euskal Herriko aldi horretako okupazioak bizi izan zituzten aztarnategiekin, esate baterako, Arlanpe, Askondo, Antoliñako Koba, Bolinkoba, Ermittia, Urtiaga, Amalda eta Aitzbitarte IV aztarnategiekin.

Goiko I. maila oso nahasita ageri zaigu, oso jatorri desberdineko materialak ditu, eta beraz, ez du datu fidagarriak eskaintzen.

Aitzbitarte III aztarnategian induskatutako bi eremuak alderatzen baditugu, haitzuloaren barrunbea, Erdi Gravette aldiaren izan ezik, gutxiago erabili zutela egiazta ahal izango dugu; izan ere, nola sarrerako eremuan hala barrunbean, Erdi Gravette aldikoak dira klima-baldintza zorrotzenak salatzen dituzten aztarnak. Hala eta guztiz ere, ez dugu pentsatu behar haitzuloaren barrunbea soilik klima-baldintza zorrotzak behartuak okupatu zutenik, aipatu tresna-sorta bereziak, batez ere VI. mailakoak, barrunbe honetan bideratuko zituzten jarduerak espezializatuak iradokitzen baititu.

Era berean deigarria da Aitzbitarte IV eta III haitzuloen arteko giza okupazioen itxurazko txandakatzea. Aitzbitarte IV haitzuloan garrantzi handia dute Solutre, Madeleine eta Azil aldiek, baina ez dira argi eta garbi Gravette aldiari atxiki dakizkiokeen okupazioak dokumentatu, nahiz eta V. maila eta berriki aurkitutako haitzuloetako artearen lagin urriak Goi Paleolitoaren hasierarekin erlazioan daitezkeen. Aitzitik, Aitzbitarte IV haitzuloko teknokomplexuek ez dute ia inolako islarik Aitzbitarte III haitzuloan.

Aitzbitarte III haitzuloaren barrunbeto sekuentziaren azterketari esker, Erdi Gravette aldikoak diren okupazio batzuk

de producción de lascas y de laminillas, tanto anchas como estrechas, al mismo tiempo que se importan soportes laminares de mayor tamaño. La producción de laminillas se realiza a partir de núcleos con flancos marcados y frentes estrechos (pseudopiramidales o sobre filo de lasca) y a partir de buriles espesos, y la producción de lascas se obtiene a partir de núcleos multipolares.

Entre el utillaje retocado destacan los buriles de Noailles, múltiples y Busqué, y las truncaduras. Las piezas astilladas, útiles de sustrato y diversos, también son grupos abundantes y denotan un aprovechamiento oportunista de los soportes.

El nivel IV ha sido datado entre ca. 22,8 y 16 ka BP (27869 - 18750 cal BP), lo que indica también problemas de integridad del conjunto. Sin embargo la semejanza con el nivel III de la secuencia de la entrada de la cueva, y la coincidencia, *grosso modo*, de las dataciones de ambos niveles permiten situar este conjunto dentro de la problemática del final del Gravetiense cantábrico y su solapamiento con las primeras fases del Solutrense.

El Nivel III-II, al igual que el nivel IV presenta problemas de integridad. Se aprecia una utilización intensa de materias primas locales y una sencillez en la morfología y tecnología del utillaje. Se documentan sistemas simples de producción de lascas y laminillas *in situ* y la incorporación al yacimiento de soportes laminares mayores ya configurados. Respecto a la tipología nos encontramos con una buena representación de grupos de utillaje poco configurado, como los útiles de sustrato y los útiles diversos, y de las laminillas retocadas. Otros elementos que aparecen representados son las raclettes y los perforadores.

A partir de estas características y de la datación del conjunto podríamos situar, con reservas, estas ocupaciones en la transición del Solutrense al Magdaleniense inicial. Lo cual lo vincularía con alguno de los yacimientos vascos con ocupaciones en este periodo como Arlanpe, Askondo, Antoliñako Koba, Bolinkoba, Ermittia, Urtiaga, Amalda o Aitzbitarte IV.

El Nivel I-SUP presenta un carácter muy alterado con materiales de procedencias muy diferentes y por lo tanto no ofrece datos de confianza.

Si comparamos las dos zonas excavadas en el yacimiento de Aitzbitarte III, podemos comprobar cómo la zona profunda de la cueva parece que se usó de manera menos intensa excepto durante el Gravetiense Medio, momento en el que se documentan evidencias de las condiciones climáticas más rigurosas de las dos secuencias. Esto no debe llevarnos a pensar, sin embargo, que la ocupación de la zona profunda obedece exclusivamente a factores climáticos, ya que la particular composición industrial de estos conjuntos, especialmente del nivel VI, sugiere la existencia de actividades especializadas que pudieron tener lugar en esta zona profunda.

Resulta también llamativa la aparente alternancia de las ocupaciones humanas entre la cueva IV y la III. En la IV los niveles Solutrenses, Magdalenienses y Azilienses tienen gran importancia y sin embargo no se han documentado de manera clara ocupaciones atribuibles al Gravetiense, aunque tal vez el nivel V y las escasas evidencias de arte rupestre identificadas recientemente puedan relacionarse con el Paleolítico Superior inicial. De manera opuesta los tecnocomplejos representados en Aitzbitarte IV apenas tienen reflejo en la cueva III.

El análisis de la secuencia interior de Aitzbitarte III ha permitido caracterizar unas ocupaciones atribuibles al Gravetiense

(VI. eta V. mailak) ezaugarritu ahal izan ditugu, klima-baldintza zorrotzetan gertatu ziren. Itxura guztien arabera, espezializaturako habitata osatzen zuten okupazio horiek, animalien armazoiak, bereziki bobido handien armazoiak, prozesatzen zituzten, eta sarri erabiltzen eta ekoizten zituzten askotariko tresnak, horien artean aipagarri Noailles zulakaitzak. Hain berezia den harrizko tresneria horrek eta Kantauri aldeko erregistroan horren gutxi diren lzturitze motako hezurrezko punten presentziak (Rios-Garaizar eta Garate, 2014) eramaten gaituzte VI. eta V. maila horiek lzturitzeko aztarnategiko multzoekin erlazionatzera (Normand et al., 2013). Izan ere, Aitzbitarte III aztarnategia, Nafarroa Behereko lzturitzeko aztarnategiarekin batean, Nerbioi ibaitik Aturri ibairaino iritsiko zen eskualdeko epizentrotza izango zen, eta eskualde horretan eruz landuko zuten hain berezia den teknokonplexu hori. Harrizko eta hezurrezko industriez gain, badira lurralde batasun hori sendotzen duten beste elementu batzuk, esate baterako, lehengaien zirkulazioa (Arrizabalaga et al., 2014).

Bestalde, goiko mailek (IV.a eta III-II.a) kontserbazio-arazo ugari daukate, eta horietan dokumentatutako elementuak ez dira V. eta VI. mailatan dokumentatuak bezain erabakigarriak. Kultuaren ikuspegitik zehazten zailak dira aztertutako multzoak, agian IV. maila da bietan argiena, antz handia baitu kanpoko eremuko sekuentziako III. mailarekin. Bi multzoek berezko industria-osaera ageri dute, Gravette aldiaren amaierako faseetara garamatzate, baina Frantziako Pirinio aldeko Solutre aldiko eta Kantauri aldeko Solutre aldiko maila zaharrenen datazioekin gainjartzen diren datazioak ageri dituzte. Haitzuloaren sarrerako eremuko sekuentzian jada aztertu genuen arazoa planteatzen du horrek (Altuna et al., 2011, 2013); izan ere, Gravette alditik Solutre aldirako trantsizioan erritmo desberdinak izango ziren, eta baliteke Kantauri aldean Gravette aldiaren bukaera aldeko garai bat bizi izana.

Aitzbitarte III haitzuloko **hezurrezko industria** oso garantzitsua da, kopuru aldetik urri samarra bada ere. 27 pieza aztertu ditugu, sakon aztertu ere. Aurkitutako pieza horietako batzuek, "adierazgarritzat" hartutako piezek, aukera ematen dute VI. maila hau (bertan azaldu baitira pieza gehien-gehienak) Noailles zulakaitzak dituen Gravette kultura-aldian kokatzeko.

Hezurrean eta adarrean landutako tresnak eta apaingarriak bi esparru desberdinetan egin dira, baina biek partekatzen dute jatorri bat eta bera: Aitzbitarte III haitzuloaren barrunbeo Gravette aldiko maila estratigrafikoak (V. eta VI. mailak).

Aitzbitarte II haitzuloko galeriaren hondoan dago aurreneko fokua. Bertan jaso genituen goiko haitzuloko sedimentuzko mailetatik arrasteen edo hustubide-efektuaren bidez iritsitako jalkinetan aspaldidanik ezagutzen diren piezak. Hemen berreskuratutako diren piezak, behar bezala zehaztu gabe badaude ere, ez ditugu testuingurutik kanpokotzat hartu, ongi asko ezagutzen baititugu horien jatorrian dauden Gravette mailak. 6 dira pieza horiek: leuntzaile-espátula bat, ekonomia-ezten bat hezurrezko printza batean landua, punta-azagaia baten bi zati (alaka bikoitz bat), lzturitze motako punta bat, ia osorik, eta erabilitako saihesten zati bat marra ebakiekin; azken bi horiek Gravette kultura-aldia salatzen duten "adierazgarritzat" hartuak dira.

Aitzbitarte III haitzuloaren barrunbean induskatutako laukietan dago bigarren fokua. Pieza guztiak (20) VI. mailan azaldu ziren, jarraian aztergai izango dugun pieza bat izan ezik. Hezur-printza bat da, lodia eta trinkoa, zizel-ziritzat hartua, eta ertzetako batean karrakagailutat hartua; IV. mailan azaldu zen, baina kontuan harturik IV. maila horren izaera, guk uste dugu V.

Medio (VI y V), que se dieron en un momento de gran rigor climático. Estas ocupaciones parecen corresponderse con un tipo de hábitat especializado en el que procesan carcasas animales, especialmente de grandes bóvidos, y en el que se producen y usan de manera muy intensa un utillaje variado en el que destacan los buriles de Noailles. Este utillaje lítico tan característico, unido a la presencia de puntas óseas de tipo lzturitz, tan escasas en el registro cantábrico (Rios-Garaizar y Garate 2014), permite relacionar los niveles VI y V con conjuntos como lzturitz (Normand et al. 2013). Aitzbitarte III parece formar junto a este yacimiento de la Baja Navarra el epicentro de una región, que abarcaría desde el Nervión hasta el Adour, en la que este tecnocomplejo tan característico tuvo una gran intensidad. Esta unidad territorial parece estar reforzada también por otros elementos, además de la industria lítica y ósea, como es la circulación de materias primas (Arrizabalaga et al. 2014).

Por otro lado los niveles superiores (IV y III-II) presentan numerosos problemas de conservación y no son tan representativos como los niveles V y VI. Los conjuntos analizados tienen una difícil adscripción cultural, siendo tal vez el nivel más claro el IV, que presenta grandes semejanzas con el nivel III de la secuencia exterior. Ambos conjuntos presentan una composición industrial característica, que remite a fases finales del Gravetiense, y sin embargo tienen dataciones que se solapan con las dataciones del Solutrense de la zona clásica Franco Pirenaica, y con algunos de los niveles más antiguos del Solutrense Cantábrico. Esto abre una problemática que ya tratamos en el estudio de la secuencia exterior (Altuna et al. 2011, 2013) y que plantea la posible existencia de diferentes ritmos en el tránsito del Gravetiense al Solutrense y la posible existencia de un Gravetiense terminal en la región cantábrica.

La **industria ósea** de Aitzbitarte III se ha revelado como relativamente escasa, pero con una significativa importancia. Son 27 las piezas objeto de estudio que se han analizado. Algunas de esas piezas encontradas, consideradas como "marcadores", permiten identificar el nivel VI, que es donde se han obtenido la gran mayoría, como perteneciente al horizonte cultural Gravetiense de la facies con buriles de Noailles.

La recuperación de los útiles de hueso y asta, así como de los objetos de adorno, se ha producido en dos ámbitos diferentes, aunque ambos compartiendo el mismo origen: los niveles estratigráficos gravetienses (niveles V y VI) del interior de Aitzbitarte III.

El primer foco se ubica en el fondo de la galería de Aitzbitarte II con la recogida de piezas, conocidas desde hace tiempo, en los rellenos depositados procedentes, por fenómenos de arrastre, efecto sumidero o soliflujión, de los niveles sedimentarios de la cueva superior. Las piezas que se han recuperado aquí, aunque indeterminadas, no las hemos considerado como descontextualizadas, dado que conocemos con certeza los niveles gravetienses de los que provienen. Estas piezas (6) son: un alisador-espátula, un punzón de economía en esquirla de hueso, dos fragmentos de punta-azagaya (un doble bisel), una punta de tipo lzturitz, casi completa, y un fragmento de costilla utilizada y con rayas incisas; estas dos últimas consideradas como "marcadores" identificadores del Gravetiense.

El segundo foco se encuentra en los propios cuadros excavados en el interior de Aitzbitarte III. La totalidad de las piezas (20) han sido obtenidas en el nivel VI, con una excepción que analizaremos a continuación. Una lasca ósea, gruesa y compacta, considerada como cuña-cinzel, y en uno de sus bordes como raedera, aparece en el nivel IV, aunque, por el carácter de este

mailari dagokiola, Gravette kultura-aldia dagokion mailari hain zuzen, VI. mailarekin guztiz bat eginez.

V. mailan hezurrezko industriaren beste aztarnatik ez dago, eta beraz, VI. mailan ageri dira beste tresna guztiak. Oso pieza interesgarriak azaldu dira: Izturitze motako punta baten hurbilal-deko bi zati, Aitzbitarte III Kantauri aldeko aldi honetako aztarnategi garrantzitsua bihurtzen dutenak eta Pirinio aldearekin eta hango aztarnategi nagusiarekin (Izturitzekoa) izango zituen harremanak eta loturak agerian uzten dituztenak; ebakiak dauzkan saiheats bat, punta-azagaiaren bost zati (bat dekoratuta eta bi alaka bakarrekoak); ezten bat, behiaren familiako animalia baten femurraren zati bat, zizel-ukigailu gisa erabilia, ebaki laburren sorta batekin, leuntzaile-espátula bat; bi hondakin tekniko: matrize bat eta hondakin-mihi bat; eta lau zintzilario, oreinaren 3 hortz zulodunekin eta azeriaren letagin zulodun batekin eginak, gehi, ageri duten ezaugarrietatik eta azaldu ziren testuinguruetatik, uzte besterik hiru zintzilario direnak.

Kopuru aldetik mugatua bada ere, oro har anitza da eta balio handikoa hezurrezko industria. Tresna horiek, batera hartuta, egitura aldetik anitza den Gravette kultura-aldiko aztarnategi dinamikoa eta bizia iradokitzen digute, era askotako jarduerak bideratuko zituzten, bizitegi esparruko jarduerak bezala ehizari eta gizarte-estetikari lotutako jarduerak, eta gainera hartu-emanak izango zituzten Kantauri eta Pirinio aldeetako beste kokaleku batzuekin, aztarnategi irekia izango zen zentzu horretan.

Mm I eko begia duen bahe batekin bildutako **makrougaztunak** 3.145 aztarna zehazgarri dira guztira. Gehien-gehienak VI. eta V. mailetan azaldu ziren. Horietan garbi asko ikusten da ehiza bobinoetan dagoela espezializatuta, horien artean *Bos primigenius* eta *Bison priscus* espezieak bereizten direla. Bobino horiek VI. mailan zehaztu daitezkeen aztarnen guztizkoaren % 85 baino gehiago dira, eta V. mailan zehaztu daitezkeen aztarnen % 67,3. Goiko mailetan pixka bat behera egiten dute ehuneko horiek, baina kopuru aldetik nagusi izaten jarraitzen dute bertan dauden beste espezieen ondoan.

Hezurren pisuari erreparatzen badiogu, pieza horiek eskaintzen duten haragi kopuruarekin bat etortzen baita hezurren pisua, bobinoek % 92 baino gehiago hartzen dute VI. mailan, eta % 81,8 V. mailan. Hezurretan hautematen diren jatorri antropikoko hausturak eta ebakiak oso ugari dira, haitzuloko giza jardueratik eratorritako multzo bati dagokion bezala. Ezbairik gabe bobino handietan espezializatutako ehiza salatzen dute, batez ere VI. mailan. Oraingo bederen, Kantauri aldean soilik aztarnategi honetan hautematen da hain garbi espezializazio hori. Izturitzekoa da gehien hurbiltzen zaion aztarnategia, bere Gravette aldiari; bertan bisontea da espezierik ehizatua, nahiz eta bisonteari aztarnen kopurua ez den aztarna zehazgarrien % 70era iristen.

Aitzbitarte III haitzulokan bereizten diren beste Ungulatuaren artean daude *Cervus elaphus* eta *Rupicapra rupicapra* eta, gutxiago, *Capra pyrenaica*, *Capreolus capreolus*, *Rangifer tarandus* eta *Equus ferus*. Elur-oreina eta orkatza aldi berean gertatzea arrunta da Kantauri aldean, lurralde horretako goi ordokiek biotopo ezin egokiagoak eskainiko zizkietelako elur-oreinei, eta haranek, bereziki mazela eguzkitsuek, orkatzei.

Aitzbitarte III haitzulokaren barrunbeak ehiza-espezializazio handia salatzen du, eta bi ezaugarri ditu:

1. Gravette aldiari gertatzen dela, normalean Kantauri Aldean Solutre aldiari agertzen dena, hau da, beranduago, gero Madalen aldiari jaraitzeko.

2. Bobino handiak (bisontea eta uroa) ehizatzen zitzutela, normalean ehiza espezializatu honek oreinak eta ahuntzak ehizatzen zituen bezala.

nivel, nos parece más ajustado y posible su atribución al nivel V, plenamente gravetiense y en armonía con el nivel VI.

Ausente cualquier vestigio de industria ósea en el nivel V, todos los demás útiles aparecen en el nivel VI. En él se han encontrado piezas de gran interés: dos fragmentos proximales de punta de tipo Izturitz, que hacen de Aitzbitarte III el yacimiento más relevante de la región cantábrica en este período y pone de relieve sus relaciones e influencias con la región pirenaica y su principal yacimiento (Izturitz); una costilla con incisiones, cinco fragmentos de punta-azagaya (uno decorado, dos monobiseles); un punzón, un fragmento de fémur de bóvido como cincel-retocador con una serie de cortas incisiones, un alisador-espátula; dos restos técnicos: una matriz y una lengüeta de desecho; y cuatro colgantes por perforación en dientes de ciervo (3) y zorro (1), así como otros tres posibles, por sus características y contexto.

En general, la industria ósea se manifiesta, dentro de su limitación cuantitativa, como variada y destacada cualitativamente. En su conjunto nos permite intuir un yacimiento gravetiense variado estructuralmente y funcionalmente dinámico con actividades de índole diversa en las esferas domésticas, cinegéticas y estético-sociales y abierto a influencias mutuas con otros enclaves de la región cantábrica y pirenaica.

Los Macromamíferos, recogidos con un cedazo de 1 mm de malla suman 3145 restos identificables. Los más numerosos corresponden a los niveles VI y V. En ellos se observa que la caza está especializada en los bovinos, donde están representados tanto *Bos primigenius* como *Bison priscus*. Estos bovinos superan el 85 % de todos los restos determinables en el nivel VI, alcanzando el 67.3 en el V. En los niveles superiores descienden algo, si bien siguen siendo los más numerosos entre las diversas especies presentes.

Si nos fijamos en el peso de los huesos, proporcional a la carne suministrada por ellos, los bovinos superan el 92 % en el nivel VI y el 81.8 en el V. Las roturas e incisiones diversas de origen antrópico en los huesos son muy numerosas tal como corresponde a un conjunto procedente de la actividad humana en la cueva. Se trata claramente, en especial en el nivel VI, de una caza especializada en los grandes bovinos. Es, hasta el presente, el único yacimiento de la Región Cantábrica en el que se observa esta especialización tan claramente. El yacimiento que más se le acerca es Izturitz, en su nivel Gravetiense, en el que el bisonte es la especie más cazada, si bien sus restos no alcanzan el 70% de los restos determinados.

Otros Ungulados presentes son *Cervus elaphus* y *Rupicapra rupicapra*, y en menor medida *Capra pyrenaica*, *Capreolus capreolus*, *Rangifer tarandus* y *Equus ferus*. Esta presencia simultánea de reno y corzo es frecuente en la Región Cantábrica donde sus altiplanicies podían ofrecer excelentes biotopos al reno y sus valles, en especial sus laderas soleadas, ofrecerlo al corzo.

Aitzbitarte III en el nivel VI de su zona interior presenta una clara especialización cinegética, que muestra dos peculiaridades:

1. Que se da en el Gravetiense, es decir antes de lo que es común en la Región Cantábrica, en que la especialización cinegética no comienza hasta el Solutrense, para continuar en el Magdaleniense.

2. Que se da sobre grandes Bovinos (bisonte y uro), cuando lo normal es que se dé sobre el ciervo o sobre la cabra montés, según el biotopo en el que se encuentra el yacimiento.

Deigarria da barrunbeko VI. mailaren eta haitzulo bereko sarrerako eremuan, askoz ere gutxiago izan arren, Noailles zulakaitzak eskaini dituzten Va, IV. eta III. mailen arteko aldea. Guztiak dira Gravette aldikoak. Baina sarrerako Gravette aldiak, garai honen hasierakoa eta bukaerakoak dira. Barrungoa berriz, erdikoa.

5. kapituluaren argazkietan eta zenbaketa-tauletan adierazten dira Ungulatuen materialetan hautemandako jatorri antropikoko hausturak eta era askotako ebakiak.

Urri dira haragijaleak, baina horien artean aipagarriak dira, Kantauri aldeko faunan gutxi direlako, *Alopex lagopus* (VI. eta V. mailetan) eta *Cuon alpinus* (VI. eta III-II mailetan) espezieak.

Sorta txikia osatzen duten arren, aniztasun handia erakusten dute **hegaztiekin**.

Antza berezko heriotza dago laginaren jatorrian, bereziki korbido batzuek, belatz gorriak eta usoren batek ordezkaturako harkaitzetako/haitzuloetako espezieen kasuetan. Bestalde, bada harkaitzetakoa ez den hegazti-faunaren aztarnarik; segurasko hegazti harrapariak bezalako harrapariak ekarriak dira. Multzoak klima zorrotzagoa adierazten du Gravette aldiko mailetan, III-II mailak klima epelxeagoa salatzen duen bitartean.

Arrainak. Kopuru aldetik oso lagin urria da, Salmo espeziearen 7 orno baizik ez. Guztiak azaldu ziren VI. mailan. Tamainaz askotarikoak dira, 10 cm-ra iristen ez diren arrainak iradokitzen dituzten bi orno daude, baina bada 70 cm baino luzeagoa zen banako bat salatzen duen beste orno bat. Beste lau ornoak 20 eta 45 cm bitarte luze izango ziren banakoei dagozkie. Hortaz, bitariko jatorria luke asoziazioak, baina, itxura guztien arabera, bigarren mailako elementua litzateke arrantza-jardueran arrainen deposituen sorreran.

Aitzbitarte III haitzuloan induskaturako bi eremuetako **sekuentziak** adierazten digu gutxiago erabili zutela haitzuloaren barrunbea ia maila guztietan, Gravette aldi amaieran izan ezik, orduan balio handiagoa eman baitzioten barrunbeari. Agian sekuentzia bikoitz osoan klima hotzera bizi izan zen aldia zelako erabili zuten barrunbea gehiago.

Beste datu interesgarri bat da Aitzbitarte III eta IV haitzuloetako mailen arteko konparazioa, IV haitzuloa III haitzuloaren gainean baitago metro gutxi batzuetara. IV haitzuloan garrantzi handia dute Solutre, Madeleine eta Azil aldiko mailek. Aitzitik, haitzulo horretan ez zen Noailles zulakaitz bakar bat ere azaldu, III haitzuloan 1.600dik gora diren bitartean. Bestalde, Aitzbitarte IV haitzuloko mailetan oreinek eta sarriok osatzen dute animalia-jatorriko elikagaien oinarria (biak batera hartuta, Ungulatuen % 80 inguru dira maila desberdinetan), eta bobido handiek % 8ko proportziora ere ez dira iristen maila horietako bakar batean.

Argi dago Gravette aldi amaierako biztanleek bazter utzi zutela Aitzbitarte IV haitzuloa, eta argi dago Paleolito aro amaierako biztanleek beste horrenbeste egin zutela Aitzbitarte III haitzuloarekin.

Llama la atención la diferencia entre este nivel VI del interior y los niveles Va, IV y III de la entrada de la misma cueva, que son los que han proporcionado buriles de Noailles, bien es verdad que en muchísimo menor porcentaje. Todos ellos son Gravetienses, pero los de la entrada muestran las fases ínicas y finales del Gravetiense, mientras que los niveles VI y V del interior pertenecen al Gravetiense Medio.

En el capítulo 5 se muestra una serie de fotografías y tablas de recuento, las roturas e incisiones varias de origen antrópico presentes en el material de Ungulados.

Hay una débil representación de Carnívoros, entre los que destacan, por su rareza entre las faunas cantábricas, *Alopex lagopus* (en los niveles VI y V) y *Cuon alpinus* (en los VI y III-II).

Las Aves, siendo un conjunto reducido, muestran una gran diversidad.

El origen de la muestra parece ser de mortandad natural, en especial en el caso de las especies rupícolas/cavernícolas, representadas por algunos córvidos, el cernícalo y alguna de las palomas. Por otro lado hay avifauna ajena al conjunto rupícola, introducida probablemente por depredadores tales como rapaces. El conjunto marca un clima más riguroso en los niveles Gravetienses, que se dulcifica algo en el nivel III-II.

Los Peces. Se trata de una muestra muy reducida, consistente en 7 vértebras de *Salmo*. Todas ellas pertenecen al nivel VI. El tamaño de los mismos varía, desde dos vértebras que indican individuos de longitud menor a 10 cm. a otra que indica un individuo superior a los 70 cm de longitud. Las otras cuatro vértebras pertenecen a individuos entre 20 y 45 cm de longitud. Se apunta así a un origen mixto de la asociación, donde la actividad pesquera parece haber sido un elemento secundario en la génesis de los depósitos de peces.

La secuencia de las dos zonas excavadas en la cueva de Aitzbitarte III indica una menor utilización de la zona profunda en la mayor parte de los niveles, salvo en el caso del Gravetiense medio, donde la parte profunda adquiere más importancia. Puede ello ser debido a que es la época climatológicamente más fría de toda la doble secuencia.

Otro dato de interés es el de la comparación de los niveles de Aitzbitarte III y IV, siendo así que la cueva IV está encima de la III a unos pocos metros de distancia. En la IV los niveles Solutrenses, Magdalenienses y Azilienses tienen gran importancia. En cambio no apareció un solo buril de Noailles, siendo así que en la cueva III hay más de 1.600. Por otro lado la base de alimentación de origen animal en los diversos niveles de la cueva IV la constituyen el ciervo y el sarrio (el conjunto de ambos ronda en torno al 80 % de los Ungulados en los diversos niveles), siendo así que los grandes bovinos en ninguno de estos niveles alcanzan el 8 %.

Está claro que a los habitantes del Gravetiense no les interesó la cueva IV y a la inversa a los del Paleolítico final no les interesó la III.

EUSKAL KULTURA ONDARE BILDUMA
COLECCIÓN DE PATRIMONIO CULTURAL VASCO

1. Erromatarren Garaiko Zeramika Arrunta Euskal Herrian
La Cerámica Común de Época Romana en el País Vasco
2. Erdi Aroko Zeramika Euskal Herrian (VIII.-XIII. mendeak)
La Cerámica Medieval en el País Vasco (siglos VIII-XIII)
3. Erdi Aroko Eraikuntza Teknikak
Técnicas Constructivas Medievales
4. Erdi Aroko Hiri Baten Sorrera
Génesis de una Villa Medieval
5. Aitzbitarte III (Euskal Herria) Giza Aztarnak
33.600-18.400 BP (Sarrerako eremua)
Ocupaciones Humanas en Aitzbitarte III (País Vasco)
33.600-18.400 BP (Zona de entrada a la cueva)
6. Euskadiko Industria Ondarea
Patrimonio Industrial en el País Vasco
7. Madril-Irun Lineako Telegrafia Optikoko dorreak Euskal
Autonomia Erkidegoan barrena (1846-1855)
Las torres de Telegrafía Óptica de la Línea Madrid-Irun
a través de la Comunidad Autónoma Vasca
8. Aitzbitarte III (Euskal Herria) Giza Aztarnak
26.000 - 13.000 Bp (Barrunbea)
Ocupaciones Humanas en Aitzbitarte III (País Vasco)
26.000 - 13.000 Bp (Zona Profunda de la cueva)

EUSKAL KULTURA ONDAREAren ZENTROAaren argitalpena
Es una publicación del CENTRO DE PATRIMONIO CULTURAL VASCO



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA